

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

BERASTEGI

3 Eraldakuntzaren gurpilean



PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

BERASTEGI

3 Eraldakuntzaren gurpilean

Utriusque Vasconiae

Liburu honek Berastegiko Udalaren laguntza jaso du

© Paulo Iztueta Armendariz

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2010eko Urria

ISBN: 978-84-937658-6-6

Lege-gordailua:

Azaleko irudia: Lobo Altuna

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Iparraldean: 0033547640386

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa)

Tel.: 948-302239

Inprimatzea eta koadernotzea: Monte Carmelo. Apdo.19.

09080 Burgos

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektualaren duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

Eskaintza

Erredionen munduratu ninduten
Fermin eta Madalen gurasoei,
eskerronez eta oroitzapen ahantzezinez.

AURKIBIDEA

Hitz bi	11
---------------	----

LURRETIK HAZI ETA BIZI

I. Bizimodu tradizionala	15
II. Leitzarango ondasunak eta lanbideak	31
1. Burdingintzaren tradizioa	33
2. Haranaren eraketa geomorfologikoa eta meatzen erauzketa	36
3. Meatokiak	37
3.1. Plazaolakoa	41
3.2. Bizkotzekoa	41
3.3. Mustarberrikoa	50
3.4. Altzegikoa	51
3.5. Urdanbidekoa/ Tolosominakoa	52
3.6. Olizarkoa	53
3.7. Lorditzekoa 3	54
3.8. Nordeizakoa	55
3.9. Oringoa	55
3.10. Meatzaberrietakoa 2	56
3.11. Urkiegikoa/Dortoategikoa	57
4. Meatzarien penak	57
5. Meatzeak ustiatzeko legeria	59
6. Burdinolen kopurua Gipuzkoan	61

7. Burdinolak Leitzararen	64
7.1. Mendietatik ibai-ertzera	64
7.2. Kokapena eta kopurua	69
7.2.1. Plazaolakoa	71
7.2.2. Mustarrekoa	77
7.2.3. Ameraungoa	80
7.2.4. Beriñaskoa	85
7.2.5. Ollokiegikoa	87
7.2.6. Inturiakoa	90
8. Budinoletako langileak	94
9. Burdinolen jabetza	95
10. Zentral hidroelektrikoak	98
11. Aintzergako teileria	100
12. San Lorentzo larreko harlauzak	101
III. Berastegiko errota	103
1. Ollokoko errota	107
2. Arrateko errota	109
2.1. Arrateko errotaundia	110
2.2. Arrateko erroatxikia	112
3. Arrosiko errota	114
4. Gerrate osteko erroten gainbehera	120
IV. Saroiak eta megalitoak	125

KOMUNIKABIDEEN SAREA ZABALTZEN

V. Errepideak: mandabidetik autobia	137
1. Iruñea eta Tolosa arteko mandabideak	
Erdi Aroan (XIII-XVII)	139
2. Zalgurdien eraikuntzak eta errepideak	
(XVIII)	153

2.1. Zalgurdien iraultza: kotxeak eta automobilak	155
2.2. Salgaien garraioa eta zergak	157
3. Eskualde-errepideen garaia: Tolosatik Urtora (XIX)	163
4. Macadanezko eta asfaltozko errepideak (XX)	166
5. Tolosatik Berastegirako garraio-zerbitzua .	168
6. Leitzarango autobia	169

VI. Plazaolako trenbidea, zibilizazioren mezu- laria Leitzaranean eta Larraungo bailaran ...	171
1. Lehen aldia (1904-1912)	172
2. Bigarren aldia (1912-1926)	174
3. Azken aldia (1926-1953)	176

GIZARTE-ERALDAKUNTZAREN BIDETIK

VII. Berastegiren egitura sozioekonomiko berria	181
1. Biztanleriaren eboluzioa	181
2. Gipuzkoaren eboluzioa nekazaritzatik industriara	187
3. Berastegi, nekazal herri	196
4. Berastegiko baserri-goera zifratan (1955-1962)	200
5. Berastegi, industri eta zerbitzu-herri (1989)	209
5.1. Lurren edukitza-erregimena	210
5.2. Nekazal ustiategien azalera	212
5.3. Biztanleriaren jarduera ekonomikoa ..	214
5.4. Landunen sektore-jardunak	215
6. Etxebizitzak eta familiak	220

VIII. Autonomi Aroko udal-ekimenak	
hirigintzan	225
1. Udalbatzaren osaketak	226
2. Irakaskuntza: Gaztañondoko eskolatik “Jose Antonio Muñagorri” herri-ikastetxera	230
3. Aisia: Larteko pilotalekutik “Ipuliño” frontoira	264
4. Gizarte-zerbitzuak: Gaztañondoko Jubila- tuen Elkartea eta Eguneko Zentroa	277
4.1. Jubilatuen Elkartea	277
4.2. Eguneko Zentroa	280
5. Asmo berriak: Udaletxea eta plazagunea berritzeko proiektua bidean	282
IX. Etorkizunari begira	287
Oharrak	289
Bibliografia	303
Taula eta grafikoak	321

HITZ BI

Berastegi herria hiritartzen eta gatazkak gainditzen etorri den heinean, nola etorri den eraldatzen ikusten da azken liburu honetan. Berastegi herriak ohiko lanbide-mota gehienak ezagutu ditu: artzaintza, nekazaritza, burdingintza. Ia oraintsu arte bizibidez nekazal izana, egun industria eta zerbitzuen sektoretik bizi den herria dugu.

Gizarte-bilakaera hori nola eman den eta noranzko bidean goazen aztertzen da liburu honetan, gaia gehienbat ikuspegi soziohistorikotik begiratuta. Arreta berezia jarri dugu Leitzarango lanbideei eta komunikabideei eskainitako atalak lantzen, herriaren bizitzan izan duten garrantziagatik.

Azken ataletan, orobat, oso hurbiletik jarraitzen da nola utzi dion Berastegik nekazal herri izateari eta nola bilatzen duen bere lanbidea herritik kanpora, eta ahalegin honetan taula estatistikoak izan ditugu oinarri.

Lursailak betiko lekuan daude, baserriak ere bai, baina horien erabilera ez da lehengoa. Berastegi bizibidez eta paisajez aldatu da. Eraldakuntza da bizirik segitu nahi duen herri baten destinoa.

Paulo Iztueta Armendariz

LURRETIK HAZI ETA BIZI

I

BIZIMODU TRADIZIONALA

Egia esan, lehen mende horietan (XI-XIV) berastegiarrak nola bizi ziren jakiteko zuzeneko daturik ez dugunez, ezin esan gauza handirik. Nafarroa Beheretik Garaira bitarteko mendi-kate horretan garai hartako euskaldunak nola bizi ziren zertxobait jakinda, irudika dezakegu, zeharka bederen, berastegiarren bizimodua nolakoa izan zitekeen.

XII. mende-hasieran agertzen dira mendietako euskaldunen bizimodu eta ohiturez argitasun batzuk ematen dituzten lehen dokumentuak. Hauek, ez bertakoek, baizik atzerritarrek –Hugo Oporto eta Bosioko gotzainek 1120an, eta Aumeric Picaud frantsesak 1140an–, egindakoak dira, eta Iparraldetik Donejakuerako bidean Pirinioetako mendiak zeharkatzean ikusi zutena kontatzen dute. Baina oso beren modura, jende basatiaren irudia ematen baitigute. Ez dute ezer onik. Edozein alderditatik begiratzen dela ere, barbaro hutsak dira. Hizkuntza ulertezina dute, ohitura basak dituzte, jantziak ere bereziak, beren genitalak erakustez ez dira lotsatzen, hirien berririk ez dute, pobreak

dira eta sagastiak baino ez dituzte, leku bakartietan bizi dira eta handik pasatzen diren bisitariei erasotzen die. Pirinioez bestaldean, Iruñerako bidean sartzean, han bai lur oparoa eta emari aberatsak: mahastiak, zerealak. “Saltus”ean, mendi aldean, pobrezia da nagusi; “ager”ean, landetan, aldiz, aberastasuna. Mendiak ez du oparotasuna erditzen, miseria baino. Horra, labur-labur, gure bisitariek Pirinioetako alde bietan ikusi zutena.

Eta hango parajetik hain urruti ez dagoen Berastegiko haranean, zer? Mendietako jende hura, Bizkaia eta Gipuzkoan bederen, auzo txikietan bizi zen, gehienez ere 4 eta 10 bitarteko etxe-multzoz osatutako auzoetan. Auzo hauek ziren hasierako populatze-guneak, eta horiek, aldi berean, zirkunskripzio zabalago batzuen barruan sartuta zeuden, haranetan, hain zuzen. Populatze-gune txiki hauei Gipuzkoan unibertsitateak deitzen zitzairen. Berastegiri ere halaxe. Deitura juridiko horren pareko ziren Araban koadrilak eta Bizkaian merindadeak.

Orografia izaten da bertako jendearen bizimodua arautu eta baldintzen duena. Berastegiko harana, leku heze, oihantsu eta menditsua izaki, haien bizimodua artzaintzan eta abelazkuntzan oinarrituko zen gehienbat, ez hainbeste lurgintzan. Baso asko, lur batzuk landuta, nonahitik mendiz inguratuta. Hori izango zen begiei irekitzen zitzairen parajearen ikuskizuna.

Jende gutxi bizi zen. Eta hura etxebizitza egonkorretan bizi ote zen? Litekeena. Eta baiezkoan, noski, egurrezko txabola moduko batzuetan biziko zen. Berastegiko haran hartan baliteke gaur izen horrekin ezagutzen dugun herri hau orduko populazio-gunerik garrantzitsuena izatea. Haran hori maila ekonomiko eta politikoan leinu edo klan baten

agindupekoa izango zen –Berastegin bertan aspaldikoa da jauntxoaren leinua–, eta horrek kontrolatuko zuen Leitزارango harana, Berastegikoa eta, seguru asko, baita Araxes ibai-koa ere. Badira esaten dutenak, horien artean J. L. Banús¹, Berastegi eta Amasako unibertsitateek Oriako arroaren eskuinaldea besarkatzen zutela. Badu honek bere zentzua baldin kontuan hartzen bada, batetik, XIX. mendera arte Berastegi eta Elduain herriek beren lurrak batera izan zituztela eta, bestetik, Eldua egun Berastegiko auzoa dela, nahiz lekuz aldentuta egon, tartean Elduain dagoela. Ez da zentzugabea pentsatzea hiru leku horiek garai batean elkaturik egon zirela eta hiruek, geroago ikusiko denez, Berastegiko jauntxoari ordainduko zizkiotela izaera feudaleko sariak edo prestazioak. Honek pentsatzera eramaten gaitu aspaldiko garai haietan, XI. eta XII. mendeetan, haran bezala agertzen den lurralde hark –gaurkoa baino zabalagoa besarkatzen zuen hark–, jauntxo-leinu baten menpe zegoen batasun organiko bat osatuko zuela (Carrion Arregui, 1975, 59-60).

Oraindik XII. mendean mundu zibilizatutik at bizi den Gipuzkoak, ordea, XIV. mendetik aurrera sekulako aldaketa jotzen du, mende horretan sortu eta garatzen direlako gaurko herri handi gehienak: Santa Kruz de Salbatierra (Azpeitia, 1310); Oiartzun (Erreterria, 1320); San Martin Iraurgi (Azkoitia, 1324); Leintz Gatzaga (1331); Elgeta (335); Deba (1343) Soraluze (1343); Eibar eta Elgoibar (1346); Zumaia (1347); Orio (1379); Hernani (1380); Urretxu eta Zestoa (1383). Hiri hauek XIV. mendean hartzen duten garrantzia hain da handia, ezen Gipuzkoak ia lurralde osoa, Saiaz, Aiztondo eta Arieriako Udalerriak salbu, hirien jurisdikziopean aurkitzen baita (Arizaga

Bolumburu, 1994, 65-80). Berastegi ere bai, Tolosaren babesean. Badakigu zergatik: muga-herri izaki, herritarrek bertakoen eta auzo-herrien erasoak jasaten zituztelako. Geroago azalduko dugu nolakoa izan zen berastegiaren bizimodua Berant Erdi Arotik Aro Modernora artekoa, hau da, bere hiri-titulua 1615ean lortu zuen artekoa. Bertako jauntxoekin auzitan, berdin Tolosako Udal babeslearekin ere.

Baina gatozen XIV. mendera, ordukoak baitira Berastegiko lehen baserri-izenak. Aurreko atalean ikusita, gutxiasko badakigu zenbat etxe izan diren eraikiak eta noiz. Baina datu barreiatu horiek, horrela bere biluztasunean emanda, ez digute erakusten herritarrak nola joan ziren hiritartzen, baserriak nolakoak ziren eta nolako bizimodua eramaten zuten, garaian garaiko etxe edo baserri horien eboluzioa zein testuinguru soziohistorikotan eman zen. Eta abar. Berastegi baino areagoko testuinguru geografiko batean, zehazki Gipuzkoan, baserrien eboluzio soziohistorikoa nolakoa izan den begiratzuz gero, agian hobeto asmatuko dugu Berastegiko baserritarrena ere nolakoa izan zitekeen Erdi Arotik hasi eta Aro Garaikidean sartu arte, nekazal gizartean herri batetik bestera egon zitezkeen aldaketak edo egoera bereziak ez baitziren hain desberdinak izango eta bai oso antzekoak.

Horregatik, Berastegi herrian bezala Gipuzkoako beste edozeinetan, hasierako baserritar haiek nola bizi ote ziren eta nola antolatuak ote zeuden galdetzea da lehen-lehenik bururatzeko zaiguna. Nolakoak ote ziren haien etxeak, non kokatuak ote zeuden, non gordetzen ote zituzten beren uztak? Galdera hauen erantzuna historian begiratzen bada, esan liteke Euskal Herriko baserrien jatorria Erdi Aroko

azken mendeetan aurkitzen dela. Dauzkagun informazio-iturriak oraindik mugatuak badira ere –lauso samarrak lehen garaikoak, batez ere–, Gipuzkoako baserrien bizi-aroak sailkatu ezinik ez dago. Data jakin batzuk dituzte eta, ondorioz, ezin daiteke hitz egin, mitoetan ez bada, sorrerako baserri bati buruz. Kontua da, beti ere, zein zentzutan ulertzen den baserria, honen esanahia iluna baita. Baserria zentzu ekonomikorik zabalenean ulertzen bada, mendiko abelazkuntzako gizarte batean kokatutako eta famili ekoizpenean oinarritutako gune bezala, esan daiteke XII. eta XIII. mendeetan eratutako erakunde bat dela. Aldiz, zentzu hertsia goan hartzen bada, erakin-mota jakin bat bezala –nortasun berezia duen arkitektura-eredu bat bezala, alegia–, baserriak bostehun urte baino gehiago ez ditu. XV. mendeko azken hamarkadan ehunka baserri zeuden eraikiak eta horiek dira zaharrenak. Nolanahi ere, orokorrean, Euskal Herriko baserri gehienak XVI. eta XX. mendeetan eraikiak izan dira.

Lehen baserri-izenak Berastegin, ikusia daukagunez, XIV. mende-hasieran dokumentatzen dira eta, seguru asko, aurreko mendean edo lehenago eraikiak izango ziren. Aipatutako lehen baserriak Ariztunugalde auzoan kokatzen badira ere, litekeena da hiri-antolaketaren sorrera eta hedakuntza herriaren erdigunetik abiatzea, egun San Martin parroki eliza eta Jaundegi oinetxea aurkitzen diren lekutik, hain zuzen, hauek baitira mende horretan lehenik aipatzen direnak.

Ez dakigu, ordea, XIV. mendeko etxe edo baserri haiek nolakoak ziren, zein arkitektura-ereduari jarraitzen zioten. Seguru asko, XV. mende-bukaeratik aurrera eraikitzen hasi zirenen aldean, ahulagoak eta deserosoak izango ziren. Egurrezko txabolak, baina ez enborrez jasotakoak, zutoinez

egindakoak baizik, kanpoko lau hormak oholez bertikalean josita. Teilatuak, berriz, buztin gorritz eskuz kanal-erara egindako teilaz egindakoak izaten ziren. Txabola hauek, noski, oraingo baserrien aldean askoz ere txikiagoak ziren, baina haietan ere baziren leku bereziak familiarentzat zein ganaduentzat, berdin hauentzako jatenak edukitzeko ere. Baina txabolaz aparte aurkitzen ziren, eraikin berezietan bananduta, dolarea, aletegiak, zerritegia eta artegiak. Hasierrako baserri zahar haietan, eraikinaren % 20 baino ez zen izaten etxebizitzarako, gainerako espazioa, hedatuena, beste zereginetarako erabiltzen zelako. Bestalde, bertan bizi zen famili unitatea aitona-amonek, gurasoek eta seme-alabek osatzen zuten eta hiru belaunaldikoak leku berean bizi eta lotaratzen ziren. Baserria famili ekonomia autosufizientean oinarriturik zegoen, bertan ekoiztua bertan kontsumituz. XIV. mendeko Berastegi guztian, harrizko eraikin bakarrak bi izango ziren seguru asko: ermita antzeko eliza eta herriko jauntxoaren jauregia, Jaundegi deitua.

Nolanahi ere, Berastegiri buruzko XIV. mendeko datuek, zuzenean ez baina bai zeharbidez, hainbat gauza erakusten dizkigute.

Lehenik, jadanik XIV. menderako –eta seguru asko, aurreko mendeetan ere bai, noiztik ez dakigun arren–, Berastegi herria jendeztatua zegoela edo, zehatzago esanda, bertako baserriarrak gizarte-antolaketaren aldetik oinarritzko zirkulu bezala auzoetan antolatzen hasita zeudela eta, haraneko beste herrien antzera, berak ere bazuela bere herri-nortasun juridikoa, autonomia. Beren nortasun juridiko osoaren jabe zirelako, hain zuzen, kudeatu eta mugarritu zituzten hainbat mendez Elduainek eta Berastegik beren herri-lurrak.

Bigarrenik, askotan pentsatzen da egun ere zutik dau- den baserri batzuen izenak antzinako dokumentuetan agertzen direlako, haiek direla oraingo herriko zaharrenak. Oker galanta, zeren lehen mende horietako baserri haiek egun ere izen bera badaramate ere, oraingo hauek ez bide baitzuten jatorrizko haien inolako antzik izango; haiek, bistakoa denez, egurrezko txabola baten antzekoak ziren. Nola jakin liteke, adibidez, Jaundegi dorretxea egin omen zuen Domingo hura ez egungoa baizik jatorrizko Sagastibe- rria baserrikoa zela? Herriko gaur egungo baserrien antzina- tasunez ari garenean, urrutiena joanda ere, ez gindoazke XVII. mendea baino askoz harago. Baserri-izen dokumen- tatuak, ikusi bezala, aspaldikoak dira, baina ez horrela izen bera daramaten gaurko zahar berriak, edo berreginak.

Gipuzkoako baserrien eboluzio soziohistoriko eta arki- tektonikoan jauzi kualitatiboa eman, ordea, XV. mendetik aurrera ematen da. Zer-nolako gizarte-aldaketak gertatu ote ziren bi mende horietan goranzko bilakaera hori gerta zedin? Nolakoak ote genituen orduko baserriak? Galdera hauei erantzutea ez da erraza, aurreko mendeetan eraiki zirenekin gertatzen den bezala, mende hauetan eraikitakoak ez baitaude egun zutik, ez lehengo berberak bederen, nahiz eta izen bera daramaten. Baina Gipuzkoako beste herrietan epe horretan eraiki zirenak nolakoak izan ziren jakinez gero, errazago egiten da gure Berastegikoak ere nolakoak izango ziren irudikatzea. Era berean, mende horietan zer-nolako gizarte-aldaketa ematen den jakinda, errazagoa ulertuko da Berastegin emandakoa ere. Honela, herri-hiritartzearen eboluzioan hobeto uztartuta ikusi ahal izango ditugu base- rriaren alderdi biak, arkitektura-aldaketa gizarte-aldaketa orokorrago bati lotuz, alegia.

XV. mendearen hasierarekin batera, aldaketa nabarmenak eman ziren nekazal gizartean, nola baserri-arkitekturaren hala abelazkuntzako ustiapenaren aldetik begiratuta. Gipuzkoako harrizko lehen baserriak XV. menden hasi ziren eraikitzen eta lehenengoek berebiziko mirespena sortu zuten herritarren artean. Horrelako baserriak egiteko harria eta harginak behar ziren eta horiei ordaintzeko aski diru nekazari aberatsek baino ez bide zuten. Haritzezko zura, aldiz, merkeagoa zen eta egurrezko baserriak egitea errazago gertatzen zitzaien nekazari pobreagoei. Izan ere, Udalarenak ziren basoetako zuhaitz guztiak debalde zituzten herritarrek etxebizitzak egiteko. Baserriaren egitura osoa egurrezkoa izateak ez du adierazten, bada, haren antzintasuna, baserritarren arteko klasearteko desberdintasuna baizik, aberatsen eta pobreen artekoa. Bereizketa hau garbi egin behar da, askotan zurezkoa izatea antzintasunarekin berdindu izan baita.

Beren hormak harriz eginda dauzkaten etxeak ugaltzen hasi XV. mende-bukaeran hasten badira ere, egun ezagutzen fugun baserri-tipologiaren egiazko sorrera eman, XVI. mendearen lehen erdian ematen da Gipuzkoan. Lehengo txabola zaharrak desegin eta etxebizitza berriak –hauek handiagoak, duinagoak eta iraunkorragoak–, kolpean bezala eraiki baitziren, milaka eraiki ere. Aurreko eraikin kalamestra haietatik banaka batzuk baino ez dira geratuko zutik.

Noski, ordura arteko baldintza gogor horiek asko arintzen dira baserri berrien eraikuntzan ematen den arkitektura-aldaketarekin. Baserriko bizimodua, bere nekezian, eramangarriagoa egingo da. Eraikin-hormetan zuretik harrira emandako aldaketez gain, barne-espazioaren antolaketan etxebizitzarako, ganaduentzako eta laboreak

gordetzeko lekuak garbiki bereizten dira eta honek, baserri-tipologiari dagokionez, jauzi kualitatiboa suposatzen du. Beren nortasun arkitektonikoa hartzen dute, berezia. Baserri bakoitzak bi solairu bederen baditu, behekoa familiarentzat eta aziendarentzat eta goikoa uzta gordetzeko, ganbaran. Barne-espazio zabalak dituzte eta ondo antolatuta daude, bakoitzak betetzen duen zereginaren arabera: sukaldea, logelak, ukuilua, ganbara, etab. Etxebizitzaren bihotza, sukaldea izango da, egunean denborarik gehien bertan ematen delako. Familiaren ahozko tradizio-transmisioa ere bertan emango da belaunaldiz belaunaldi. Beraz, orduko baserri-eredurik ez bada ere, pentsa dezakegu Berastegin mende horietan eraikitako baserriak bi eratakoak izango zirela: aberatsenak, harrizkoak; pobreenak, aldiz, egurrezkoak, edo, bi materialak nahastuz, eraikin-zati batzuk harrizkoak eta beste batzuk egurrezkoak. Baina hori egiazta dezakeen eraikinik ez da.

Derrepentean bezala gertatzen den aldaketa hori, ordea, ez da hutsetik sortzen, XVI. mendeko Gipuzkoako nekazal gizartean bertan eraldakuntza handiak ematen direlako baizik. Berastegin bertako etxe-kopuruen hazkunderan nabarmentzen da ondoen aldaketa hori, 1536ko dokumentuan 42ko kopurua ematen baita. Badirudi hemengo harenetan garai horretan gehien lantzen ziren fruta-arbolak eta zerealak, sagarrondoak eta garia zirela. Hala erakusten du garbiki orduko etxebizitzaren arkitekturak. Baserri asko ziren beren dolarea zutenak eta uda-bukaeran bertan bildutako sagarrarekin upelak betetzen zituztenak. Zalan-tzarik ez da Berastegin bazela halako baserririk, eliz ondoko Tolaretxea baserriak ederki asko salatzen duen bezala. Berastegiko jauntxoek zituzten ondasunen zerrendan, XVI.

mendeko maiorazko-eskrituran eta auzietan errotak eta dolareak aipatzen direnez, pentsa dezakegu oraingo baserri hau dolarea zeukan jatorrizkoaren gainean, hura botata, eraikiko zutela, gero bi etxebizitzatan zatitu zena. Eta Berastegin, gerora ere, dolarearen tradizio horrek jarraitu egiten du. Lizarraga, adibidez, dolare eder baten jabe zen, eta da oraindik, bere osotasunean gordetzen baita. Izo-tzaldeko Sagastiberria eta Arbidek ere badituzte.

Baina aberastasunaren neurri-unitatea izan, garia zen eta zenbait baserrik –indartsuenek, noski–, beren aletegiak eraikitzen zituzten etxe-atarian beren aberastasunaren adierazle gisa. Horrelako adibideak, batez ere, Bergaran eta Debako arroan aurkitzen dira. Berastegiko haran zabalak eman zezakeen gari-uzta bikaina jasotzeko bide eta baliteke han ere horrelako aletegiak zituzten baserriren bat edo beste izatea. Ez jakin. Gari-soroak lantzeari Berastegin 1960ko hamarkadan utzi zitzaion, 1963n hain zuzen (Salbarredi, 2004, 12-13), eta egun herdoilduta gordetzen dira igitaiak baserriko zokoren batean.

Seguru asko, XVI. mendea izan da Gipuzkoako baserri-bizitzako garairik zoriontsuena. Lurraren jabetza nahikoa ondo banatua zegoen eta nekazariak ekonomi hazkunde hedakor baten emaitzak jasotzen zituzten. Egia da, klima, lurzorua tipologia eta lurraldearen orografia zaila, hiru faktoreak ez zirela egokienak zereala lantzeko, baina baserri-familiaren etenik gabeko ahalegin saiatuak bizirik segitzeko adina etekin ateratzen zion bere lursailari. Merkatuan sagardo, gaztaina, haragia, behi-adarrak eta larrua salduz osatzen zituzten beren sarrerak. Honela, lehengo txabola zaharkituen lekuan, orain arkuez eta egurrezko taila artistikoez edertutako baserri handiagoak ikus daitezke,

lanean gogor baina egoera erosoago eta duinago batean biziz. Zalantzarik ez da, baserri-arkitekturaren ematen den errotiko aldaketarekin batera, baserritarrek ere bizimodu berria ezagutzen dutela, erosoagoa etxebizitzaren aldetik eta oparagoa abelazkuntzaren aldetik.

Alabaina, XVI. mende-hasierako oparotasun-egoera horrek ez zuen luzaro iraun, zeren mende horren bukaeran Gipuzkoako ekonomi sektore aktiboan krisi zorrotzean sartu baitziren, bereziki kostaldeko portuetan, Gaztelako gari eta artilearen nazioarteko merkataritzak eta Ternuako arrantza-negozioak behera egin zutenean. Beheraldi horrekin batera, itsasoko jarduerari begira lan egiten zuten beste industri sektoreek ere -hauen artean ontzigintzak, hirietako artisautzak eta burdinolek-, behera egin zuten. Eta 1598ko izurriteak, berriz, krisia oraindik gehiago areagotu zuen. Egoera berri honek, ondorioz, Gipuzkoako gizartea berehala nekazaritza-produkzioan murgiltzea ekarriko du. Aberratek baserrietan inbertitzen dituzte beren diruak ondasun haietan ikusten zutelako irabazirik ziurrena; pobreek, aldiz, lan bila baserrira jo zuten, beste inon ez-eta, bizi ahal izateko. Gizarte-giro etsi honetan bizi izan ziren, zelaietan baserritarrak eta mendietan barreiatuta ikazkinak, olagizonak, artzainak eta mandazainak, guztiak elkarren ondoan lanean. Egoera honen adibideak ederki asko agertuko dira Leitzarango burdingintzari loturiko lanbideetan, hango meatokietan, burdinoletan eta ikazkintzan. Ekonomi testuinguru honetan biziko ziren, bada, 1548ko dokumentuan aipatzen diren Berastegiko herritarrak ere. Gehienak nekazaritzan, lurra baitzen haien bizi-emari nagusia.

Lantzen ziren zerealak eta ereiteko lursail egokiak ez baitziren aski guztientzat jaten emateko, ezin-biziaren mugan

zegoen gizarte-egoera horretan zerutik mana gozoa bezala etorri zen Ameriketatik artoa XVII. mende-hasieran, zorionez etorri ere, honen uzta, gariaren aldean, hiru aldiz handiagoa baitzen eta leku malkartsu eta umeletan ere landu baitzitekeen. Honen ereintzak berriro erabat aldatuko ditu baserritarren bizitza eta ohiturak. Lurjabe handiek berehala ikusi zuten ale hori landu gabe zeuzkaten lursailetan landatuz gero etekin soberakinak lor zitzaketela, haietan baserri berriak eraiki eta errentan eskainiz. Bestalde, atzerri-rako bidea hartzera kondenatuak zeuden baserri-jatorriko bigarrenengo senideek, beren laiak hartuta, ordura arte baso, belaze eta otadi izandakoak labakitzeari ekin zioten. Eta ganaduak belardietan bazkatu ordez, ukuiluan zenbait hila-betez edukitzen hasi ziren, hezea –belarra, arbia eta abar–, bertara eramanez. Ganadu-jatekoa egunero egin beharra izaten zen.

Mende honetako Berastegiren populazioaz berri gutxi dugu, eta duguna, gainera, mugatua. Halaxe da lehen aipatu dugun Lope Martinez de Isastik 1626an dakarren 29ko etxe-kopuru hori. Antzinatean eta nobleziari loturiko handikien jatorrizko etxeak izateko, ez da kopuru txikia, halere.

Artoaren hazkondeak XVIII. mende-erdia arte iraun zuen eta haren etorrera mirakulutsuak inor gutxi aberastu bazuen ere, haren ereintza baliagarria gertatu zen familien ekonomi autosufizientziarako. Lurjabe nagusiak izango dira, hauek bakarrik, ahalik eta baserri gehien bereganatzen eta maiorazko-loturaren bidez ondorengotza-enberrari lotuta eusten ahaleginduko direnak eta, koiuntura honetan, beren ondasun higiezinak metatuko dituztenak.

Oparotasun-egoera erlatibo horrek eta honi jarraitzen dion nekazal gizarteko demografi hazkondeak baserritarren

irudi berri bat ekarri zuten, lehen aldiz ekarri ere: maizterrarena, hain zuzen. Zerk eraginda? Ordura arte, esana dugunez, baserri gehienak baserritarren jabetzakoak ziren lehen esandako zentzuan, askeak, alegia. Baserri bakoitzari famili unitate bakarra zegokion eta printzipio hori zehatz-mehatz aplikatu izan zen. Baina baserri bat baino gehiago zituzten lurjabe nagusi haiek, baserritarren bizkar oraindik etekin gehiago atera nahiak eraginda, lehen familia baka-rrekoa zen baserria zatitu eta bertan familia bat baino gehiago errentan jarriko dira bizitzen. Normalean zati ber-dinetan zatitzen dira, baserriak beren azalera-murrizketaren arabera biderkatuz. Noski, lurjabe nagusiak horrela joaten dira metatzen beren ondasunak maizterren irudi berriaren kontura, baserritar hauen miseria areagotuz.

Berastegin ere badira bi etxebizitzako baserriak, hala nola Arretxe, Tolaretxea, Martintxonea. Eta gehiago ere bai. Zatiketak noiz gertatu ziren, ez dakigu. Nolanahi ere, bitan edo gehiagotan zatitutako baserrien kasua ez da orokortu beharrekoa. Esan dugu XIX. mende-bukaeran Berastegin borda batzuk baserritar pobreen etxebizitza bihurtu zirela. Beraz, gure herrian, baserrien hazkundera bi eratara bidera-tzen da garai honetan: batetik, baserriak bitan zatituz eta, bestetik, borda zirenak etxebizitza bihurtuz. Kontua da jakitea lurjabe-nagusiek, edo etxalde-nagusiek, nola bere-tzen dituzten beste baserri batzuk. Berastegin, oraindik ez hain aspaldi ere, baserri bat baino gehiago zituzten etxal-deak dezente ziren.

Edozein kasutan ere, maizterren bizimodua ez zen ba-tere eroso. Artean ere garia baitzen alerik preziatuena, maizter hauek gari-anegatan ordaintzen zuten beren errenta eta nekazariak bi ereintza batera egitera behartuak zeuden:

artoarena, etxerako taloa egiteko, eta gariarena elizak eta maiorazkoek ezarritako zergeri erantzuteko. Eta egoera horrek gure garaiak arte bizirik iraungo du, XX. mende-erdia arte, alegia.

Beti esan izan da nekazarien bizimodua, hitzak berak dioen bezala, nekeza dela. Argitik argira beti ari eta sekula lanik ez bukatzen. Eta eskuetan diru gutxi. Baserriko bizimodua hurbiletik ezagutu duenak ondo daki erromantikotik oso gutxi duela, hala pintatu edo kantatu baldin badute ere, ate ondoan zakur txuri bat jarritz. Nekazal gizartea, gizarte zartatua izan da, eta da. Horregatik ari dira husten baserriak.

Hona arte baserriko bizimoduaren ingurumari halako deskribapen moduko bat egiten ahalegindu gara, Berastegikoa ere hor barruan sartuz, eskura izan ditugun datuen laguntzaz argituta. Klase-ikuspegitik begiratuta ere egin zitekeen, baina horretako material argigarri gehiago pilatu beharko litzateke, nonbait pilatzerik balitz, jakina. Guk dakigula, ez da egin Euskal Herriko nekazal gizarteko klase-mota desberdinez azterketa monografikorik. Gaia ukitzen dute, esate baterako, Otazuk, edo Fernández-ek, baina hauen azterketek orokorregiak izatearen muga dute.

Beti ere orokorrean predikatuz, badakigu, halere, Berant Erdi Aroan (XI-VI), Gipuzkoako nekazal gizartean bizi zirenek ez zutela talde homogeen bat osatzen. Garai hartan hiru gizarte-klase edo azpi-klase bederen bereiz zitezkeen. Talderik aberatsen eta indartsuena nagusi askeek –kapareak ere deitzen zitzaizkien–, osatzen zuten. Hauek beren lursailen jabetza osoa zuten eta ez zeukaten inori –ez errege ez beste jauntxo jakin bati–, ezein zergarik ordaindu beharrik. Bera zen talderik faboratuena. Bigarren taldea

osatzen zuten baserritarrak ere askeak ziren, baina neurri batean bakarrik. Hala ziren, beren baserriak modu autonomo batez kudeatzen zituztelako, baina ez erabat askeak, lantzen zituzten lursailak Koroarenak zirenez, erregeari zergak ordaintzera behartuak zeudelako. Gainera, ezin zuten inora joan, zerabiltzaten lursailak lantzeari utzita, beren ordezkoren bat jarri gabe. Erregerengandik urrun bizitzeak arinagoa egiten zuen beren menpekotasun-egoera, baina horrek berak lekuko jauntxoek erasopean erortzeko arriskua handitu egiten zuen. Bigarren maila honetakoak ziren baserritar gehienak, hirutik bi-edo. Gizarte-piramideko mailarik apalena oinetxeetako nekazari-morroiek osatzen zuten. Hauek askatasun pertsonalik gabe bizi ziren eta, zeuzkaten hainbat murriztapenen artean, ez zezaketen beren baserria berreraiki, ezta ezkondu ere zerbitzatzen zioten jaunari baimenik eskatu gabe. Beti beldurrez bizi ziren, lekuko jauntxoek noiz erasoko, hauek, nahiz gutxi izan, beren esanera gizon armatuak baitzeuzkaten jendea indarrez menpean edukitzeko. Barreiatuta edo auzoetatik aldenduta zeuden baserrietan, hauetan batez ere, jauntxotalde txiki armatuen lapurretak eta erasoak jasaten zituzten. Nekazari-morroiek lekuko jauntxo hauei zien beldurra beste inori baino gehiago. Hala gertatzen zen, zehazki dakigunez, Mendaron eta Oiartzunen. Egoera honek Erdi Aroko giroari erantzuten dio. Geroago, XVIII. mendean artoak nolabaiteko uzta oparoa dakarrenean, orduan sortuko da laugarren klasea, maizterrek eta bordariak osatzen dutena. Hauek nagusiari baserriaren ustiapena errentan hartuko diote eta ordainsaria espezetan edo dirutan eman-go. Baita, inoiz eskatuz gero, nagusiarentzat lanak eginez ere.

Eta orain galdera: Berastegiko nekazal gizartean aplikatzerik ba ote dago klase-tipologia hori? Mendeen joanean, behar bada ez lauak, baina bai ziurki horietako batzuk. Jaun edo baserritar askeak bazirela, 1548ko dokumentuan datoren 22ko etxalde-jabeen kopuruak frogatzen du. Berastegiko jauntxoen historia ezaguna bost mendez luzatzen baita XII. mendetik hasita eta, gainera, gatazkaz eta auziz betea baitago, inolako zalantzarik ez da bere zerbitzura zeuden nekazari-morroiak izan zituztela eta, herritarrekin izandako auziek frogatzen dutenez, nekazari askeak ere zergapetuak zeuzkala. Maizter eta bordarien klasea, berriz, aski ugaria zen, etxalde-buru asko baitziren bi eta gehiago zituztenak eta errentan emanda zeuzkatenak. Berastegin nagusien eta maizterren arteko klase-bereizketa garbiki eman izan da gizarteko maila guztietan, bereziki, sozioekonomiko, politiko eta kulturalen. Ezkontzetan, adibidez, ondo zaintzen zen bien arteko muga hori. Kargu publikoetan ere bai. Nekez ikusiko zen maizter bat udal-kargudunen artean. Bereizketa hori indarrean egon zen gerra ondorengo urteetan ere. Parrokiako ezkontza-liburuak egiaztatuko luke hori ongien.

II

LEITZARANGO ONDASUNAK ETA LANBIDEAK

Leitzarar ibaiak Leitzan sortzen da eta, Areso, Berastegi, Elduain, Billabona, Urnieta eta Andoaingo urak bildu eta 42 kilometroko ibilbidea egin ondoren, Orian isurtzen ditu Andoaingo partean. Bere ibilbidean zehar ibaiadar askotako urak biltzen ditu: eskuinetara Santolas, Matxingorri, Urriolondo, eta ezkerretara Altxoko, Gorrotola eta Ibarrola errekaok. Guztira 12. 402 hektareako azalera du, eta horietatik 6. 973 Gipuzkoari dagozkionak dira². Horiek osatzen dute “Leitzarango harana” deitzen zaiona. Gipuzkoa aldekoak ekialdetik Urumea ibairekin mugatzen du, eta Adarra-Mandoegi mendi-kateak osatzen du Urumea eta Leitzarar ibaietara doazen ur-isurialdeen banalerroa. Baina mendi-kate horretatik banatu egiten baita Alzadi, hauxe da, harenean barneratuz, Leitzarango alde nafarra eta gipuzkoarra banatzen dituen. Mendebaldetik, lehen lur-mugatzailea Arizmendi gainean aurkitzen da eta gero Uzturre-Ipuliño mendi-kateari lotzen zaio. Mendi-kate hauek Leitzarango ibaiak Berastegitik eta Amasa-Billabonako haran txikietatik banatzen dute.

Oraingo Leitzaraneke ba ote du zer ikusirik lehengo zaharrarekin? Plazaola, Ameraun, edo Ollokiegi entzunda, zer datorkigu gogora?

Leitzarango harana lehengo trenbide zaharretik zeharkatzen baduzu, Andoainen sartu eta Urton atera, ibaiaren ondoan duela ez aspaldi eraikiak izan ziren baina egun aurri-zorian dauden auzo txiki, baserri, errota, zentral eta burdinolak aurkituko dituzu han eta hemen barreiatuak. Lehengo beso langileen mailu-hots erritmoduna galdua denez geroztik, haltzez, lizarrez, haritzez eta urritzez osatutako baso itxien hostotzan galtzen diren gune malkartsu eta menditsuetan dabilzan katagorri, lepazuri, azeri, katajinetan, basurde eta basakatuek, edo ibaiertzetan hegaldatzen diren martin arrantzale eta ur-zozoek, edo noizean behin zerua zeharkatzen duten aztore eta zapelatzeak biziarazten dute hango paraje basa. Erne bazoaz, agian, ikusiko duzu pizti horietakoren baten oin-arrastoren bat, edo udako partean, bero sapa egiten duen eguna tokatzen bazaizu, behi-talde bat tuneleko gerizpe ilunera bilduta. Isiltasuna eta bakartasuna ia erabatekoak dira. Aste zurian bazoaz, baso-gizonen motozerra-zarata baino ez duzu entzungo urrutian, edo baliteke egur-garraioan dabilen kamioi garabidunen batekin bidean topo egitea ere. Asteburuan, oinezko bisitariak, edo mendiko kotxetan edo bizikletari eraginez doazenak zeharkatuko dituzu. Gipuzkoako natur parketat hartua izan denez geroztik, basapizti eta hegaztien bizileku bihurtua dugu Leitzarango harana. Autobidearen zarata ez da beheko arroara iristen. Arroan ibaiaren marmarioa da hango isiltasuna hausten duen hots bakarra.

Azken orduko ardura ekologikoak lortu du hango paisajea gordetzea, irabazi du herritarren aisiarako gune zora-

gari baten babes; kontrakarrean, lehengo lanbide zahar-
rak, oraindik indarrean dauden zentral hidroeletriko
batzuk salbu, galduak baitira, badirudi oinarritzako falta
zaiola, giza bizitzaren arnasa, alegia, horrek ematen baitio
izadiari bere berotasuna. Azalpen honetan gure aurrekoen
lanbideak aztertzeraz goazelako diogu hau, batez ere.

Berastegi herriak, baserritarrek abelazkuntzarako erabil-
tzen duten bere zelaigune zabalaz gain, Andoain, Billabona,
Elduain eta Berastegiko Udaletara zabaltzen den Leitzarango
harana ere beti izan da herritarrentzat lur emankor eta
aberatsa, batez ere, meatzez, basoz, larrez, ibai eta errekez
ongi hornitua delako. Hango lurra aberastasun-iturri izan
zedin beharrezko lehengai horiek guztiak bazituelako –ho-
rregatik, bereziki–, burdingintzaren ustiapenerako lantegi-
mota desberdinak sortu ziren meatzeen eta uraren inguruan
eta hango lurretan hainbat jendekek egin zuen lan, Gipuz-
koako beste mendietan bezala.

Horregatik, haran honetan egun jenderik bizi ez bada
ere, giza eskuak, aspaldiko denboretatik hasita, arrasto sa-
konak utzi ditu bertan. Horren lekuko dira, besteak beste,
mendi-gainetako isurialdeen banalerroetan aurkitzen diren
aztarna prehistorikoak, hango larretan beti landu izan den
artzaintza eta abeltzaintza, eta burdingintza, eta hango urek
mugiarazi dituzten burdinolak, errotak eta zentral hidrau-
likoak.

1. Burdingintzaren tradizioa

Badirudi burdingintza K.a. 600. urte-inguruan sartu
zela Penintsulan, zibilizazio indogermanikoek ekarrita.

Erromatarrek ondo ezagutzen zituzten Bizkaiko meatzeak (Garmendia, 1976, 129).

Burdingintzaren tradizioa oso aspaldiko du Euskal Herriak. Antzinatean, Euskal Herriko biztanleek metalen etengabeko merkataritza izan zuten Mediterraneoko herrie-kin eta Iparraldekoekin. Erromatar Inperioaren garaian, erromatarrek Bizkaiko meatze handiak ustiatu zituzten, mendi-sabeletik urrea, beruna eta burdina erauziz. Gero, Erdi Aroan, metalen ustiapena ekonomia itxi eta lekuko aristokrata interesdunen erregimenari atxikia egon zen. Euskal metalurgia zaharrak oinarrizko bi ezaugarri ditu. Bata da burdina gordinean, hau da, barra edo lingote moduan esportatua izateko xedearekin lantzen dela, Erdi Aroan egin zen bezala, Euskal Herrian merkataritza, arrantza eta nabigazioa indartzen direnean; eta bestea, berriz, burdina herrian bertan erabiltzeko lantzen dela, hots, defentsarako eta erasorako armak egiteko, lurra lantzeko tresnak egiteko, edo etxeko tresnak egiteko, eta abar.

Euskal Herria ez zegoen burdingintzarako lehengaien hain beharrean, baina alperrik galtzen uzteko ere ez zeuzkan. Bazituen meatzeak eta basoak, hasierako siderurgia garatzeko ezinbesteko bi baldintza. Gero ura, hirugarren elementua, gertatuko da beharrezko, mendietako haizeolak ibarretako burdinola bihurtuko direnean. Horretarako, noski, baziren errekatxoak eta ibaiak ere. Egun basoak ia soilduta badaude ere eta meatzeak hutsik, ur handiak dira egungo fabrikak elikatzen dituztenak (Caro Baroja, 1971, 184-185).

Elementu horiez gain, giza besoak behar ziren, basoetan egur-ikatz landuko dutenak, meatzeetatik minerala erauzi eta burdinoletara eramango dutenak, eta horietan dihar-

duten olagizonak. Elementu horien guztien baturak osatzen zuen burdinolen funtzionamendua. Industri mota hori izan zen luzaroan Gipuzkoaren diru-iturri nagusia, kanpora gehien esportatzen zena:

“Abunda esta Provincia de muchas ferrerías de agua, donde se labra el fierro (tan necesaria para la administración de la vida humana) del cual no solo se lleva a Castilla y Andalucía y al resto de España, y a Francia, Inglaterra, Flandes, Italia, Sevilla y otras provincias de Europa, y a las Indias occidentales en las flotas que van de Sevilla, y a las orientales de Asia, donde los Portugueses tienen su comercio y navegación. Esta es la principal riqueza de esta Provincia, que por la comodidad que tiene de metales, montes y agua” (Isasti, V, 1985, 158).

Burdingintzari esker lortzen zen, Gipuzkoako lur menditsuetan herritarrak elikatzeko adina sortzen ez zelako, falta ziren elikagai osagarriak kanpotik ekartzea. Burdinola horietan hogeita hamar lagun inguru ibiltzen ziren lanean, eta lanbide horretatik familia asko bizi ziren (Carrion, 1975, 85-86).

Lehengai horiek ematen zirelako, hain zuzen, asko ugaltu ziren siderurgia lantzeko lantegiak Euskal Herri osoan zehar, hala nola, Goierriin –Legazpi, Zerain eta Mutiloa inguruan–, Leintz Gatzagako ibarrean eta Oñatin, Arrasate eta Elgoibarren eta, batik bat, Oiartzunen. Nafar mendietan ere bazen haizeolarik asko; ez ordea, Araban, eta hemen, gainera, 1332an debekua eman zuten, mendiak eta basoak babestearren. Beraz, burdingintzak euskal ekonomiaren historian lehentasunezko garrantzia zuelako, hain zuzen, haren ustiapena zehaztasunez arautua zegoen.

Ezaguna da haizeolei buruz Alfontso XI.ak 1328an eman-
dako forua. Baina lehenago ere, jadanik XIII. mendearen
azkenerako, haizeolak hirien arau-babesera bilduak zeuden.
Halaxe, adibidez, Legazpiko haizeolak, Segura herria eraiki-
tzeko egindako izkribuan (1280) datorren bezala (Zabala;
Iglesias, 1971, 140-1412).

2. Haranaren eraketa geomorfologikoa eta meatzeen erauzketa

Leitzarango mazizo menditsu eta bihurgunetsu hau
orain dela 570 milioi urte hasi eta, 325 bat milioi urte
iraundako aro paleozoikoaren barruan, 70 milioi urte iraun
zuen bosgarren aldi karboniferoan eratutako lurraldea da,
funtsean, orogenia hertzinikoan tolestutako arbelez, kare-
harriz eta tarteka hareharriz osatua dena. Ordurako landa-
redia ere indartsu garatzen hasia zen ikatz-metaketa
handien lurzoruan. Arrainak, narrastiak eta anfibioak ere
hasiak ziren ibaiak eta oihanak populatzen. Eraketa geo-
morfoloikoki dagokionez, berriz, lur primario hauetan bi
zain-mota agertzen dira, batzuk burdinazkoak eta beste
batzuk, berriz, galena, blenda eta kobre-piritazkoak. Horie-
taz gain, bada espato-fluorrezko beste zainen bat ere.
Burdinazkoek zain-geruza baten itxura hartzen dute beren
artean geruzatuak dauden arbeletan. Normalean, zain
hauek lodiera handikoak dira, eta horietatik erauzten den
burdinari karbonato burdina edo *siderita* deitzen zaio, eta
haren azal ondoan dagoena burdina-oxido edo oligisto bi-
hurtzen da eta haren azalean, oxidoa hidratatzearen ondo-
rioz, hidroxidoa edo *limonita*.

Eskualdeko beste lekuetan bezala, Leitzarango meatokietan lehengo denboretan lurzorutik hurbil zegoen *hematite* minerala erauzten zen eta erauzketak estalperik gabe egiten ziren, edo oso sakonera txikiko meazuloak eginez. Mineral hau erabiltzen zen burdinoletan. XIX. mendearen erditik aurrera hasten den erauzketa modernoan, ordea, karbonatoa zainen zatirik sakonenera joanda erauziko da. Karbonato hau labeetan erretzen zen, oxido bihurtzeko handik eraman aurretik. Eraldatze-prozesu honetan bere pisuaren hirutik bat galtzen zuen. Leitzarango meatokien ustiapenetan erretako mineralak burdinatik ehuneko 40 edo 50 zuen, mangesotik ehuneko 7 inguru (gordinean ehuneko 5).

Zain batek minerala erauzi eta garraiatzeko meazulo bat baino gehiago izan zitzakeen, eta normalean altuera desberdinetakoak izaten ziren. Zain horiek burdinolen garaian ustiatuak izan zitezkeen. Zainari lurzoruan gandorra ageri bazitzaion, orduan estalperik gabe ustiatzen zen. Uste izatekoa da lurzorukoa bakarrik ustiatuko zela, ez barrukoa. Hemengo burdina, Somorrostrokoaren aldean, adibidez, kalitate apalagokoa zen eta zenbait gauza egiteko ez zuen balio. Horregatik, eskualdeko burdinoletarako bakarrik erauzten ziren, hauek inguruan zeudenak baliatzen baitzitezuten. Segidan meatoki horien berri emango dugu, hainbat xehetasun gai hau aztertu duen Xabier Cabezonek Internet-en zintzilikatuta dauzkan orrietatik jasoz.

3. Meatokiak

Haran honetan meatzeak bazirela aspaldiko kontua da. Fernando III.ak 1307an Tolosari emandako pribilegio

batean horien aipamena egiten zen eta 1415ean, berriz, haien ustiapenak egiten hasita zeuden. XIX. mendera arte, Leitzarango haranean erauzitako mineral guztia lekuko burdinolak hornitzeko erabiltzen zen. Ustiatutako meatoki gehienak, bestalde, egun Berastegiko Udallerriari dagozkionak dira. Dokumentu batzuetan meatoki batzuk beren izenez emanak datoz; beste batzuetan, aldiz, soil-soilik “Berastegiko zaina” esaten da, ezer gehiago zehaztu gabe. Aro Modernoan, XX. mendearen hasieran, meatoki horietako batzuek garrantzia handia hartu zuten eta bertan lantzen zen minerala garraiatzeko trenbideak egin ziren: bat luzea, 20 kilometrokoa, Plazaola deitua, eta beste txiki batzuk ere bai, Lorditz eta Ixkibarkoa, guztiak elkarrekin lotura zutenak.

Burdinazko meatze huez gain, beste batzuk ere ustiatu izan dira, baina neurri txikiagoan, hala nola kobrezkoak, berunezkoak eta espato-fluorrezkoak.

Berastegiko Udallerrian ustiatuak izan diren meatokiak zenbat diren? Ziurtasunez dakizkigunak, 16 dira guztira, zehazki hauek: Plazaola, Txotan, Bizkotx, Ermosu, Altzegi, Olizar, Mustarberri, Urdanbide edo Tolosamina, Lorditz 3, Nordeiza, Lizarraga, Orin, Bereterri, Urkiegi/Dordoategi, Meatzaberrieta eta Beiturrieta. Horietako zortzi ustiapen zaharrekoak dira, Bizkotx zaharrekoa eta berrikoa, Altzegi eta Urdanbiden, berriz, berrikoak soilki, 1868ko legeaz geroztikoak. Berastegikoak dira, halaber, sailkatu gabeko beste bost meatoki hauek ere: Plazaola 2, Mustar, Agillegieta, Lorditz 1 eta Lorditz 2. Andoainek hiru burdinola ditu, Billabonak bat eta Leitzak sei. Meatoki hauek, horien aldian aldiko ustiatzaileen arabera, izen desberdinak hartuko dituzte: Altzegik “Buena Estrella” (1577 zenb.), Urdanbidek “Explotación Antigua” (1550 zenb.), Bizko-

txek “Casualidad” (1453 zenb.), etab. Izen hauek ez daukate ezer ikustekorik toponimoarekin. Hemen ustiapen modernoko meatokiak 1860ko legez geroztikoak bakarrik hartzen dira halakotzat.

Aire zabalean ustiatutako meatokien arrastoak agerian geratu dira. Garraiatua izan aurretik minerala erretzen zeneko labe handien aztarnak oraindik ere agerian daude.

Noiztik nora ustiatuak izan diren zehaztea, ordea, zaila da. Noiztik hasita ez dakigun arren, badirudi Urkiegi/Dordoategi, Bereterri, Orin, Nordeiza eta Bizkotxeakoak jadanik X-XII mende-bitarte horretan ustiatuak izan zirela. Fernando IV.ak Tolosari ematen dion 1307ko martxoaren 13ko pribilegioan bere lurraldeko meatokiez ari baita, seguru asko meatoki horiek izango ziren. Dokumentu zehatza, alabaina, Elduain eta Berastegiko Kontzejuek olagizonekin 1415eko ekainaren 30ean egiten duten hitzarmenean aurkitzen da³, eta horretan Orin, Nordeiza, Urkiegi/Dordoategi eta Bizkotx agertzen dira.

Beraz, XV. mendean horiek ustiatzen ziren. Beste batzuk, berriz, ustiapen zaharrekoak izanen zirela pentsatzen da, horien artean Altzegikoa seguru, Olizarkoa ere bai, seguru asko. Altzegi erreka inguruko meatokiak ustiapen zaharrekoak dira, hangoetan agertzen baitira aire zabalean egindako aztarnak. Aro Modernoan ustiatuak izan diren artean, berriz, daturik ez da. Bizkotx, Plazaola, Mustarberri, Urdanbide, Lorditz 3, Meatzaberrieta, Altzegi eta Olizar meatokien emakida-datak, adibidez, XIX. eta XX. mende-koak dira, baina honek ez du esan nahi aurretik ere ustiatuak izan ez zitezkeenik. Ez dakigu.

Zalantzarik ez da, estalperik gabeko lurzoruan egindako erauzketa-aztarnek hala erakusten baitute, burdina ustiatu

izan dela lehengo denbora zaharretan ere Altzegi erreka-aren inguruan. Nolanahi ere, hemengo meatokien emakidak XIX. eta XX. mendeko-hasierakoak dira. Olizar, Urdanbide eta Altzegiko meatokiak, batzuetan, “Lorditzeko” taldean sartzen dira eta beste batzuetan, berriz, “Berastegikoan”, hemengoan Bizkotzekoa ere barne dela. Guk ere hauek elkarren ondoan azalduko ditugu. Altzegi eta Urdanbideko meatokiak martxan jartzean egin zen Lorditzeko trenbide txikia, abereek tiratuta erabiltzekoa, baita bi labe ere.



Plazaolako meazuloetako bat (Iztueta, 2010)

3.1. Plazaolakoa

Andoaingo norabidean trenbidetik goazela, burdinolaren izena daraman baserriaren ondoan aurkitzen dira meatokiaren hondakinak –egun eraberrituak daudenak–, zentrala pasa eta berehala, trenbidearen eskuinetara, kargako hoditeriatik hurbil. Zentral elektrikora doan hoditeriaren alde bietara hiru meazulo ikus daitezke.

Lubakiak ere bai. Albo batean, zabortegia. Hemengo minerala ustiatzeko baimena 1874an eman zen, 64. zenbakiko “Virgen del Carmen” izenarekin, kobrea erauzteko xedearekin. Baina hango mendi-zuloetatik zer atera zuten, kobrea ala burdina, ez dago batere garbi, Leitzarango haranean, bereziki, burdina baitzen erauzten zena. Izen bereko emakida hau 1909an Donostiako Magdalena Aranbururen izenean zegoen, zegokion lur-azalera 4 hektareakoa zelarik. Aurretik ustiatua izan bazen, noiztik ez dakigu, ezta ustiatua izan zen garaian zenbat eta noiz ekoiztu zen ere. Esan bezala, hiru meazulo ditu, behekoena trenbidearen mailan, sakonean 2,5 metrokoa eta 1,5 diametrokoa, 403 metroko altueran, egun zabortegi bihurtua; erdikoak 410 metroko altueran, eta bertara lubaki batetik joaten da; 421 metroko altueran dagoen goikora ere beste lubaki batetik joaten da, egun estalia dagoena, eta hortik trenbideraino zabaltzen da zabortegia.

3.2. Bizkotxekoa

Hau da, zalantzarik gabe, garrantzitsuena eta haraneko handiena. Plazaolakoa ere deitu ohi zaio, baina izan Bizkotxekoa da eta izen horrekin datatua dago 1791n. Geroago,

ordea, XIX. eta XX. mende-hasieran, meatoki hau Plazaola-koarekin nahastu izan da, baina, esan bezala, desegoki.

Non dagoen? Plazaola eta Lorditz errekararen erdian. Plazaolako bidea hartu eta trenbide-tuneletatik barrena jarraituz, Leitzarane ibaiaren ondotik Bizkotxeko meatokira ailegatuko gara. Hortik bidea ezkerretara utzita, gerra aurretik alemaniarrek eraikitako meatokien aztarnak, meazuloak, labe erraldoiak ikus daitezke.

Meatoki honen multzoa Bizkotx errekararen, Leitzarane ibaiadarraren eskuinaldean aurkitzen da. Meazulo guztiak errekatik oso hurbil aurkitzen dira. Plazaolako trenbidetik joaten da bertara, 1 eta 2. tunelen artean pasata. Meatze honen zainak zabaleran 10 metro ditu, luzeran 250 eta altueran 150 (Yarza, 1923, 255). Meatoki honetan, bestetan bezala, lurzorutik hurbil zegoen minerala (*hematitea*) erauzten zen, edo sakonera gutxiko meazuloak eginez, lehen estalperik gabe. Burdinolek mineral hau erabiltzen zuten. Ustiapen modernoan, ordea, burdinoletan ustiatzen zen. Beraz, haren ustiapenean hiru aro bederen bereizi behar dira: lehena, eta zaharra, XIX. mende-bukaera arte iristen dena; bigarrena, ustiapen modernoa hasten den garaitik, 1897tik, XX. mendeko 1930eko hamarkada arte; eta azkenik, 1937tik 1942. urtera arte.

Meatoki honi buruzko lehen aldiko aipamenak XVII. mendekoak dira. Orduko datuen arabera, Plazaola, Ameraun, Beriñas eta Ollokiegiko burdinolak –azken hauek, hurrenez hurren, lautik eta seitik bateko proportzioan–, meatoki horretatik hornitzen ziren. XVIII. mende-bukaeran, 1791n, Real Junta de Comercio y Moneda deituak meatoki eta burdinolen kopuruari buruzko espedientea eskatu zion Gipuzkoari. Leitzarango ondasunak batera

zituzten Berastegi eta Elduain herriek hiru burdinola zituztela aitortu zuten: Plazaola, Ameraun eta Ollokiegikoa. Zehazten dute, halaber, lehen bi burdinolak Bizkotxeko meatokitik hornitzen zirela; Ollokiegikoak, aldiz, Somorrototik ekarritako minerala erabiltzen zuten. Epealdi honetan, lehen kasuan, lurzorutik erauzitako *hematite* minerala erabiltzen zen. Badirudi Bizkotxen mota horretakoa ugari zela. Nolanahi ere, 1868-1897 epealdian zehar, meatoki hau geldirik egon zen, baina ez dakigu zergatik, *hematitea* ahitu zelako, edo beste zerbaitegatik.

XVII. eta XVIII. mendeetan, Bizkotxeko meatokietatik erauzitako *hematite* burdina oso kalitate onekoa zen eta burdinolek hura erabiltzen zuten. *Hematite* hau ahitu zenean XIX. mende-bukaeran, kalitate txarragoko burdina –karbonatoa–, erabili behar izan zen, eta hori meazulo sakonagoetan aurkitzen zen eta zabortegetan. Karbonato hau labeetan erretzen zen, burdinazko oxido bihurtu ahal izateko eta, honela, bere kalitatea hobetu. Bizkotxen, hain zuzen, kalapatxa batzuk eraiki zituzten labeetan erretako minerala bildu ahal izateko. Biltegi hauek konporta batzuk zituzten tren-bagoiaren parean kokatuta zeudenak eta horiek irekitzean minerala haietan pilatzen zen. Bizkotx izan zen Andoainerako bidean lehen tren-geltokia. Gero bidaiarientzako zerbitzua eskaini zenean, trenbide-zati hori desbideratze bat bezala geratu zen eta horregatik deitu izan zaio “bide zaharra”.

Bi labegune zeuden inguruan: Bizkotxekoak eta Mustarrekoak. Biak dira egitura berekoak; Bizkotxekoak handiagoak izatean dago alde bakarra. Mustarrekoetan Lorditz eta Altzegiko meatokietatik erauzitako minerala erretzen zen.

Bigarren aldian (1860-1937) meatoki honen ustiapena asko hazi zen, batez ere, XX. mende-hasieran, hainbestearaino orduan egin baitzen 20 kilometroko trenbidea, Plazaolatik Andoain bitartekoa. Hori egiteko baimena 1901ean eman eta 1904an inauguratu zen. Honek adierazten du meatokiak indarrean zeudela eta horien ustiapena errentagarria zela. “Casualidad” izeneko emakida, 1453. zenbakiduna, 1897an onartu zen, 35 jabetzako multzoa osatzen zuena, eta horietako bat zen, hain zuzen, Bizko-txeko meatokia. Ez da ezagutzen hasierako eskatzailearen izena. Baina 1906. urtetik aurrera bere egoitza soziala Bilbon zeukan Compañía Minera de Guipúzcoa izan zen. Urte horretan eta hurrengoan, 1907an, errentan hartuak zeuzkan Sociedad Minera de Berastegui deituak. Halere, 1908an, errentari bezala Sociedad Minera Guipuzcoana agertzen da, Bizkaikoa, trenbidearen jabe ere badena. Gero, 1912an, Compañía Minera de Guipúzcoa jabeak errentan utzi zion Sociedad Minera Guipuzcoana-ri eta azken hau geratu zen meatokiaren eta trenbidearen jabe bakar. Badirudi 1913. urtetik aurrera, mineralaren ekoizpena asko jaitsi zela eta lantokiak praktikan geratu egin zirela. “Casualidad” emakidaren epea 1930eko hamarkada-hasieran bukatu zen.

Zenbat langile enplegatzen ziren? Ez gutxi ere: 1907an 75 langile, 48 barruan eta 27 kanpoan. Istripuak, 42, eta horietatik hildako bat, arinki zaurituak 41. Erauzketa-lanak 2. eta 3. mailetan egiten ziren. Ekoizpena, urte horretan, 8.578 karbonato tonakoa izan zen. Mineral errentagarria karbonato burdina zen, aski aberatsa, eta manganesotik gordinean ehuneko 5 eta erre ondoren ehuneko 7 zuen. Esana daukagunez, 1908an ez zen jadanik galerietan lanik

egiten. Berrero 1912an lanean hasi ziren, baina kanpoan. Hurrengo urtean, 1913ko lau hilabetetan zehar, erauzketan egin ziren 1. eta 2. mailetan, eta horietan 28 langile aritu ziren barruko lanetan eta 8 kanpokoetan.

Hirugarren aldian (1937-1942), “Casualidad” deitura zeramana “Calvo Sotelo” izatera pasatu zen, 4196. zenbakiko emakidarekin, eta gerra garaitik bigarren mundu-gerra bitarteko iraupena izan zuen orduko ustiapenak. Ustiatzailea Sociedad Minera de Aralar izan zen, atzean kapital alemana zeukana. Elkarte hau Aralarko kobrezko meatokiak ustiatzeko asmoarekin sortua izan zen, baina emaitza oso eskasak lortu zituen, Bizkotxeko hau hartu zuen. Lehen bezala, garraioa Plazaolako trenbideaz baliatuz egiten zen. Baina denbora gutxi iraun zuen, 1942an itxi baitzen.

Kapital alemana jarri zuen ustiatzailea, Claus jauna izan zen. Berastegiko alkate jaunarengana joan zen esanez hango meatokiak ustiatu behar zituela-eta, Urtotik Plazaola bitarteko bidea berak bere kontura eraberritzeko zuela, handik ibilgailuak pasatzeko egoeran jarriz. Lan hauek ahalik eta arinen egin nahi zituela eta, herriarentzat mesedegarri zelakoan, besterik gabe, alkate jaunak baiezkoa eman zion⁴. Jaun aleman horrek, emandako baimenarengatik eskertuta, gutun hau bidali zion, lehendakariak Udaleko batzartuei irakurri ziena:

“Con su consentimiento previo he construido la carretera de Hurto a Plazaola, que a la fecha ya se halla terminado. Como Alemán muy interesado en la reconstrucción de España me sirve de satisfacción el entregarle esta carretera para el servicio público, al mismo tiempo que le suplico que exijan Vds a expensas y gastos míos de la Jefatura Provincial de Obras Públicas una apisonadora

para cimentar bien el piso de la nueva carretera ¡Viva Franco! ¡Viva Hitler! Suyos affmos. S.S.G. E.S.M. C. Rolge”⁵.

Claus alemanari emandako ustiapen-baimen hori dela eta, badirudi udal-izapideak fite asko eginak izan zirela, aktan zehazki esaten baita “se están ejecutando ya dichos trabajos”. Lehen akta horretatik bigarren honetara aste bateko tartea baino ez dago. Gutunaren bukaeran datozen biba horiek ikusita, esan beharrik ez dago oso eskutik doazela frankismoa eta nazismoa.

Alemanarekin ustiapen-hitzarmena burutu eta handik bi hilabetera, Santiago Irizar jaunak, Jose Maria Amanen izenean, Berastegiko Udalari herri-lurretik zati batzuk eskatu zizkion bertan etxebizitzak, edo fabrikak, zaborteziak, meazuloak habetzeko zurajeak eta sukaldeak, etab. egiteko, Bizkotxeko “Calvo Sotelo” elkarteari emandako baldintza beretan, hau da, urtean 300 pezeta ordainduz. Berastegiko Udalak baiezkoa eman zuen, beti ere azken hitza Gipuzkoako Diputazioaren esku uziz⁶.

Ez dakigu hirugarren aldi honetan zenbat langile ibili ziren Bizkotxen, baina bai zenbat ekoiztu zen: 12.010 kilogramo espato-fluorrezko mineraletik 1940an⁷.

Meatokia nola egituratua zegoen? Haren egitura fisiokoari dagokionez, 164 metroko altuera zeukan eta bost solairutan zatitua zegoen. Galerien gainari, orduan ohi zen bezala, azpian zutabeak ezarriz eusten zitzairen. Meazulo bakoitzaren azpian, hantxe bertan, aurkitzen zen zabortegia. Multzoaren zati osagarri gisa, berriz, labeak eta minerala trenean kargatzeko sistema zeuden.

Meatokiaren mailarik apalenean minerala erretzeko hiru labe aurkitzen ziren, jarraian zeudenak baina 6,5 eta 7

metroko distantziara batetik bestera; altueran 8 metrokoak, eta kanpo-aldeko zabaleran 4,5 metro ingurukoak alde bakoitzetik, eta barne-diametroa 3,75 metrokoa. Minerala labe haietatik atera bezalaxe garraiatzen zen gero.



Bizkotxen minerala errausteko hiru labe ziren XX. mende-hasieran.
Orain bi baino ez dira geratzen zutik (Iztueta, 2010)

Bizkotxeko 3. eta 2. mailetako meazuloetatik ateratako minerala 1. meazulora garraiatzeko, hor aurkitzen baitziren kargatzeko tokiak, mendi-kaskoan kokatutako bi plano

inklinatu erabiltzen zituzten 1907an. Lehenak 3. mailako beheko meazulotik 2.a arteko ibilbidea egiten zuen; bigarrenak, 1a. artekoa. Hemendik eramaten zen karga labeetara.



Kargatzeko tokiak Bizkotxen (Cabezon, 2008-04-10)

Labeen azpian aurkitzen ziren erretako mineralaren gordailuak. Hauek kalapatxa handi batzuk ziren, piramide alderantzikatu baten itxura zutenak, eta luzeran 25 metro eta zabaleran 6 metro neurtzen zituzten. Azpian itxi eta ireki zitezkeen burdinazko tranpa batzuk zituzten eta bost

zulo haietatik zuzenean deskargatzen ziren tren-bagoira, handik garraiatuz lehenik Andoaina eta gero Norteko tren-bidera, 17 kilometro eginez.

Era berean, bazen egitura txiki bat trenbidez ekarritako ikatza labeetara igotzeko ere, minerala kargatzeko lekutik hurbil zegoena, 43 metrora-edo. Ikaztegi hori zorua porlanean eta hormak harriz egindako gordailu karratu bat da. Alemaniarren garaian, ikatza handik kablez igotzen zuten gora motor-indarrez labeetara eramateko.



Ikaztegia, plaka birakaria kokaturik egon zeneko plataforma laukia bistan dela (Iztueta, 2010)

Trenbidea zabaltzeko aldaketa batzuk egin baitziren 1914an, trenbide hori bigarren mailakoa izatera pasatzen zen, saihezbide bezala geratuz, baina ertz bietan trenbide nagusiarekin batuz.

Egun zein egoeratan aurkitzen diren? Ustiapen modernoak, orokorrean, lehen lurzoruko erauzketak egindako lekuetan egiten baitziren, lehengo ustiapen zahar haiek kasu askotan ezagutezinak gertatzen dira. Meazulo bateko sarre-rako sabaia lurrera jautsita, erdiko labea berdin, hegoaldekoa egoera onean, berdin kargatzekoak. Berriztatze-lanetan ari dira gazte-talde batzuk, Andoain, Berastegi, Billabona eta Elduaingo Udalek lagunduta, Arantzadi elkartearen gidaritzapean.

3.3. Mustarberrikoa

Beti Andoainerako norabidean, trenbideko 5. tunelaren eskuinean, bere urak izen bereko mendian hartu eta Leitzarango ibaian husten dituen Altzegi errekarari ezkerretik helduz joaten da bertara. Errekaren ezker-eskuin aurkitzen dira Mustarberriko meatokiak, izen bereko baserriaren ondoan. Meatoki honetatik burdina erauzteko emakida, “Pepa” izenekoa, 1898an eman zen 1571ko zenbakiarekin. Emakida hau 1909an Pasaiako Jose Kruz Zuloagarengana pasatu zen, 12 jabetzarekin eta 12 hektareako azalerarekin. Aurretik ustiatu izan zenik ez dakigu; ezta ustiatu zen garaian zenbat erauzi zen eta noiztik nora ere. Meatokiak hiru zain bederen baditu, sakoneran 20 metrokoak, lurzoruan ikus daitezkeenak eta Mustarberri baserriraino iristen direnak. Beheko zainetara jaisteko meazuloak errekaren bi aldetan aurkitzen dira. Zabortegirik ez da agertzen.

3.4. Altzegikoa

Meatoki honetara joateko, trenbideko 5. tunelean eskuinera hartu behar da, handik eskuinetik Lorditzeko trenbide txikira heldu eta hemen aurrera segitu Altzegi errekarara iritsi arte. Hor errekararen alde bietan meazuloak, zabortegeiak eta trintxera aurkituko ditugu. Meatoki honetan bi zain-mota daude: batzuk burdinazkoak dira, eta beste batzuk, berriz, galenazko, blendazko eta kobrezkoak. Zain hauetako burdina, *siderita* deitzen zaiona da, lurzorutik hurbileko zatian, burdina oxidatzearen ondorioz, oligisto bihurtzen dena. Lurzoruan *limonita* ere aurkitzen zen, oxidoa hidratatzearen ondorioz hala bilakatua. Toki honetako beste meatokietan bezala, lehen lurzorutik hurbil zegoen minerala erauzten zen, *hematitea*, eta erauzte-lanak estalperik gabe egiten ziren, edo sakonera txikiko meazuloak eginez. Burdinolen garaian bederen minerala aire zabalean erauzten zeneko aztarnak daude. Nolanahi ere, ustiapen modernoan, XIX. mendetik aurrera, karbonato burdinaren erauzketa mendiak zulatuz egin izan da. Halaxe Altzegin ere. Hemengo meazuloak XIX. mende-bukaerakoak dira, 1898koa baita izenburutzat “Buena Estrella” daraman emakida, 1577. zenbakiduna, Santurtziko Tomas Horma jaunari esleitua, 54 jabetzarekin. Urte berean, burdina gehiago lortzeko lehengoari 3,3312 hektarea eman zitzaizkion, 1660. zenbakiarekin eta, honela, inguruko beste meatoki batzuk ere ustiatu ahal izan zituen. Baina XIX. mende-hasieran, 1907 eta 1908an, Altzegi eta Urdanbideko meatokiak errentan ustiatzen zituztenak beste batzuk izan ziren: lehenik Sociedad Minera de Berastegui eta gero Sociedad Minera Guipuzcoana izenekoak. Azken hau zen

Bizkotxeakoaren errentaria ere eta Plazaola trenbidearen jabea. Lehen elkarteak egin bide zituen Lorditzeko trenbide txikia eta, orobat, Mustarreko labe biak, ustez jadanik 1907an martxan zeudenak. Mustarren zuzenean kargatzen ziren Bizkotxetik eta Lorditzetik zetozen mineralak Plazaola trenean Andoaina garraiatzeko.

3.5. *Urdanbidekoa/Tolosaminakoa*

XX. mendez geroztik Tolosaminako meatokia bezala ezagutzen da. Hasieran, baina desegoki, Tantayeta deitu zitzaion.

Hara 5. tunelean eskuin hartuta joaten da, Mustarberri baserritik eta Olizartik aurrera eginda. Hara iristean, Tolosamina erreka ondoan hiru meazulo ikusiko ditugu eta harago, berriz, aire zabalean egindako erauzketak.

Urdanbide eta Tolosamina errekatxoan artean dauden meatokien multzoa adierazten dute izen horiek. Errekatxo horiek Lorditz errekan bukatzen dira. Meatoki hauetan aspaldidanik ustiatu izan da burdina, aire zabalean egindako erauzketek erakusten duten bezala. Oraindik ere egoera onean aurkitzen dira trenbidearen alde bietan, nahiz lurzorua estaltzen duen landarediak behar bezala ikusten ez duen uzten. Aire zabalean egindako erauzketetatik *hematiteak* lortzen ziren eta, horretarako, lurzorutik trintxerak irekitzen ziren luzeran maldan behera. Horrelako hamarren bat trintxera badira, luzeran 50 eta 200 metro ingurukoak, zabaleran 5 eta 15 metrokoak, lodieran 2 eta 4 bitartekoak. Batzuetan beren artean gurutzatuak eta, beste batzuetan, trabeska aurkitzen direnak. Ez dakigu zenbat mineral ustiatu zen, baina azaleraren handiak metro kubiko askoren

arrastoa erakusten du, hamarnako askotako milakotan kontatu beharrekoa.

Aro Modernoko erauzketa Bilboko Leontzio Ibargegoitiarekin hasi zen, honek 1897an lortutako “Explotación Antigua” izeneko eta 1550. zenbakiko emakidarekin. Hamabi jabetza zeuzkan, baina urte berean, burdin ekoizpena handitu nahi-eta, 6,4989 hektarea lortu zituen, 1657. zenbakiko emakidarekin. Leontzio jaun hau 1909an hamarren bat emakidaren eta dozena erdi bat hektarea gehigarrien jabe zen, zehazki Lorditz erreka ibarrean. Meatoki hauek 1907 eta 1908an, esana daukagunez, Altzegikoarekin batera, Sociedad Minera de Berastegui eta Sociedad Minera Guipuzcoana elkarteek hartu zituzten errentan. Ekoizpenaz datu handirik ez bada ere, 1908an 4.525 karbonato tona ekoiztu omen ziren. Hurrengo urtean, ordea, meatoki honetan ez bide zen lanik egin, eta ez da aipatzen 1913. urtera arte. Meatoki honek hiru meazulo ditu, esan bezala, zabaleran 1,5 metrokoak eta altueran ere berdintsu. Zabor-tegiaren erdi aldean, meazuloaren azpitik 20 metrora-edo, trenbidean kargatzeko tokia aurkitzen da. Maldari atxikirik harrizko bi hormaz osatua da, lodieran metro batekoa.

Hemengo minerala abereek tiratako Lorditzeko tren txikitik eta horko plano inklinatuaren bidez garraiatzen zen Mustarren zeuden bi labeetara.

3.6. Olizarkoa

“Buena Estrella” emakidaren barruan aurkitzen da meatoki hau, Altzegikoaren antzera, nahiz hemengo ustiapena lehenagokoa izan litekeen. Hemengo bi meazuloak 586-595 metroko altueran aurkitzen dira eta hara joateko,

aurrekoetara bezala, 5. tunelean eskuinera hartu behar da. Hemen ere aire zabalean egindako arrastoak agertzen dira, luzeran 150 metrokoak eta 650 metroko altueran koka-tuak. Hor bi trintxera daude, bata 15 metrokoa luzeran eta bestea 12koa. Hauek seguru asko burdinolen garaikoak dira eta lurzoruko mineral honek gune bereko beste meatokien ezaugarri bertsuak ditu. Lau putzu ere ikus daitezke, zabortegi bat ere bai.

3.7. Lorditzekoa 3

Bere urak Lorditz erre kara husten dituen Txuisalde erre karean eskuinean aurkitzen da meatoki hau, 3. zenbakia daramana, hortik ez urrun izen bereko beste bi ere badi-relako. Lorditz erre kak, Altzegikoak bezala, Leitzarangora isurtzen ditu bere urak. Aurrekoak dauden gunean aurki-tzen baita, hara joateko ere 5. tunelenean eskuin hartu behar da.

Hemengo meatokia ustiatzeko emakida 1877koa da, “María Feliciano” izenekoa eta 396. zenbakiduna, beruna erauzteko emana; han agertu, ordea, burdin hondakinak agertzen dira. Gero, 1913an, beste bat esleitu zitzaion, 3724. zenbakiarekin, eta “Bienvenida” izena hartu zuen. Ez dakigu geroztik ustiatu zenik, edo ordurako zaina ahitua zenik, ezta zenbat erauzi zen ere. Zain honen erauzketa egiten hasi, galdorretik hasi ziren, eta gero barrura sakan-tzen. Lurzorutik begiratuta, bi segmentu bereiz daitezke, bakoitza 30 metrokoa-edo, luzeran. Galdorrean zabortegi batzuk daude barreatuak, errekaraino iristen direnak. Mea-zulo bat ere bada, zabaleran 1,5 metrokoa eta altueran 3,5ekoa. Sarreran trintxera txiki bat du, luzeran 5 metrokoa.

3.8. Nordeizakoa

Meatoki hau XVI. mendean aipatzen da, baina meatoki jakin bat baino gehiago meatoki-multzo bat da. Seguru asko, orduko Nordeiza eta gaurko Lorditz toponimo beraren adierazle dira eta, ondorioz, Lorditz erreka-ko arroan kokatu beharra dago.

Kristobal Zumarristakoak, Mustarreko olagizonak, 1551ko irailaren 3an Martin Antziolari pasa zion errentan hartutako burdinola. Eta errenta eskuz aldatzean, Orin, Lizarraga eta Nordeizako zain batzuk utzi zizkion 32 dukatetan. Handik hiru urtera, 1554an, Martin Antziolak kontratu bat egin zuen Esteban eta Pedro Intza anaiekin eta Nordeizako bi zain eman zizkien, nahi izanez gero saltzeko eskubidearekin. Honek esan nahi du Martin Antziola meatoki horien jabe egin zela.

3.9. Oringoa

Meatoki hau ere, aurrekoak bezala, XVI. mendearen bigarren aldirian agertzen da. Hango zainetatik hornitu ziren Mustar, Ameraun eta Plazaolako burdinolak. Ameraundik kilometro batera-edo, aurkitzen da. Egun ez da leku hartan meatoki-ustiapienaren ezein aztarnarik, nahiz beren garaian garrantzitsuak izan. Maria Etxenagusiak, Mustarreko olagizona izandako Juan Gazpioren alargunak, eman zuen errentan 1548ko apirilaren 25ean Oringo zainen laurden bat, urtean 10 dukat jasotzekotan. Berastegiko Juan Huizik 1551ko irailaren 3an Martin Antziolari 370 kintal eman zizkion Oringo zainetik, beste zainekoekin nahastu gabe. Era berean, Domingo Zumeetak, Inturiako olagizonak, 24

kintal burdina entregatzeko kontratua egin zuen 1552an Elduaingo Migel Azkarragarekin, Oringo zainetik ekarrita. Seguru asko, Ameraungo olagizona zen Migel hori. Urte berean, Berastegiko Martin Juan Etxeberriak, Plazaolako olagizonak, honek ere 11 kintal burdina entregatzeko kontratua egin zuen, Oringo zainetik aterata. Geroxeago, 1566an, Agustin Olaondo, Mustarreko olagizona urte horretatik aurrera, eta Anton Yartua, Plazaolako jabekidea eta olagizona, biak Orin, Nordeiza eta Urkiegiko meatokien jabeak ziren. Hurrengo urtean, 1567ko martxoaren 5ean, auzi bat izan zen Berastegin, olagizon horiek ez zitelako uzten Elduaingo meatzari batzuei Oringo zainak ustiatzen. Horretarako, beren kontura ordainduz, 7 edo 8 meatzari jarri zituzten bertan lanean. Urte horretan Juan Elusa zen Ameraungo olagizona eta hau ere salatu egin zuen Anton Aranazek, Oringo meatzariak, handik 15 burdin gurdi eram zituelako. Oiartzungo Migel Arpidek eta bere emazte Maria Gomez Areiztizabalek Tolosako Domingo Eleizalde-rekin 1000 kintal burdina entregatzeko kontratu bat egin zuten 1581eko apirilaren 4an, astean 20 kintal, eta kintaleko 20 erreal ordaintzekotan. Baldintza zen burdina Oringo zainetik ekarritakoarekin landua izan behar zuela.

3.10. Meatzaberrietakoa 2

Ameraundik kilometro bat ingurura dago, Beriñase-rako norabidean, eta hara joateko 15. tunelean eskuin hartu, Leitzarango zubia zeharkatu eta pista batek eramaten du hara. Meatoki hau ustiatzeko bi emakida eman ziren 1898an, bata 1564. zenbakikoa, “Maria Luisa” izenarekin, eta beste 1541. zenbakikoa, “Magdalena” izenarekin. Ema-

kida bi hauek 1909an Billabonako Anizeto Zugastiren ize-
nean zeuden. Meazuloak ia bertikalean irekitzen den zain
txiki bat du, eta galdorrean, berriz, trintxera txiki bat.
Beheran, errekatxoaren ondoan, beste zulo txiki bat aur-
kitzen da, trintxera-modukoa.

3.11. Urkiegikoa/Dortoategikoa

Meatoki hau meatoki-multzo baten barruan aipatzen
da XVI. mendearen erdi aldera. Dortoategi da horietako
bat. Horko zainetatik hornitzen ziren Plazaola eta Ame-
raungo burdinolak. Martin Juan Etxeberriak, Plazaolako
jabe eta olagizonak, Joan Ausalon salatu zuen 1540ko
abenduaren 12an, legez kontra lan egin omen zuelako bere
jabetzakoa zen Urkiegin, orduan Dortoategi deituan. AUSA-
lonek zorrak ordaindu zizkion, 20 dukat emanaz.

4. Meatzarien penak

Meatzarien bizimodua beti izan da gogorra. Baita
Leitzaranean ere. Hasieran, Bizkotxeko meatzariak, adibidez,
oinez etorri ohi ziren beren herrietatik eta batzuek bi ordu
egiten zituzten bidean. Kanpokoak zirenek barrakoi mo-
duko txabola batzuk izaten zituzten meatokien ondoan eta
buruzagiak bakarrik bizitzen ziren kantinan. Azkeneko
epealdian, gerra garaikoan eta ondokoan, “Klaus” alema-
nak, errepidea egin eta gero, kamioi batean eramaten zi-
tuzten langileak.

Gaizki ordaintzen zitzairen. Euria egin eta lanik egiten
ez bazuten, soldatarik ez, eta etxera joan eta zer janik ez.

Egunero izaten ziren lan-istripuak, eta asko, gainera, peoiek ez baitzuten esperientziarik eta baldintzak ere egiazki txarrrak baitziren. Jana eskasa eta gaixotasunak ugari. Jantzia ere halakoxea: zaharra bezain desegokia. Lanerako ez babesik, ez ezer. Esponja bat bakarrik, soka batez lotuta ahoa estaltzeko.

Hasieran, minerala lurpetik erauzteko, harri-zulataileak hasten ziren harkaitza zulatzen, laztabinaz eta mazoaz joz. Bolbora iritsi zenean, egindako zulo horietan lehegailuak ezartzen ziren. Lan arriskutsua benetan, istripu asko eragiten zituen. Gero, pioiek, pikatxoiak eta mazo hartuta, bigarren zulo bat egiten zuten eta harriaren neurria murrizten, material egokia hautatu ahal izateko. Kalitate txarreko materiala zabortegetara botatzen zen.

Minerala meazuloetatik saskitan eskuz edo bagoietan bultzatuz atera zuten kanpora, eta handik labeetara eramateko sistema bat baino gehiago erabiltzen ziren. Ordekan, garraioa idi-parez, mandoz edo zaldiz egiten zuten. Itzain eta mandazainena lanbide garrantzitsua zen orduan. Toki aldapatsuetan, karga garraiatzeko plano inklinatua eta aireko tranbia erabiltzen zituzten, goiko meazuloetatik ateratako minerala labeak zeuden ingurura eramateko. Bietan sistema berbera zen: beherantz kargatuta zihoan gurditxoak gorantz hutsik zihoana mugiarazten zuen. Diferentzia bakarra zen plano inklinatuan karga lurzoruan tinkatutako errailen gainean joaten zela; bestean, aldiz, airean luzatutako kableen bidez. Plano inklinatu hauek Bizkotxen ez ezik, Urdebideko meatokietan ere erabili ziren.

5. Meatokiak ustiatzeko legeria

Jatorri zaharreko meatoki haiek jabetza pribatukoak eta sarritan jabekidetzakoak ziren garai hartan. Burdinolek ere meatoki horietan beren parte bazuten eta, haietako batzuk udal-jabetzara pasa zirenean, haiei zegozkien meatokiak ere hala pasa ziren (Díez de Salazar, 1983, 155-156). Izan ere, meatokien jabetza auzotar guztiena izaten zen –herritarrena, alegia–, edota partikularrena. Era berean, 1526ko Bizkaiko Foruak 1. tituluko VIII. artikulatuan zekarrenez, horko mendiak eta lurpeko ondasunak oro kapareenak eta herrienak ziren eta horien erabilera Gernikako Batzar Nagusietan erabaki beharrekoa zen bizkaitar guztien adostasunarekin. Ez zen ematen lurzoruko eta lurpeko ondasunen arteko zatiketarik.

Gaztelako Koroak, ordea, ia haien guztien gaineko jabetza beretu egin zuen (Díez de Salazar, 1983, 160). Burdinolen eta meatokien gaineko errege-eskubide (*ius regale*) hau 1348an finkatu zen Alcalá-ko Gorteetan Alfonso XI.ak emandako ordenamenduaren bidez. Koroak bere zerga-zatia kobratzen zuen, hirutik bat. Berak ematen zituen meatokiak ustiatzeko lizentziak.

Legeak lege, ondoko mendeetan zehar meatokien jabetzari buruzko eztabaidak etengabeakoak izango dira eta askotan auzien bidez erabakiko dira. XVI. mende-hasieran Juana erreginak eta honen seme Karlos I.a enperadoreak Lorenzo Garritot jaunari Bizkaiko urre, zilar eta berunak eman zizkioten. Bizkaia emakida horren kontra jaiki zen eta Errege-Kontseilutik bere aldeko erabakia lortu zuen. Berrero XVII. mendean, Bizkaian, Karrantzako bi auzok, erregeari eskatuta, Karrantzako meatokien emakida lortu

zuten, baina Bizkaiko Batzarrek herrialdetik kanpo bota zituzten. Bizkaian, legez izan, bertakoen jabetzakoak ziren meatokiak, hots, Jaurerrikoak. Ez zen aski errege-lizentzia izatea, jabetza errebindikatzeko. Azken Karlistada bukatzean bakarrik jabetu zen haietaz Espainiako legeria.

Gipuzkoari dagokionez, Gaztelako errege Fernando IV.ak 1307ko martxoaren 13an Tolosari bere jurisdikziopeko meatokien gaineko pribilegioak eman zizkion, 1317ko apirilaren 10ean Alfonso XI.ak berretsi zituenak. Leitzarangoak izango zirela irakurri dugu, baina ez zuzen, Berastegi ez baitzen sartu Tolosako jurisdikziopean 1374. urtera arte. Geroago, Bizkaian bezala, Gipuzkoako lurpeko metalekin ere gauza bera egin bide zuten Juana erreginak eta honen seme Karlos I.ak 1594an eta Lorenzo Gorreboten ondorengoak ere Berastegi eta Elduaingo meatokiak beretzen ahalegindu ziren. Azken hau Bressa-ko gobernadore eta Toison-go zalduna zen eta honek burdinazko meatokiak ustiatzeko eskubidea beretu zuen 1528an, Juana Eroak emanik. Honek Berastegi eta Elduaingo meatokien jabetza lortu nahi baitzuen, Kontzejuen haserrea ekarri zuen eta auzietara joan ziren. Zertan bukatu zuten ez dakigun arren, badirudi epaia Kontzejuen aldekoa izan zela, beren meatokiak ustiatzen jarraitu baitzuten, Gorrebot jaunak eskurik sartu gabe. Gipuzkoako Probintziak errege-mesede horien kontra egin zuen eta behingoz bukatu ziren kontu horiek; bertako jauntxoekin ez, ordea (Díez de Salazar, 1983, 170-172). Nolanahi ere, hurrengo azpiatalean ikusiko denez, XIX. mendetik aurrera Espainiako estatua izango da meatokien legea aldarrikatu eta ezarriko duena bere lurralde osoan zehar.

6. Burdinolen kopurua Gipuzkoan

Hasteko, esan behar da burdinola handiek ez bide zutela urte guztian zehar lan egiten. Udan normalean gel-dirik egoten ziren. Bitarte horretan langaiak biltzen zituzten: ikatza eta burdina. Ekoizten zuten burdina ere ez zen beti berdina izaten, eskea ere merkatuan beti berdina izaten ez zelako. Hortik letozke estatistika desberdinetan aurkitzen diren zifren gorabeherak.

XV. mende-bukaeran, Lope Martinez de Isastik (V, 1985, 236) dakarrenez, Probintzian 82 burdinola handi zeuden eta 37 txiki edo gabidun, 27 herritan barreiatuta. Leitzarango haranean bost burdinola aurkitzen ziren: Plazaolakoak, Mustarrekoa –Ameraungoa deitua–, Beriñaskoa, Ollokiegikoa eta Inturiakoa, guztiak beren gabiekin. XVIII. mendearen barruan, 1752an 73 burdinola aurkitzen ziren zentsatuak eta guztira 62.700 kintal burdina ekoizten zuten. Handik mende-laurdenara, 1776an, kopurua 84ra igo zen, baina mende-bukaeran, 1791n, berriro 74ra jaitsi zen (Garmendia, 1976, 200- 244).

Berastegik Elduainekin batera lau burdinola ustiatzen zituen 1752an eta kintal burdina hauek ekoizten zituzten: Plazaolakoak 800, Ameraungoak 600, Ollokiegikoak 800 eta Inturiakoak 600. Horko olagizonak, hurrenez hurren, Migel Eguzkitza, Juan Labaien, Larburu eta Manuel Oinar-te izan ziren. Lehen hiruak Berastegi eta Elduaingo Udalenak ziren; azkenekoa, aldiz, Zizurkilgo San Millango markesarena.

Gipuzkoan herri asko ziren burdinola bat baino gehiago zituztenak. Beren lursailetan meatokiak zituztenak, ordea, oso gutxi.

Merkataritza eta Monetako Errege-Batzarrak Gipuzkoako meatoki eta burdinolen zenbaketa zehatza egiteko agindua eman zuen 1791n eta orduko datuetan burdinolak zeuzkaten herrien artean banaka batzuk baino ez ziren aurkitzen, zehazki hauek: Zerain, Errenteria, Oiartzun, Mutiloa, Irun, Arrasate, Elduain eta Berastegi. Bi hauek batera dituztenak, berriz, Leitzarango burdinola hauek ziren: Plazaola, Ameraun eta Ollokiegikoa. Inturiakoaren aipamenik ez da egiten, honek oraindik San Millango markesaren jabetzakoa izaten segitzen baitzuen. Arditurriko meatze-guneak hain historia luzea izanda –egun Oarsoaldea Turismoak bisitarientzat berreskuratu duena–, bitxi samarra gertatzen da meatokien zerrenda horretan Oiartzun herriaren izenik ez aurkitzea.

XVIII. mende aurreko siderurgian egur-ikatzak erabiltzen baitzen, ikazkintzaren arloa ere arautua zeukaten Batzar Nagusiek eta Udalek murriztua zuten beren aginpidea. Halere, 1783an Kontzejuei arbolak mozteko baime-na eman zitzaion, behar ziren obrak, berrikuntzak eta konponketak egin zitzaten burdinoletan, errotetan, etxeetan, zubietan, etab. Berastegi eta Elduain herriek, Ariztun-ugaldeko Bideraunen elkartuta, Ollokiegiko burdinola inguruko arbolak lehen hamabi urtetan ez saltzeko hitzar-mena izenpetu zuten Jose Antonio Muñagorri eskribau ezagunarekin 1818an (Garmendia, 1976, 141). Baina Gipuzkoaren legeria zahar hau errege-ordenamendu orokor batek aldatuko du 1833ko abenduaren 22an.

Burdinaren sektorea egituratzeko Meatokien Legea 1868an aldarrikatu zen. Burdinolak bideratuak zeuden ordurako. Estatua egiten zen errentagarria izan zitekeen edozein meatokiren jabe eta, aldi berean, haien ustiapenen

gozamina ezarri zuen meatoki-emakiden bidez. Emakidaren titularra zen, beraz, eta meatokiak ustia zitzakeen. Ustiapenerako lur-azalerak ere zehaztu zituen. Emakidak meatokia ustiatzeko baimena bazuela inplikatzan zuen, baina ez haren errentagarritasunaren bermea. Gertatzez, emakida gehienek ez zuten etekinik ekarri. Zegoen guztia, emankorra izateko esperantza zeukan ustiatzaileak.

Esana daukagu, burdinolak martxan jartzeko, hiru gauza behar zirela: minerala, egurra eta ura. Leitzarango haranak abantaila hori zuen, hiru horietatik bazuela nahikoa edo, bederen, dezente. Ugariak ziren meatzeak, arestian ikusi bezala. Egur-ikatza egiteko oihan-sail handiak behar izaten ziren eta txondorrek beti piztuta egon behar izaten zuten. Leitzarango basoz ere aski ongi hornitua zegoen. Hango haranean Sagarminagako pagadia, herriko handiena, zen horretarako egokiena, Gorosmenditik behera jaitzita aurkitzen dena. Bertan ikus daitezke garai batean gure arbasoek egiten zituzten txondorren aztarnak⁸. Noizbehinka sarrietako zuhaitzak ere erabiltzen ziren xede horretarako, baina arautua zegoen baso-mozketa noiz, non eta nola egin. Elgoibarren 1552ko apirilean egindako Batzar Nagusietan erabaki zen haritz gidatuak lantzea, zuhaitz-enbor batetik bestera 60 ukondoko tartea –46 metro ingurukoa–, utziz, horrela altuera handia lor zezaten eta itsasontzien habe eta masta handiak egiteko erabilgarriak izan zitezten. Elduain eta Berastegin horrela gidatutako zuhaitzari “epinabarra” deitzen zitzaion, “ipina” eta “adarra” hitzak elkartuz osatua (Díez de Salazar, 1983, 148).

Burdinolek ura behar izaten zuten makinariaren gurrupilak mugiarazteko. Gurrupil horiek bere biribilaren bueltan egurrezko beso batzuk izaten zituzten sartuta eta minutuko

24tik 30 bitarteko bira egiten zuten. Gurpilak zenbat eta diametro handiagoa izan, zenbat eta ur-jauzi ugariagoa, orduan eta handiagoa zen eragiten zuen indarra (Díez de Salazar, 1983, 94). Leitzarari ibaiaren emana handia izanik ere, badirudi hango urak ez zirela beti aski izaten burdinolak urte osoan zehar martxan edukitzeko, batez ere, udarteetan, lehortearekin ibaiaren emaria urritzen zelako; ondorioz, gelditu egiten ziren (Carrion, 1975, 85-86). Nolanahi ere, burdinolak desagertu diren honetan, gero zehaztuko dugun bezala, hainbat zentral hidroelektriko mugiarazten ditu Leitzarari ibaiak.

7. Burdinolak Leitzararen

Garai desberdinen arabera, burdinolen teknologian ere eboluzioa eman zen, batez ere, burdinaren lanketa basoetatik ibaiertzetara aldatu zenean, hots, haizeolak burdinola bilakatu zirenean.

7.1. *Mendietatik ibai ertzera*

Leitzarango harana aberatsa zen mineraletan, bereziki, burdinatan. Burdingintza antzinatik ustiari izan den industria da. Badirudi burdinaren ustiapena haizeolekin hasi zela. Esaten denez, Euskal Herrian burdina horrela erauzteko sistema K.a. 500. urtean sartu zen eta hori erabiliz jarraitu zuten XIV. mendera arte. Beraz, haizeola hauek, egitura oso arruntekoak ziren arren, 1.800 urtez segitu zuten indarrean.

XVI. mendearen bigarren erdian, Esteban Garibaik dakarrenez, mendi-gailur askotan zepak eta beste hondakin

batzuk agertzen omen ziren, haietan burdina landu zen seinale bezala. Honek esan nahi du aurreko mendeetan burdingintzaren prozesu osoa mendietan hasi eta burutzen zela, eta garraioa ere mendiz mendi egingo zela.

Mineral hau, hasieran, labe arruntetan erreko zen, mendian, egur-ikatzegaz egindako sutegian, eskuz mugituta hauspoen bidez. Nolakoa zen haizeola baten funtzionamendua? Burdina egurrezko ikatz-pila handiak sutan jarriz erretzen zen. Minerala, ikatzarekin batera jartzen zen gerri handiko zuhaitz-enbor baten barruan, aldeztatik haren barrunbea ondo hustu, buztinez eta beste substantzia mineralak zindo estali ondoren. Errekuntza ahuntz-larraz egindako hauspoen bidez jartzen zen martxan, hura hankeztatik eta, sarriagotan, eskuz mugiaraziz. Haizebideetatik sartzen zen hauspoek sortutako haizea. Mineralak, erretzean, “arragoa” izeneko zulo batera botatzen zituen bere zepak. Sistema hau oraindik indarrean egon zen XVIII. mendean Zegamako olagizonetan. Zegamako mendi garai eta isolatuetan emakumeak ere burdingintzan aritzen omen ziren XV. mende-bukaeran eta XVI.aren hasieran (Caro Baroja, 1971, 185-187).

Leitzarango haranean haizeolen aztarnarik ez bide da aurkitu, baina honek ez du esan nahi, besterik gabe, izan ez zirenik. Datu egiaztagarrik ez da, baina oso litekeena da Leitzarango haranean burdingintzaren sorreraren bila abiatzeko orduan historiaurrera joan behar izatea. Izan ere, kontuan izanda bertan hainbeste meatoki daudela eta, bestalde, Burdin Aroko kulturen bizi izandako jendearen aztarna garbiak aurkitzen direla, ez dirudi hain burugabea horrela pentsatzea. Bertan dauden tumuluak dira horren lekuko. Industria hori noiztik nora landu zen zehaztea,

ordea, zaila da. Konforma gaitezen esanez aspaldiko ofizioa dela haran honetan.

Nolanahi ere, bada Berastegi eta Elduain unibertsitateek 1490ean emandako eskritura bat, eta hor olagizonei baimena ematen zitzaien burdinolak eraiki zitzaten, baina beti martxan edukitzeko baldintzarekin. Zehazki, urtean 500 kintal burdina ekoiztu behar zituzten eta horietatik bederatzi bi Udali eman behar zizkieten. Bada pentsatzen duenik burdinola horiek izan, haizeolak izanen zirela, mendiko arruntak (Carrion, 1975, 84). Uste hori, ordea, ez da egiaztatu.

“Festaburdina” izenez ezagutzen zen Udalari eman beharreko zerga hori. Galdetuko da, beharbada, bi Udalek zergatik ematen zituzten horrelako erraztasunak herritarrek Leitzarango meatokiak hain errenta apalean –ia debalde–, ustia zitzaten. Horren arrazoia da, Berastegiko kontu-liburuetan adierazia datorren bezala⁹, emakida horretan udal-ondasunen eta errenten iturria gehitzeko eta, bidena-bar, hango baso itxi eta sasitsuetan zebiltzan hainbat animalia kaltegarrirekin bukatzeko modua ikusten zutela. Ustiatzaileek, beraz, debalde jaso zituzten burdinolak eta hauen inguruan etxebizitzak egiteko materiala, lantzeko lursailak eta mendiak. Beraz, hango lurretan lanbide berri bat sortu nahi izan zuten. Eta badirudi, zehazki aipatzen ez bada ere, Udalen mota honetako emakida horrek zerikusirik bazuela Berastegiko jauntxoaren kontra zeramaten borrokarekin. Izan ere, burdin ustiapenen kontrola urte askotan zehar, eskualde bakoitzeko jauntxoan eskuetan egon zen. Hala, adibidez, Somorrostroko meatokiak XV. mendean (Caro Baroja, 1971, 185).

Baina zein testuingurutan garatu zen Leitzarango burdingintza? Nola eman zen, eman bazen, haizeoletatik burdinoletarako jauzia?

Orokorrean esanda, XV. mende-bukaeran, Europako ekonomiari eta, ondorioz, Euskal Herrikoari ere izugarri eragin zioten bi gertakari eman ziren: Amerikaren aurkikuntza eta itsasbide berrien urratzea. Hauek, noski, burdinaren merkatua asko indartu zuten, beharrezko lehengai bihurtu baitzen armagintzarako nahiz merkataritzako, beharrezko produktu barne-merkaturako zein esportaziorako. XVI. mendean burdinaren industriak estimu handia izan zuen. Asko erabiltzen zen armagintzan bertan, mende horren hasieran, batez ere, etengabeko gerrak izan baitzuten Espainiak Italian, Afrikako iparraldean, Alemanian, Ameriketean. Gipuzkoak eta Bizkaiak, biek, urteko milioi bat kintal burdina ekoizten zuten XVII. mendean eta 3.000 burdinola zeudela kalkulatu da. Ondoko mendeetan burdinaren industria ontzigintzara zabalduko da. Gipuzkoan Donostia eta Pasaia ziren ontzigintzaren gunerik nagusiak. Esportatu ere gehien burdina esportatzen zen, landuta edo barretan. Bizkaian, ordea, 1526ko Foru-Legeak debekatu egin zuen bere lurraldetik at burdina ateratzea. Itsasontziek burdina eramaten zuten eta itzuleran janariak, oihalak, artegauzak, eta hemen behar ziren beste gauza batzuk ekartzen zituzten (Zabala; Iglesias, 1971, 143-148). Ageri denez, bada, burdinolek estimu handia zuten, aberastasun-iturri zirelako, eta beroriek bideratzeko lehengaiak zituzten leku gehienetan eraiki ziren. Baita Berastegin ere.

Dena den, burdinola horien errentagarritasunean mende horiek guztiak ez ziren berdinak izan. Garai onenak XVII. mendea bitartekoak izan ziren. XVIII. eta XIX.

mendeetan atzera egin zuten eta teknologiaren aldetik zaharkituak zeuden. Azkenean desagertu egin ziren. Jadanik XVIII. mende-hasieran Udaleko kontu-liburueta idatzia dator burdinola asko porrot eginda zeudela eta baserri gisa alokatzen zirela.

Zergatik porrot egin zuten? Beste arrazoen artean, batez ere, instalazioak erre egiten zirelako eta uholde handiek presak eta gurpilak desegiten zituztelako. Horrelakoak gertatzen zirenean, Udalak genituen konponketa-gastuak ordaindu behar izaten zituztenak eta horiek galera ekartzen zizkion udal-kutxari (Carrion, 1975, 87-88). Kontua da, XVIII. mendearen azkenera arte burdingintza, armagintza eta ontzigtintzan oinarritzen den euskal ekonomia krisi sakonean murgildua aurkitzen dela XIX. mende-hasieran, nahiz bitarte horretan industria berri batzuk agertzen diren, horien artean paper-lantegiak Tolosa eta Amezketa (Zabala; Iglesias, 1971, 155-158). Berastegin ere bai geroxeago Elduako auzoan.

Berastegin burdinolen historia testuinguru sozioekonomiko horren barruan kokatzen ahaleginduko gara, hai zeolen kontua, izan bazen ez bazen, alde batera utzita. Nolanahi ere, komeni da zehaztea XV. mendearen erdi aldera ordezkatu zituztela burdinola hidraulikoek haizeolak. Haiak izan ziren burdina eraldatzeko lehen lantegi metalurgikoak. Euskal Herrian bera izan zen mineralaren lanbiderik zaharren eta garrantzitsuena industrializazioaren aroa etorri zen arte.

Orditik aurrera, burdina lortu eta lantzeko teknologia konplexuagoa izango da; errendimenduak, halaber, askoz hobeak. Fabrika berri honen oinarritzko elementu osagarriak, kanalak, presak eta konportak ziren. Presetan biltzen ziren ibaitik hartutako ur kanalizatuak eta horko urek,

uhate batetik behera indar handiz eta ziztu bizian jausiz, gurutze-erako gurpilak mugiarazten zituzten eta horiek, bide batez, bi ardatzen hortz edo, Berastegin esaten den bezala, “mazo-kabien” bidez, gabia eta bi hauspoak jartzen zituzten martxan (Garmendia, 1976, 176). Konportaren funtzionamendua olagizonak kontrolatzen zuen, haren esku zegoen estalkia zenbat ireki edo itxi, soberakina estoldatik ibaira joaten zelarik.

Burdinolak jadanik 1540an orokortuak zeuden, eta 1548an Bizkaia eta Gipuzkoan 300dik gora ziren horrelakoak. Uraren eraginez funtzionatzen zuten burdinola hauek bi eratakoak ziren: handiak, *zeharrola* deituak, eta txikiak, *martinete* edo *gabia* deituak. Lehenengoetan mineral-masa handiak egiten ziren, *ahoak* deituak; txikietan, pieza txikiagoak egiten ziren, *totxoak* deituak, eta hauek tresna txikiak egiteko erabiltzen ziren, nekazaritzarako-eta. XVIII. mendetik XIX. mendera bitartean burdinola hauek gutxitzen joan ziren Gipuzkoa eta Nafarroan, nahiz aurreko mendetan Bizkaian baino gehiago zeuden. Hemen metalurgia indartu zen. Gipuzkoan 1880an itxi ziren azkenekoak (Caro Baroja, 1971, 188).

Fabrika hauentzat oinarrizkoa zen eskura egur-ikatz merkea ugari eta hurbil izatea. Askoz garestiago ateratzen zen egur-ikatz urrutitik ekartzea burdina lortzea baino. Nolanahi ere, Leitzarango burdinoletatik hurbil, bietatik bazen aski, metaletik adina ikatzetik. Ura eskas udan.

7.2. *Kokapena eta kopurua*

Leitzarango arroan izandako burdinolez ezin da eman kopuru zehatzik. Autore batzuek 14ko kopurua ematen

dute, ordena alfabetikoan honela izendatuta: Ameraun, Auntzola, Barrenola, Beriñas, Eskibar, Elkilto, Ezkeltzu, Inturia, Lasteabizkar, Mugizalas, Mustar, Nordeiza, Ollokiegi eta Plazaola. Hauek guztiak daude dokumentuetan egiazta- tuak, baina ez dakigu Barrenola, Eskibar, Lasteabizkar, Nordeiza eta Mugizalas, zehazki lau hauek non kokatuak zeuden. Jakin badakigu Barrenolakoa martxan zegoela 1415ean, baita Mugizalaskoa eta Nordeizakoa ere, berdin Eskiltokoa 1468an, baina horietako batzuek 1497an utzi zioten ustiatzeari. Lastebizkarrekoaz aipamen bakarra 1467koa da. Bestalde, Auntzolako horren berri handirik ez da. Berastegiko Ariztunen 1490eko maiatzaren 6an datatu- tako dokumentuan dator horren izena eta garai horretan, Ezkeltzukoarekin batera, geldirik zegoen. Plazaolakoaren ondoan, edo hor nonbait, Urtoko burdinola txikia ere aipatzen da 1556ko apirilaren 9ko dokumentu batean, zinetan esaten baita Anton Yartua, Plazaolako olagizona, Urtokoa ere bazela eta hor burdina mehetu egiten zela (Díez de Salazar, 1997, 219-243). Burdinola hau Leitzako partean zegoen, Urtoko zubia zeharkatu eta 400 metrora- edo, eskuin, autobioiako zubi garaiaren ondoan. Orain ere bertan dago izen bereko eraikina, orduko bere aztarnekina.

Beste iturri batzuetan, XV. mendetik aurrera, Leitzarango haranean 18 burdinola bederen bazirela esaten da, horien artean, lehen aipatuez gain, Olabarria, Marindu, Vernas, Ynturrino eta Narvarrayn, orduko grafian. Nolanahi ere, aztarnak agerian izan ala ez, 6 burdinola dira 1500eko dokumentu batean izendatuta datozenak, nahiz gaurko egunean ordukoetik biren aztarnak bakarrik geratu diren: Ameraun eta Plazaolakoarenak.

Berastegik eta Elduianek batera izandakoak aipatuko ditugu: Plazaola, Mustar, Ollokiegi, Beriñas eta Inturiakoa. Bakoitzari buruz zerbait esango dugu, Luis Miguel Díez de Salazar ikertzailea gidari dugula.

7.2.1. Plazaolakoa

Hau da Berastegitik hurbilen dagoena. Lehengo hartatik zati hauek gordetzen dira: ataurrea eta hemendik bideratzen den zentral hidroelektrikoaren kanala, baserri bihurtutako olagizonaren etxebizitza eta tailerren hondakinak. Olagizonen etxebizitzak oso antzekoak dira haran osoan zehar. Bat ezagutzea nahikoa da besteak ezagutzeko.

Ollokiegiko burdinolaren ondoren, hauek dira ondoen gordetzen direnak. Presa lehengo zaharraren gainean eraikia izan da seguru asko, orain zentrala aurkitzen den lekuan. Zentralaren kanala ere burdinolarena izandakoaren bide beretik doa, luzeran 240 metrokoa zena, eta altueran 1,5ekoa.

Anteparak ederki gordetzen dira, luzeran 23 metrokoak, eta beren hormek lodieran 2,5 metro dituzte. Horma bakoitzean lau arku aurkitzen dira aurrez aurre begira, 1,10 eta 1,30 bitarteko lodierarekin. Anteparen ezkerrean aurkitzen zen martinetea; eskuinean, berriz, lantegia; honen aldamenen zeuden ikatz-biltegiak, mineralak, erremintak, etab., eta hauen horma batzuk baino ez dira geratzen; eskuinean harago, erretzeko labea, gordetzen ez dena. Hau guztia horma batek ixten zuen ibaiarekin muga eginez. Ibai ondoan eta burdinolaren inguruetan zepa ugari aurkitzen da.



Plazaolako burdinolaren arkuak (Iztueta, 2010)

Izen bereko baserria burdinolaren etxebizitza izan zen, harrizkoa, hiru oinekoa. Horren aurretik pasatzen da zentralaren kanala. Eraberritua izan da 2004an.

Burdinola honen jabetzaz gauza garbirik ez da. Juan Sanchez Hernialdekoa izan zen La Plaza burdinolaren jabe eta olagizona 1415ean. Urte honetan, beste burdinoletako jabe batzuekin batera, hitzarmen bat izenpetu zuen Berastegi eta Elduaingo Kontzejuekin. Dokumentu horretan agertzen da La Plaza eta Barrenolako jabeek lehenago ere egina zutela Kontzeju horiekin beste hitzarmen bat. Beraz, 1415. urtea baino lehenago ere martxan zegoen (Díez de Salazar, 1997, 238)

Juan Lopes de Ysturizagak, Ferrand Lopes de Saldañaren morroiak, burdinola honen errege-eskubideak (*derechos de albalá*) beretuak zituen, Juan II.a erregeak (1406-1454) emanik. Hau hiltzean, honen semeak, Enrike IV.ak, 1470eko urriaren 30ean Domenjón González de Andia-ri “bizitza guztirako” eman zizkion eskubide horiek. Fiskalitateari buruzko 1497ko txosten batean zehazten denez, zerga-eskubide horiek 1800 marabedira iristen ziren, esan nahi baita burdinola horrek urtean 600 kintal burdina ekoizten zituela. XV. mende-bukaeran, 1494an, Martin Plazaola zen haren jabea eta bertako olagizona ere bai.

Hurrengo mendean, 1539an, hango olagizona Joan Arrue zen eta itzaina, berriz, Migel Berakoa; 1540an, Martin Joan Etxeberria zen olagizona. Martin Plazaola azaltzen da 1544an jabe bezala. Honek, bere emazte Catalina de Baeca-rekin batera, Inturiakoa ere berea zuen.

Badirudi 1551n Plazaolako burdinolaren jabetza zatitu egin zela. Etxe, burdinola eta errotaren erdia Berastegiko Martin Joan Etxeberriaren izenera pasatu zen, 1552an bertako olagizon bezala azaltzen dena. Izen-abizen bera baitute, baliteke 1540, 1544. eta 1551. urteetan azaltzen den nagusi hau pertsona bera izatea. Honek 1552ko uztailaren 17an kontratu bat egin zuen Martin Askarragarekin Oringo zainetik ateratako burdinarekin egindako 11 kintal entregatzekotan.

Martin Joan Etxeberriak burdinolaren laurden bat eta errota Gregorio Etxeberriari saldu zizkion 1552an, eta honek Leonor Plazaolari utzi. Emazteki hau Joan Otxoa Zorrobiagaren emaztea zen eta Inturiako burdinolaren erdiaren jabe ziren Andres Plazaola eta Joana Inturiaren alaba, eta Plazalakoan jabeakide izanez segitzen zuen 1557. eta

1559. urteetan ere. Badirudi Martin Joan Etxeberriak 1573. urtera arte gorde zuela burdinolaren laurdenaren jabetza.

Martin Rementaritegi zen beste erdiaren jabea 1556an, eta urte horretan bertan bere zatia saldu zien bertako olagizonak ziren Debako Batxiler Andonaegi eta Anton Yartu jaunei eta hauek agertzen dira jabe bezala 1559an ere. Handik bi urtera, 1561ean, haren jabe bezala Anton Yartua agertzen da eta, seguru asko, Andonaegiren laurdena ere berea izango zuen, honen arreba Anarekin ezkondu zenean. Jabe bakar izanez segitzen du 1567an ere. Anton eta Ana senar-emazteak Plazaolako jabe eta olagizon bezala agertzen dira 1564an eta Elorriko Joan Gartzia Leaniz jaunari 104 kintal burdina Tolosan entregatzeko konpromisoa hartu zuten. Antonek beste kontratu bat ere egin zuen 1566ko abenduaren 3an Tolosako Joanes Iriarte merkatariarekin, 300 kintal burdina Tolosan entregatzekotan, kintaleko 21,5 errealetan. Anton Yartua, Plazaolako burdinolaz gain, Oringo zainen jabea ere bazen, Mustarreko olagizona zen Agustin Olaondorekin batera. Esana dugu nola Berastegiko Kontzejuarekin auzi bat izan zuten jaun horiek, Elduaingo meatzari batzuk Oringo meatokian harrapatu zituztelako.

Alabaina, 1573an Anton Yartuak eta 1552az geroztik laurdenaren jabetza gorde zuen Martin Joan Etxeberriak, bi hauek Martin Rementaritegiri saldu zizkioten etxebizitza, burdinola eta errota, baita zainak ere. Beren jabetza galdu bazuten ere, bertako olagizon bezala segitu zuten. Saldu eta gero, urtebeterako errentan hartu zuen Anton Yartzak 1573ko martxoaren 1ean, zeina Plazaola eta Mustarreko olagizon bezala agertzen baita urte bereko otsailean. Urtoko olagizon ere bazen 1574an. Ez dakigu zer egin zuen

Martin Rementeritegik burdinolarekin, saldu ala beste batekin trukatu, edo zer. Kontua da Plazaolako burdinola errentan emana zeukala Elduaingo Kontzejuak 1575an eta orduz gero haren jabetzakoa zela.

Handik aurrera, hango olagizonak aldatzen joango dira: 1576 eta 1579an, Joanes Yereta zen, 1581 eta 1582an Migel Arpide, eta Joanes Aranazkoa 1599an (Díez de Salazar, 1997, 239-241).

Dordoategi eta Oringo meazuloetatik ateratako minerala erretzen zuten eta Tolosako merkatura eramaten han landutakoa.

Zeren izenean ez dakigula, burdinola honek 2544. urte-inguru horretan Berastegiko Joan Martinez jaunari belaunez belaun herentziaz zetorkion errenta-eskubidea, *renta de juro de heredad* deitua, ordaindu behar izaten zion, urtero Eguberriz, 3 kintal burdina. Auzitara jo zutelarik, epaiak Berastegiko jauntxoari eman zion arrazoia eta haren jabeak 25 urteko atzerapenak ordaintzera behartu zituen 1544ko urtarrilaren 3an.

Plazaola industrigune konplexua zen, bertan kokatuak baitzeuden etxea, burdinola eta errota, eta XVI. mendearen erdi aldera Yartua eta Andonaegi jabeek nabarmenki handitu zituzten bertako instalazioak, burdinola txikia –gabi-duna–, eraikiz. Berastegi eta Elduaingo Kontzejuak, ordea, kontra atera zitzaizkien, salatuz “Erretenbarrudian”, burdinola nagusiko errotaren ondoan, eraikitzen ari zirela eta lur hura haiena zela. Auzitara joan ziren, Valadolliedeko Kantzelaritaraino joan ere, baina, bide horretatik joanda onurak baino gehiago gastuak zetozkiela-eta, azkenean, konponketa batera iritsi ziren. Jabeek lortu zuten martinetea eraikitzea 1578an, baina ezin zuten han burdina, altzairua edo kobrea

urtu, burdineria, iltzeteria, barrak eta horrelakoak mehetu baino ez.

Berriro 1582ko irailaren 9an errentan jarri zen burdinola. Burdinola txikia eta handia egoera txarrean aurkitzen zirela-eta, Kontzeju biak Joan Lopez Txopillo eta Lope Altamira zurginekin hitzartu ziren konponketarako 1599an. Bestalde, urte bereko irailaren 17an Martin Zufiria langile tiratzaileak Joanes Aranaz olagizonari zorra ordaintzeko eskatzen dio burdinolan egindako 2 urteko lanengatik.

XVII. mende-hasieran, 1603an, bertako nagusi bezala Francisco de la Plaza agertzen da, ikatzak eta zainak enbargatu zizkiolako Iruñean auzitan sartuta Nafarroako Martin Okariz oholtzagilearekin. Nolanahi ere, bitxia gertatzen da hemen haren jabe-izaera agertzea, ordurako, esana daukagunez, Berastegi eta Elduaingo Kontzejuena baitzen eta gerora horien eskumenekoa izanez jarraitu baitzuen. Kontzejuek 1615ean ezarritako “festaburnia” izeneko zerga, 9 kintal burdina zen. Lope Martinez de Isastik burdinola honen berri 1625ean ematen du.

XVIII. mendean, 1752an, Berastegiko burdinolen berri ematen denean, esaten da lau dituela, hiru herriarenak direla, hauetako bat Plazaola, eta bertan Migel Eguzkitza olagizonak 800 kintal ekoizten dituela. Domingo Eguzkitza zen 1781ean bertako olagizona, seguru asko Migel zenaren senitartekoren bat. Migelek, hain zuzen, 1770ean utzi zuen Plazaola Luzaiden Antzolako burdinola hartzean, eta seguru asko orduan sartuko zen Plazaolan Domingo olagizon bezala. Badirudi honek bazituela Leitzan beste burdinola batzuk ere errentan hartuak.

XIX. mendean, lehen Karlistada hasten den urtean (1833), Berastegiko Jose Antonio Muñagorri zen Ameraun,

Ollokiegi, Plazaola, Urto eta Zumarristako burdinolen errentaria, azken hau Eratsungo partean. Beste atal batean aztertzen dugun bezala, kausa karlistaren alde jarri zituen horien ustiapenak. Gerra karlista bukatu eta gero, 1842ko otsailaren 28an, Plazaola eta Ollokiegiko burdinolak 6 urterako errentan jarri ziren. Plazaolakoa Berastegiko Migel Jose Lizarzak hartu zuen Ildefonso Gorrotxategirekin batera.

Beren lursailak batera kudeatzen zituzten bi Kontzejuen arteko zatiketa 1848an egin zen, eta orduan Plazaolakoa Berastegiren jabetzakoa izatera pasatu zen. Pablo Gorosabelek 1862an martxan zegoela badio ere, ordurako bukatuak zeuden hango lanbideak. Egoera negargarrian aurkitzen baitzen 1867 eta 1868an, Berastegiko Udala behin eta berriz ahalegindu zen hura saltzen, baina ez dirudi lortu zuenik. Honela, 1868ko irailaren 27an, Udalak Leitzalarreko ikatzak Plazaolan sartzeko baimena eman zion Goitia y Compañía elkarteari, burdinolari suteagatik edo beste arrazoi batengatik egin-kalteak ordaintzeko baldintzarekin. Handik bi urtera, 1872an, Andres Aldunzin zinegotziak –Santa Kruzek fusilarazi zuen berberak–, Plazaolako zubia aurri-egoeran zegoela-eta, ganaduak handik ezin zitezkeela pasa jakinarazi zuen (Garmendia, 1976, 247).

7.2.2. Mustarrekoa

Lehengo Mustarreko burdinola, Mustazar deitua, trenbidez Plazaolatik Ameraungo norabidean, ezkerrean aurkitzen da, ibaiaren ondoan, 5. eta 6. tunelen artean, eta lehengo hartatik labeak geratzen dira, Mustarzar eta Mustarberri baserriaren artean daudenak; meazuloak, berriz, 5.

tuneletik 120 metrora mendi-bidea hartu eta, Mustarberri-
tik Olizarrerako bidean aurkitzen dira. Mustarreko gunean
aurkitzen dira, trenbidearen eskuinean, 5. tunela pasa eta
laster, labeak eta segidan burdinola, eta Leitzarango ibaiaren
ezkerrean, presa, kanala eta meazuloak. Beraz, meatokiak
eta burdinola ia parez pare aurkitzen dira, tartean ibaia
baino ez dutela.

Badirudi Ameraungo zentraleko oraingo presatik hurbil
kokatua zegoela, oraingo hau baino 2 metro gorago. Kanala
oso ondo gordetzen baita, zailtasunik gabe ikus daiteke zein
zen bere ibilbide laua. Bere jaitsieran Lorditz errekatik
datorren kanala zeharkatzen du, gero zabalduz joateko 5
metroko zabalera lortuz, anteparetara heldu aurretik ohi zen
bezala. Antepara hauek ez dira gordetzen, baina, zepak
ikusita, zehaztasunez jakin dezakegu non kokatuak zeuden:
oraingo terraza-mailatik 4 metro beherago, ibaitik hurbil.

Burdinola bera non eraikia zen jakitea zailagoa da, garai
hartako haren aztarnak ez baitira agertzen, beste burdinola
batzuetan gertatzen den bezala. Mustarzarreko hondakinak
bezala ezagutzen diren eta egoera txarrean dauden horma
horiek seguru asko burdinolaren etxebizitzari zegozkionak
izango ziren, sute batek desegin zuena. Mustarberria base-
rria seguru asko burdinolarena izango zen, jakin gabe,
ordea, noiz eraikia izan zen. Urruti kokatua zegoen, burdi-
nolatik bidez 750 metrora.

Baina guri interesatzen zaiguna da nor ziren horko
ustiapena kudeatzen zutenak eta nor horren jabeak. Enrike
IV.ak Martin Alkizari eman zizkion albala-eskubideak eta
hamarrenak 1468ko urriaren 8an. Gerora honek bere es-
kubide horiek Nikolas Gebarari pasa zizkion, honi Errege
Katolikoek emanda.

Mustarreko burdinolaren jabetzari buruzko lehen datu ezaguna 1532koa da. Haren jabeak Berastegi eta Elduaingo Kontzejuak ziren; geroztik ziur —eta lehendik ere bai seguru asko—, hala izan ziren. Urte hartan olagizona Joan Gazpio zen. Gero, 1550ean, bi Kontzejuek Martin Bengoetxea maisua Mustarreko anteparak egiteko kontratatu zuten, 90 dukat aginduta. Horman zulo bat egin behar izan zuten bere arkuarekin sutegi-hauspoen gabi-ardatza tinkatzeko. Urte horretan Kristobal Zumarrista zen bertako olagizona, baina 1551ko irailaren 3an alokairua Martin Antziolari pasatu zion. Orin, Lizarraga eta Nordeizako zainen zati bat ere utzi zion. Honek 1554an kontratu bat egin zuen Esteban eta Pedro Intzarekin, eta bere jabetzakoak ziren Nordeizako bi zain eman zizkien, handik burdina ateratzeko. Hurrengo urtean, olagizona kexatu egin zen Berastegi eta Elduaingo Kontzejuen erruz lanik ezin egin izan zuelako, batean mailua falta zelako, bestean presa konpontzen ari zirelako.

Hurrengo hamarkadan, 1566ko urriaren 6an, Agustin Olaondok hartu zuen errentan, oraingoan Ameraungoarekin batera. Hura Oringo zainen jabea zen, Anton Yartuarekin batera. Lehenago, 1561ean, Kontzejuek Alonso Aurkiari alokatu baitzioten, Agustinek honi 55 kintal eta 2 arroba burdina eman zizkion 1568an. Hurrengo urtean, 1569an, Kristobal Sagastiberri agertzen da olagizon bezala. Baina berriro 1573ko abuztuaren 9an alokairuan jarri zuten urtebeterako bere errota eta guzti, eta Anton Yartuak hartu zuen. Olagizon honek 1574an Plazaola, Mustar eta Urto, hiru burdinola hauek ustiatzen zituen. Mustar eta Ameraungo Joanes Urbietak olagizonak Tolosako Joana Olaetxeari sutegi-hauspo zahar batzuk erosi zizkion. Berriro 1598ko

maiatzaren 31n alokatu zuten, bere errotarekin, lau urterako. Ordura arteko zerga urteko 6 kintal burdina zen; aurrerantzean, 1615. urtean bederen bai, 9koa izango zen. Badirudi azken urte honetan Mustar eta Ameraungo burdinolek zergarik ez zutela ordaindu auzitan zeudelako.

XVII. mendearen erdi aldera, burdinola hau geldirik zegoen. Burdinolen zerrenda ematen den 1752ko dokumentuetan eta ondorengoetan ez dator burdinola honen izenik. Funtzionatzeari utziko zion, seguru asko, XVII. mendearen erdi aldera Ameraungoa birgaitu zelako, burdinola nagusi bihurtuz bere martinetearekin.

Gutxi dakigu hango langileez, baina bai kalitate oneko burdina egiten zutela, bertako minerala –Oringoa–, erabiliz, eta Tolosako merkatuan enplegatzen zela.

7.2.3. Ameraungoa

Hemen, 11. eta 12. tunelen artean aurkitzen da burdinola hau, bere fabrika eta zati osagarriekin.

Duela gutxi arte presa-hasierakoak izan zitezkeen egurhondakin batzuk agerian zeuden, baina egun azpian hartuta daude. Kanalak ibaiari jarraitzen zion 50 metrotan zehar eta oraindik ere ikus daitezke harrizko hormaren zati eta zepa batzuk. Orain hormaren azken 15 metroak bakarrik bistatzen dira. Eta kanalaren bigarren zatiak luzeran 70 metroko tunela zeharkatzen zuen, dena harkaitzean zulatuta egina. Anteparak osorik gordetzen dira, ibaia eta trenbidearen erdian kokatuak. Haien luzera 21 metrokoa da, eta haien hormen lodiera 2,35 eta 2,55 metrokoak dira. Lau arku daude aurrez aurre jarriak eta horien altuera 1 eta 1,4 metro bitartekoa da. Egundako arku horiek guztiak itxita

daude kanpoko aldetik. Jatorrizko lurzoruak oraingoak baino 1,1 eta 1,3 metro beherago egon behar zuen. Anteparen altuera gutxienik 6,2 metrokoa zen. Horien atzean eta etxebizitzaren artean zahar itxurako horma-hondakin batzuk agertzen dira, burdinolaren garaikoak izan daitezkeenak. Zepen hondakinik ez da ageri, seguru asko, zentrala egiterakoan desagertu zelako. Burdinolaren etxebizitza, baserria, gaindegitxo batean kokatua aurkitzen da eta handik ederki bistatzen dira beheko instalazioak. Egun gauden ukuilu bezala erabiltzen da. Egoera onean aurkitzen den harrizko zubi batetik barna joaten da Ameraundik Berastegirako bidea, Beibatari eta Gorosmendi mendilepoa zeharkatuta.



Ameraungo burdinolako anteparak, luzezan 23 metro eta alboetako horma sendoen artean bi metroko tartea (Iztueta, 2010)

Plazaola eta Mustarreko burdinolen kasuan bezala, Ameraungo honek jabe eta errentari asko izan ditu XV. mendean hasten den historian zehar. Burdinoletako lehen jabe eta olagizon ezagunak Fernan Perez Astegikoa eta Pedro Etxarri ziren 1415ean. Urte honetan, beste burdinoletako jabe eta olagizonekin batera, hitzarmen bat izenpetu zuten Berastegi eta Elduaingo Kontzejuekin. Mende honen bukaeran, 1494an, Bizkaiko Juan de Porras diruzainak ko-bratzen zituen hango zergak, eta gero Juan Orbeak, Gorteko diru-biltzaileak.

Badirudi hasieran jabetza partikularrekoa izan eta gero pasatu zela Berastegi eta Elduaingo Kontzejuen eskutara XVI. mendean. Denboraldi batez itxita egon ondoren, 1532an, Berastegi eta Elduaingo Kontzejuek berreraiki zuten, data horretatik aurrera beroriek agertzen baitira jabe bakartzat. Auzitan ibili eta gero, erabaki zuten alkabalen¹⁰ banaketa nola egin, Ameraungoari 1500 marabediko zerga ezarriz. Orduetik aurrera sarritan egiten dira alokatzeko deiak, batzuetan Ameraun eta Mustarrekoa, besteetan biak batera. Alokairuak 4 eta 5 urte bitartekoak izaten ziren, baina batzuetan urte batekoak ere bai, edo lehen enkantedeira inor agertzen ez zelako, edo kontratuak denbora baino lehen hautsita geratzen zirelako. Mende honetan, hauek izan ziren hango olagizonak: Migel Bera 1539an, Migel Ibargoién 1541ean, Martin Urrelo 1560an, Migel Etxeberria 1662an, Joan Elusa 1566an, Agustin Olaondo 1569an, Martin Yartua 1574an. Geroztik ere errentan jarri zen 1578an, Mustarrekoarekin batera, baita 1599an ere lau urterako, errota barne. Ezer gutxi dakigu hango garai honetako alokairuez, funtzionamenduaz eta langileez. Enkantean ateratzen omen zen, batzuetan Plazaola eta Mustarreko

burdinolekin batera, errenta burdinatan kobratuz. Oringo meazuloetatik hornitzen zen eta ikatza, berriz, Leitzarango basoetatik ekartzen zuten. Itzain-lanetan Juantxo Berakoa ibili zen, ikazkintzan nafarrak eta oiartzuarrak, eta labean Joanes Areizti. Berastegiko Arandia zelaian 1578ko abuztuaren 28an egindako eskrituran datorrenez, Ameraunek bazuen burdinola, baina ez martinetea.

XVII. mendearen hasieran, Ameraungo burdinola handia izatetik txikia izatera pasatu zen. Handian meatzeetatik ekarritako minerala burdina bihurtzen zen eta gero lantzen; txikian, aldiz, burdina landu baino ez zen egiten gabiarekin. Mustarrekoa bezala, hau ere burdinola txikia zen. Baina egoera honek denbora gutxi iraun zuen, burdinola handi bezala funtzionatzen hasi baitzen berriro, iltzegintzan espezializatuz. Hala dator adierazia 1656 eta 1675eko dokumentuetan, burdinola handi eta txiki bezala izendatua. Hala izateak ekarri zuen, lehen esan bezala, Musterrekoa itxi behar izatea. Nolanahi ere, XVII. mende-bukaeran burdinola geldirik zegoen, seguru asko sute batek erre zuelako. Baina berriro martxan zegoen 1752an, orduko olagizon bezala Joan Labaien aipatzen baita. Eta XVIII. mende-bukaeran ere, 1782an, iltzeak egiten segitzen zuten, eta bertan 517 kintal ekoizten ziren, eta 318 hurrengo urtean. XIX. mende-hasieran (1907) Pedro Jose Elosegikoak errentan hartu zuen burdinola hau. Jaun hau Lizartzan jaioa zen, bizitzera Tolosara etorria, abizen hori zeraman lehen tolosarra. Haren bilobak ziren, hain zuzen, Antonio Elosegi Txapel fabrikako nagusia eta honen anaia Jose Leon, Joanizazio Elosegiren birraitona¹¹.

Independentzi Gerrak sortutako gastuak ordaintzeko, bi Kontzejuek saldu egin behar izan zuten 1812. urte-

bukaeran. Joan Bautista Gaztañondo jabe berriak berregin zuen 1826an, burdinolako horman ikus daitekeen bezala. Esana daukagunez, Jose Antonio Muñagorri zen errentaria lehen Karlistada hastean.

Burdinolaren industria erabat bukatu 1864an bukatu zen, aurreko urteetan oso lan gutxi egin eta gero. Orduan Berastegiko idazkari zen Benito Gaztañondok 1871n jakinarazi zuen, 1864. urteaz gero geldirik zegoela, aurreko urteetan oso lan gutxi egin zuela eta Ameraungo burdinolari ezin zitzaiola ezein zergarik ezarri (Garmendia, 1976, 247).

Ameraun auzoa, burdinola desagertu eta gero ere, jende-mota askoren arteko bilgune izan zen Plazaola trenak azken txistua 1953an jo zuen arte. Bertan elkartzen ziren meatzariak, ikazkinak, artzainak, zentraletako langileak eta inguruko baserritarrak eta, oraindik 1936ko gerra ostean, Berastegiko plazan baino bizi-giro eta gizarte-harreman gehiago zegoela entzun izan dugu behin baino gehiagotan. Errepublikatik txiki bat zen, trenaren joan-etorriak biziarazten zuena oihanaren bihotzean. Diogunaren adierazle da bertako frontoi txiki bezain bitxia. Frontisa mendimazelaren kontra eraikia du eta ezker-horma, berriz, anteparari itsatsia. Han egiten zuten pilota bertaratzen ziren gazteak. Baziren oso poliki egiten zutenak ere. Horietatik bat zen, beste batzuen artean, herriko karrerapean pilotan ezagutu genuen Jabier Lizarraga Etxeberria, han trebatua.



Ameraungo frontoia frontisean bere marra beltzarekin eta lurzorua belarrezko alfonbrarekin (Iztueta, 2010)

7.2.4. Beriñaskoa

Burdinola hau, Ameraundik goazela Ollokiegi baino bi kilometro lehenago aurkitzen da, 18. tunela pasa eta berehala. Ibairen bestaldean oraindik ere egoera onean dagoen baserri bat ikus daiteke, justu burdinolaren gainean. Egun desagertua den Beriñasko burdinolaren etxebizitza izandakoa da. Hau da ordukoaren lekuko bakarra. Presa eta kanalaren aztarnarik ez da. Kanalaren isurbidea bakarrik ageri da eta horrek erakusten du zehaztasunez burdinolaren kokapena. Kobrea lantzen zuen.

Berastegi eta Elduaingo Kontzejuek olagizonekin 1415eko ekainaren 30ean egindako hitzarmenaren arabera, haren jabea Tolosako Joan Lopez Laskibar zen eta badirudi gerora ere hauen familiaren eskuetan egon zela, Laskibartarrak agertzen baitira haren jabe bezala, Lope Laskibar 1467-1477an, eta Domingo Laskibar, Tolosako Santa Maria elizako benefiziatua, 1529an. Honek bere anaia Juan Lopez Laskibarra eman zion errentan, urte baterako, beren hauspo, erreminta, antepara eta errotarekin¹². Olagizon bezala segitzen zuen 1541ean ere. Ondoko urteetan, zierki 1573-1581 urte-bitartean, Joanes Sagastiberri izan zen; 1590ean, Donostiako Joanes Etxeberria eta berak jarraitu zuen 1600. urtean ere.

Badirudi, hasiera batean bederen, kobrea lantzen zela han. Hainbat olagizonek erabili zuten errentan hartuta bere sutegi-hauspoekin, erremintekin, antepara eta errotarekin. Olagizonen artean, hauek agertzen dira: Joan Lopez Laskibar 1529an eta 1541ean, Berastegiko Migel Bera edo Domingo Sagastiberri (ez da segurua biotatik nor izan zitekeen) 1573 eta 1578an, eta Donostiako Joanes Etxeberria 1590, 1599 eta 1600ean eta, seguru asko, baita 1605ean ere.

Burdinola honek bi meatoki zituen hornikuntzarako Leitzarango haranean, erdibana erabiltzen zituztenak Domingo Zamorak eta Elduaingo Joan Sanchez Elusak. Eta bertan lanean aritu zirenen artean, Joanez Lozano eta Gartzia Berroeta aurkitzen dira, jadanik 1541ean hilak zirenak, eta Joan Martinez Balzusketa. Honek garraiatzen zuen burdina burdinolatik Hernaniko Osiñaga portura.

Jakina denez, Enrike IV.ak zerga-eskubideak eta hamarrenak Domenjón González de Andía mertzenarioari beti-

rako eman baitzizkion 1467an, Errege Katolikoek 1477an bertan lantzen zen kobrearen hamarrena Michel Moxikari eman zioten. Errege-eskubide horiek 1565ean Gortean bizi zen Juan Orbearen eskuetara pasa ziren eta haren Tolosako morroiek kobratzen zuten zerga, hasieran Martin Sanchez Anzietak eta gero Andres Arrizabalagak.

Ordaindu beharreko “festaburnia” izeneko zerga, 1615ean, 9 kintal burdina zen. Mende honen bukaeran berrikuntza handiak egin ziren burdinola handian, sabaia hiru ukondo altxatuz. XVIII. mendeko burdinolen zerrendan, 1752koan, hain zuzen, ez baita aipatzen, ordurako desagertua zitekeen.

XVI. mendearen lehen erdian burdinola hau jabetza partikularrekoa izan zen, baina geroztiko daturik ez baita, ez dakigu hala izanez segitu zuen ala Berastegi eta Elduaingo Kontzejuen eskuetara pasa zen, haraneko beste burdinolekin gertatu bezala. Oraindik 1625ean lanean ari zen gabiarekin.

7.2.5. Ollokiegikoa

Olloki Plazaola eta Andoainen artean, erdibidean kokatzen da, hamar kilometrorra alde banatara, 21. tunelaren ondoan. Hemendik hartzen dira, batetik, Elduain eta Berastegira eta, bestetik, Aranora eramaten duten bideak.

Ollokiegiko burdinola izan zen bere aztarnak ondoen gordetzen zituena, harik eta 1980ko hamarkadan anteparak eta fabrika osoa lurpean ezkutatuta geratu ziren arte. Burdinola honetan anteparako urak zuzenean isurtzen ziren ibaira; ez zegoen, beraz, isurbide edo estoldarik.

Aztarna batzuk bederen geratu dira. Hasteko, Biskai baserria da, olagizonaren etxebizitza izandakoa¹³. Egoera

onean aurkitzen da eta, nahiz ez bertan bizi, egunero izaten da norbait. Trenbidearen geltokia ere gordetzen da, nahiz egoera txarrean dagoen. Baita presa ere, Leitzaran ibaiaren gainean eraikia izan zena. Presak 40 metroko luzera du eta 4ko altuera, egun Olamia fabrikari paper-pasta egiteko eta, halaber, Ollokiegi zentralerako makinak mugiarazteko erabiltzen dena. Kanalak 300 metroko luzera du. Olamiako fabrika egitean, haren lehen zatia estalita geratu zen.



Ollokiegiko burdinolako anteparak sasiartearen (Iztueta, 2010)

Burdinola honen historiak XV. mende-hasieran du bere abiapuntua. Lehen jabe eta olagizon ezaguna Lope Sanchez Berastegikoa izan zen, Berastegiko “jauna” deitua, 1415ean. Beste burdinoletako jabeekin batera, urte horretan hitzarmen bat izenpetu zuen Berastegi eta Elduaingo Kontzejuekin. Hitzarmen horretan klausula bat zetorren esaten zuena Kontzejuek kalte-ordainak eman behar zizkiotela jauntxo horri bere lursail batzuetan baso-mozketak eta txikizioak egin omen zizkiotelako.

Alabaina, errege-eskubideak Domenjón González Andia-ri ematen zaizkioneko 1467ko dokumentuan Berastegi unibertsitatearena dela esaten da; errege-eskubideak Anton Ginçales de Gandia-ri, Domenjón-en semeari, aitortzen zaizkioneko 1473ko dokumentuan, aldiz, Berastegiko Ochoa Martines jaunaren burdinola dela. Hau hala bada, azken jaun hau, 1415eko Lope Sanchez haren oinordekoa izango zen eta, seguru asko, hura bezala hau ere Berastegiko jauntxoa.

Horregatik, ez dago batere garbi burdinola honi buzurkoa. Baliteke partikularrek eta Kontzejuek jabetza konpartitua izatea, eta horrela pentsatzeko bide ematen duen datua da 1562an jabetza honela banatua aurkitzen zela: bitik bat Berastegirentzat, lautik bat Elduainentzat, eta lautik bat partikularrentzat. Sistema hau aldatu egingo da XVI. mende-bukaeran, banaketa honela geratuz: hirutik bi Berastegirentzat eta gainerako hirutik bat Elduainentzat.

Nolanahi ere, Ollokiegiko burdinola hainbat olagizonek ustiatu zuten errentan hartuta. Martin Urrelo agertzen da hango olagizon bezala 1539an, Domingo Areizmendi 1548. urtea baino lehen, eta honek Domingo Sagastiberriri pasatuko dio errentan 1550ean eta berak segituko du

egoera horretan hamarkada osoan zehar; baina 1562an jabekide bezala agertzen da Berastegi eta Elduaingo Kontzejuekin batera lautik bateko proportzioan. Elduaingo Joan Sorregietak han egindako konponketak proportzio berean ordaindu zituen.

Mende honetako azken urteetan, hauek izan ziren bertako olagizonak: Joan Martínez Etxeberria 1571n, Oiarzungo Joan Sanz Arpide 1581. urtea aurretik, eta urte horretan Hernaniko Joan Perez Miner; Martin Altamira eta bere semea 1597an, 8 urterako errentan hartuta, eta 1602an ere berak segitzen zuen.

XVII. mendean, 1615ean, “festaburnia” zerga-kopurua 9 kintal burdinakoa zen eta lehen esandako proportzioan jasotzen zuten Berastegik eta Elduainek. XVIII. mendearen erdi aldera, 1752an, Martin Larburuk hartu zuen errentan eta 1782an, berriz, Diego Muñagorrik; 1833an, Berastegiko Jose Antonio Muñagorrik; 1842an Plazaola eta Ollokiegiko burdinolak enkantean jarri ziren, baina azken hau ez zuen inork hartu, nahiz egoera onean aurkitzen zen.

Ollokiegi izan, industrigune garrantzitsua zen, burdinola handia eta txikia, biak baitzituen. Berrikuntza asko egin ziren bertan, 1562an arestian aipatutako Joan Sorregietak eta 1599an Martin Olaiz eta Pedro Arbidek egindakoak.

7.2.6. Inturiakoa

Andoaingo norabidean, Oria ibaitik 7,75 kilometrora aurkitzen da, 26. tunelaren ondoan. Presaren hondakinik ez da agertzen; bai, ordea, kanala, 200 metro luzeran eta 4 zabaleran. Kanalaren bukaeran, eskuinean, horma-hondakin batzuk agertzen dira, 7 metrokoak luzeran, eta ezkerrean,

kanalaren bukaeraren eta zubiaren artean, mendiaren kontra, 8-9 metroko bi horma ere bai, orain estalpe bezala erabiltzen direnak. Hauek izan litezke orduko burdinolaren hondakin bakarrak. Bestalde, burdinolaren etxebizitza izandakoa da oraingo Inturia baserria.

Jabetzari dagokionez, beste burdinolekin ematen den historia bertsua edo antzekoa errepikatzen da hemen ere. Historia nahasia.

Horren izena ez da ageri 1415ean, baina Domenjón González Andia-ri errege-eskubideak aitortzen zaizkioneko 1467ko dokumentu aipatuan jadanik ordurako martxan dagoela egiaztatzen da, bertako jabe bezala Tolosako Juan Sanchez Inturia agertzen delarik; 1487an, Juan eta Pedro Sanchez, bi anaaien esku egongo da haren jabetza. Hauek Berastegi eta Elduaingo Kontzejuen jabetzakoak ziren Ezkeltzu eta Auntzuolako lursailak beretu nahi izan zituzten eta auzitara joan ziren. Erregeak Inturiatarren eskubideak errespetatzeko agindua eman zuen 1487ko azaroan, haiei beren ganaduak Berastegiko larretan bazkatzeko eskubidea aitortuz. Ikatza egiteko mendiak zirela medio, geroago ere izan zituzten auziak, zehazki 1490ean. Kontzejuek beste burdinolei 1415ean ezarritako baldintza berberak aplikatu zizkien Intuariakoei ere, baina debekatuz Ezkeltzu eta Auntzuolako burdinolakoak ziren Madariaga, Pertxina, Areizorraioaga eta Amarasa haraneko lurrez gozatzea. Inturiarrek 1490eko azaroaren 28an onartu zuten erabaki hori.

Juan Sanchez-en ondorengoa bere seme Joanes Inturiak hartu zuen Katalina Zumarristarekin batera, eta Joanes hiltzean, esana daukagunez, burdinolaren jabetza bitan zatituta geratu zen. XVI. mendean, Inturiatarrek ahaidetasunez hertsiki lotuak egon ziren Plazaolako burdinolari. Jabetzak

honela joan ziren banatzen: 1533an Martiko Inturia, Joanesen sei semeetako bat, agertzen da erdiaren jabe bezala, eta haren emaztea, Gracia de la Plaza; 1533an, Gracia Inturia, Pedro Zumeetarekin ezkonduko Martikoren alaba, beste erdiaren jabea; baina handik hilabetera eskas, hark uko egin eta bere ahizpa Elenari utzi zion, Domingo Zumeetarekin ezkondua zegoenari. Beraz, bi ahizpa bi anaiekin ezkonduka zeuden. Badirudi Elenaren jabetza hau zela-eta, auzitan ibili zela Tolosako Juan Pérez Zumeetarekin. Nolanahi ere, 1587ko dokumentu batean datorrenez, jabetzaren erdi hori Donostiako Urnieta familiaren eskuetan zegoen.

Burdinolaren beste erdia, berriz, Andres Inturiaren esku zegoen 1538 eta 1543an, eta 1569an haren eta, gainera, Pedro eta Leonor Plazaolaren izenean. Zehazki, 1538an, Andres Plazaolak eta honen emazte Juana Inturiak, Martikoren alabak, Martin Perez Burbo-ari burdinolaren erdia eta errota errentan eman zizkioten 1538an, 31 urterako¹⁴. Esan behar da Domingo Zumeeta eta Andres Plazaola zirela burdinolaren jabetza erdibana zutenak. Kontua da errentadunak hobekuntza handiak egin zituela burdinolan 1543-1561 urte-bitarte horretan, eta errenta-epea bukatu zenean 1569an, Juan Martinez Burbo bilobak jabeei berritzelantetan egindako 700 dukateko gastuak errenta-epea luzatuz kitatzeko proposamena egin zuela. Eskaintza honi muzin eginez, jabeek Andoaingo Gartzia Zumeetari eman zioten errentan, lau urterako. Erabaki honek liskar armatua eta auzia ekarri zituen ondorioz.

Jabetza erdibana izateak, sarritan ohi denez, zaildu egiten du lantegiaren ustiapena eta errentaren burubidea behar bezala kudeatzea. Horren adierazgarri da garai

horretan, edo hurbilekoetan, Inturian olagizon desberdinen izenak agertzen direla: Txomin Inturia 1546an, Urnietako Sebastian eta Petri Inturia 1552an, Berastegiko Migel Bera Iburguen 1562an, eta Juanes Zumarrista 8 urtez (1569-1578), hauek guztiak Burbo familiaren garaian bertan lanean jardun zutenak; gero, 1582an, Juanes Zumarrista semea eta honen ama Maria Astratxu, eta beste erdiarena Andres Plazaola eta Joan Lopez Urnietakoa.

XVI. mende-bukaeran (1595), Antonio Okendo kapitaina zen Inturiako burdinolaren arduraduna, abizen bereko almirantearen osaba, Donostiako alkatea eta Gipuzkoako diputatu nagusia. Urte honetan zehar Berastegiko alkatea lau bider joan zen Donostiara Okendorekin hitz egitera (Elosegi, 2009, 25). Hurrengo mendean, 1625ean, Miguel Okendoren eskuetan zegoen eta gabia bat zuen. San Millango markesaren maiorazkoa eratu zenean 1647an, Migel kapitainaren Maria alargunak egindako eskrituran zetozen ondasunen artean aurkitzen ziren Inturiakoak ere.

Berastegi eta Elduain herriak, 1815eko azaroaren 11n, aholku eske joan zitzaizkion Jose Gerra jaunari, galdetuz posible ote zen baliogabetzea Inturiako burdinolari 1490ean egindako emakida. Antza, orduan berreskuratu nahi izan zuten, baina jadanik ez zen lantzen han burdinarik. Saltzeko berreskuratu nahiko zuten, Plazaola, Ameraun eta Olokiegirekin egin bezala, gerra-gastuak ordaintzeko. Azkenean, 1826ko abenduaren 13an pasatu zen bi herri horien jabetzara, bere ondasun guztiekin. Hala dator idatzia Juan Martines de Zaldivia eskribauak izenpetutako dokumentuan:

“En la casa de Juntas llamada de Bidaraun propia de las Ns. Villas de Berastegui y Elduayen a trece de diciembre de milochocientos veinte y seis ante nos (...):

Que Juan y Pedro de Inturia hermanos dueños de la ferrería del propio nombre situada en el río y valle de Leizaran, jurisdicción común de las expresadas villas (...), estando en posesión de ella y goce de sus términos fueron inquietados por las mismas villas en cuanto al uso de yerbas y otros aprovechamientos, y a pesar de que aquellos obtuvieron una sentencia de Antón Gonzales de Aguirre, Alcalde de la villa de Tolosa, a su favor para evitar cuestiones y disgustos quisieron someterse a un pacto o concordia que los dueños de las otras ferrerías de Barrenola, Beriñas, Murguizolas, Olloquiegui, Nordeiza, Plaza Ameraun, sitas igualmente en el término expresado de Leizaraun, tenían con las dichas villas celebrado el treinta de junio de mil cuatrocientos y quince (...) Que de la misma suerte podrán las dos prenotadas villas de Berástegui y Elduayen considerar como propias y en pleno dominio para siempre jamás la dicha ferrería de Inturia, casa de habitación, tierras labradas, manzanas, montes y demás pertenecidos que hasta hoy día se han conocido del señor Marqués de San Milian, sin que tenga ni reserve derecho alguno en sí sobre ellos...”¹⁵.

Harritzekoa ere bada zer-nolako zirimolak egiten dituzten jabetzaren inguruan mugitzen diren interesuhinek!

8. Burdinolekako langileak

Burdinola bakoitzean, normalean, langile hauek zeuden: bi urtzaille; somara lan egiten duen ijezle bat; erretako zaina xehatzen duen gatzamaile bat; aprendiz, hiru urtez ikasten egoten zena, gehi ordezko peoi batzuk, burdinolen

arabera. Olagizonak denbora jakin baterako kontratatzen ziren. Bestalde, etengabeko borrokak eta istiluak izaten baitziren olagizonen eta burdinolen ustiatzaile edo jabeen artean, arau zorrotzak ezarri ziren XIV. mendean, oraindik XVII. mendean indarrean zeudenak Gipuzkoako ordenantzetan (Caro Baroja, 1971, 189-191).

Lana izugarri gogorra izaten zen burdinoletan eta gauez bezala egunez jarduten zuten, 24 orduz, elkarrekin bi edo lau orduz txandatu. Olagizon hauen bizimodua oso ondo deskribatzen dute Mogelek¹⁶ eta Larramendik¹⁷. Langile finko horiez gain, jakina, beste hainbatek ere egiten zuen lan burdinolen inguruan eta aukera hori ederki etortzen zitzaien inguruko herrietako baserritarrei. Materialaren garraiatzea –izan zedila burdina, edo egur-ikatz–, baserritar askorentzat nekazaritzaren lan osagarria izaten zen, eta neguan, baserriko lana gutxitzen zenean, soldata gehigarri bat ateratzen zuten itzainek (Carrion, 1975, 85-86).

9. Burdinolen jabetza

Jabetzari buruzko aipamen puntualak eginez etorri gara orain arteko azalpenean. Orokorrean esan dezakeguna da burdin ustiapenen kontrola urte askotan zehar, dirudienez, eskualde edo haran bakoitzeko jauntxo txikien eskuetan egon zela. Lope Garcia Salazar-ek bere eskumenekoak zituen Somorrostrokoak XV. mendean. Baina erregeak mugatuz joan ziren ustezko jende horien eskubideak eta, aldiz, Udalei eskuduntza gehiago ematen. Nafarroan baziren, antza, erregerenak ziren burdinolak. Baina burdinola handi eta txiki gehienek jabetza orain dela gutxi arte leinuzkoak bezala hartutako familia batzuen eskuetan egon zen eta,

ondorioz, burdinaren industria orokorrean haiek kudeatzen zuten. Halere, burdinaren monopolizatzaileak ematen baziren ere XV. mendean zehar, burdina edozein menditan ager zitekeen, eta horrelakoetan ohitura zen baserritarren artean, meatzea aurkitzen zuena egiten zela haren jabe, baina baldintza batekin: hots, gutxienezko erauzketa bat egitera behartua zegoela, urte bakoitzeko egun batean erauzketan arituz. Honetan ere gehiegikeriak egoten baitziren, XVIII. mendean, aurrerantzean ustiapen pertsonala ziurtatu ahal izateko, frogatu behar zen meatzean urtean gutxienez hilabete batez lan egin zela (Caro Baroja, 1971, 185-186).

Burdinolak, salbuespen bat edo beste gorabehera, partikularren jabetzakoak ziren. Baina aurrera egitea lortu zuten burdinola gehienak poliki-poliki zegozkien Kontzejuen eskuetara pasa ziren. Kasu askotan jabetza partekatua zen, batzuetan bi partikular edo gehiagoren artean, beste batzuetan partikularren eta Kontzejuen artean, edota bi Kontzejuen artean. Azken formula hau erabili zuten Berastegik eta Elduainek, jabetza, hurrenez hurren, bi heren eta heren bateko proportzioan banatuz, Ollokiegikoan izan ezik, hemen erdibana. Kasu batean edo bestean, Kontzejuak partikularrari berari zegokion partea erosten zion.

Plazaola, Ameraun, Beriñas eta Ollokiegiko burdinolek eta Berastegi, Eldua eta Elduaingo Kontzejuak hitzarmen bat izenpetu zuten 1415ean eta hitzarmen horretan datu interesgarriak datoz. Komeni da zehaztea.

Lehenik, burdinola hauek Kontzejuen jabetzako tokietan eraikiak ziren. Noizbait, 1415. urtea baino lehenago, Kontzeju hauek Leitزارanen lurak uzten zituzten hango ondasun-mota desberdinak –hidraulikoak zein oihanak, meatzeak, mendiak edo larreak–, erabiliz, etekinak atera

nahi zituztenentzat. Baimena ematen zaie saroietatik at soroak, sagastia egiteko, fruta-arbolak landatzeko, etab., edota ganadua bazkatzeko saroiaren barruan zein kanpoan. Kasu batzuetan baimendua zegoen saroiaren arbolak mozteak, baina erabat debekatua bertan ikatza egitea.

Bigarrenik, herri-lurak erabiltzeagatik, edo burdinola bakoitzari zegozkion basoetan ikatza egiteagatik, “festabur-
nia” zerga ordaindu behar zuten burdinolek, festa-egun jakin batzuetan ordaintzen zena, ez dirutan, baizik burdina-
tan. Hala egiten zuten Berastegi eta Elduainek. Kopuru finko bati eutsi zitzaion: 6 kintal burdina, XVI. mendean bukaeran izan ezik, orduan 9 kintal. Hurrengo mendean, 1615ean, Plazaola, Beriñas, Ollokiegi eta Inturiako burdinolek 9 kintal burdina ordaintzen zuten. XIX. mendean, 1845ean, Berastegi herriari urtero 53 erreal eta 17 marabedi ordaindu behar zizkion burdinola bakoitzak (Garmendia, 1976, 156-158).

Hirugarrenik, ustiapen jakin batek arrazoi desberdinen-
gatik –zaina edo ikatza falta zelako, ez hala sute, uholde edo leku-aldaketa bategatik–, porrot egiten bazuen eta hiru urtetan gutxienez 500 kintal burdina lantzerantz iristen ez bazen, hari esleitutako orubea eta mendiak berriro Kontze-
juen eskuetara pasatzen ziren. Baldintza honetan bizirik irautea lortu zuten lau burdinolak Kontzejuen jabetzara pasatu ziren.

Laugarrenik, Ahaide Nagusiek beren ondasunen artean burdinola bat edo gehiago izaten zituzten, aberastasun-
iturritzat jotzen zirelako. Leizaurko etxeak izen bereko burdinola izan zuen lau mende eta erdiz. Okendoko oinetxeak –berdin gero San Milliangoa ere–, XVII. mendeaz gero berea zuen Inturiakoa. Antzekoa da

Berastegiko jauntxoaren kasua ere, honek bere jabetzakotzat baitzeukan Ollokiegikoa XV. mende-hasieran, baina, dirudienez, mende bat geroago Kontzejuarekin partekatzen zuen hango jabetza.

Nolanahi ere, burdinolek dirua uzten bazuten ere, ez zen beti horrela gertatzen eta sarritan ibiltzen ziren zorretan sartuta eta auzitan nahastuta. Leitzarango burdinoletako arazo handienetako bat zen, okasioetarako bide ematen zuena, ikatza lortzeko behar ziren baso guztiak herri-lurrak zirela, Kontzejuak kudeatzen zituztenak, alegia. Burdinolak, hauek eraikin bezala hartuta, partikularrak izan zitezkeen, baina horien orubea berdin lur-ondasunak herriarenak ziren. Horrek esplikatzen du, poliki-poliki, burdinolak esku partikularretik Kontzejuetara pasatuz joan izana.

Bosgarrenik, nahiz eta kasu batzuetan hala gertatu, normalean ez zen gertatzen olagizona bere lantegiko jabea izatea. Normalena burdinola bere osotasunean errentan hartzea izaten zen, bere etxebizitza, errota, lur, mendiekin, eta minerala erauzi eta ikatza egiteko baimenarekin. Azpierrentamenduak ere ematen ziren, jakina.

Burdinolaren jabeak bat baino gehiago ziren kasuetan, normalena guztia olagizon batek hartzea zen, baina gertatzen zen jabe bakoitzak bere zatia beste bati errentan ematea ere. Eta inoiz gertatu zen jabe batek olagizon bati baino gehiagori alokatzea ere, egoera horretan nola konpon zitezkeen asmatzea aski zaila iruditzen bazaigu ere.

10. Zentral hidroelektrikoak

Baina egun desagertuak dira garai hartako industria handiak eta txikiak. Geratzen diren lantegi bakarrak, azken

garaiaren egindakoak, zentral hidroelektrikoak dira. Leitzarango haranean martxan daudenak zortzi dira guztira: Plazaola 1 eta 2, Ameraun, Santolaz, Olloki, Iberdrola, Bertxin eta Olaberrikoa¹⁸. Berastegiko partean lehen hirua. Ameraungoa Santos Gaztañondok egin zuen 1904an.



Ameraungo zentrala, Leitzaran ibaiaren ondoan eta aurrean eskuin, bide-ondoan, goiko presako urak dakartzan hodi beltza (Iztueta, 2010)

Esana daukagu Gaztañondo familiaren jabetzekoa zela Ameraungo burdinola 1826an. Zentral hau Uranga paper-fabrikak, Sarrió taldekoak, beretu zuen geroago, 1970eko hamarkadan. Egun, 1994. urteaz geroztik, Ameraun S. L. da horren jabea. Honek bere urak Leitzarain ibaitik eta Lorditzekotik hartzen ditu. Egun indarrean dagoen makineria gai da 1000kw. garatzeko. Han sortzen den indar elektrikoaren airezko linea Beibatari eta Gorosmenditik pasatzen da San Lorentzo eta Gorosmendi tuneletako Transformazio-Zentroetaraino, eta hor Iberdrolaren sarearekin bat egiten du. Garai batean, 1970ean, hiru langile ari ziren lanean. Orain bat, Atxukarro familiakoa.

Nolanahi ere, Leitzarango zentralik garrantzitsuen eta indartsuena, izan, egun Bertxingo Iberdrola da, 1904an martxan jarri zena. Andoaingo partean aurkitzen da, 1000 eskailera dituen inguruan kokatuta. Haren potentzia 1966an 4.500 kw-ekoa zen. Garai batean hango indarrak Rezola zementu-fabrika eta Donostia-Tolosa tranbia elikatzen zituen; egun, Iberdrolarena da.

11. Aintzergako teileria

Arantzadik egindako lan batean¹⁹, garai batean Tolosaldeko herrietan zeuden teilerien aztarnen berri ematen da. Miaketak egin zireneko herriak, Albistur, Altzo, Amezketa, Berastegi, Berrobi, Leaburu, Orexa, Orendain eta Tolosa izan dira. Ziurtasunari dagokionez, hiru motatako emaitzak lortu dituzte. Lehen sailean, erabat ziurrak direnetan, bi teileria aipatzen dira, Beondegikoa Albistur/Bidegoian, eta Intzalokoa Orendainen. Bi hauek, bada, lehendik ziurrtuak dauden beste herrikoen zerrendan sartu behar dira,

hauek izanik Altzibarkoa Zegaman, Bostaitzetakoa Zerainen, Lauztikoa Ataunen, Gonagorri Gañakoa Hernanin, Sarobekoa Zaldibian edo Urrustikoa Zerainen. Bigarren sailean datoz, nahiz oraindik ez aurkitu izan zehazki non kokatuak egon ziren jakiteko adina aztarna arkeologikorik, ziurtasunez dakigunak izan zirela, hala nola ondoko lau teileria hauek: Artzabaltzakoa Tolosan, Gorritxurikoa Altzon, Telleria Leaburun eta Tellerizar Orexan. Hirugarren sailean dator, galduak direlako-edo, inolako aztarnarik utzi ez duten baina izan direla uste den teilerien zerrenda. Azken hauen artean aurkitzen dira Aintzergakoa Berastegin, Idoiakakoa Albisturren, Katzebarrokakoa Amezketan, Telleri Bitarteakoa Amezketan, Tellerizar Berrobin edo Urkibar Amezketan. Aintzergakoa, beraz, iturri horren arabera, ezin da egiaztatu garai hartako aztarnen bidez. Lekuko arkeologikoak falta badira ere, badirudi dokumentu idatziek egiaztatzen dutela XVIII. mendean teila egiteko labea bazela han. Haren kokapena ere ondo finkatuta dator: San Sebastian ermitatik ez urruti, Nafarroara goazela, errepede-ondoan, eskuinaldean, “juxtu gaur Zeferino zenaren belazea dagoen horretan” (Salbarredi, 2005, 18). Arategia etxea eraiki zenean, 1743. urte inguruan, teilak handik ekarri omen zituzten.

12. San Lorentzo larreko harlauzak

Ez bakarrik Leitzarango meatzeak, San Lorentzo larreko harlauzak ere ustiatu ziren geroago, 1960ko hamarkadan-edo, zenbait urtez. Ustiatzaileek handik ateratako harlauzak kable batez jaisten zituzten menditik behera, erreperidera, Antziola parera. Hor kamioian kargatu eta Sarara garraiatzen

zituzten, baita Baztan aldera ere. Ustiapenak denbora gutxi
iraun zuen.

III

BERASTEGIKO ERROTAK

Euskal Herrietan barna, Hegotik Iparrera, modu askotara deitzen zaio Gipuzkoan “errotak” hitzarekin ezagutzen den lantegi-mota horri: “bolu” Bizkaian, “eihera” Iparraldean, “igara” Nafarroa Garaia eta Lapurdin. “Errotak” hitza eratorri, latinetik dator, gurpila esan nahi duen “rota”tik. Egokia hitza bera, gurpila baita alea ehotzen duena.

Errotak hidraulikoen lehen berriak Euskal Herrian XI. mende-hasieran jasotzen dira eta badirudi ondoko mendetan, bereziki XIII. mendetik aurrera, asko ugaltu zirela euskal geografia osoa zeharkatzen duten erreka-ondoetan. Nekazaritza indartuz joan ahala eraikitzen dira errotak, artzaintzari gain hartuz doan heinean. Ez da ahaztu behar lehen milaurtekoan zehar, geroxeago ere bai, abeltzaintzatik bizi zela mendialdeko euskal jendea. Amerikatik artoa sartzen denean, XVII. mendetik aurrera, erroten lanbidea oinarritzko industria gertatzen da nekazal zein hiri-ekonomian, bertan ehotzen baitira luzaz oinarritzko elikagai izango direnak, hala nola garia eta artoa (Aguirre Sorondo,

2003, 373-375). Herriko jauntxo eta handiek errotak zituzten beren sarreren iturri nagusietako bat. Baita Berastegiko jauntxoek ere.

Errota batek, bere funtzionamendurako, oinarrizko azpiegitura hidrauliko batzuk eskatzen ditu eraikinaz kanpoko zein barruko egituretan. Urak ibai edo errekatik hartu eta kanal batetik eramanez, presa edo “antepara” esaten zaion horretara bideratzen dira. Hau harri-hormaz edo harlanduz egina izan daiteke, leku batetik bestera neurritz eta itxuraz ere desberdina dena, lurzorua plano inklinatuan duena. Beheran presaren kontra dagoen konporta edo uha-tea behar den neurrian irekitzen denean, edo irekita dagoenean, sifoi antzeko harrizko isurbide batetik indarrean jausten diren presako urek errota-eraikinaren azpian dagoen turtukia edo gurpil hidraulikoa mugiarazten dute eta honen biraketak, gora doan ardatz baten bidez, ehoketa-lekuan dagoen goiko harri mugikorra jartzen du martxan eta alea honen eta tinko dagoen beheko harriaren gainean biratuz eta zapalduz eho-eho eginda geratzen da. Zurezko inbutu antzeko bi kalapatxetan jartzen da alea eta ehotua behean dagoen kutxa handi batera erortzen leihatila batetik. Errotarriak, normalean, ehotutako irinaren arabera, % 10 inguru kobratzen zuen.

Turtukia edo turbina, esan bezala, errota-eraikinaren azpian aurkitzen da kokatua, gazteleraz “cárcavo” deitzen zaion tunel edo arku baten antzeko gune ireki batean eta handik bideratzen dira errekarra edo beste presa batera turtukia mugiarazten duten urak. Presako ur soberakinak goiko ubide batetik joaten dira errekarra.

Oria ibaiak eta honen ibaiadarrek errota asko elikatu izan dute: Aguirre Sorondok (2003, 37) dokumentutakoak,

guztira, 203, Gipuzkoa osoko % 31. Leitzan jaio eta Berastegiko lurraldea zeharkatzen duen eta bere urak Andoainen Oriara isurtzen dituen Leitzarar ibaiak eta honen ibaiadarrek ere elikatu zituzten hainbat errota. Gipuzkoako partean modu autonomo batez funtzionatu zuten gehienak Andoaingo lurraldean kokatu ziren. Berridi, Errotazar, Mantxone, Goikoerrota, Errotatxikia errotek, zehazki, Leitzararen adarra den Ubane errekatik jasotzen zituzten eta Goikoerrotak, berriz, Leitzarandik bertatik. Hemengo ia burdinola guztiek zituzten beren errota, hala nola, Plazaolakoak, Mustarrekoak, Beriñaskoak eta Inturiakoak, lehen Leitzarango haranaz jardutean ikusi bezala. Leitza eta Aresoko aldean ere baziren. Egun ordukoen aztarnak Inturiakoan, Elduainen, eta Olaberriakoan, Andoainen, baka-rik aurkitzen dira²⁰.

Berastegiko haranean bertan, gaur egungo mugen barruan kokatuta zeuden errota, handi eta txiki, 7 ziren guztira, Antxon Aguire Sorondok (1988, 397-401) bere oinarrizko lanean dokumentatu ahal izan dituenak eta guk, haren testuari jarraiki, banan-banan aipatuko digunak. Txikitan hainbeste bider ikusiak zein egoeratan dauden begiratzen izanak gaituzue 2009ko urriaren 27an.

Noiztikoa ote da Berastegin erroten tradizioa? Lehen begi-kliska batean Nafarroako Gartzia II.a erregeak 1141ean egindako dohaintza baten berri eman da. Dokumentu honetan esaten da Berastegiko Beraxa eta Orti Munioz izeneko bi jopuren dohaintza egiten ziotela aipatu Erregeak eta honen emazte Margaritak Aralarko San Migel basilikari, beren ondasun guztiekin, mendiekin, errotekin, landutako eta gabeko lurrekin batera:

“Ego Dei gratia Garsias rex Pampilonensium, tactus diuina inspiratione, et consilio et auctoritate/ uxoris mee Margarite, dono ecclesiae beati Michaelis in dedicatione huius ecclesie, duos *collaços* in villa que dicitur/ Berastegui, uidelicet cuius nomen est Beraxa et altero Orti Munioç, cum omnibus suis pertinenciis, montibus/ siluis, *molendinis*, cultis eta incultis. Hoc autem donum facio pro remedio animae mee et supradicte uxoris mee Marga/rite. Et propter illam intentionem, ut omnipotens Deus et predictus archangelus Michael filios et filias meas sanos custodiet in/hoc seculo, et in futuro det uitam eternam, amen²¹.

Erregeak Iruñeko Santxo gotzainari egiten dion gutuna da hau. Latinez, noski, hori baitzen, ez euskara, orduko euskaldun letratuek administrazio-jardunetan erabiltzen zuten hizkuntza ofiziala.

Latinezko testu horretan letra etzanez eman ditugun bi hitz horiek dira gainbegiratuki bederen iruzkintzea merezi dutenak. “Collaços” horrek ez du kiderik ez latinez ez euskaraz, ez bada garai hartako nafar erromantzez. Horrela izendatuak aro feudalean jopu (gaztelera *siervo*) izenarekin ezagutzen dira. Garai hartako nafar gizartearen egitura feudalean, behe-mailako klasea osatzen zutenak izendatzeko hitz hauek erabiltzen ziren Leireko IX-XII. mendeetako dokumentuetan: *homines, laboratores, mezquinos, collazos, caveros, lugueros, excusados, pecheros* (Guijarro González, 1988, 97-112). Baten faltaz, zortzi izen. Horien artean, *collazos*. Testuinguruak aditzera ematen duenez, Berastegiko bi nekazari horiek ez ziren nolanhiko morroiak, jabearen ondasun eta lursail guztiekin batera, saldu, erosi edo dohaintzan eman zitezkeen horietakoak baizik. Egiatzko jopuak.

Hori horrela izanda, eta orain gatoz bigarren oharrera, testuan *molendinis* baitator –hortik gaztelerazko “molien-da”, euskaraz ehoketa– pentsa liteke, dokumentaturik ez badago ere, Berastegin nekazaritza jadanik bideratua eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, herri-antolaketa ere egituratua egon zitekeela garai hartan, nekez baita errotak eraikitzea inguruan horien erabilera bermatuko duen auzo-multzorik sortzen ez bada, lurra lantzen ez bada. Hipotesiarekin aurrera eginda, Berastegiko jauntxoek beren eskubideen errebindikazioa betidanik delako “de tiempo inmemorial” delakoan justifikatu izan baitute, galde liteke ez ote duen horrek hor bere sorrera izango. Baliteke, baita ere, dokumentu horretako erroten aipamena dohaintzak egiteko formula juridiko baten barruan sartzea, egiazki izan gabe, Aguirre Sorondok (1988, 397) ohartarazten duen bezala. Hala balitz, orduan ere dokumentatuta egon beharko luke inguruko eta garai bereko iturrien bidez, ez dagoena. Zalantzaren kasuan, gure ustez, letra idatzia nagusi.

Zenbat errota izan dituen Berastegik herrian bertan? Erantzuten ez da batere erraza. Serapio Mugica-k (1923, 951) bost aipatzen ditu XIX. mende-bukaeran, esan gabe zein eta non dauden. Geroztik egindako ikerketen ondorioz, Aguirre Sorondok (1988, 397-401) zazpi izan zirenen berri ematen du. Nolanahi ere, aspaldikoa da Berastegiko erroten aipamen dokumentatua, baina ordukoen kokapenari buruz zehazki, egia esan, zalantzak gehiago dira datu egiaztatuak baino.

1. Ollokoko errota

Errota honek, martxan egon zenean, bere urak izen bereko errekatik hartzen zituen eta erreka honen eskuinal-

dean kokatua zegoen beherako bidean, Urtoko gainera doan lehengo bide zaharretik joanda, plazatik 300 metrotararedo. Lauki-formako “Etxe-Berri” eraikin berriaren atarian hasten da hara garamatzen gurdi-bidea. Toki ezkutuan, eguzkiak sarbide gutxi duen Izotzaldeko zokogunerik laiotzenezan aurkitzen da sagastiz inguratua. Oilategi batez hesitua dago egun. Deseginak baldin badaude ere barruko elementu gehienak, garai batean errota izan zeneko lehengo aztarna batzuk geratzen dira, halere, nola ehoketa-lekuko goiko eraikinean hala honi erantsirik dagoen beheko turtukiarenean bere harrizko arkuarekin. Presa eta erreka-ingurua sasiak hartuta dauzka. Badirudi bi turtukirekin egiten zuela lan.



Ollokoko errota-etxea. Eskuinean, erreka ondoan, turtukiaren kokapena eta arkua (Iztueta, 2010)

Noizkoa den? Esan gabe noizkoa den, xehetasun hauek ematen ditu 1929ko uztailaren 17ko GAOk bere 63. orrialdean: errotarako ur publikoetz baliatzeko Erregistroko inkrikpzio-eskaera Felix Lizarza jaunak, Berastegiko semeak, egiten duela eta horretarako egindako ubidetik segundoko 20 litro pasatzen direla eta urek 2,40 metroko jauzia egiten dutela. Hango azken errotaria Mitxeloko Jose Maria Lizarza izan omen zen. Duela urte gutxi saldu zuten.

2. Arrateko errotak

Bi dira Arrateko errotak, bereiz aipatu beharrekoak. Errota biok ere, izenak berak dioen bezala, Ulitik behera gatzela izen bereko baserriaren ondoan aurkitzen dira, errearen ezker aldean, metro batzuk gorako aurkitzen den Zentral elektrikoaren behealdean, ehunen bat metrora-edo. Zentrala 1929an egin bide zen, Arrateko seme Inazio Jakak kontatu didanez²², bertako eta kanpoko akziodunen artean elkarte anonimo bat osatuta. Labaien eta Ustoa jaunak agertzen dira horren jabe bezala 1931ko maiatzaren 22ko udal-aktan²³. Egun Tolosako Miserikordiaren jabetzakoa ote den esaten da, baina ziurtasunik gabe. Hango argi-indarra inguruko herrietara iristen zen, besteak beste, Belauntza, Leaburu, Gaztelu, Orexa eta bertara, noski. Zentral hau martxan egon zen 1959. urtera arte-edo.

Zentral honek goiko kanaletik ekartzen zituen urak. Erortzen utzita dago, sasiz inguratua, baina oraindik zutik daude eraikina bera eta kanaleko urak Intzasburutik behera zekartzan burdinazko hobi luze eta zabala. Mutikotan arditan ibiltzen ginenean, eskolatik bueltan arrats berantean ardiak Bordatxon jezteko bildu behar zirenean, hodi haren

azpitik pasatzen ginen pasabideak zeuden tokietatik. Egun sastraka eta oteek itota daukate Akerkoi eta Almitxuriko garai bateko larre gozo eta fina.

Arrateko errotara joateko, eliz ondoan ezkerretara Izotzalde auzorako bide asfaltatua hartu behar da eta handik, kilometro erdira-edo, Arbide baserrira iristean, eskuinaldean, metro batzuetara, aurkitzen dira bista-bistan Arrate baserria eta errotak.

2.1. Arrateko errotaundia

Errota honen lehen aipamen zehatza, 1552koa da, Igeraldeko berearen kaltetan herritarrek han inguruan errota berria egin zutela-eta, Berastegiko Martinez jauntxoak auzitara eramaten baitzituen hura egin zutenak. Lau urte geroago, 1556an, Berastegiko Parrokiako bataioen lehen liburuan, hango errotariaren eta honen Barbara emaztearen Joanna alaba azaroaren 19an bataiatua izan zela esaten da; 1562ko maiatzaren 17an, berriz, Verona Ayzpilleta²⁴, hau ere errotariaren alaba. Ez da ematen errotariaren izena, baina bai abizena: Ayzpilleta. Gero, 274 urteko tartearekin, 1836ko azaroaren 1ean, Jose Ignazio Landa errotariak hartzen du errentan hiru urterako hitzarmena izenpetuz²⁵. Garai hartan errota-nagusiak, beste batzuen artean, hauek ziren, akzioak honela banatuta: Arbidek 1, Intzak 1, Domingozurineak 1, Iruinek 4, Antsoneak 2, Juantsantzeneak 1, Iriazabalek 1, Gorostidineak 8, Miserikordia etxeak 11, Sagastiberriak 20²⁶. Mende berean, 1862ko apirilaren 16ko GAOko 46. zenbakian, iragarki bat agertzen da, esaten duena Arrateko errota “herriko onena” dela eta errentan hartu nahi duena harremanetan jar dadila Juan Martin

Garziarena jaunarekin. Arretxeko nagusia zen hau, akzio-dunetako bat, hain zuzen. Nork hartu zuen ez dakigu, baina bai, 1908ko abenduaren 18ko eta 1910eko maiatzaren 9ko GAOn datorrenez, hurrengo mende-hasieran martxan zegoela errota. Geroago, 1929ko uztailaren 17ko GAOk bere 63. orrialdean dakarrenez, Jose Maria Garai-koetxea eta bere emazteak egiten dute Arrateko errota errentan hartzeko eskabidea.



Arrateko Errotaundiaren ubidea. Errekako urak presara daramatzen kanala, dena harrizkoa. Presa sasiz eta arbaztez estalita dago ez ezagutzeko moduan. Errotaundiko etxe-horma, orobat, huntzez estalita. Turtukia aurkitzen deneko beheko arkitik ateratako urak beheago aurkitzen den Errotatxikiko presara bideratzen ziren (Iztueta, 2010)

Errentariak aldatuz etorri ziren urteen harian, baina Jaka abizena azaltzen da. Honela, 1890eko zentsuan Manuel Ignazio Jaka Garziarenarena, eta Manuel (Ignazio) Jakarena 1893an, berdin 1933tik 1944a bitartean egindako ordainketan. Lehen urtetik azkenekora 54 urteko tartea dago. Esaten bada 1890ean 26 urteko nekazaria zela, 1944an 80 urte izango zituen eta baliteke –ezinezkoa ez da–, pertsona bera izatea, nahiz azkenekoan Ignazio bigarren izena falta den. Gerra ostean, 1949tik 1954an itxi zen arte, lizentzia fiskalak Arrateko Faustino Jaka Nazabal errotariak zituen, Manuel Ignazioren semeak. Azken ehoketa 1950ean egin omen zen. Honek goiko errota bakarrik erabiltzen zuen, sekula ez beheko txikia²⁷. Errota-jabeak, esan bezala, herriko etxejabe batzuk ziren.

Goiko errotako kanaletik 22 litro pasatzen dira segundoko eta ur-jauzien desnibela 2 metrokoa da eta, aldi berean, horko urak erabiltzen dira beheko errotatxikian 1,80 metroko ur-jauziarekin. Errotatxikiaren presa, hain zuzen, handiaren segidan dago. Goiko presak Zentraletik datorren harrizko kanal batetik hartzen ditu bere urak.

2.2. Arrateko errotatxikia

Errotaundiko urak gero beherago segidan aurkitzen den Errotatxikian erabiliko dira. Honek goikoaren ezaugarri bertsuak ditu. Presa harlanduz egina da, trianguluitxurakoa, baina turtuki bakarrekoa. Honek 1900ean utzi zion ehotzeari.

Egun errota biak aurkitzen dira sasiak hartuta eta huntez josita. Errotaundiko etxea ere jautsita dago. Honek ezkerreko aldetik zuen sarrera. Errotatxikiaren etxea oraindik

zutik ikus daiteke, arkuaren gainean. Egoera txarrean, halere.



Errotatikiko errota-etxea bere tunel antzeko hutsunearekin edo arkuarekin. Barruan, atzean, burdinazko turtukia aurkitzen da (Iztueta, 2010)

Arraten bi errota aipatu ditugu, itxura guztien arabera, bietan zaharrena behekoa izaki, erdi-erorita dagoena. Hau ote da herritarrek 1518an egiten hasi ziren hura? Agian, leku berean, baina denboren joanean eraldatua?

3. Arrosiko errota

Hemengo errotek Berastegi errekatik hartzen dituzte beren urak. Erreka honek Izotzalden, Kanpantxo baseritik ez hain urrun, Olloko, Uli eta Uraundiko erreka-adarrak biltzen ditu eta Berastegiko zelaia erdiz erdi zeharkatu ondoren, Ariztunugalde auzotik Arrosirako bidea hartzen du Goienetxea baserriaren parean. Handik 150 metrora-edo, aurkitzen da Arrosiko lehen errota, gurdibide zaharretik joanda –zerbait gehiago errepidetik–, bihurtune batean.

Izenburuan “Arrosiko errota” jarri dugu, horrelaxe pluralean, lau direlako, bata bestearen segidan kokatuta daudenak. Nahiz begiak erne izan, azken bi eraikinen lekukotasun fisikoa atzematen lanak izango ditu bertaritzen denak, leku sasitu eta zikinduek ez baitute ikusten uzten geratzen diren aztarnak. Errota hauek ere, Olloko-koaren antzera, ez bide dute eguzki-igurtzi askorik hartzen.

Arrate eta Arrosiko erroten aipamenak XVI. mendearen erdialdetik aurrera etengabe agertzen dira BUAn gordetzen diren Udaleko kontu-liburuetan. Arrosin, idazten eta irakurtzen ez dakien Juan Maria Aranalde Señorena, 25 urteko nekazaria da 1890eko zentsu ofizialean errota bezala izendatua datorrena. Baita Juan Bautista Urreta jauna ere, hau ere idazten eta irakurtzen ez dakien 70 urteko nekazaria.

Handik 11 urtera, 1901ean, Epaitegiaren erabakiz, Juan Bautista Urretaren izenean zeuden “Arrosi edo Jacasene-Errota” deiturako errota –bere osagarri guztiekin, presarekin, baratzeekin eta ateurrekoekin–, eta Iparraldeko esparruko errota txikia –osagarririk gabekoa–, hauek biak Juan Maria Aranalde Señorenaren izenera pasatzen dira²⁸.

Badirudi, beraz, Juan Maria Aranaldere aurreko errotaria Juan Bautista Urreta izan zela, 1890. urtera arte. Noiztik hasita, ez dakigu. Bestalde, agiri horretan, errota biak batera datoz emanak. Lehena bere osagarriak dituen da eta bigarrena, berriz, gabea. Ondoko urteetan ere, zehazki 1902tik²⁹ 1909ra arte³⁰, Juan Maria Aranalde bera agertzen da inskripzio ofizialean errotari bezala izendatua.

Geroago, 1929. urtearen barruan, bi izen datoz errotari bezala inskribatuak. Uztailaren 19ko datan³¹, Natalia Imazek eta bere senarrak “Arrosi-Berri” izeneko errota inskribatzeko eskaria egiten dute, horren ur-emia segundoko 25 litrokoa izaki eta ur-jauzia, berriz 2 eta 1,20 metrokoa. Segidan, urriaren 23ko datarekin³², Juan Maria Aranalde da “Arrosi edo Yacaren-Errota” izeneko inskribatzeko eskaria egiten duena, eta honen ur-emia 40 litrokoa da segundoko eta ur-jauzia zazpi metrokoa. Erroten izendapenek eta kanpo-egiturek adierazten duten bezala, esan liteke bi errota desberdinen eta bi titularitateen aurrean gaudela. Testutik ezin baita atera zeini deitzen zaion “Arrosi-Berria” eta zeini “Arrosi o Yacaren-Errota”, alderdi hori ez da batere argitzen eta, ondorioz, nahasgarri gertatzen da.

Antxon Aguirre Sorondok (1988, 400), bere aldetik, “Errota-Berri” izen bereko lehenengoari –egun etxebizitza bihurtuta dagoenari, alegia–, deitzen dio eta, hala egitean, zalantzak areagotu egiten dira, azken aurreko biek ez dituzten ezaugarriak baititu. Izan ere, honek hiru errotari mugiarazten zituen hiru turtukirekin. Bestalde, presarik ederrenetako bat du, triangelu-itxurakoa, dena harlanduz egina eta burdinazko euskarriz sendotua.

Gerra aurrean eta ostean, errotak ustiatzeko lizentzia fiskalak izenez aldatuz etorriko dira: 1934tik 1950era

bitartekoak “Molino Arrosi” sozietatearen izenean emana dator, 1951tik 1953ra Felipe Aguirre Brit-enean, eta 1954tik 1957ra bitartean Isaak Garmendia Gorostizarenean. Familia hau Tellaetxean maizter zegoen eta handik etorri zen Goiko errotara. Hau izan zen azken errotaria. Errota honetan azkeneko ehoketa 1965ean egin bide zen. Egun baserri-modura funtzionatzen du eta bertan, eraikina eraberrituta, Ameraungo Gaztañondo baserritik etorritako Otxotorena familia bizi da, “Arrosi” baserria izenarekin.



Arrosiko Goikoerrotaria bere presarekin. Atzean errota-etxearen atzeko zatia. Etxebizitza bezala eraberritua aurkitzen da egun (Iztueta, 2010)

Bigarren errota, aurrekotik 20 metrora-edo, aurkitzen da, errekan behera joanda, ezkerretara. Honek ere bazuen bere presa, eta lehenengo errotaren arkupeetik ateratako urak lurrazpitik bideratuz betetzen zen. Oraindik ere bistan dago bidea zeharkatzen zuen ubidearen hasierako zatia. Eraikina eta presa zutik daude, baina egoera oso txarrean, larrez eta sasiz erdi-estalita. Atzeko hormaren kontra, txakurtegia dago.



Arrosiko bigarren errota. Errota-etxearen horma bere arkuarekin
(Iztueta, 2010)

Hirugarrena bigarrenetik 100 metrora-edo aurkitzen da, hau ere errearen ezkerretara, behera goazela errepidearen lehen bihurgunearen parean. Nahiko desegina badago ere, oraindik gordetzen ditu lehengo aztarnak, errota-etxea eta presa, honen parez-pare bere baratzea duela, orain sasiak hartuta daudenak. Hemengo azken errotaria gerra ondoren Ursino Aranalde izan zen.



Behkoerrota, hirugarrena, Ursino Aranalde erabilitakoa. Errota-etxearen hormak eta arkua ikusten dira. Argazkia errepide aldeko erreka bazterretik aterata (Iztueta, 2010)

Laugarrena, berriz, hirugarrenaren parean aurkitzen da, baina justu errearen bestaldean. Horma batzuk baino ez dira geratzen. Badirudi azken bi errota hauek presa beretik hartzen zituztela beren urak. Azken bi errota hauek zubi batez elkarrekin lotuta zeuden, bietara errepidetik zein gurdibidetik joan zitekeen. Bideak Arrosiko paper-fabrikaraino segitzen zuen.



Laugarren errota. Hor azpian horma-harri batzuk baizik ez dira agertzen, lehengo errota-etxearen lekuko, ilunpean bezala zuhaitzen artean ostenduta. Argazkia errepede-gainetik egina (Iztueta, 2010)

Orotara, beraz, hauek dira ustezko Ondare Arkeologikotzat hartuta dauden errota³³: Ollokokoa, Arrateko biak, eta Arrosiko lauak. Herriko zaharrenek Arrosin bi errota baino ez dituzte ezagutu martxan, azken erroteriak izaki: Goikoerrotan Tellaetxeko Isaak Garmendia eta Behekoan, guk hemen hirugarrena bezala emandakoan, Amigoneko Ursino Aranalde Esnaola.

Eta esanak esan, Berastegiko Juan Martinez jauntxoak 1548ko eskrituran aipatzen duen Arrosiko errota hura non aurkitzen ote zen? Lau horietakoren bat edo, agian, beste bosgarren bat ote zen harena? Agian, laugarren hori?

4. Gerrate osteko erroten gainbehera

Berastegin, gerra ostean, martxan zeuden Arrate eta Arrosiko errota. Zer gertatzen da 1950eko hamarkadan desagertu daitezkeen? Berastegiko erroten historia Gipuzkoako beste erroten testuinguru berean kokatu behar da eta, geografian urrutirago joanda, gerra osteko Espainiako erregimen frankista autarkikoaren barruan, azken batean, handik baitatuz arau orokorrak. Desberdintasun honekin, halere: beste Probintzien aldean, Bizkaia eta Gipuzkoa herrialdeak bereziki zigortuak izan zirela. Baita maila ekonomikoan ere.

Gerrate-garaian, 1937ko abenduaren 29an, agindu bat aldarrikatu zen fabrikak eta errota ahalik eta ekoizpen gehien ateratzera behartzen zituena, gari-irina beste zahi batzuekin nahastuz eta, honela, ogi-ekoizpena handituz. Neurri honek, jakina, ogiaren kalitatea lermatzea ekarri zuen. Handik bi urtera, 1939ko urtarrilaren 29ko lege batek aurrekoa oraindik areagotu egin zuen eta erroteriak irin

integralak egitera behartu zituen. Faxistek Madril martxoaren 28an okupatu eta gero, urte bereko maiatzaren 14tik aurrera ezarri zen errazionamendua eta orduan sortutako Hornidura eta Garraioen Komisariotza Nagusia arduratu zen janarien banaketa-araudia bideratu eta betearazteaz, zegoen janari-eskasiari aurre egiteko xedearekin. Bi kartilamota zeuden: bata haragientzat, bestea gainerakoentzat. Pertsona bakoitzari aste gutzirako esleitutako janari-anoa oso txikia zen: haragitik 125 gramo, oliotik laurden bat, ogi beltzetik 250, arrozatik 100, lenteja edo dilistatik 100, xaboi-zati bat eta behar-beharrezko beste artikulua batzuk, horien artean tabakoa ere bai. Umeei, gainera, irina eta esnea ematen zitzaien eta armada frankistan egondakoei, berriz, 250 ogi-gramo ematen zitzaien. Mahai gainean lantzean behin baino ez ziren ikusten kafea, txokolata, irasagarra, xaboia, haragia, esnea, arrautzak eta horrelako artikulua. Garia bazen, baina ogi zuririk ez. Horrela sortua da “ogi beltzaren” historia, sukalde askotan entzuna. Errazionamendu-kupoien legea 1952ko ekainaren 15ean desagertu zen. Ezin aiantziak dira, kanpazoa eta kartila eskuan hartuta, baserrian ekoizten ez ziren oinarrizko artikulua dendara erostera joaten gineneko urteak. Umek izanda, ez ginen asko jabetzen jende gehienak bizi zuen egoera larriaz.

Gu baino zaharragoek gogoan dute oraindik bizi izan zuten ogi beltzaren sindromea, gerra osteko erroten bilakaerarekin zerikusi zuzena duena. Izan ere, gerra ostean, Francoren Espainia nazioarteko estatu-harremanetatik isolatuta aurkitu zenean, egoera ekonomikoa oraindik gehiago txartu zen, bazterretan gosea areagotu, eta, 1941eko ekainaren 30eko lege berri baten bidez, lakari-errotak itxi egin

ziren eta irina egitekoak bakarrik baimendu. Lakari-errotak ixteko legea 1952ko ekainaren 14an baliogabetu zen.

Arau horiek guztiak jendearen eta errotarien kaltetan baitzihoazen, ahal zen guztietan iruzurra egiteko bide ematen zuen. Kale gorrian larriagoa zen gosea baserrietan baino eta jende askok merkatu beltzean estraperlora jo zuen eta beste batzuek nekazaritzan ziharduten senide edo lagunengana.

Errotariak, bestalde, arautegi oso zehatza bete behar zuten. Beste gauza batzuen artean, C-21 liburuan bezeroaren izena, C-1aren zenbakia eta irin-kopurua ezarri behar zituen. Guardia Zibila urtero pasatzen zen, ekaina inguruan, errotariak prezintatuz. Errotariak urte horretarako zegokion dokumentazioa lortzen zuen eta berriro pasatzen ziren, iraila aldera, arto-irina edo gari-irina, edo biak, egiteko prezintuak kentzera, errota bakoitzari ematen zitzaion baimenaren arabera.

Errotariak kontrolpean baitzeuden, hauek ere askotan ezkutuan ehotzen eta saltzen zuten, fabore gisa lagunentzat edo auzokoentzat, hartzen zituzten arriskuengatik zer bait gehiago kobratuz. Berekin zeramaten, harrapatuz gero, isunak jaso, ondasunak kendu edo errota ixteko zigorraren etengabeko beldurra. Isunak 1.000 eta 10.000 bitartekoak izaten ziren, ohiki milakoak. Ezkutuan ehotzeko, bi errotariak lotzen zituen itsatsitako paper-prezintua –geroago berunezko alanbrea– kendu behar izaten zuten errotariak eta berriro jarri erabilia izan zela ez antzemateko moduan. Halere, noizbehinka, Guardia Zibilek harrapatzen zituzten tranpan. Isunak jasotzen zituzten, batzuetan sobera kobratzen zutelako eta, beste batzuetan, dokumentuak garaiz aurkezten ez zituztelako. Izan ere, errotariak, arautegiaren

7. artikuluan zetorrenez, hileru, nahitaez hurrengo hilaren 5a baino lehen, lehen aipaturiko C-21 liburuko originala –jatorrizko orria–, Gariaren Institutu Nazionaleko Bulego Nagusira bidali behar zuen. Berastegiko Arrozi-Beheko (III) errotariari –seguru asko, Ursino Aranalde Esnaola jaunari–, bere errotaren itxieraren jakinerazpena etorri zitzaion 1947ko abenduaren 16an, azaroko ehoketari zegokion C-21eko orria bidali ez zuelako. Errotariak alegatu zuen berak 19an bidali zuela Jose Maria Rekondo esnezalearen bidez, baina honek, ardura faltaz, ez zuela Donostian entregatu. Prezintua kentzeko eskaera egin zuen, handik aurrera postaz bidaliko zuela aginduz.

Herriko errotak prezintatuta zeuden epealdian ezin baitzen haietara joan, baserritarrak herritik aparte beste leku ezkutu eta baztertuetan zeuden eta inspektoreak hain erraz joaten ez ziren errotetara joateko ohitura zegoen, astoak alezakuz kargatuta. Berastegikoak, Aresoko errotara. Harako bidean ere Urtoko mikeleteen kontrola gaudituz behar izaten zen. Orduan mutikoak ginenok izututa joaten ginen Aintzergako errepedean “sakamantecas”ekin topo egingo ote genuen beldurrez akabatzen. Gure artean zabaldua zegoen kotxean ibiltzen zirela eta umeak odol-husten zituztela. Horregatik, Aintzergatik Urto bitarteko errepedea zen bereziki zaindu beharrekoa.

Neurri hertsatzaile hauek eraginda, giro nahasia sortzen zen herri gehienetan. Batzuetan auzokoak salatzen zuen errotaria; beste batzuetan, errotari eta inspektore edo agintarien artean lagunarteko harreman-sarea osatzen zen. Azken batean, eroskeria, xantaia eta ustelkeria nagusitu ziren erroten munduan. Eta lakari-errotak gainbehera etorriko dira ondoko urteetan. Erroten inguruan egindako ibilaldi

labur honetan oinarritzko datu-iturri izan dugun Antxon Aguirre Sorondo adituaren ustez (2001), estraperloak bere eragina izan zuen. Baina estraperlo-mota honek ez zeukan zerikusirik *Aidanen* aldizkarian (2006, 20-23) kontatzen den Berastegiko kontrabandista-taldearen historiarekin, beste arrazoien artean, ordurako bertako azken errota, Arrosikoa, desagertzeaz zegoelako.

IV

SAROIAK ETA MEGALITOAK

Saroiak harrizko biribil batzuk dira, harrizko mugarriz mugatuta daudenak. Ez beti biribilak, beste itxura geometrikoa dutenak ere badira-eta³⁴. Ohar honek saroien biribiltasuna, nahiz kontzeptu eusten diogun lan honetan, eman ohi zaion baino zentzu zabalagoan ulertu eta erabiltzea eskatzen digu.

Lehenago, artzaintza-garaian, saroiak basoak eta larreak banatzen zituzten, eta haietan ganaduak bazkatzen ziren. Burdinolak eraiki zirenean, ordea, gauzak asko nahastu ziren, olagizonek eta ganaduzaleek, nor nagusituko, beren interesen alde tiratzen zutelako. Horrek ekarri zuen baso eta saroiaren ustiapena arautu beharra. Hortik aparte, Leitzarango larreak direla-eta, Berastegiko Juan Martinez jauntxoaren eta herriko nekazarien artean sekulako tirabirak sortuko dira 1536ko auzian, baina horretaz Berastegiko jauntxoei eskainitako beste atal batean jardunak gara bigarren liburuan.

Data hori baino mende bat lehenago, baziren, antza, konponezinak Leitzarango haranean abeltzainen eta burdinola-jabeen artean. Orduko gatazka-egoerak behar-

tuta, Leitzarango burdinoleta jabe batzuek eta Berastegi eta Elduaingo Kontzejuek hitzarmen bat izenpetu zuten 1415ean saroiari gainean³⁵. Hitzartutakoaren arabera, burdinolek saroietatik at zeuden basoetatik beren sutegirako egurra ekar zezaketen, baita soroak, sagastiak eta fruta-arbolak jarri ere, horiengatik auzokoei ohiko errenta ordainduz. Bazuten, orobat, zuhaitzak botatzeko baimena, saroietan gorpilen, mazoan eta sutegi-hauspoen ardatzak, kirtenak eta beste tresna batzuk egiteko xedearekin; baina alde zurretik, Kontzejuei horren berri eman behar zieten eta, gainera, horretarako saroietatik at zuhaitzik ez zela aurkitzen ziurtatu behar zuten. Burdinola bakoitzak 40 zerri eduki zitzakeen Leitzarango mendietan botata, San Joanetik aurrera, baina ez auzoek larre bihurtutako lekuetan; gainera, larre-garaian etxera ekarri behar zituzten. Era berean, ahuntzak, ardiak eta idiak saroi eta mendietan edukitzeko baimenduak zeuden, baina, idiak salbu, besteek gauero etxera ekarri behar zituzten. Gehienez 16 idi edo zekor eduki zitzaizkion burdinola bakoitzeko, eta minerala garraiatzeko gehiago behar izanez gero, Kontzejuekin adostu behar zen kopurua.

Olagizonentzat, noski, kaltegarriak ziren saroiak, arautan ikusi den bezala, haiek ustiatzeko mugak ezartzen zitzaizkielako. Horregatik, saroi berriak egiten ari zirela-eta, salatu zuten lehen ez zirela horrela eta, ondorioz, lursail haietaz gozatzeko eskubidea zutela. Ezbaian sartuta, erabaki zen 70 urte baino gehiagoko antzinatasuna zuten saroiak, hots, 1345. urtea baino lehenagokoak, horiek bakarrik hartuko zirela halakotzat.

Lursailen jabetza-kontua auzitan jarria izan baita behin eta berriz, hemen garbi ageri da XV. mende-hasieratik

aurrera Kontzejuak direla Leitzarango ondasunen jabetza dutenak eta hango lurren kudeaketa eramaten dutenak.

Leitzarango haranean, guztira, 44 saroi ziren; agian, gehiago ere izan zitezkeen. Eta horietatik zenbat Berastegi eta Elduaingo Kontzejuenak? Juan Martinez jauntxoarekin izandako epaiaren berri dakarren XVII. mendearen bigarren erdiko *Memorial*-ean (1651, 562 zenb.) bazkaleku hauen izenak agertzen dira, grafia honetan emanda: Basaiz, Orin, Ameran, Ollaiz, Hurlio eta Oreneun. Guztira, sei hor izendatuak. X. Cabezonek³⁶, aldiz, hamarreko kopurua dakar orotara: 5 Berastegikoak, 2 Elduarekin eta beste 3 Elduainekin batera zituenak. Non kokatuak zeuden? Ameraunen 2 saroi, Bizkoiz eta Oizin deituak; Atatxin beste 2, Ollokiegi eta Beriñasko burdinolak hornitzen zituztenak 1591n; Ollatz; Orin, 1552an minerala entregatzeko leku bezala erabiltzen zena; Sarobezar; Arrisario eta Bertxin, hauek Berastegi-Elduakoak, Ollokiegiko burdinola hornitzen zutenak 1821ean; Asurtegieta; Txotorkua eta Galzadeta, hauek Berastegi-Elduaingoak, Inturiako burdinola hornitzen zutenak 1739an.

Orain arte, saroiak ganaduen bazkaleku bezala ikusi ditugu eta jabetu gara, burdinolen iraultzarekin, lehiakide berria sortzen zaiela artzaintzari zein abelazkuntzari, olagizonek egurra, ez belarra, eskatzen baitiote basoari eta burdina mendi-sabelari.

Urrats bat areago emanda, galde dezagun artzaintzagaraiako lekukoak diren eraikin megalitikoekin zer ikusirik ba ote duten saroiak, honetaz argibide batzuk eman baitituzte adituek, Luis Maria Zaldua Etxabek (2006) ederki azaltzen dituenak. Eta hemen, oso zeharka bada ere, historiatik historiaurreko denbora ilunetara joan-etorri

labur bat egin beharrean gaude, geure arbasoek utzitako aztarnen bila. Berastegi herri bezala historiara ibarreko ordeka zabalean jaio zen bezala, bertako eta inguruko arbasoak mendi-goienetan bizi izan ziren. Orduko artzainek trikuharri edo tumuluetan eta mairu-baratzeetan utzi zituzten beren aztarnak, hilobi horietan lurperatzen baitzituzten beren gorputzak, azken kasuan errautsak bakarrik. Horrelakoak asko dira Leitzaranean. Jentilizioen garaian, halaber, Leitzaran ibaia izan zen baskoinen eta barduliarren arteko muga naturala.

Saroiak historiaurreko eraikin biribil handi batzuk dira, baso baten erdian kokatuak, erdian txabola bat dutela. Caro Baroja (1977, 180) izan zen Euskal Herriko saroiak eta Europako beste alderdi batzuetako eraikin biribilak lotzen lehenengoetakoa. Zail izanen da honez gero Euskal Herriko historiaurrea bere osotasunean ulertzea inguruko herrietakoa ezagutu gabe. Euskal Herriko saroiak eta megalitoak elkarren harremanean jartzen dituen aurreneko ikertzailea, berriz, Jose Migel Barandiaran (1972, 214) da. Bi loturamota ikusten ditu bien artean. Lehen ezaugarria da saroiak eta megalitoak elkarren ondoan aurkitzen direla hemengo mendietan, eta bigarrena, berriz, saroiak mairu-baratzeen tankera dutela. Beraz, bere ustez, saroiak eta megalitoak (trikuharriak, tumuluak, mairu-baratzeak edo harrespilak, iruinarriak) aspaldiko auzoak dira. Izan ere, ageri da udako saroiaren eremua eta goiko larreena bat datozela, baita trikuharriak dauden eremuarena eta, neurri handi batean, Burdina Aroko mairu-baratzeena ere. Nolanahi den, megalitoak dauden inguru gehienetan saroiaren arrastoa dago Euskal Herrian. Aralar gipuzkoarraren sartaldean (Arantsao-Oidui inguruan) saroiak eta megalitoak ondo-ondoan

daude. Megalitoen ondoko egungo etxola eta larreak saroietan daude ia beti, beti ez esateagatik. Besterik da saroiak dauden toki guztietan megalitorik badagoen zehaztea, eta badirudi ez dela horrela, saroiak dauden inguru askotan ez delako megalitorik aurkitu, trikuharriak eta mairu-baratzeak, bereziki (Ondarra, 1982, 23-24). Honek, Baztango saroiak ari dela, hauek iruinarriekin zerikusirik badutela uste du. Dena den, badirudi saroiak eta mairu-baratzen arteko lotura beste megalitoen artekoa ez bezalako dela. Izan ere, biek tankera bera dute, biak dira biribilak; haustarriak³⁷ –landa edo zelai baten erdian, bertan sua pizteko, ezarria dagoen harriak, alegia–, mairu-baratzen erdian egon ohi den errauts-kutxa dakar gogora. Beraz, bietan erretako zerbait egon liteke, errautsa edo ikatza. Antzekotasun horien ondoan, badira, jakina, hainbat desberdintasun ere, tamaina esate baterako. Mairu-baratzeak saroiak aldaera txikituak dirudite, sarri askotan trikuharriak etxola txikiak diruditen bezalaxe.

Elkarren ondoan ukituz dauden saroiak eta mairu-baratzeak hainbat lekutan aurkitzen dira: Oianlekun (Oiarzun) edota Okaben hainbat. Elkar ukitzen duten saroiak ere badaude, asko gainera, urrutira gabe, Leitza-ranen bertan. Luis Mari Zalduak (2006, 16) Leitzarango saroiak ari den 1739ko testu bat dakar, zeinetan esaten baita mugarri bat jarri zutela errazago ikusteko moduan esko-petaren miratik bezala:

“Y para el mismo fin acordaron que según las líneas que sean corrido de cada moxon del centro de los dichos quince seles, a distancia y tira de cada uno de ellos de quatro estados³⁸ se ponga cada moxon por index y demostrador como las miras de una escopeta para dirigirse

al moxon de la circunferencia, y para dar con él con mas bervedad y seguridad y para que los moxones del centro sean allados y encontrados con mas facilidad....”

“Moxon de la circunferencia” delako hori da deigarria gertatzen zaiona, zer pentsatua ematen diona. Biribilaren erdiko mugarri horri mairu-baratzearen tankera-edo hartzen baitio.

Peñalver-ek (2004, 439) dio Euskal Herriko ia monolito guztiak artaldeek erabilitako larreetan daudela. Saroi-erdi-erdiko guneeekin edo mugarriekin ere antzeko zerbait gertatzen da, hein batean. Erdiko zenbait gunetan –monolitoetan bezalaxe–, inolako materialik ez da agertu. Erdiko gune horiek monolitoekin duten antzekotasuna nabarmena da, inolako markarik ez dutenena, batez ere. Ez da harritzekoa, hortaz, megalitotzat jo diren zenbait harritzar seguru asko saroi-erdi-erdiko guneak izatea. Bestalde, saroi asko megalitoen muga-mugan daude. Pentsa liteke megalitoak aintzat hartu zituztela saroiak eta etxolak finkatu zituztenean. Nolanahi ere, orain artekoan bederen, megalitoen ondoan dirauten etxolak garai berekoak direla frogatzen duen azterketarik ez da. Baliteke megalitoak eraiki zituztenean, haien inguruan aldi baterako bizilekuak izatea, beti ez bazen ere (Peñalver, 2004, 26).

Artxiboetan dokumentutako Berastegi herriari buruzko idatzizko datuak XI. mende-hasietatik datozenak badira ere, askoz lehenagokoak dira bertan bizi izandakoen berriak, historia isiltzen denean, historiaurrean bezala, harriak eta hezurak hasten baitira hizketan. Hauek ere artxiboetan dokumentatuak aurkitzen dira. Berastegin ez da Paleolito-aztarnarik aurkitu ahal izan –gizakiak behe-ibar eta bailaretan ehizatuz eta basoko fruituak bildu eta horietaz

elikatuz bizi ziren haien aztarnarik, alegia–, izotzaldian Europa osoan 350 metrotik gorako lurretan bizitzea zaila baitzen.

Noizkoa den artzaintza Euskal Herrian eta Berastegin? Izotzaldia bukatu zenean sartu ziren Ekialde Hurbiletik nekazaritza eta abelazkuntza gure lurraldean eta orduan hasi ziren goi-mendietako larretan artaldeak bazkatzen. Duela 4.000 urteko artzainen argibideak badira Berastegin, Jesus Altunak (2005, 25) ziurtatzen duen bezala. Trikuharriak eta mairu-baratzeak dira horiek, Brontze Arokoak lehendabizikoak, Burdin Arokoak bigarrenak, biak leku garaietan eraikiak. Trikuharriak harlauza handiz eginak dira, eta bertan gorpuak ezartzen zituzten beren lanabesekin, armekin eta hainbat jakirekin, heriotzaz haratagoko beste bizitza batean sinesten zuten seinale gisa. Trikuharri bat, egun lurrez estalita dagoena, Gorosmendin aurkitzen zen. Nola desagertu zen honela kontatzen du herriko seme Jesus Altunak (2005, 25):

“Gorosmendin bazegoen trikuharri bat. Katalogatu eta gero *Munibe* aldizkarian argitaratu genuen. Egun batean, orain dela 20 urte, autobiako lanak egiten ari zirenean, emaztea eta biok mendi-lepo zoragarri horietan zehar gindoazela, guardia zibilen patruila bat aurkitu genuen. Erakutsi genien trikuharria eta honi buruzko hainbat azalpen ere eskaini genizkien. Ordurako guk Foru Aldundiaren Kultura Departamentuari jakinarazi genien lan berriekin trikuharriak izan zezakeen arriskua, baina kultur ondasun horrek kezka handiegirik emango ez zielakoan, guardia zibilen patruila hari ere eman genion arriskuaren berri. Baina haien kezka beste kontu batzuetan zegoen. Alferrik izan zen guztia. Erraza zen

trikuharria gordetzea, baina gaur egun monumentu hura lur eta harri tona askoz estalita dago. Badakigu zein diren bere koordenada geografikoak eta non dagoen, baina ez da ageri”.

Trikuharri hau ADA taldeak aurkitu zuen 1981ean. Zabaleran 9,80 diametro ditu, altueran 50 zentimetro. Beibatarin ere bada tumulu txiki bat, zabaleran 6 metro eta altueran 50 zentimetrokoa, Neolito-Brontze garaikoa.



Beibatariko tumulua harriaren atzealdean, sasiartean ostenduta (Iztueta, 2010)

Gorosmenditik Ameraunerako bidean, ezker, aurkitzen da. Jesus Altuna eta K. Mariezkurrenak aurkitu zuten 1981ean. Egun, tumulua izandako lekua bera, garoz, otez eta txilarrez dena estalia dago, ez ikusteko moduan.

Andoaindik Ipuliñorako mendilerroan, monumentu hauek aurkitzen dira, handik hasita: Ondalarren trikuharri bat, Itxupearan tumulu bat, hauek Billabonako partean; Belauriate eta Urdelarren artean, Elduaingo lurretan, Loa, Belaurietetxiki eta Besaburun trikuharri bana, eta Moan tumulu bat.

Bestalde, jakina denez, mairu-baratzeak ugari dira Nafarroa Garaian eta Beherean, Zuberoan, Lapurdiko hegoaldean eta Gipuzkoako ekialdean, baina Berastegiko lurraldean ez da horien aztarnarik. Adarratik Mandoegirako mendilerroan zehar 70 mairu-baratzetik gora aurkitzen dira, baina Uzturretik Ipuliñorako mendilerroan bat bakarrik ere ez. Beraz, badirudi Leitzaran ibaia dela horien kokagunearen muga. Herriko beste mendietan ere, hala nola Ulin, Zolizarren, Gaztelumendin eta Erroizpen ere ez dela aurkitu trikuharri eta mairu-baratzeen aztarnarik zioen Jesus Altunak (2005, 25), baina horrek ez duela esan nahi ez daudenik. Jabier Salbarredik³⁹ esan berri digu Larteko pelotalekutik ez urruti, bazirela pare bat-edo, mendiko pista egiterakoan desagertu bide zirenak. Hori bai, Leitzaran ibaiaz harago, Berastegiko lurretan dagoen Abadegurutzen, Mandoegitik hurbil, baziren hiru mairu-baratze multzoan, eta horietako batek bazuen iruinari bat ere, L. Peña Basurtok 1946an aurkitu zituenak, baina suhesi bat eraikitzean, kiskalita desagertu egin ziren, kuartzita-bloke batzuen aztarnak bakarrik geratzen direlarik. Berrikitan, ordea, Mandoegiko Haize Erroten parkerako egin diren miaketa-lanetan,

desagertutako mairu-baratzetako bat aurkitu da eta beste baten aztarnak ere agertu dira. Deskargan aurkitu da berrikitan beste mairu-baratzeen multzo bat. Bat bakarrik agertzen da, 9 metroko diametroa duena eta inguruan harlauza batzuk dituena (Altuna, 2005, 24-25).

Kultur Ondasun bezala kalifikatuak daude Belaurieteko megalitotegia, Onyi-Mandoegikoa, eta Deskargako mairu-baratzea.

**KOMUNIKABIDEEN SAREA
ZABALTZEN**

V

ERREPIDEAK: MANDABIDETIK AUTOBIARA

Berastegi Tolosako udal-jurisdikziotik alde egiteko arrazoi nagusien artean bat, hain zuzen, errepidearena izan zela ikasita gaude jadanik. Berastegik Leitzarango burdinolak puri-purian zeudenean Nafarroatik Gipuzkoako itsas portuetarako bidea zuzenean handik nahi zuen, Tolosatik pasa gabe. Honek Arabatik zetorren bidearen pasagune ez ezik Nafarroarena ere berak nahi baitzuen izan, auzitara eraman zituen Berastegiko sustatzaileak.

Auzi haren muina ezagutzeko, ordea, jakin beharra dago zertan ziren Gipuzkoan garai hartako bideak eta nola planteatzen zen errepide-politika Batzar Nagusietan. Eta lehenago, sarrera gisa eta modu orokorrago batean, jakin behar da bideek zer-nolako garrantzia izan duten herrien arteko harremanetan eta, orobat, herri-antolaketan.

Erromatarren garaia baino lehenago, ordukoaz gauza gehiegi ez badakigu ere, seguru asko harrizko bidexka batzuk izango ziren, egun mendietako bidezidorrak deitzen diegun horietakoak, edo horien antzekoak. Ez dakigu asko,

ezta erromatarren garaikoak (K.a. 200 eta K.o. 500) nola-koak izan zitezkeen ere. Ziurrago dakiguna da Erdi Aroan Europatik Donejakuera zetozen erromesek erromatar galtzaden ibilbideri jarraiki egiten zutela bide. Ibilbide horietako batzuk galtzadak ziren, lurrean zanpatuz tinkatutako harri landuz egindakoa, alegia. Gehienak, ordea, mandabideak genituen, bidezidorrak, mendietan, lautadetara iristean gurdibide bihurtzen zirenak. Geroko bide asko lehengo horien gainean eraiki ziren.

Erromatar inperioa erortzean, apenas egin zen galtzadarik eta bidexkarik Mendebaldeko Europan. Baina Erdi Aroan zehar asko erabili ziren Erromatar inperioak eraiki zituen galtzada haiek. Jakina, lehengo bide zaharrei eustea eta berriak egitea asko kostatzen bazen ere, ezinbestekoa gertatu zen zerbitzu publiko horri heltzea, tartean jokoan zeudelako, interes militarrez gain, itsas portuetarako eta merkatuetarako sarbideak. Hiri nagusietako bide garrantzitsuenen zoladura harri landuz egindakoa izaten zen, baina hori egin ahal izateko zerga berezi batzuk bildu behar izaten ziren. Gainera, XVIII. mendean zalgurdiak erabiltzen baitziren, beharrezkoa zen bideak egoera onean egotea. Jadanik XIV, XV eta XVI. mendeetan Mendebaldeko Europak garraio-sistema ona zeukan eta XVIII. eta XIX. mendeetan Europako errepide gehienak erresumen eskuetara pasatu ziren. Hauek zergak kobratzen zituzten mantentze-lanei eutsi ahal izateko⁴⁰.

Europaren barruan, Euskal Herriko errepideen historia ez bide da asko aldatzen. Aski da gogoratzea Euskal Herri-
tik pasatzen zirela Donejakuerako hiru bideak, kostaldetik hasi eta Jakaraino bitartekoak eta orduko erromesbideak egun ere agerian daudela. Europan zehar txango txiki hori

eginda, gatozen hasierara eta ikus dezagun Berastegik noiz eta nola eratu zuen bere errepide-sarea Gipuzkoako lurralde-antolaketaren barruan.

1. Iruñea eta Tolosa arteko mandabideak Erdi Aroan (XI-XVII)

Gorosabelek (I, 1899, 154-167) dakarrenez, Gipuzkoan zeuden lehengo errege-bide zaharrak, edo jendeak erabiltzen zituenak, hiru ziren. Horietako bat, Arabako Zaldudotik zetorrena, San Adriango mendi-portutik pasatzen zen eta, Zegama, Segura, Beasain, Ordizia, Tolosa eta Hernani zeharkatuz gero, Behobiara joaten zen, Astigarragan Donostiara adar bat saihesten zelarik eta bestea Hondarribira. Bigarrena ere Arabatik zetorrena zen, baina Arlabango mendatean barna, eta honek, Leintz Gatzaga, Arrasate, Oñati, Legazpi, Urretxu eta Beasaindik pasatu ondoren, azken herri horretan, Beasaingo sarreran dagoen Ihartza ize-neko lekuan, bat egiten zuen San Adriandik zetorrenarekin. Hirugarrena Iruñetik zetorrena zen eta, Lekunberri, Leizta, Berastegi, Berrobi eta Ibarra zeharkatu ondoren, Beasaindik zetorren Arabakoarekin bat egiten zuen Tolosara iristean. Handik aurrera, bide bakarra zen Bidasoako mugaraino. Beraz, Tolosara jotzen zuten Gipuzkoako hiru bide nagusiek eta komunikazio-gune horrek egin zuen hain sona handiko herria izatea (Zabala; Iglesias, 1971, 145).

Oraindik ere agertzen dira leku batzuetan hiru bide nagusi horien aztarna batzuk. Harri gogorrez egindako galtzadak ziren, hamabi oin zabaleran, modu nahiko arruntean eginak. Oso leku menditsuetatik pasatzen ziren, itzulinguru asko eginez eta, batzuetan, ubideak ondo hartu gabeko le-

kuetatik. Honek guztiak asko zailtzen zuen bide horietatik ibiltzea, batez ere mendiak zeharkatu behar zirenean. Noski –eta hau ere esan behar da–, garai hartako beharrak ere ez ziren gaurkoekin konparatzekoak. Mandabideak ziren haiek, nolabaitekoak. Orduan aurrerapen handitzat zeukaten bide bat irekita edukitzea handik jendea ibil zedin eta zamariak kargak bizkar gainean eramane zitzaten. Hau zen gauzak garraiatzeko modu bakarra. Gure aurreko haiek bazekiten, ondotxo jakin ere, garrantzi handikoa zela bide onak izatea, Gaztelarekin, Nafarroarekin eta Iparraldearekin merkatal harremanak izateko. Horretarako, Probintzia pobrea izan arren eta bertako orografia ez batere egokia joan-etorrietarako, ahaleginak egin zituzten horretan eta orduko beharrezanean erantzuteko balio izan zuten, falta ziren gauzak kanpotik ekartzeko eta bertakoak kanpora eramateko.

Gu, bereziki, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko garraiobidea osatzen zuten mandabide zaharretan pausatuko gara, batez ere, Barrena Osoro (1991) eta Jose Antonio Recondoren (2010) liburuak gidari ditugula.

Erdi Aroan zehar, Gipuzkoan bide-sareak finkatzeko lehenengo urratsak XI-XII. mendeetan ematen dira. Manuel Lekuonak (1964, 34-35) esana zuen antzinatean bideak ibaien paraleloak izan zirela, baina ez oraingo errepideen modura, hauek gehienetan haien parean baitoaz, mendi-maldetan barna baizik, artzainek ere oraindik erabiltzen dituztenak. Egile honen ustea sendotzera datoz gaurko adituen ikerketak ere:

“Gipuzkoako lurretan zeharreko komunikazio irizpide hauekin bat eginik, lur hauekiko lotune nagusiek gain menditsuetan zehar egiten dute aurrera, bai Aralar Mendizerrako gainetan zehar, bertara Olazabaleko do-

haintzak bideratzen bait gintuen, bai Aizkorriko gaine-
tik, ‘Sandratik’ seinalaztatua izanik hori, eta baita Uli
menditik ere, honetara zuzentzen direlarik ‘Berastegi’n
bildutako aztarnak” (Barrena, 1991, 79).

Trashumantziaren bideak ziren horiek. Jadanik XI.
mendetik hasita, Nafarroatik Gipuzkoako lurraldean sartze-
ko hiru artzain-bide zeuden, ondoko mendeetan, herriak
ugalduz joan ahala, adarkatuz joan zirenak.

Atondotik zetorren bide batek Aralar mendizerra ze-
harkatzen zuen gainez gain, San Migel baselisa, Guardaetxe,
Pagomari, Errenaga eta Igaratzen barna, eta Eniriora iris-
tean, eskuinera hartueta, adar bat Zaldibiara jaisten zen,
eta bestea, berriz, Jentilbaratzatik Atauna, eta hemendik
Ihartzara (Beasaina). Hemen, Oria ibaia zeharkatu ondo-
ren, adar batek, Gipuzkoako kostaldera eramaten zuen,
Santa Marina, Santutxo, Iturriotz eta Andatzarraten barna,
hemen berriro beste bi adarretan zatitzeko, bata Aiatik El-
kanora (Getariara) zihoana eta bestea Lasartetik Donotiara;
bigarren adarrak, berriz, Ormaiztegi, Zumarraga, Bergara eta
Elgetan barna, Gipuzkoa Bizkaiarekin lotzen zuen.

Lekunberritik zetorren bigarren bideak, Araitzko mailo-
petik joanda –Araxes haranera jaitsi gabe, egungo errepede
nazionalak egiten duen bezala–, Zarateko mendatea zehar-
katzen zuen Azkarate eta Bedaio artean, Ugartetik Altzora
–lehendik aipatua dugun Olazabalgo Salvatore ermitara,
alegia–, iristeko, segidan Ordiziatik Tolosara zihoan bidea-
rekin bat eginez (Barrena Osoro, 1991, 67-81).

Zuzenean Berastegiri dagokion hirugarren bideak Go-
rritin zuen abiapuntua, eta handik, Uli gaina zeharkatuz,
Berastegi herrira jaisten zen, eta hemendik adar batek, Be-
lauriateko lepura igoz, Hernani, Astigarraga eta Oiartzundik

Hondarribiara eramaten zuen, eta beste adarrak, berriz, Berrobin barna, Tolosara, eta hemendik, Oria zeharkatu ondoren, Bidania eta Errezildik Iraurgira (egungo Azkoitiara), eta hemen berriro bitan banatuko da Bizkairako bidean, Azkaratetik Areitioko mendi-portura eta Elosuatik Elgetakora joateko. (Barrena Osoro, 1991, 98-110). Zalantzarik ez da Uliko mendatea, jadanik XI. mendetik hasita, leku estrategikoa izan dela Nafarroatik Gipuzkoarako bidean. Horren lekuko dira kareharri irregularrez egindako bi galtzada, “Domintxinbordako bidea” eta “Estrata aundiko bidea” bezala ezagutzen direnak (Barrena Osoro, 1991, 80).



Domintxinbordako galtzada Ulirako bidean
(Barrena Osoro, 1991, 80)

Egun desagertua den Domintxinborda non kokatua zegoen eta Estrataundi zeini deitzen zitzaien jakinda –hura Gorostizutik Iruinerako bidean ezkerretara hartu eta Milleneko belazean, bidearen gainaldean, eta hau Zaparitegitik Bordatxorako bidean gora–, zalantzarik ez da mandazainak Ulitik Berroara aterako zirela, seguru asko Milleneko bordan barna. Ulin bertan bada beste bigarren bide bat ere –hau zuzenagoa eta aldapatsuagoa aldi berean–, errekarri jarraiki Arratera eramaten duena. Uliko Azurmendi mendizainaren familiak bide hau erabiltzen zuen herriratzeko. Nolanahi ere, adar biek Izotzalden bat egiten dute.



Domintxinborda kokatua egon zeneko zokogune laua, erdi-eguzkitan, Milleneko belazean, egun desitxuratua dagoen galtzada-ondoko zuhaitzen eskuinetara (Iztueta, 2010)

XII. mendean egituratuta dago, bada, Gipuzkoako “haranen” arteko komunikazio-sarea. Mende honetan Gipuzkoan kokatutako hainbat ondasun dohaintzan emanak izan zirela dakarten dokumentuek ere ibilbide horien berri ematen dute. Dohaintza horietan onuradunak Leire, Aralarko San Migel in Excelsis, Irantzuko Santa Maria eta Iruñeko eliza gertatu ziren. Nafarroako Gartzia IV. Ramirez Berrezarreak 1141ean Iruñeko elizari dohaintzan eman zizkion Donostia inguruko ondasunak, Aiako Harritik hasi eta Andatzaraino artekoak. Gogora dezagun urte horretan bertan Berastegiko bi “collaço” edo jopu eman zizkiola Aralarko San Migel santutegiari. Hau kontuan izanda, ez da harritzekoa Iruñetik eta Uli gainetik Berastegira iristen zen ibilbidea, Belauriatetik kostaldera zihoana, kalkatuta bezala agertzea.

Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko komunikazio-sarea zabalduz joan ahala, bertako gizarte-egituran ere aldaketak etorri ziren, maila desberdinetan islatu zirenak, bereziki sozioekonomikoan eta artistikoan.

Hasteko, arkitekturari dagokionez, jakingarria gertatzen da egiaztatzea, Berastegi, Elduain, Berrobi eta Tolosako San Estebango elizek portada erromanikoak dituztela eta arkitektura-ezaugarri hori ez dela berriro Azkoitia eta Eibar arte agertzen (Barrena Osoro, 1991, 106).

Orobat, nekazaritzaren finkapena ere komunikazio-sare horren ondorio bat da, zehazki Berastegi eta Elduan, hurrenez hurren XII. eta XIV. mendeetako jopuen eta erroten aipamena egiten baita, orduko mandabideen aztarnetatik egiaztatzen dena. Honek jadanik ordurako, artzaintzarekin batera, lurlantza eta abelazkuntza ere indarrean zeudela suposatzen du. Mediterraneo-kutsuko eraginek –horien ar-

tean nekazaritzarenak eta abelazkuntzarenak—, agian VIII. mendetik aurrera, Gipuzkoako ekialdetik sartuko ziren Kantauriko isurialdean eta, X. mendetik aurrera, Nafarroako ekialdean eta erdialdean lurlantzan gertatzen ari zen aurrerapenengatik, eta seguru asko toki horietako abere-taldeek ekarriko zituzten eragin horiek, iparraldean ingurune geografiko egokiagoa aurkitzen baitzuten (Lacarra, 1981, 159-166).

Berastegi herria, hain zuzen, bere toponimiarengatik eta bere kokapen geografikoarengatik, mediterraneo-eragin horiek bideratu zireneko lekuko historiko garrantzitsu bat izan zela pentsatzen duenik ere bada. Hizkuntzalari batzuen ustez —eta hauen artean daude Koldo Mitxelena, Caro Baroja, Mikel Belasko eta Patxi Salaberri—, Berastegi herri-izena *beratz-* erroaz eta *-tegi* atzizkiak osaturik egongo litzateke. Atzizkiak izaera adierazko luke, etxearen edota izen propio baten atzetik jartzen dena, horien baliokide bezala, eta erroak, berriz, pertsona-izen jakin bati egingo lioke erreferentzia⁴¹. Koldo Mitxelenak (1989, 554 zenb.), bere ustea sendotzeko, “Beraxa” deitzen zen Berastegiko pertsona baten aipua dakar, Erdi Aroko dokumentu batean —jadanik aipatuan—, datorrena. Beraz, ez toponimo bat, baizik egiazki antroponimo baten aurrean geundeke. Caro Barojaren ustez, orobat, *Berazano* hitzak ere jatorri bera izango luke. Berastegiren kasuan, bada, erroa eta atzizkia elkartuz gero, Beraxa jaunaren jabetzako den zerbaiten aurrean aurkitzen gara.

Hipotesi horretan implizutuki onartzen den arrazoibidean, ordea, ez da dena konbentzigarria. Zuzena da jadanik aipatu dugun eta Koldo Mitxelenak dakarren 1141eko dokumentu horretan, “Orti Munioç”ekin batera, “Be-

raxa” rena ere badatorrela, eta bi jopu (*collaços*) horiek Berastegikoak direla: “duos *collaços* in villa que dicitur Berastegui”. Baldin eta Beraxa jadanik baden herri bateko hiritarra bada –Berastegikoa, alegia–, nola eman diezaioke izena bere aurrekoa den zerbaiti? Edota pentsatu behar da Beraxa historiko haren aurretik beste Beraxa batzuk ere izan zirela eta sorrerako harengandik hartu zuela herriak bere izena?

Bestalde, ondorioz ateratzen bada *Berastegi* herri-izenak, bere osotasunean hartuta, “Beraxaren jabetzakoa” edo horrelako zerbait adierazten duela, ageri da morrontzaren saillean gizarte-mailarik apalena ordezkatzeko duen izenak zerikusirik ez duela jabetzarekin edo, zuzenago esanda, bada duela baina guztiz alderantzizko zentzuan.

Horregatik galderekin segitu ordez, iruditzen zaigu lehen-lehenik *Berastegi* izena toponimo ala antroponimo bezala hartu behar den argitu beharko litzatekeela, harrotu dugun hipotesi horri ez baitiogu aski oinarririk ikusten. Dokumentu horretan garbiki egiaztatzen dena da Berastegin jadanik nekazaritza finkatua dagoela eta, gainera, feudoizaera duela, jopuak dauden lekuan feudo jauna egoten baita. Hor ote dute beren jatorria inoiz dokumentu gabeko eta, beraz, ustezkoa den Berastegiko jauntxoekin leinukoek? Bigarren liburuan Berastegiko jauntxoekin jatorriaz eta gizarteizaeraz jardun baikara, testu inguru hartan ulertu beharrekoa da iradokizun gisa egindako galdera hau.

Toponimoen ildoan beste urrats bat emanda, Berastegi herriari buruz azaldutako hipotesi antroponimikoa sendotzera letorke Barrena Osorok (1991, 78) dakarrena, eta da erroan “Beraxa” izena daramaten herriek markatzen dutela mediterraneo-kutsuko eraginak Gipuzkoan sartu zireneko ibilbidea, Barasoaindik Beasainaino luzatzen dena:

“Agian, ‘Beraxa’ izen propiotik eratorritako toponimoek trazatzen duten trajektoria da, eragin hauek, Gipuzkoara iritsi bitartean, jarraitu dutena. Zidako ibaiaren iturburuan dagoen ‘Berasoain’etik abiatuta, ‘Beasoain’etik jarraitzen du, Arakilek eta Argak bat egiten duten tokitik hurbil, ondoren Larraun eta Ultzama ibaiaren arteko banalerroan dagoen ‘Berasain’etik ‘Berastegi’ra iritsiz, uren banalerro batean hau ere, Araxes eta Leitzaranean. Guztiak inguru menditsuetan daude kokatuta. Nafarroako hegoaldetik zonalde kantauriarrera hurbiltzen diren abel taldeek eskuratu duten eremuari zegokion moduan. Aztarna toponimiko honen arabera, Oria ibaiaren haranean bertan bukatzen da trajektoria hau, ‘Beasain’en, eta, horrenbestez, modu esanguratsu batez ixten da ibilbide historikoa...”

Ibilbide hori, gainera, ‘Beraxa’tik eratorritako toponimoek zehaztutako ibilbideak bat egiten du alderdi megalitikoekin –artzainen trashumantziak ireki zituztenekin, alegia–, horietan utzi baitzituzten beren aztarnak:

“Horrela, Zidako ibaia sortzen den Artaxona inguruko multzo megalitiko dago, bertan Berasoain aurkitzen delarik; Sarbilen hasieran, Arakil eta Argaren artean, Beasoain aurkitzen da eta bere ibaietako lehenengoa iraganetz, Xulapaineko eta Ultzama-Atezeko alderdi megalitioekoen artean, Berasain dago kokatuta. Berastegi aldera aurrera eginez, Larraun eta Huitzi-Gorritiko multzo megalitikoekin egiten dugu topo, horiek zuzenean hurbiltzen gaituztelarik Uliko gainera, eta horren azpian, Berastegi aurkitzen da” (Barrena Osoro, 1991, 78).

Barrena Osorok eraikitzen duen diskurtso honek ere, den erakargarria bezain tentagarria izanik ere, arestian aipatu

dugun *Berastegi* izenaren irakurketa antroponimikoari daxezkion alderdi ilunak ditu.

XIII. mendean komunikazio-ardatz berriak sortzen dira, hiribilduen fundazioak eta urbanizazioak dakartzatenak. Mende honetan, Gipuzkoa Gaztelako Koroan sartuz gero, Alfontso X.ak (1252-1284) hiri-titulua eman zien Tolosa, Ordizia eta Segurari, leku estrategiko bezala, Nafarroako muga zaintzeko. Orokorrean, lehengo bideek jarraitzen dute indarrean, baina garrantzizko aldaketa batekin, eta da Gipuzkoa Nafarroatik aldentzearen ondorioz, Teobaldo I.ak 1249an zerga-ordainlekuak ezartzen dituela Gorriti, Lekunberri eta Atondon. Bide hauek, hain zuzen, merkataribideak ziren eta salgaiak zaldiz, behorrez edo mandoz garraiatzen ziren, hots, zamarien bidez. Gorritik, antza, Nafarroatik Oriara erdira zihoazen bideak kontrolatzen zituen, Uli eta Urtoko gainak zeharkatuz Orexa eta Gazteluko zonaldetik edo Berastegiko haranetik iraganez, Tolosatik pasatzen zirenak (Barrena, 1991, 123).

XV. mende-bukaeran, Tolosak Berastegi eta Elduaingo Udalekin izandako auzian ikusi bezala, Urdelar eta Belauriateko bideak garrantzi handia izan zuen Leitzarango olagizonentzat, hango burdingintzaren garapenak beste hainbat langile-sektore jarri baitzituen abian, hala nola ikazkinak, meatzariak, mandazainak, itzainak, eta garraiatzaileen zein merkantzien trafikoa asko indartu baitzen. Hortik eratorritako diru-etorriak nahi izan zituen kontrolatu eta beretu Tolosa hiriak. Badakigu oker handirik gabe Belauriatetik kostalderako bidea nondik egiten zuten, Tolosatik pasatu gabe: Berastegin, Ezpeleta zein Zamargin parean eskuineko mendi-bidea hartu eta San Lorentzo eta Urdelar mendiak maldaz malda mendabaldetik zeharkatuz, Belau-

riateko lepora ateratzen zen, eta hemen eskuineko norabideari eutsiz, Sandrako bordara (Amasan) jaitsi-eta, handik, Billabona eta Hernanin barna, Hondarrabiko kostaldera joaten zen.

Hain argi ez dagoena da, Leitzarango olagizonek nola eta nondik ateratzen zituzten beren salgaiak –funtsean minerala eta burdin tresnak–, ibai-zulotik Belauriateko gainera, gauza jakina baita garai hartan Bertxingo txapelan pasabiderik ez zela. Dinamitak zartatu zituen hango har-kaitzak trenbidea egiterakoan. Hementxe hasten dira, hain zuzen, gure kabalak eta ezinak.

Inturia eta Ollokiegikoeak ohiko bidetik zuzenean egingo zuten Belauriateko joan-etorria, aldapa igo eta jaitsi. Ameraun eta Mustarrekoek, orobat, Gorosmendiko lepoa izango zuten beren ohiko pasabidea, eta handik, behar bada, Berastegira jaitsi gabe, San Lorentzo eta Urdelar mendimaldak ekialdetik –autobiaren gainaldetik–, zeharkatuz, Belauriatera aterako ziren. Bizkotx eta Plazaolakoak, Urtora gabe, Plazaolako zubia zeharkatu eta Legarraldeko bordan barna aurrera joanda –beti ere Zepillau mendia ezker utziz–, Aintzergara aterako ziren, Bertansoroko erreka ingurutik Estebanenekoa txabolara joateko. Hau izan zitekeen horientzat biderik erosoena, aldapak igotzen ibili gabe. Hau guztia, aitortu dezagun berriro, ziurtatu gabeko uste bat da eta, oraingoz, halakotzat hartu beharrekoa.

Orain artekoa laburbilduz, esan dezagun, Bidasoa haranetik Oiarsora zihoan erromatar bide zaharra at utzita, Erdi Aroan hiru bide bederen bazirela Lekunberritik aurrera Tolosan elkartzen zirenak eta jadanik XV. mende-hasieran bideratua zegoela Iruñetik Donostia eta Hondarrabiko itsas portuerako gurdibidea eraikitzekeo asmoa, Karlos II.a Pres-

tuak 1414an sustatu zuena. Horixe izan zen, hain zuzen, Nafarroako erresumaren betiko ametsa, Gipuzkoa Gaztelako lurralde izatera pasa zenez geroztik. Beharrezkoa zuen merkantziak garraiatzeko bide hori. Ordurako, gainera, XIII. eta XIV. mendeetan muga-herrietan izandako liskarrek baretuak ziruditen (Martirena, 2010, 20-22). Asmoak, ordea, astiro joan ziren betetzen. Bide eta errepideen erai-kuntzan mandabidetik autobiarako ibilbidea dago tartean eta iraultza horrek mende luzeetako historia du.



Nafarroa eta Gipuzkoa arteko garraiobidea Erdi Aroan, XVIII. mendera arte (Recondo, 2010, 280)

Nolanahi ere, Erdi Aro osoan zehar, XVIII. mendera arte, mandabideak ziren Gipuzkoa eta Nafarroa elkartzen zituztenak. Iruñetik abiatzen zen mandabideak Artika, Berriozar, Aitzoain, Berriobeiti, Elkarte, Oteitza, Saratsa, Eritze, Saratsate, Gulina, Aizkorbe, Irurtzun, Latasa, Urritza, Lekunberri, Azpirotz, Gorriti, Leitza, Areso, Berastegi eta Tolosa herriak zeharkatzen zituen. Bide honen beste saihesbide batetik, Etxaleku, Etxarri eta Aldatz zeharkatuz, Gorritira joaten zen, Lekunberritik pasatu gabe.

Lekunberrira iristean, mandazainek bi bide zituzten aukeran Tolosara joateko. Erabiliena Azpirotz herriraino zihona zen, eta hor beste aukera bat egin behar izaten zuten bi bideen artean. Batek, Leitza eta Berastegi herriguneak zeharkatuz, Tolosara eramaten zuen; besteak, berriz, Gorriti, Uli eta Gaztelutik joanda. Ulira iristean, litekeena da mandazain batzuk Berastegitik eta beste batzuk Gaztelutik joatea. Bazen gutxiago erabiltzen zen beste hirugarren bide bat ere, eta honek Lekunberri, Albiasu, Errazkin, Betelu, Uztegi, Azkaratetik joanda, Zarateko mendatea zeharkatuz, Gipuzkoan Bedaiotik Altzorako norabidea hartzen zuen Tolosara iristeko. Azken bide honetatik eraman zuten Loiolako Inazio Iruñeko harresietan larriki zauritu eta gero etxeratu behar izan zutenean. Hiruretan desorosoena bera izanda, zergatik eraman zuten handik? Gorriti eta Leitzako nafarren eta Tolosa eta Berastegiko gipuzkoarren artean liskar-giroa baitzegoen, zuhurtziak eraman zuen zauritua- ren zaindari-taldea bide nekosoagoa bai baina seguruagoa zirudien hura hartzera. Horrela, Araitzko ibarretik eta Zarateko mendatetik iritsi ziren Gipuzkoara. Horregatik deitzen zaio “San Inazioen bidea” hango mandabideari (Recondo, 2010, 276-278). Esteban Zuasti, Xabierko San Frantzis-

koren lehengusu propioa, izan zen bere zortzi lagunekin San Inazio Iruñetik Loiolarako bidean jarri zuena (Zavala, 2007, 10). Egiazko humanismoaren keinu gardena! Nafar hau izen bereko gazteluko jauna zen, orain peajea ordaintzen den lekuan (Zuhaiztin) kokatuta zegoena.

Garai hartan, jende gehiena non sortu han hiltzen zen, bere herria eta ingurukoak aparte, beste ezer gehiago eza-gutu gabe. Oinen erresistentziak eman zezakeena zen bidaiatzeko ahalmenaren neurria. Jende gehienak ez zeukan bidaiatzeko ohiturarik, ezta modu erosorik ere. Salgaien garraioa mandazainek egiten zuten, zamariak kargatuta. Mandabide mehar haietatik ehundaka mando-buru joango ziren bata bestearen segidan mendiak eta herriguneak zeharkatuz, orain ibilgailu motordunak bezala Berastegitik ere bai, noski.

Berastegin errege-bide zaharra –Erdi Aroko mandabi-dea, alegia–, herrigunetik pasatzen zela gauza ziurra da. Baina nondik zehazki? Uste orokortua da –eta iritzi honetako dugu gai honetan aditua den Jabier Salbarredi herri-tarra⁴²–, Elduaingo Ermiti eta Gorranetik (Sarobebordatik) gora atera Bideraungo lepora, eta hortik Ariztunugalde eta Lizarragan barna, herriko plaza zeharkatuz, erretore-etxetik aurrera egin-eta, Pastagintxonea eta Bentaberritik joanda, San Anton zaharrera iristen zela, eta handik Aintzergan barna Artalekutik aurrera eginda, Urton sartzen zela. Horren froga gisa Pastagintxonetik Bentaberrira arteko bidearen berezitasuna aipatzen da. Puzzlea erabat osatzeko, ordea, Ariztunugaldetik Lizarraga bitartekoa eta San Antonzaharretik Urto bitartekoa zehaztea geratzen da azterki-zun⁴³.



Pastagintxonea eta Bentaberri arteko errege-bidea, belarrez estalia
(Iztueta, 2010)

2. Zalgurdien eraikuntza eta errepideak (XVIII)

Herbehereak Gaztelako Koroan sartuz gero, batez ere, Europarekiko merkatal harremanak handituz joan baitziren, ezinbestekoa gertatu zen garraiobidea errazteko atarabide teknikoak bilatzen hasia. Espainian XVIII. mendearen amaieran hasi ziren zalgurdientzako errege-bideak eraikitzen. Euskal Herrian ere garai bertsuan, nahiz XVII. mendean ere ibiltzen ziren zalgurdiak. Irun eta Madril artekoa 1780an egin zen. Gipuzkoan zalgurdientzako bidea egitea

planteatu zenean, hasieran San Adriandik egiteko proiektua azaldu zen 1737an Elgoibarren egindako Batzar Nagusietan. Handik hogei urtera baino ez zen hartu asmo hori aurrera eramateko erabakia, 1757ko Batzar Nagusietan, hain zuzen, eta orduan ez, hasieran pentsatu zen bezala, San Adriandik, Arlabandik zetorrena oinarritzat hartuta baizik. Beste arrazoen artean, azken bide hau egokiago eta merkeagotzat jotzen zelako. Segurako haranekoek hobekuntza batzuk egitearekin konformatu behar izan zuten. Arlabandik zetorren Gipuzkoako zatiak Leintz Gatzaga, Arrasate, Bergara, Urretxu, Ordizia, Tolosa, Hernani, Oiartzun eta Irun zeharkatzen zituen, hemen Baionakoarekin bat eginez. Honela, bide berri honen eraikuntzarekin batera, San Adriango tuneletik eta Zegamatik zetorren mandabide zaharra soilik zamariantzat geratu zen.

Urte batzuk beranduago, 1784an hasi eta 1793an bukatu, zalgurdientzako beste errege-bide bat zabaldu zen, orduan Nafarroako Diputazioan Bideetarako zuzendaritza zeraman Santos Angel de Ochandategui injineru jaunaren ardurapean. Errepide honek Tolosa, Iruñea eta Zaragoza elkartzen zituen, Atallu eta Lizartatik pasatuz, eta 1849. urtera arte Nafarroa eta Frantzia arteko lotura zuzena izan zen (Recondo, 2010, 24).

San Adriangoarekin gertatutakoaren antzeko zerbait errepikatu zen Nafarroa Gipuzkoarekin elkartzen zuen bide zaharrarekin ere, Berastegitik pasatzen zenarekin, alegia. Hasieran, batetik besterako garraioak errazteko, Tolosatik Berastegirako bide zaharra hobetzea pentsatu zen, baina, orografi zailtasunak eta diru-eskasia zirela kausa, ez zen bideratu ahal izan. Azkenean, zalgurdientzako bide berria Tolosako Arrameleko zubitik abiatu eta Lizartatik egin zen

(Gorosabel, I, 1899, 154-167). Aukera hori gabe geratu zen, bada, Berastegiko harana.

Mende honetan, zalgurdientzako errepide berriak Leintz Gatzatik eta Lizartzatik egitean, San Adriango eta Berastegiko mandabide zaharrak ez ziren berritu eta bigarren edo hirugarren mailakoak izatearekin konformatu behar izan zuten. Ordutik aurrera, Ulin eta Urton zehar joan-etorri zebiltzan zamariak ez ziren herrian lehen bezain usu pasatzen ikusiko.

2.1. Zalgurdien iraultza: kotxeak eta automobilak

Esan beharrik ez dago zalgurdi eta errepideen eraikuntzak sekulako iraultza suposatu zuela edozein aldetik begiratuta, teknikitik bezainbat edo gehiago sozioekonomikotik.

Orokorrean esanda, zalgurdientzako errepide berriekin Probintzien eta bideko Udalerrien arteko komunikazioak nabarmenki hobetu ziren eta, bidenabar, Penintsularen eta Europaren arteko lotura historikoa sendotu egin zen, Euskal Herria bihurtzen zelarik garraioaren gune geostrategiko nagusietako bat. Mandabideak ez ziren desagertu, baina garraioak bide berritik joaten ziren eta orgen erabilera ugaltzen joan zen. Ordura arte, aurreko mendeetan, hirietako kale eta pasealekuetan baino ez ziren ikusten karrozak.

Zalgurdien erabilera XVIII. mendetik aurrera hasi bazen ere orokortzen, Achon-ek (1998, 75) dakarrenez, lehen aipamenak aurreko mendekoak dira:

“Karro ferratuen lehen aipamenak XVI. mendearen erdialdekoak badira, ‘Gaztelatik Flandesera’ kotxez iragaten ziren bidaiaren lehen aipamena 1607. urtekoa da, eta erregearen jarraigoaren kotxeak iragateko bidea mol-

datzeko lehen agindua -kotxeak hasiera batean errege pasareei lotuta zeuden- 1615koa, problematika hori zabaldu egingo bada ere 1679. urtetik aurrera”.

Kotxeak nondik pasatzen ziren? San Adriango pasabidearen aldean egoera hobean aurkitzen baitzen Arlabangoa, hemendik zeharkatzen zuten Gipuzkoa Fladeserako bidean pasarte honetan datorren bezala:

“Urte horretan bertan, 1643an, ‘Infantearen gorpua pasatu zen’ Leintz-Gatzagatik, aginduz ‘arriskurik gabe pasa daitezela Bere Gorentasunaren hezurrak eta karrozak eta jendea’ adieraziz ‘kotxe eta zamalkabereak’ Arrasatetik pasa daitezkeela (Achon, 1998, 65).

Mandabide meharrak ez bezala, gurdibide edo errepede hauek, galtzada erromatarren antzekoak ziren, zabaleran sei metro eta erdi inguruak, zoruaren lodiera metro bat baino gehiagokoa zen, zorua harri-koskorrez, lurrez eta harlauzez beteta zegoen, eta errepedeak alde bietan ubideak eta estoldak zituen. Alderdi teknikoari dagokionez, ez zen aldaketarik izan XX. mendera arte, nahiz eta ibilgailu motordunen erabilera oso handia izan ordurako (Recondo, 2010, 26-30). Badirudi Iruñetik Tolosarako bidea Espainiako zabalen eta onenetako bat zela.

Bestalde, gurdibideek bidaiatzeko ohiturak erabat aldatu zituzten, batez ere, herri txikietakoa jendeen artean. XVIII. mendean gurdibideak agertu ziren arte, jende xehak bidaiak oinez egiten zituen. Dirudunak bakarrik erabiltzen zituzten zaldiak edo mandoak, egunean 40 kilometro inguru eginez. Bidaia zaldi gainean ere egin zitekeen, horretarako posta-zerbitzua baliatuz. Honek azkarrago bidaiatzeko modua eskaintzen zuen, egunean zehar 170

kilometro egin zitezkeelako. Zerbitzu hau, ordea, garestia zen eta gizarteko goi-klaseak bakarrik erabil zezakeen. Gobernu- eta negozio-gizon, elizgizon eta horrelakoen pribilegioa zen (Recondo, 2010, 60-62).

Halaber, lau gurpileko zalgurdiek aurrerapen handia ekarri zuten salgaien zein jendearen garraioan, bidaiaren iraupena asko murriztu baitzen eta bidaiak maila guztietako jendearentzat eskuragarri egin baitziren. Horretaz gain, salgaien garraioa eraginkorrago eta merkeago gertatu zen, zamari batek gehienez 110 kilo garraiatzen zuen bitartean, orga baten gainean 500 kilo garraia baitzitezkeen (Recondo, 2010, 24). “Diligentzia” izeneko zalgurdietan maila goreneko jendea ibiltzen zen. Hauek handikientzat ziren. Orgetan, aldiz, jende xehea, langile-mundua ibiltzen zen. Azken hauek merkantziak eta jende langilea garraiatzeko erabiltzen ziren. Gainean estalki bat eramaten zuten bidaiariak eguraldi txarretik babesteko (Recondo, 2010, 62).

Bidaia luzeetan zamaltzaina bentetan geratzen zen bidaiariak pausatzen gera zitezen eta, bidean aurrera egiteko, zamariak aldatzen zituzten. Bentak, aldi berean, ostatu eta orgategi izaten ziren. Zalgurdientzako errege-bide berria egin eta berehala zabaldu ziren eta oraindik ere horietako gehienak zutik daude, adibidez, Tolosatik Iruñerako bidean, Lizartza, Betelu, Lezaeta, Lekunberri, Mugiro, Arruitz, Urritza, Latasa, Aizkorbe, Gulina, Eritze, Añezkar, eta Berriozarren (Recondo, 2010, 191).

2.2. Salgaien garraioa eta zergak

Etengabekoa zen salgaien garraioa lurralde batetik bestera. Nafarroatik Gipuzkoara ardoa eta pattarra ekartzen

zuten. Nafarroako araudiak Errioxatik eta Aragoitik zetozen ardoak, hurrenez hurren, Lodosa edo Viana eta Tuterako kontroletatik pasatzea eta Gorritiko mugatik ateratzera behartzen zuen. Hemen, Ulitik sartuko ziren Gipuzkoan, hura baitzen pasabide zaharra. Mandazainek ardoa zahagietan sartuta. eramaten zuten Gipuzkoako herrietara eta Nafarroako mendialdera. Zenbat zahagi pasatu ote zen hango parajetik mandoen pausaje mantsoan! Gero, Tolosatik Iruñerako errege-bide berria zabaldu zutenean, ardoa upeletan garraiatzen hasi ziren, gurdi eta orgetan (Recondo, 2010, 298). Nafarroatik zetorrena, batez ere, ardoa bazen ere, beste salgai batzuk ere sartzen ziren, hara nola olioak, zerealak, gatza, eta hainbat lekale-mota. Gipuzkoatik Nafarroara, berriz, arraina joaten zen, batez ere; likoreak, eskuz egindako salgaiak eta xaboiak, gutxiago (Recondo, 2010, 314).

Erdi Aroan zehar, zalgurdientzako errege-bide berria egin baino lehenago mandabideen garaian, Gipuzkoa Gaztelako Koroan sartuz geroztik, bi Probintzien arteko mugetan aduana-postuak ezarri ziren. Gipuzkoako aldean Tolosa, Ordizia eta Ataunen zeudenei “kai lehorrak” deitzen zitzaien; Nafarroako aldean Lekunberri, Gorriti eta Atondon zeudenei, berriz “taulak” (Recondo, 2010, 276). Mugetan zergak edo bidesariak ordaintzeko “ariel-etxeak” izeneko ordainlekuak aurkitzen ziren. Salgaiak eta bidaiariak ez ezik, zamariak eta gurdiak ere zergapekoak ziren, horiengatik ere ordaindu egin behar baitzen. Herriko bizilagunak ez zeuden ordaintzera behartuta, gurdiak norberaren lanetarako erabiltzen zirenean (Recondo, 2010, 314).

Bidesariak jasotzeko xedearekin, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugetan ariel-etxeak eraiki zituzten, Gipuzkoan

Mikeleteen Gorputza 1839ko irailaren 24an sortu zuen Foru Diputazioak, beste helburuen artean, bakea eta segurtasun publikoak bermatzeko eta, 1856. urteaz geroztik, probintzi arielak bildu eta, bide batez, kontrabandoari aurre egiteko. Horretarako probintziarteko mugak zaindu behar zirenez, mugako pasabide estrategikoetan eraiki ziren mikeleteen etxeak, mendiko mandabideetan bezala erregebidetan. Mikelete-etxe hauek Probintzia osoan zehar banatuta zeuden, Donostia, Ordizia, Bergara eta Tolosako barrutietan. Non zehazki? Gipuzkoak Nafarroarekin mendiz muga egiten zuen lekuetan, Aritxulegi, Sarasamendi,



Urtoko mikelete-etxea, 1898an eraikitakoa. Honen ondoan dagoen beste txiki hori lehengo ariel-etxe zaharra da (P. Elosegiren bildumatik hartutako argazkia, Recondo, 2010, 316)

Zarate eta Ulin eraiki ziren; errege-bideetan, berriz, Endarlatza, Pagoaga, Illarratzu, Lizarrusti, Etxegarate, Otzaurte eta Urton. Beraz, Berastegin bi mikelete-etxe zeuden eraikiak: errepidekoa Urton eta mendikoa Ulin. Berastegiko mikelete-etxe hauek Tolosako barrutiari zegozkionak ziren eta hango buruzagiaren egiteko nagusia zen mikelete-etxeak hamabost egunez behin bisitatzea, jasotako dirua biltzea, eta soldatak banatzea. Bidaiak zaldiz egiten zituen (Recondo, 2010, 312-314).



Uliko mikelete-etxe zaharra, hau ere 1898koa (P. Elosegiren bildumatik hartutako argazkia, Recondo, 2010, 310)

Azken Karlistadan ere aipatzen dute orduko kronikek Uliko mikeleteen egoitza hau. Gertakari bitxi bezala kontatzen da Santa Kruz apaiza handik ibiltzen zela bere mutilekin eta, behin batez, hango ostatuan topo egin zuela liberalen tropa batekin, baina ez omen zen deus okerrik gertatu. Elkarri begiratu, zerbait hartu, eta bakoitza bere bidean aurrera. Beldurrak eragiten duen erresetua.

Mikeleteen Gorputz hau 1936ko gerra zibilarekin desagertu zen eta hainbat mikelete-etxe, hutsik geratu zirenez, denborarekin erortzen joan dira. Umetan ezagutu genituen Berastegiko biak ere, bai. Urtokoan aztarnarik txikiena ere ez da geratzen. Ulikoan eraikinaren oinarriak bakarrik ikus daitezke ozta-ozta, sasitzak janda daudenak. Antzeko zerbait gertatzen da Zarateko mendatea baino zertxobait beherago aurkitzen den ariel-etxearekin ere. Hau 1950eko hamarkadaren erdialdera arte zutik egon zen, baina egun eraikinaren oinarriak baino ez dira bistatzen (Recondo, 2010, 314-320).

Berastegin, garai hartan, Urton bezala Ulin ere bi ariel-etxe aurkitzen ziren elkarren ondoan, bata borda-itxurako zaharra, Gazteluko partean bidegurutzearen behe-aldetik, eta bestea berriagoa, Urtoko mikelete-etxearen tankerakoa, hau Berastegiko partean. Uliko biak, zaharra eta berria, artean zutik zeuden 1940ko hamarkada-bukaeran. Ordukoen lekuko bakartzat mendi-aterpe bat geratzen da, bere iturriarekin, gazteluarrek mendizaleentzat duela ez asko egina. Urton, aisirako landa-parke bat dago antolatua.



Uliko mikelete-etxe berriaren orubea da hori, horma-aztarnak sasipean ostenduta daudela, Gaztelu eta Berastegiko bidegurutzearen erdian (Iztueta, 2010)

Bi leku horiek XIV. mendetik aurrera Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko garraiobide garrantzitsuak izan ziren, bi Probintzien arteko igarobidea kontrolatzen zutenak. Zalgurdientzako errege-bide berria Lizartzatik egin zenean, ordea, mandabide hauek lehengo garrantzia galduz joango dira eta gehienbat artzainek, ikazkinek eta kontrabandistek erabiliko dituzte (Recondo, 2010, 318-320).

Gipuzkoan 24 bidesari eta Nafarroan 75 zeuden 1880eko hamarkadan. Tolosatik Iruñerako errepide berria Lizartzatik egin zenean, Nafarroako eta Gipuzkoako Di-

putazioek ariel-etxe bana eraiki zuten, lehenak Atallun 1885ean eta bigarrenak Illarratzun 1857an, egun hondaturik daudenak (Recondo, 2010, 302). XVIII. mendetik aurrera, salgaien garraioa, batez ere, Lizartzako errepede berrietik egiten zen eta Illarratzuko mikelete-etxeak lehen mailako garrantzia hartu zuen Tolosatik Iruñera arteko bidean. Nafarroako mugari dagokionez, Berastegi eta Bedaioko ariel-etxez gain, Lizarrustin eta Enderlatsan ere baziren.

3. Eskualde-errepideen garaia: Tolosatik Urtora (XIX)

XIX. eta XX. mendei dagokienez, Jose Antonio Rodríguez Rans (2003) dugu Gipuzkoako errepideen azterketa zehatza egin duena eta hari jarraituko diogu hemendik aurrera, Berastegirako errepidea noiz eta nola egin zen jakiteko.

Errepide nagusia bideratu eta lehen Karlistada arteko epealdian, Probintziako bidegintzako politikan oinarrizko bi helburu hauek izan ziren gidari: batetik, kostaldeko eta barrualdeko herriak errepide nagusi berriarekin lotzea eta, bestetik, auzo-probintziekiko komunikazioak hobetzea. Sustatzaile nagusiak Udalerriak izan ziren (Rodríguez Rans, 2003, 33).

Alabaina, errepideen politika Batzar Nagusietan erabakitzen zenez, komeni da jakitea nola funtzionatzen zuten eta zeintzuen interesak gailentzen ziren. Batzar Nagusiaren izaera ez zen gipuzkoarren sufragio unibertsalez zuzenean hautatutako egungo Legebiltzar edo Parlamentuaren parekoa, ezta, beraz, Gipuzkoako herritar guztien borondate politikoa ordezkatzeko erakunde gorena ere, Gipuzkoako Foru-Ermandadea osatzen zuten errepublikaren ordezkari-tza-

organoa baizik, modu korporatiboan funtzionatzen zuena, oinarriztat jurisdikzio propioa zuten lurralde-komunitateak hartuta.

Batzarretan indarrean zegoen bozketa-sistema su edo familiarena zen eta, horren arabera, ordezkaturako errepublika bakoitzaren benetako boterea bakoitzak zituen sukopuruak erabakitzen zuen. Familia unitate fiskala zen eta Probintziaren gastu arruntetarako egindako ekarpenarekin eta, azken batean, errepublika bakoitzari emandako aberastasun-kalkulu orokorarekin zerikusia zuen. Boto murriztuak eta ordezkartzaren desorekak bidea eman zuen *lobby*ak sor zitezten eta, honela, Batzarrak kontrolatzeko tresna gisa erabil zituzten. Tolosa, Azpeitia, Irun, Oñati eta Bergarak su-boto guztien % 30 baino gehiago biltzen zituzten (Rodríguez Rans, 2003, 27- 29). Berastegiri 1866an 20 su baino ez zizkioten ematen eta kopuru horrekin, noski, ezin zezakeen aukera handirik izan Batzarretako erabakietan.

Gipuzkoako Bideen Plan Orokorra 1845eko maiatzaren 7an egin zen eta uztailako lehen hamabostaldian Ordizian egindako Batzar Nagusietan aurkeztu zuten. Plan berri honen oinarrizko arazoetako bat, finantzaketarena zen, horko 2. artikuluan ezabatuta geratu baitzen zalgurdientzako bideak egiteko herrietan ezarrita zeuden arielak ko-bratzea. Horren ordeztu, Batzordeak hiru finantzaketa-bide proposatu zituen: ardo, pattar, likore, txakolin eta sagardoaren gaineko arielak gehitzea; fondo orokorretatik bidekutzara egindako ekarpena gehitzea; eta bide-kutxan sartzea bide horietako kateetako irabazi guztia (Rodríguez Rans, 2003, 37).

Handik bost urtera, Bideen Iguala Plana aurkeztu zuen Batzordeak 1850eko uztailaren 9an, Bergaran bildutako

Batzar Nagusietan, eta hurrengo urtean (1851), Gipuzkoako errepide nagusia eta bide-adarrak erabili eta artatzeko arautegia onartu zen Mutrikuko Batzar Nagusietan (Rodríguez Rans, 2003, 57-63).

Aipatu ditugun plan-mota horietan, ordea, ez da aipatzen Berastegi. Harritzekoa ere ez da, zeini lehenasuna eman eta zeini ez, Batzordeak bere irizpideak markatuta zeuzkan-eta. Probintziako bide-sarearen antolaketan “txandarena” zen oinarrizko printzipioa “iguala” planaren baitan. Lanen plangintza egiteko orduan, hiru faktore hauek hartzen ziren kontuan: Probintziaren interes orokorrak, herrien interes partikularrak eta, azkenik, zeuden baliabideak (Rodríguez Rans, 2003, 68). Hiru faktore horiek kontuan izanda, txanda zeini noiz tokatzen zitzaion ikusi behar zen.

Probintzian Berastegi azkenetakoa izan zen bere errepidea lortzen. Tolosatik Berastegiko Urtora egiteko proiektua Gipuzkoako Batzar Nagusi askotan izan zen eztabaidatua.

Lehen aldiz 1851ko Mutrikuko Batzar Nagusietan aurkeztu zen, baina proiektuak ez zuen aurrera egin, Nafarroa eta Gipuzkoako lurraldeak lotuko zituen bide-zatia nondik nora egin artean airean zegoelako: Urtotik Andoaina, Leitza-rango harana zeharkatuz –lehendik zetorren asmoa–, ala Urtotik Tolosara, Berastegitik pasata, orain dagoen bezala.

Geroago, Tolosa-Urto errepidea egiteko proiektua Heraniko Batzar Nagusietan eztabaidatu zen 1855ean. Han erabaki zenaren arabera, Udalerri sustatzaileei zegokien, txanda etortzean, bidea egin eta finantzatzea, Probintziaren zeregin nagusia izanik lanak ikuskatu eta aztertzea eta inbertitutako kapitalaren gainean urtean % 2,5eko interesa ordaintzea (Rodríguez Rans, 2003, 77-78). Bidea egiteko lanak aurreratzearen, 1855ean proiektuaren sustatzaile

ziren Berastegiko haraneko herriek baimena eskatu zieten Batzarrei beren kontura bidea egiteko, iguala planeko 9. arauak aurreikusten zuen salbuespenaren arabera. Batzar Nagusiek eskaera onartu zuten, baina herriek ez zioten jarraipenik eman beren asmoari eta txanda zain geratu ziren. Errenteriako Batzar Nagusietan, 1858an, erabaki zen Tolosa-Urto bidea Azkoitia-Urretxukoaren ondoren egingo zela. Alabaina, aurreikuspen hori ere aldatu egin zen, lehen aipatu bezala Oñati eta Legazpiko ordezkariak beren eskubiak eskuratzeko egindako erreklamazioaren ondorioz.

Azkenean, bada, proiektua onartu, 1861ean onartuko dute Segurako Batzar Nagusiek, % 5eko diru-esleipenarekin.

Tolosako Zubiberrian hasi eta Nafarroako mugan Urtoko burdinolara iristen zen bide honek Ibarra, Belauntza, Berrobi, Elduain eta Berastegi herriak zeharkatzen zituen eta hiru fasetan egin zen: lehenik, Tolosa-Berrobi, gero Berrobi-Berastegi eta, azkenik, Berastegi-Urto. Tolosatik Berrobirakoa, 1862-63 urte-bitartean egin zen, udazkenean hasita. Berrobitik Berastegirakoa, berriz, 1866-67 urte-bitartean eraikitzen ari ziren. Bide-zati hau bi ataletan banatuta egin zen. Lehen zatia, Berrobitik Elduaingora, eta bigarrena, Elduaindik Berastegirakoa, 1866ko uztailetik 1869ko abendua bitartean egin ziren, hurrenez hurren. Tolosa-Berrobi lehen zatia egiteko 5,8 metroko lur-berdinketa egin zen eta zoruari 3,90 metroko zabalera eman zitzaion; azken bi zatiak egiteko, berriz, 6,80 metroko lur-berdinketa egin zen eta zoruari 4 metroko zabalera eman zitzaion. Buakaerako zatia, Berastegiko plazatik Nafarroako mugarainokoa Urtoko zubiaren parean, ez zen egin 1882-1885 urteak arte (Rodríguez Rans, 2003, 80-81).

Berastegitik Urtoko zubirainoko bideari dagokionez, lanak egiten hasi aurretik Berastegiko Udalak Diputazioarekin izenpetutako eskrituraren arabera, Udalak dirukopuru bat aurreratu zuen indarrean zeuden baldintzetan, hau da, 500 pezetako akzioak ematea % 5eko interesarekin eta urtean % 2 kitatzeko konpromisoarekin (Rodríguez Rans, 2003, 127).

4. Macadamezko eta asfaltozko errepideak (XX)

Baina nolakoak ziren XIX. mendeko errepide horiek? Zerez eginak?

Baporezko zilindro zanpatzaileak sekulako aurrerapena ekarri zuen errepideen eraikuntzan, harea eta ura nahastuz zoladurari irmotasuna ematen baitzion eta lau-lau geratzen. Noiz asmatuko eta, Tolosatik Berastegirako errepidea egiten hasi baino bi urte lehenago, 1860an, hain zuzen. Obretan ibili zuten ala ez, horren xehetasunik ez dugu jaso.

Macadamezko zoladura-mota honek –harea eta ura nahastuz egindakoak, alegia–, balio zuen karga gutxi eta abiada txikiko ibilgailuentzat. Automobilak 1900. urte-inguruan agertzen hasi zirenean, zoladurari ondo atxikitzen zioten orduko 50 kilometroko abiaduran zihoazenean, baina bihurguneetan harriak askatzen ziren eta zuloak egiten. XX. mende-hasieran, 1907an, bilatu zioten erremedioa asfaltoaren asmakizunarekin. Hareaz eta harriz betetako zoladuraren gainean asfaltoa botatzen hasi ziren –petrolioaren distilaziotik lortutako material likido beltz hori, alegia–, eta sistema honek berehala ordezkatu zuen macadamezkoa. Euskal Herrian, oro har, 1910. urtetik aurrera hasi ziren Euskal Herrian errepide zahar eta berriak asfaltatzen eta

1936rako errepide-sarea herrietara zabaldua zegoen⁴⁴. Gipuzkoako komunikazio-sarea, bada, XIX. mendearen bigarren erditik aurrera aski osaturik zegoen nola trenbidez hala errepidez, eta bi garraio-bide horiek elkarren osagarri gertatuko dira eta, kasu batzuetan, lehiakide ere bai, Plazaolako trenaren kasuan bezala, honek baldintza eskasagoak eskaintzen zituelako.

5. Tolosatik Berastegirako garraio-zerbitzua

Irun-Tolosa-Miranda eta Altsasu-Irurtzun-Zaragoza trenbidea 1864an inauguratu zuten arte, lau gurpileko ibilgailuen bidezko komunikazio-sistema oso handia izan zen eta, pentsa zitekeenaren kontra, trenbidearen eraikuntzak ez bide zuen erabat desagerrarazi ibilgailuen eta zalgurdien trafikoa. Horren froga da Tolosa eta Donostia eta Tolosa eta Irurtzun arteko zalgurdi- eta omnibus-zerbitzuak ezarri zirela egunero eta, Tolosaldean errepide berriak ireki ahala, asteroko diligentzi zerbitzuak zabaldu zirela, esaterako, Alegia, Amezketeta edo Berastegira. Bezero askok trena baino nahiago zuten, zalgurdi estaliak herri erdian geratzen zirelako, eta trenak ez; hori batetik eta, bestetik, salgaiak garraiatzeko, zalgurdia ohiko idi-gurdia baino askoz azkarragoa zelako.

Tolosan lehen zalgurdiak 1786an agertu ziren (Recondo, 2010, 36). Jose Domingo Etxabek, Pakoren aitak, eta Agustin Martijak zalgurdien konpainia sortu zuten 1902an, Tolosa, Azkoitia, Berastegi eta Beteluko zerbitzua beren gain hartuz. Konpainiak “Mendia” ostatua ere kudeatzen zuen. Elkarreak ondo funtzionatu zuen hainbat urtez, zoritxarreko gertakariak porrota eta elkarrengandik bana-

tzea ekarri zuen arte 1912an⁴⁵. Agustín Martija ostatuarekin geratu zen. Jose Domingo Etxabe, berriz, zalgurdiz egindako Berastegi eta Tolosa arteko korreoarekin. Zalgurdien ordeztu ibilgailu motordunak erabiltzen hasi zirenean, ordea, 1920eko hamarkada hasieran, Argentinatik 1921ean etorri berria zen Mallorkinako Juan Ferrandez Berjes jaunak hartu zuen Tolosatik Berastegirako linea eta berak gorde zuen, gerra aurrean Etxaberi saldu zion arte, baldintza batzuk betetzeko hitzarmenarekin⁴⁶. Denboraldi batez, bada, bi zerbitzu egon ziren: bata Etxaberen zalgurdi-posta, eta bestea Ferrandezaren autobus-linea. Berastegirako zerbitzuak ordutegi hau zeukan finkatuta 1924an: Berastegitik Tolosara 7,15etan irteera, eta Tolosatik Berastegira 16,15etan itzulera. Txartelaren salneurria, 1,50 pezeta⁴⁷. Gerra ostean, hamar edo hamabi urtez jarraitu zuen Pako Etxabek Berastegi eta Tolosa arteko bidaiariaren zerbitzu erregularra egiten (Recondo, 2010, 52-54).

6. Leitzarango autobia

Bere garaian hain eztabaidatua izandako Leitzarango A-15 autobiak mendebaldetik zeharkatzen du Ipuliño mendia, Aintzergan barna Gorosmendiko tunelean ezkutatu eta, San Lorentzo mendia ekialdetik egin ondoren, berriro Urdelar mendia mendebaldetik egiteko, Belauriateko tunelean Andoaingorako norabidea hartu arte. Mendi biak, San Lorentzo eta Urdelar, aurreikusia zegoen bezala, ekialdetik zeharkatu izan balitu, agian, Berastegiko ingurunea irabazten aterako zen, ez genituen beti begien aurrean izango zementuzko zubi horiek.

Nolanahi ere, autobiak bere ibilbidean han eta hemengo inguruneari egindako zauri paisajistikoak gorabehera –batez ere, Elduaingo mendietan eta Aintzergan–, aitortu beharra dago lasterbide eroso bilakatu dela noranahirako, Iruñetik eta Donostiatik bide-erdian. Tolosatik harago ezaguna ez zen herria meteorologi albisteek euskal geografia osora zabaldu dute haren izena. Teknologia berriek, mendien gordelektik atera-eta, albistegiko agendan sartua dute jadanik.

Datu bitxi bezala esan beharrekoa da, nafarrek eta berastegiarrek Erdi Aroan proiektatzen zuten ibilbidea, ez osoki baina bai neurri handi batean, autobidearekin bat datorrela. Bazekiten orduan ere biderik laburrena nondik zen. Tolosako udal-zentralitateak oztopatu zuen asmo hura orduan burura eraman ez izana.

VI

PLAZAOLAKO TRENBIDEA, ZIBILIZAZIOAREN MEZULARIA LEITZARANEN ETA LARRAUNGO BAILARAN

“Plazaola’ko burni bidea egin zunaten eta,
agur ango alaitasuna!”
(Orixe, *Quito’n arrebarekin*, 1950)

Bizkotzeko meatokiak indar handia hartu baitzuen eta handik Andoaina mineral asko garraiatzen baitzen, honek garraio-sistemaz aldatzea ekarri zuen. Hasieran, uztarriko ganaduen bidez egiten zen, baina ikusita tirako ganaduak egiten zuten nekeagatik laster makaldu eta akabatzen zirela, meatzeetarako tren bat jartzea pentsatu zuten.

Burdinaren industriari hertsiki lotua zegoen Plazaolako haranera luzaro gabe iritsi zen zibilizazioaren goiza. Esan bezala, beharrak eraginda. XIX. mendean, Stephenson-ek trena 1832an martxan jarri eta nahikoa laster aurkeztu zuen Bizkaiko Foru-Diputazioak Balmaseda eta Bilbo bitarteko trenbidea egiteko proiektua. Bordenetik Baionarako trenbidea 1855ean egin eta handik hiru urtera, 1858ko ekainaren

1ean, hasi ziren Gipuzkoatik Arabarako trenbidea egiten. Hasieran ikatzarekin ibiltzen baitzen, lehen tren elektrikoa, Irundik Altsasurakoa, 1927-1928an jarri zuten martxan, Ingalaterran baino 37 urte geroago⁴⁸.

Plazaolako trenbidearen historian hiru epe bereizi behar dira.

1. Lehen aldia (1904-1912)

Trenbidearen lehen zatia Plazaola eta Andoain artekoa Bizkotzeko meatokiko minerala Andoaina garraiatzeko helburuarekin egin zen, handik Norteko trenbidean Pasaiako portura eramateko. Trenbide honen sustatzaileetako bat Tolosako Jeronimo Zuriarrain izan zen. Eskaria egin, ordea, Frantzisko Ormaetxeak egin zuen. Baita errege-baimena lortu ere 1901eko otsailaren 8an. Honek bere emakidaskubideak Bizkaiko kapitala zeukan Sociedad Anónima de Leizaran enpresari transferitu zizkion 1902ko martxoaren 24an eta urte bereko udan hasi ziren lanean Manuel Sacristán injineruaren gidaritzapean. Emakidaren arabera, trenbideak luzeran 22,006 kilometrokoa eta zabalera metro batekoa izan behar zuen Andoaindik Plazaolan Nafarroako mugaraino, baina azkenean kilometro bat inguru laburragoa gertatu zen.

Lanak egin ahal izateko Elkartek Andoaingo Udalarik lur-berdinketa egiteko beharrezko ziren lurak utzi edo saltzeko eskea egin zion. Arras konplutua gertatzen zelako ezin baitziren saldu, Elkartek nahitaezko desjabetze-espeditentea ireki behar izan zuen, tasatu eta, honela, fidantza bat eraiki ahal izateko. Zabaleran 25 metrokoa-edo, egitea pentsatzen zen.

Lanak 1902ko ekainean hasi bezain laster, zailtasunak bata bestearen gainean pilatzen hasi ziren. Irailean bertan agertu zituen Andoainek bere kezak bidean egindako txikizioengatik. Hurrengo urtean, 1903ko urtarriletik maiztzaera, lanak geratuta egon ziren grebarengatik, baina hurrengo urterako trenbidea inauguratua zegoen. Elkar-teak, alabaina, ordainketa-etendura aurkeztu zuen 1905eko irailaren 25ean eta urte honen bukaeran Hartzekodunen Batzordeak beretu zituen Elkar-tearen ondasun guztiak, horretarako Comisión Explotadora de Leizaran deitua sortu zelarik. Batzorde honek enkantean jarri zituen S. A. Leizaran-en ondasunak, trenbidea barne, eta horretarako sortua izan zen Bizkaiko Sociedad Minera Guipuzcoana-k erosi zuen 1906ko azaroaren 3an. Bere egoitza soziala Bilbon zuen Compañía Minera de Guipúzcoa zen meatokien jabea 1906an eta urte honetan eta hurrengoan (1907) Sociedad Minera de Berastegui-ri errentan eman zizkion ustia zitzan. Compañía Minera de Guipúzcoa-k, meatokien jabeak, 1912an, Sociedad Minera Guipuzcoana errentariari utzi zizkion eta, honela, azken hau geratu zen meatokien eta trenbidearen jabe bakar.

Trena zuzenean minerala kargatzeko tokietan geratzen zen Bizkotxen, hura erretzeko labeen ondoan. Horkoez gain, geroago Mustarren ere beste bi labe egin ziren, Lorditzetik zetorren minerala erretzeko, hain zuzen, eta han ere bazen kargatzeko beste toki bat. Haraino abereek tiratako tren txiki batean eramaten zen minerala, lehen esan bezala.

Trenbidea inauguratu zen urte berean, 1904an, bidaiariak ere eramateko baimena lortu zuen, batez ere, haranean lanbide desberdinetan zebiltzan langileen joan-etorria errazteko xedearekin, asko baitziren ikazkintzan, meatzaritzan, olagintzan, zentral hidraulikoetan-eta, enplegatzen zirenak.

2. Bigarren aldia (1912-1926)

Iruñea Pasaiarekin trenbidez elkartzeko beharra ezarzen baitzuen Trenbide sekundario eta estrategikoen 1908ko legeak, horretarako jadanik egina zegoen Plazaola-Andoaingoaz baliatzea egokitzat aurreikusten zen. Orduko trenbidearen jabea, Sociedad Minera Guipuzcoana, lehia-
ketara aurkeztu zen eta berari eman zioten Plazaolatik Iruñea bitarteko zatia egiteko baimena 1910eko urriaren 19an, 55,983 kilometrokoa, baita Andoaindik Lasarte bitartekoa egitekoa ere 1911ko martxoaren 18an, hau 7,976 kilometrokoa. Azken herri horretan Euskal Trenbideekin elkartzen zen, eta handik biak Amarako geltokira joaten ziren. Honela, merkantziak Andoainen trenez aldatu beharrik izan gabe, zuzenean joaten ziren Donostiatik Pasaiako porturaino, egun Topoa ibiltzen den trenbide beretik. Honela, hiru zati horiek elkartuz, trenbide bakarra osatu zen.

Azken proiektu honen egile eta zuzendaria Donostiako Manuel Alonso Zabala, bideetako injinerua, izan zen. Nafarroako partean, Iruñea-Latasa, Latasa-Uitzi eta Uitzi-Plazaola bitarteko lanak, hurrenez hurren, Fermin Marquina, Felix Oráa eta Emilio Tobalina jaunek zuzendu zituzten. Obra gaitza benetan, hogeitun tunel eta hainbat zubi baititu. Kotxeak eta bagoiak Beasainen egin ziren (Martirena, 1979). Donostia eta Iruñea bitarteko joan-etorrian, eta alderantzizkoan, bidaiari eta merkantzientzat zerbitzu bikoitza eskaintzeko, baporezko zazpi tren-makina ekarri zituzten, Alemaniako Krauss eta Maffei etxeari erositak. Inaugurazioa 1914ko urtarrilaren 19an izan zen Uitziko geltokian. Han egin zuten bat Iruñetik eta Donostiatik zetozen tren biak eta bertan handikiro ospatu zuten nafar

eta gipuzkoar agintariek hango inguruak elurrez jantzita agertu ziren egunean. Hurrengo astean hasi ziren zerbitzu publikoa eskaintzen.

Plazaolako tren horretan, mineralaz gain, noizbehinka egurra ere garraiatzen zen, eta ez gutxi, Leitzarango basoak soilduta geratu baitziren Lehen Mundu-Gerra bitartean (1914-1918). Beste merkantzia batzuk ere garraiatzen ziren, esate baterako, ferietarako ganaduak eta janariak eta geroago, gerra garaian eta ondoren, gosea etorri zenean, estraperloa ere bai. Zerbitzu publikoa eskaintzen baitzuen, leku aproposa zen Nafarroatik Gipuzkoara, eta alderantziz, elikatzeke gauzak garraiatzeko. Emakumeak saiaten omen ziren gehien eginkizun horretan.

Garai honetan trenbide honek zer-nolako bizitza izan zuen ikusteko, hona hemen datu-pare bat: kargamendu gehien garraiatu zuen urtean, 1918an, guztira 54.000 tona; bidarien garraioan, berriz, 130.000 lagun 1925ean.

Egunero Iruñea eta Donostia artean hiru tren zebiltzan joan-etorrian. Geltoki hauetan gelditzen ziren Iruñetik abiatuta: Aitzoain, Saratsa, Irurtzun, Latasa, Lekunberri, Uitzi, Leitza, Areso, Plazaola, Amaraun, Olloki, Andoain, Añorga eta Amaran. XX. mendeko 20ko hamarkadan, trenaren geltokiak herritarrak biltzeko toki nagusiak izan ziren. Lekunberrin igandeetan jendea, dotore jantzita, geltokietan paseatzen zen eta trenari musika joz egiten zioten ongietorria, berdin agurra (Recondo, 2010, 156-160). Amaraungo geltokiak ere, nahiz herriguneetatik urrun egon, sekulako bizitasuna eman zion mendi-auzoari.

3. Azken aldia (1926-1953)

Egia esan, Plazaolako trenbidea, honen sustatzaileek hasieran besterik uste izan bazuten ere, inoiz ez zen errentagarria izan. Meatzeak garraiatzeko asmoarekin eraikia izan zen, baina burdinaren industriak ez zuen iraupenik izan. Gero bidarientzako zerbitzu publikoa eskaini zuen, aterabide osagarria izan zitekeelakoan, baina hor ere bidaiarientzako errepide-garraioan lehiakide gogorra agertu zitzaion. Krisiaren ordua iritsi zen eta hori eragin zuten faktoreak, besteak beste, bi hauek izan ziren: bat, bidaiarientzako trenbide eta errepideetako garraioen arteko lehiak prezioen etengabeko merkatzea ekarri zuela⁴⁹, eta bi, zerbitzu publiko eskasa eskaintzen zuela, ez batere lehiakorra, trena bera azken urteetan oso egoera negargarrian zegoelako eta, gainera, kedarra botatzen zuenez, bidarientzat zikina eta desegokia gertatzen zelako. Horregatik, krisiari aurre egiteko, Konpainiaren jabea Donostiatik Irungo Trenbide-Konpainiarekin eta Donostiatik Hernani eta Irundik Hondarribiko Tranbiekin elkartu zen. Bateratze horretatik sortu zen La Sociedad Explotadora de Ferrocarriles y Tranvías (SEFT) deitua 1926ko maiatzaren 26an. Bidaiarien garraioa arindu eta hobetzeko, 1929an Beardmore etxeko hiru diesel automotore erosi zituzten, 30 plazakoak. Materiala eramateko furgoia ere bazuen; atoiak eramán zitzakeen, gainera. Hobekuntza horiek ere ez ziren nahikoak izan.

Gerra ondoan, 1946an, geltoki berri bat egin zuten Iruñean, handik Iratiko trenbidearekin elkartzeko. Hau ere ez aski izaki, 1950eko hamarkada-hasieran krisi ekonomikoaren zulo-zuloan sartua zegoen. Saltzeko txartelak gutxitzen eta gastuak, berriz, beti gora. Badirudi inbertsio

berriak egitekotan ere egon zirela, baina, batetik, 1940an Leitzarango burdingintzak porrot egin zuelako eta, bestetik, 1953ko urriaren 14 eta 15ean izandako uholdeek trenbidea erabat hondatuta utzi zutelako, batez ere Larraungo aldean, horrek guztiak krisia areagotu baino ez zuen egin. Leku jakin batzuetan, Olloki eta Andoainen artean, egur-garraio batzuk eginez segitu zuen sei urtez-edo, baina azkenean, 1958ko irailaren 5ean, errailak kendu eta trenbidea erabat ixteko baimena lortu zuen Konpainiak.



Plazaolako tren-bagoi bat Lekunberriko geltokian (Iztueta, 2010)

Plazaolako trenbidea injinerutzako lan ikusgarria da, tunelez eta zubiz josia. Ibilbidea ere arazoz betea, orografia bihurri eta malkartsuetatik pasatzen baita. Trena Andoainen itsaso-mailaren gainean 65 metroko altueratik abiatzen zen eta, Leitzarango harana zeharkatu eta Urton Nafarroako mugara iristean, 415 metro inguruko altuera hartzen zuen, 20 kilometrotan 350eko desnibela gaindituz.

Trenbide honek, bestalde, bere ibilaldian hiru desbideratze-puntu zituen: bata, Bizkotxeko meatzeen kargaketa-lekura joateko; bestea, Ollokiegiko Olamia fabrikara joateko, luzeran 120 metrokoa, eta azkena, Bertxingo Iberduero zentralera joateko, hau luzeran 275 metrokoa.

Plazaolako trenaren txistuak, Larraun bailarako herriak zeharkatzean, hango baserritarrak teknologia modernoaren eta aurrerapenaren mundura esnarazi zituen. Inauguratu zuten egunean, orduan Oñan aurkitzen zen Orixek bere gogoan, ez han baizik Uitzin zeukan, eta ordukoa oroituz, behin baino gehiagotan deitoratu zuen hango isiltasuna urratzera etorri zen modernitatearen ikur berri hura. “Gaur Plazaola’k isilarazi, trenaren ere, damurik”, idatzi zuen bere poema nagusian. Joanak dira urte haiek. Egun, kezka ekologiarari ohore, bizikletazaleek eta senderismoa egiten dutenek baliatzen dute hango parajea. Orixek bezala, hauek ere isiltasuna eta bakea nahiago.

**GIZARTE-ERALDAKUNTZAREN
BIDETIK**

VII

BERASTEGIREN EGITURA SOZIOEKONOMIKO BERRIA

Berastegi mendetan zehar nekazaritzatik eta abelazkuntzatik bizi izan den herritxo bat da, Tolosaldean, Nafarroa zaharreko eta Gipuzkoa berriko mugan, mendien eta haranen artean ezkutatuta bezala aurkitzen dena eta bere historiartxo duena.

Herri askotan baserriak barreiatuta aurkitzen dira. Berastegi, aldiz, auzoetan banatua dago eta auzo bakoitza, zenbat eta elkarrengandik aldenduago egon, orduan eta islatuago bizi da. Esan nahi da auzo bakoitzak baduela bere autonomia bere eguneroko bizimoduan eta harremanetan. Isolamendu hori, batez ere, igande eta jai-egunetako eliz atariko tertulietan eta Tolosako feri egunetan hautsiko da.

Atal honetan nekazal ekonomiatik industri ekonomiara nola pasatzen den aztertuko da. Urratsez urrats.

1. Biztanleriaren eboluzioa

Taula hau iturri desberdinak erabiliz osatu dugu, hasierako urteetan autore desberdinen eta XX. mendean geroztiko

koetan INE eta EUEn oinarrituz. Berastegiko udal-errolak eskaintzen dituen datuak INEtik hartuak direla esaten baita, zehaztu nahi dugu azken iturri horretatik jaso ditugun 1900-1970 epealdiko datuak ez datozela osotara bat, bigarren zutabearen egiazta daitekeen bezala. Hori jakinaraztearren eta, aldi berean, elkarren osagarri izan daitezen, horregatik jarri ditugu elkarren ondoan hiru zutabe horiek.

Galdera-ikurrek adierazten dute lehen mendeetako bi horiek zalantzazkoak direla. Nolanahi ere, desberdintasunak ez dira sekulakoak. Milakoaren bueltan dabil biztanle-kopurua azken mendeetan.

1. Berastegiko biztanleria (1587-2006)

<i>Urteak</i>	<i>Biztanleak</i>		
	<i>Udal-errola</i>	<i>INE, 1973</i>	<i>EUE, 1975</i>
XVI. mendea	269?, 132?		
1619	418?; 500?		
1733	1012		
1857	1638		
1877	1294		
1897	1111		
1900	1098	1173	
1910	1180	1150	
1920	1132	1087	
1930	1146	1150	
1940	1043	1000	

1950	1094	–	
1960	1134	1124	
1970	1062	1058	
1975	–		1022
1981	942		942
1982	–		955
1983	–		960
1984	–		963
1991	969		
2006	1003		
2007	1003		
2008	1031		
2009	1037		

XVI. mendearen erdialdeko Liburu Zaharrak eta 1583ko Ordenantzek, hurrenez hurren, 269 biztanle eta 24 familia edo 132 biztanle baino ez dizkiote eskaintzen eta, horietan oinarrituz, Jose Luis Orella Unzuek (1993, 265-296) 238ko kopurua ematen dio, Orendainek zuenaren antzekoa. Herriko etxejabeen maiorazkoa eratzeaz diharduen eta jadanik aipatua dugun lehenagoko 1548ko dokumentuan, 42 etxe-izen aipatzen baitira, kopuru hori familia bakoitzeko batezbesteko 5,5ekin biderkatuz gero, 231ko emaitza ateratzen da, 238kotik oso hurbil dagoena. Alabaina kontuan izan behar da zerrenda horretan etxejabeenak bakarrik datozela. Beraz, kopuru hori handitu egin beharko litzateke.

XVII. mendera etorrita, J.L. Orella Unzuek berak dio, Berastegik, Tolosatik bananduz geroztik, Probintziako Batzar Nagusietan 26 su edo familia ordezkatzan zituela, hau da, 143 herritar guztira. Kopuru hau ere zuzendu beharrekoa da. Izan ere, berriro zentsuaren ezarpenaz eta Berastegi herriak bere udal-autonomia lortzeko erregeari egindako diru-ordainketaz diharduen 1619ko dokumentuan zehazten da, hain zuzen, 66 etxejabeek berme gisa beren etxeak hipotekatu zituztela (Elosegi⁵⁰, 2010, 34). Beraz, 66 familiatik 26ra alde handia dago, hiru bider handiagoa. Gainera, esan behar da herrian, noski, ez zirela guztiak etxajabe izanen. Beraz, berriro, mende honetako kopurua ere dezente handitu beharko litzateke. Gutxienik, 500dik gora. Egile horrek berak geroagoko lan batean dakarrenez, Berastegik 1615ean lortutako udal-autonomiaren prezioa 269 familia edo auzotar kontuan hartuta erabakitzen da, gaineratuz beste 22 auzotar (*vecino*) dudazkoak zirela (Elosegi, 2010, 32). Azken datu hau fidagarriago iruditzen zaio egileari orduko populazioa kalkulatzeko. Testuetan, batzuetan “fuego” eta beste batzuetan “vecino” erabiltzen dira biztanle-kopuruak adierazteko. Kontzeptu nahasgarriak. Kasu honetan, ziurrenik, familiaren kideko dira, familiarizat bakarrik etxejabeak hartuz, maizterrek-eta ez baitzuten udal-politikan sarbiderik.

XVIII. mendean 1733ko datuak dauzkagu, Iruñeko gotzain-barrutiak prestatutako txostenean datozenak (Tellechea Idigoras, 1971, 173-176), 1862. urtera arte Gipuzkoako alderdi hori elizbarruti hari zegokiona baitzen. Berastegik eta Elduak, biak batera hartuta, 1.012ko biztanleria ematen zuten. Tolosa bitarteko herri guztiek osatzen zuten populazioaren ia erdia zeukan Berastegik berak bakarrik. Beras-

tegiren ondoren, Ibarra zetorren 350 biztanlerekin (Carrion, 1975, 55-56).

Hurrengo mendean, Espainiako populazioaren zentsuak erregulartasunez argitaratzen hasten dira 1842. urteaz geroztik eta haran honetako herri bakoitzari buruzkoa aski zehazkiago jakin dezakegu. Berastegik 204 etxe-zenbaki zituen 1870ean eta, horretaz gain, zenbakirik gabeko sei borda, etxebizitza bilakatuak (Elosegi, 2005, 22). Demagun familia bakoitzean batezbeste 5,5 lagun bizi zirela, Gorosabelek XVI. mendeko Gipuzkoako biztanleria kalkulatzeko egiten zuen bezala, eta hala eginda, 1.122 biztanle izango zituen, INEk 1877. urterako ematen duenaren parekoa. Baina arazoa asko konplikutzen da, baldin abiapuntutzat familia bakoitzeko batezbeste 12,67ko kopurua ezartzen bada, Segurako sei auzoetako biztanleria kalkulatzeko egiten den bezala. Kasu honetan, gainera, kopuru hori izen eta guzti egiaztatua dator parroki dokumentuetan, batere ohikoa ez dena (Intxausti, 2007a, 225). Noski, Segurako baserrietako bizilagunak dira hor zenbatzen direnak, ez kale-etxeetakoak, puntu hau ere kontuan hartzekoa dena. Berastegiko 204 etxe-izen horietan ez dira baserrikoak eta kalekoak bereizten, eta ezin da 12,67ko kopuru hori kasu bietan aplikatu, nahiz eta bien datak hurbilekoak diren; horregatik, hortik ateratzen den 2.584ko biztanle-kopurua nabarmenki puztuegia da. Bali-teke azalpenaren gakoa bi bizi-esparru desberdinetako populazioaren baitako bereizketa horretan egotea, beti ere baserrietako familiak ugariagoak izan baitira kalekoak baino.

INERen eskutik, oinarritzat 149 urteko eboluzioa hartuta –1857tik 2006ra bitartekoa, alegia–, ageri da Ibarrek gorakada handia ezagutzen duela, Probintziaren hazkunde-

erritmoaren parean doana, eta hori, batez ere, 1930eko hamarkadatik aurrera, oinarrian kanpo-inmigrazioari esker gertatzen dena. Berrobi auzo-herriak ere gora egiten du. Beste herriek bere hartan segitzen dute, aldaketa handirik gabe, edo atzera egiten. Eta nabarmenki atzera egiten dutenen artean, Berastegi aurkitzen da, 1867an 1.638 biztanle izatetik⁵¹, XIX. mende-bukaeran, 1877an, 1.294ra jaisten baita. XX. mende osoan zehar, 1.132 biztanletik 1.062 bitarteko maila horretan mantendu ondoren, 1981ean 942ra jaisten da, berriro 2006an gorabidea hartzen duelarik 1.000ko marra gaindituz. Zalantzarik ez da, Tolosaldeko industrigunetik urrutien kokaturik dauden nekazal herriak direla hazkunde demografikoan lermatuenak. XX. mendeko hazkunde demografikoak garbiki adierazten du lehen sektoreak ordura arteko garrantzia galdu duela beste bi sektoreen aurrean (Carrion, 1975, 55-58) eta Berastegi, Tolosa inguruko herriek ez bezala, industri sektoretik kanpo geratzen dela neurri handi batean.

XIX. mende-bukaeratik, zehazki 1877. urtetik aurrera, Ibarrek hazkundera gora eta Berastegik behera egitearen azalpen-gakoa da Gipuzkoako lan-sektoreetan, 1877-1930 epealdian zehar, aldaketa handiak ematen direla, nekazari-gizartea izatetik industri eta zerbitzu-gizartea izatera pasatzen baita: 1877an lehen sektorea zen nagusi % 58,8rekin, baina 1930ean industriak aurrea hartzen dio % 41ekin, baita hirugarren sektoreak ere % 34arekin. Lehen sektorea, aldiz, atzean geratzen da % 25arekin. Aldaketa hori, bereziki, herri handietan ematen da eta 53 urte horietan zehar Tolosa, Eibar, Errenteria, Pasaia, Bergara, Azkoitia, eta beste batzuk, industrigune garrantzitsu bilakatzen dira. Baina oraindik 1930ean, Gipuzkoako herri gehienak nekazal

giroan bizi dira. Gehienak 1.000 biztanletatik beherako Udalerriak dira, guztira 38 Udalerri, baina horiek eskualdeko biztanleriaren % 5,84koa baino ez dute osatzen (Rodriguez Sanz, 2003, 112-113). Berastegik, goiko taulan ikus daitekeenez, doi-doia eusten dio milako marrari.

Orokorrean esanda, XX. mendeko lehen zazpi hamarkadetan zehar, Berastegiko biztanle-kopurua apalduz joaten bada ere, milatik gorakoari eusten dio. Maila horri eusteari 1980ko hamarkada-hasieran uzten dio, berriro 2006an lehengo marrara hurbiltzen hasteko. Berastegiko nekazaritzan industriak egiten duen erasanak baduke hor eraginik. Hauxe da, hain zuzen ere, jarraian azaldu nahi duguna.

2. Gipuzkoaren eboluzioa nekazaritzatik industriara

2.1. Berastegi historikoaz zerbait jardunak baikara, ikus dezagun jarraian zein den Berastegiko nekazaritzaren eboluzioa XX. mendetik aurrera, Gipuzkoaren testuingurutik begiratuta.

Teoria klasikoa da –teoria guztien antzera zentzu orokorrean eta gutxi-asko erlatiboan ulertu beharrekoa–, herri desberdinen bilakaera sozioekonomiko eta kulturala lau aro nagusitan sailkatzea: ehiztari-aroa, artzain-aroa, nekazari-aroa eta industri aroa.

Lehen aroan, K. a. 10.000 eta 30.000 urte bitartean, gizakia ehizatik eta arrantzatik elikatzen da, eta lurretik zuzenean jasotzen duenetik, kobazuloetan biziz eta, ehiztariak zirenez, ehizaren bila batetik bestera ibiliz. Euskal Herrian “jentilen” garaiak ziren haiek. Bigarrenean, 10.000. urtetik aurrera, animaliak heziz eta haziz bizi da, eta esnea mamitzen eta artilea hariltzen ikasten du. Berastegiko

lurretan, Leitzarango haranean zehazki, orduko aztarna megalitiko batzuk agertzen dira. Hirugarrenean, animalien laguntzaz eta gizakiak berak egindako tresneriaz lurra lantzen du eta leku jakin batean kokatzen da. Badirudi orduan agertzen dela lehen aldiz lurraren jabetza pribatua. Nekazaritzak lur baliagarria bilatzen baitzuen lantzeko, beren kabalak larreetan bazkarazten zituzten artzainekin kontraesan bizian sartuko dira nekazariak. Sektore biak, artzaintza eta nekazaritza, nor nagusituko lehiatuko dira denboraldi luzez, Leitzaranean bezala. Laugarrenean, energia elektrikoa asmatu eta manufakturak sortzearekin batera, industria indartzen da XVIII. mendean (Siadeco, 1974a, 31-34). Jatorri hidraulikoko energia elektrikoaren lekuko garbiak dira Leitzarango burdinolak, errotak eta zentralak eta hango materialak garraiatzeko xede nagusiarekin eraikitako Plazaola trenbidea. Egun, postindustrialismoari gain hartuta, beste aro berri baten aurrean aurkitzen gara esan dezakegu, orokorrean esanda, globalizazioarena deitzen zaion horretan.

2.2. Aldi berean, Gipuzkoako nekazaritzaren eboluzio historikoaren barruan, lau azpiaro bereizten dira. XII. mendetik aurrera irekitzen den aroan, nekazaritzak baino garrantzi handiagoa izan bide zuten abeltzaintzak –bereziki artzaintzak–, eta basogintzak. Biztanleriaren gorakadak eraginda hasten da nekazaritza indartzen eta larreak labaki bihurtzen. Nekazaritza finkatu, ordea, XVI. mendearen bigarren erdian finkatzen da, soroetan gehien landatzen direnak garia, arta-txikia, gaztaina eta sagarra izaki. Abelazkuntzak ez du indarrik ez bada mendiko herrietan. Berastegiko azienda Leitzarango sarrietan bazkatzen da, lehen ikusia daukagunez. Hirugarren aroa Amerikatik ekarritako

artoak irekitzen du XVII. mendean, lur-ekoizpenean sekulako iraultza ekarri zuelarik, ordura arte arta-txikia, garrarra eta oloa egiten ziren lurretan orain artoa egiten baita. Honela, XVIII. mende-bukaeran garia, artoa eta babarruna ditugu baserrietan gehien lantzen direnak, sagardoarekin batera. XIX. mendean patata da garrantzi handia hartzen duena. Belardi artifizialak ere ugartzen dira, bereziki alpapa eta hirusta. XIX. mendean eta XX.aren hasieran, Gipuzkoako baserritarra aldi berean nekazaria eta abeltzaina da, ukuiluan, batezbeste, lau-sei behi dituena (Etxezarreta, 1977, 69). Nekazaritza indartsu badago ere, abelazkuntza ere indartzen ari da. Laugarren aroa herrialde aurreratueta XVIII. mendean hasten da energia eta makineriaren asma-kizunarekin eta manufaktura-ondasunen lanketa masiboa ahalbidetzen duten produkzio-metodo berriekin.

2.3. Produkzio-modu berri hori indartsu sartuko da Gipuzkoako ekonomian XX. mendearen hasieratik bertatik, lehen hiru hamarkaden barruan. Arestian esan bezala, 1930ean bigarren eta hirugarren sektoreek aurrea hartzen diote lehenengoari, portzentajeetan laurdenarekin geratzen delarik. Hurrengo hamarkadan, gerrate ostean, ondoko taulan ikus daitekeenez, portzentaje horrek nabarmenki behera egingo du.

2. Gipuzkoako biztanleak lanbideen arabera (1940)

<i>Lanbide-motak</i>		<i>Kopuru absolutua</i>	<i>Ehunekotan</i>
Arrantza		2.688	0,81
Oihangintza/Nekazaritza		26.967	8,12
Industria	Meatzeak eta harrobiak	1.113	0,33
	Janari-industriak	2.497	0,75
	Industria kimikoak	5.413	1,63
	Arte grafikoak	1.057	0,31
	Ehun-industriak	2.955	0,89
	Jantzigintzak	4.314	1,30
	Larrugintza	1.294	0,33
	Egur-industriak	5.370	1,61
	Metalurgia	1.045	0,31
	Metalen langintza	12.797	3,85
	Metal finen langintza	224	0,06
	Hainbat industria	13.742	4,14
	51.821	15,62	
Eraikuntza		5.036	1,51
Zerbitzuak	Garraioak	6.408	1,93
	Merkataritza	10.582	3,18
	Neskametz/Morrontza	9.677	2,91
	Indar publikoa	6.131	1,84
	Administrazio publikoa	1.893	0,57
	Kleroa	4.937	1,48
	Lanbide liberalak	6.68	2,01
	46.315	13,96	

Guztira	Errentariak	3.441	1,03
	Eskola-umeak, ikasleak	56.647	17,07
	Ez-emankorrak	9.396	2,83
	Familiakoak	129.382	38,99
		245.181	73,90
		331.753	100

Iturria: INE, *Anuario Estadístico Provincial de Guipúzcoa, Año 1945, 1946, 88-89* orr. Norberak landua.

Datu-irakurketa errazteko gaurko erara antolatu dugun taula honetatik ondorio hauek ateratzen dira:

Lehenik, 1940ko Gipuzkoa industrigintzaren eta zerbitzuen aroan bete-betean sartua dela, hurrenez hurren, 51.821 eta 46.315 langilerekin, ehuneko 15.62 eta 13,96ko portzentajeekin, nekazaritza atzean utziz % 8,12rekin. Zerbitzuen sailean lehen zazpi sail horiek (garraioak, merkataritza, neskametz/morrontza, indar publikoa, administrazio publikoa, kleroa, lanbide liberalak) bakarrik zenbatu ditugu, beste sailak ez-aktiboak direlako. Eraikuntzak oraindik indar gutxi du, % 1,51 baino ez. Zerbitzuen sailean merkataritzak eta garraioak ere ez handia. Hauen aroa oraindik iristear dago. Hirietara neskame joaten zirenen eta auzoan edo inguruan morrontzan jarduten zutenen kopurua, aldiz, deigarria da, baserrietan orduko familia ugarietan ez baitzen lekurik oinordekoarentzat besterik.

Bigarrenik, industri sektoreak gora egiten duela. Izan ere, matrikulatutako industri enpresa desberdinak 4.106 ziren 1930ean eta 1942an, berriz, 5.123, milatik gora gehiago (INE, 1946, 207).

Hirugarrenik, nekazaritzak behera egiten du, 26.967 langilerekin, biztanleria osoaren % 8,12ko portzentajearekin; halere, gorabidean doazen baina oraindik, hurrenez hurren, ehuneko 3,18 eta 0,81eko portzentajeak baino ez dituzten merkataritza eta arrantzaren aurretik jarraitzen du. Hain zuzen ere, nekazal ekoizpenaren pobrezia dakar arrantzaren azkartzea. Industriari dagokionez, 1842an eraikitako paper-fabrikak berpiztuko du Tolosaldea.

2.4. Gerrate ostean erregimen frankista ezarri berritan industrigintza indartzen badoa ere, gosete beltza jasaten ari da herrialde osoa. Hiri eta kaleko jendea gehiago, halere, baserrikoa baino, hemengoa, ez merkatu-eskaintzatik, baizik, neurri handi batean, autokontsumotik bizi baita. Bestalde, industriaren hedatzearekin batera hiri-populazioa ere hazi egiten baita, janari gehiago behar da. Gipuzkoako nekazaritzak behar adina ekoizten ez duenez, premia berriak asetzeko beste herrialde batzuetatik inportatuko dira janariak (Etxezarreta, 1977, 70). Eskasiaren unean, gobernuak errazionamendu-liburuxkaren bidez kontrolatzen ditu oinarritzko elikagaiak eta, etxean jeneroa izanda ere, ezingo da kontsumitu, ezkutuan ez bada. Kale gorrian jateko ezer gutxi zegoenean, baserriak aparteko estimua izango du. Batere luxurik ez, ezta goserik ere.

Ondoren eskaintzen ditugun tauletan, Gipuzkoako ekoizpen nagusiak zein diren azalduko dugu eta labore-mota bakoitzak zenbat hektarea lur hartzen dituen.

3. Laborantzako ekoizpen nagusiak Gipuzkoan (1941)

<i>Labore- motak</i>	<i>Ereindako azalera hektareatan</i>	<i>Ekoizpena kintaletan</i>	<i>Ekoizpena kintaletan hektareako</i>
Artoa	7.511	180.754	24,06
Garia	4.558	77.766	17,06
Babak	3.331	2.498	0,75
Babarrunak	6.653	37.613	6,65
Patatak	786	77.814	99,00
.....			

Iturria: INE, *Anuario Estadístico Provincial de Guipúzcoa, Año 1945, 1946,* 88-89 orr. Norberak landua

Hektareatan azalerarik gehien hartzen dutenak artoa eta babarrunak dira, baina ekoizpena kintaletan neurtuta gehien ematen dutenak patatak eta artoa ditugu. Noski, labore horietako bakoitzaren balioa ez da maila berean neurtzekoa, garia baita autokontsumorako elikagairik oinarritzkoena.

Hurrengo taulan zer labore-mota landatzen diren ikusten da, hektareatan neurtuta, eta nolako aldaketa ematen den 1941etik 1956ra.

4. Gipuzkoako labore-mota bakoitzari dagokion azalera hektareatan (1941 eta 1956)

<i>Labore-motak</i>	<i>1941</i>		<i>1956</i>	
	<i>Kopuru absolutua</i>	<i>Ehunekotan</i>	<i>Kopuru absolutua</i>	<i>Ehunekotan</i>
Zerealak ⁵²	12.069	26,41	7.895	24,89
Lekadunak	9.984	21,84	3.785	11,93
Erraboilak	6.771	14,81	110	0,34
Mahastiak	55	0,12	30	0,09
Landar industrialak	3.534	7,73	100	0,31
Barazkiak	1.465	3,20	710	2,23
Fruta-arbolak	6.268	13,71	7.918	24,96
Belardi artifizialak eta bazka-landareak	5.552	12,14	11.875	37,44
Belardiak eta larreak	-	-	-	-
Hektareak guztira	45.698	100	31.713	100

Iturriak: INE, *Anuario estadístico provincial de Guipúzcoa 1945*; 1946, 181 or.; INE, *Reseña estadística de la Provincia de Guipúzcoa*, 1959, 172 or. Norberak landua.

Esan behar da ez dela sartzen taula horretan “Belazeak eta larreak” saila, 1956an 117.860 hektarea hartzen zituena. Orokorrean, Gipuzkoako epealdi horri dagokionez, gerrate ondoko hamabost urte horien buruan, fruta-arboletan eta bazka-landareetan izan ezik, beste mota guztietan behera egiten du, nabarmenki lekadunetan, erraboiletan eta landare industrialetan. Lihoa eta patata gutxiago landatzen da.

Nolanahi ere, dirurik gehien eman zutenak, 1956an, zerealak izan ziren 70.622 pezetarekin, gero patatak 35.285arekin, frutak 26.796rekin, barazkiak 25.677rekin eta lekadunak 25.784rekin (INE, 1959, 172).

Baserri-jabetzari dagokionez, berriz, ohargarria da nagusiak eta maizterrak, 1941eko datuen arabera, parean doazela, hurrenez hurren, ehuneko 50,15 eta 49,84ko portzentajearekin, baserritar guztien kopurua 12.534koa zelarik. Maizterraren baserri-jabea, ez herri bertakoa, baizik kanpokoa edo kanpoan bizi den jauntxoa da % 16,96ko portzentajearekin. Noizik behin bere lursailak ikustera eta errentak kobratzera joaten den horietakoa da.

5. Nekazari-jabeak Gipuzkoan (1941)

	<i>Kopuru absolutua</i>	<i>Ehunekotan</i>
Baserritar jabeak	6.287	50,15
Baserritar maizterrak	6.247	49,84
Guztira	12.534	100

Iturria: INE, *Anuario estadístico provincial de Guipúzcoa* 1945, 1946, 186 or. Norberak landua

Taula horretan herriz herriko daturik ez da, baina ez zaigu iruditzen Berastegikoa batezbesteko horretatik asko aldenduko zenik. Iñaki Linazasorok (1974, 122-125) 1974ko datuak dakartza eta hor errentan bizi zirenen 15eko kopurua ematen du, etxe eta baserri hauek izendatuz: Lukasenea, Erretore, Urrelo, Bentaberri, Etxorde, Goikoborda, Obinetazarra, Torreluzea, Arrate, Gazpio, Txurionea,

Sagastiberria, Etxezarra (Elduan), Ilentxiborda eta Uitzin (Plazaolan). Badirudi garai honetarako asko murrizten dela maizterren mundua.

3. Berastegi, nekazal herri

3.1. Zeri deitzen zaion nekazal populazioa, zeini hiri-populazioa, zeini tartekoa, hau guztia aldez aurretik mugatu beharra dago, puntu honetan ere ez baita ematen erabateko adostasunik. Siadeco-k (1974a, 13), Goierriko herrien sailkapena egiterakoan, Erdiko zonaldean sartzen ditu Zaldibia, Legorreta, Ormaiztegi, Zegama eta Idiazabal herriak, guztiok 2.000 biztanlera iristen ez direnak. Berrikitan F. J. Gómez Piñeiro irakasleak (1981) egindako lan batean, mugaketa zehatza egiten du, Udalak biztanleriaren arabera talde batean edo bestean sailkatuz: nekazal herriak 2.000 biztanle bitartekoak; Erdikoak 2.000tik 10.000 bitartekoak; hiritarrak, 10.000tik gorakoak. Irizpide honen argitan, Hego Euskal Herrian % 8 baino ez da nekazal gizartean bizi dena. Berastegi nekazal herri garbi horietako bat da, mendian kokatua dagoena. Gipuzkoan, XX. mendehasieran nekazal populazioa % 25ekoa zena, 1970 eta 1975 urteen artean % 4,36ra jaitsiko da. Berastegin, orobat, 1900ean 1.173 biztanletik 2006an 1.003 izatera. Zentralitateari dagokionez, 12 puntu galtzen ditu, VI. mailatik VII.ra atzera eginez. Mende horretan zehar, nekazal populazioan ez ezik, Erdiko populazioaren beherakada ere etengabekoa izango da.

3.2. Berastegik, halere, nekazal gizarte bati dagokion agro-morfologia izaten segitzen zuen ia bere osotasunean

1941ean ere, urte horretan, 2 langileko bi enpresa baino ez baitzituen Janarien sailean. Egun ere bai, geroztik ez baita bertan industrigunerik sortu izan. Orduan hiru janari-denda zeuden: Ozpindegi, Dendaberri eta Apaiztegi. Ozpindegikoek txokolatea ere egiten zuten. Geroago, 1957an, bi errota aipatzen dira, okindegi bat, bi zerratoki, paper-fabrika bat –seguru asko, Elduako Calparsorena–, eta Electra Plazaola. Lizentzia fiskaleko adarren arabera sailkatutako saltokien zentsuan, 1969ko urtarrilaren 1ean, hauek ziren Berastegin zeudenak: 4 janari-denda, kimika 1, erai-kuntza 1, hainbat iharduera 1. Guztira 7 (INE, 1973, 155).

Hemendik ateratzen dugun ondorioa da, Berastegin, 1940eko hamarkadan, berdin gaur egun ere, Tolosaldeko beste hainbat nekazal herritan gertatu zenaren alderantziz, ez dela industrigunerik sortu izan, arestian aipatutakoak izan ezik, eta inguruko elite ilustratu batek sustatutako arrazoi paisajistikoengatik –egun ekologiko deituengatik–, herri babestua izan dela. Enpresa bat baino gehiago izan ziren bertan kokatu nahi izan zutenak. Lurrak ere erosi zituen eliz ondoan XEI altzari enpresak, egun Oikian finkatua dagoenak. Erosi bai, baina ez zuen pabiloia erakitzeke baimenik lortu. Horregatik, baserritarrak “fabrikante” bilakatu ziren garai hartatik aurrera, Berastegiko gehienek herritik kanpora atera behar izan zuten lan bila, gehienak inguruko fabriketan enplegatu zirelarik, bereziki Leitza eta Tolosa arteko paper-fabriketan. Banco Bilbao-k, Gipuzkoako langileria osoari zegokionez, 1967an baserrikoa % 7,8koa zela kalkulatu zuen (Siadeco, 1974b, 44). Oraindik ere ez baita hainbestekoa industriaren eragina Berastegin, “nekazari langile” deituen portzentajea apalagoa izango zelakoan gaude.

Gerrate osteko lehen hamarkadetako Berastegi, bada, oraindik nekazari-herria da funtsean. Bertako baserriarrek beren familia baserria ustiatuz ateratzen dute aurrera, autoekonomi erregimenean jardunez.

3.4. Gipuzkoako nekazaritzan kalitatezko jauzia eman, industrigintza erabat finkatu eta nagusitzen denean ematen da, batez ere, XX. mendearen bigarren erditik aurrera. Industrigintza sendoarekin batera, beste faktore batzuk ere badira sektore horretan erasaten dutenak, besteak beste, merkataritzaren zabalkundea eta teknologiaren aurrerapena. Han eta hemen, Gipuzkoako geografia osoan banatuta, fabrikak, dendak, garraio-enpresak, eraikuntzakoak, banke-
txeak, aurrezki-kutxak, etab. ugaltzen hasten dira eta herrietako populazio aktiboa lanbide berri horietan enplegatzen da gero eta gehiago.

Era berean, 1960ko hamarkadatik aurrera, baserrietan ere lurra lantzeko mototresna desberdinak, traktoreak eta automobilak erabiltzen hasten dira lehengo eskulanen lekuan, ongari artifizialez baliatzen lehengo simaurrez gain, eta berrikuntza honek, ondorioz, lehengo eskulana gutxitzea eta abelazkuntzaren errentagarritasuna handitzea ekarriko du. Inbertsioan gastuak handitzearekin batera, noski. Bestalde, industriaren garapenak nekazaritzatik jasotzen ditu, batetik, bere hedapenerako behar dituen lursailak eta, bestetik, berak irensten ditu berari falta zaion eta baserrietan sobera den eskulan gehigarri ez-kualifikatua. Fenomeno hau, bereziki, hiri-gunetik urrun kokatuak dauden baserrietan gertatzen bada ere, industrigintzaren indartzeak baserri gehienak ukitzen ditu eta nekazal ustiapenean jokamoldez aldatzera behartzen.

Aldaketa honen ondorioak nabarmen agertzen dira, hamar urteren buruan, 1962-72 epealdian zehazki, Gipuzkoan % 34 baserri gutxitzen baitira. Bestalde, industriguneak herri desberdinetan barreiatuta aurkitzen diren lekuetan, batez ere, baserritar “fabrikantearen” langile-tipologia sortzen da, lana fabrika egiten duen eta denbora librean, fabrika diharduten beste etxeokokin batera, baserriari eusten dion baserritar nagusiarena, alegia. Baserri-buruak bi lan-mota bateratzen ditu, etxekoa eta kanpoko, azken hau nagusia izanik. Gipuzkoan 1972an % 36 dira bietara jokaten dutenak (Etxezarreta, 1977, 71-90). Lehenagoko morroi eta neskameen eskea orain industriak eta zerbitzuek irensten dute neurri handi batean. Baserrian senar-emazteak bakarrik geratzen dira, gehienak jadanik adinean sartuak, eta gazteek, baserriko isolamendutik irten-eta, hirirako bidea hartzen dute, arrazoi nagusien artean, batzuek ustiategi txikiak dituztelako eta beste batzuek lan-bide horretan ohore sozialik gabeko eta irabazi eskaseko etorkizuna ikusten dutelako (Siadeco, 1974a, 64-65). Zalantzazko egoerak, azken batean, baserritar asko kale-bidean jartzen ditu.

Gipuzkoako gizartearen hiritartze-prozesu honen aurrean, nekazal gizarteak, bizirik segituko badu, egoera berrira moldatu beste erremediorik ez du izango eta baserritarren produkzioa autokontsumotik salmentara pasatuko da, industriguneko hiritarren beharren arabera, merkatuan nolabaiteko produktu espezializatua eskainiz, bereziki, esnea, haragia, barazkia, eta besterik. Dedikazio osoko baserri tradizionalari atxikitako ekonomi sistemaren erabateko krisi-egoera hori gainditzeko, Gipuzkoan zehazki, berrikuntzarako plangintzak bideratzen dira, baserri errentagarriaren bila, Zabalegiko Nekazal Eskolako talde-

lan batek (Lekuona; Zubia, eta beste, 1969) egindako *Baserriko irabazbideak. El caserío rentable* argitalpen elebidunak ederki asko adierazten duen bezala⁵³. Alde horretatik jo zuten 1950eko hamarkada-bukaeran Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren Gizarte-Ekintzako Zabalegi elkarte aipatuak⁵⁴ eta baserritarrek 1971n sortutako Lurgintza Nekazal Kooperatibak, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak lagunduta. Garai hartan, errentagarritasuna ikusi, esan bezala, haragi eta esnearen ekoizpenean ikusten zen eta baserriaren espezializazioa gehienbat bi horietara zuzenduta zegoen. Begiratu besterik ez dago Lurgintza-k argitaratzen duen lan honen izenburua: *Esne eta haragi sortzearen azterketa Gipuzkoako baserrietan, 1972-1978*.

Berastegi herriak ere errotiko gizarte-aldaketa haren eragina jasan zuen, baina ez, agian, Tolosaldeko industri-gunearen inguruan kokatuak zeuden beste herri txikiak bezainbeste. Ibarra, Berrobi, Anoeta, Alegia eta inguruko beste herri batzuk lehenago hiritartu ziren. Berastegik, zenbait urte geroago ere, nekazal gizarteko bizimoldeari atxikirik jarraitu zuen, molde batez bederen. Fabrikarako abiada, batez ere, paper-fabrika Arrosin ezarri zenean ematen da, 1950eko hamarkadatik aurrera. Orduan hasten dira baserriko bigarrenak Leitza eta Tolosaldeko fabriketara joaten, fabrikako lanak eta baserrikoak tartekatuz.

4. Berastegiko baserri-egoera zifratan (1955-1962)

Azpiatal honetan hiru puntu aztertuko ditugu. Hasteko, abelazkuntzaren egoera zein den; bigarrenik, baserriaren lursailak, laborantzakoak zein basokoak, hektareatan nola banatuta dauden eta, azkenik, baserri-jabeen eta

maizterren arteko proportzioa nolakoa den. Berastegiko baserrien azterketa hau, beti ere Gipuzkoaren ispiluan begiratuta egiten da.

4.1. Oraindik garai honetan, Gipuzkoako nekazal herrietan bezala Berastegin ere, azienda-kopuruari buruzko taulak erakusten duenez, osasun aski onean daude abelazkuntza eta, horri erantzuteko, baserri batean beharrezkoak diren nekazaritza eta basogintza. Ukuiluetan eta etxe-inguruan aziendak eta hegaztiak haziz segitzen da, soroetan laboreak landatzen dira urtaroen harira, belazeetan belarra ontzen da, larreetan ardien zintzarri-hotsa entzuten da, basoetan apenas duen sarrerarik pinuak.

6. Azienda-kopurua (1955)

<i>Azienda-motak</i>	<i>Gipuzkoa</i>		<i>Berastegi</i>	
	Kopurua absolutua	Ehunekotan	Kopuru absolutua	Ehunekotan
Behiak	56.649	15,61	659	10,18
Ardiak	44.575	12,28	2.341	36,19
Ahuntzak	1.488	0,41	10	0,15
Zerriak	5.702	1,57	20	0,3
Zaldia	2.980	0,82	70	1,0
Mandoak	275	0,07	3	0,04
Astoak	6.939	1,91	88	1,36
Hegaztiak	229.021	63,10	3.249	50,23
Untxiak	15.270	4,20	28	0,43
Guztira	362.899	100	6.468	100

Iturria: INE, *Reseña estadística de la Provincia de Guipúzcoa*, 1959, 218-220 orr. Norberak landua.

Orokorrean, Berastegikoazienda-kopurua, ardietan eta zaldietan izan ezik, beste guztietan –ez askoz baina–, Gipuzkoako batezbestekoaren azpitik dago. Behietan 5,43 puntu gutxiago; ardietan, aldiz, 23,91 gehiago. Alde handia. Ez dakiguna da behientzat ematen den 659ko kopuru hori zenbat baserriren artean banatu beharko litzatekeen, ukuilu gehienetan normala baitzen bospasei buru edukitzea, zekorrak kontatu gabe. Ardien kopuru garai hori ez da harritzekoa, Berastegi beti izan baita, dituen larre oparoengatik, artzain-leku aparta. Mendietan zehar barreiatuta dauden hainbat bordak hala adierazten dute. Kalkulatzen denez, 300 bordatik gora aurkitzen dira, batzuk –bereziki, Leitzarango harenean–, erdi-jautsirik edo sasiak hartuta daudenak.

Kontuan izanda artean 1955ean Leitzarango basoak saltzeke zeudela eta han artzaintza indartsu zegoela, 2.341eko kopuru hori txikia iruditzen zaio Joaninazio Elosegiri⁵⁵. Eta froga gisa, urte hori baino 80 urte lehenagoko bi datu eskaintzen ditu: 1867ko urtarrilaren 11n egindako ganaduzenbaketan, 4.442 ardi-kopurua ematen zen; 1871ko azaroaren 13koan, berriz, 4.636koa, Elduakoak kontatu gabe. Igeralde hango larreetan milatik gorako artaldea bazkatzen zuela askotan entzun izan dugu. Eta hura ez zen hango artzain bakarra. Horiek horrela, harrigarri samarra gertatzen da ardi-kopurua hainbeste jaiste hain denbora gutxian. Zuhurtziaz hartu beharrekoa, nolana ere.

42. Orografia menditsua duen Gipuzkoa bezalako herrialde batean apenas izango den mendirik eta basorik gabeko herririk. Berastegi bederen ez da horrelakoa, mendiz urrutiko herriekin egiten baitu muga. Kontua da bereiztea herri batek zenbat hektarea dituen mendi handi eta

zuhaiztietan, zenbat mendi txikietan, eta zenbat sastraka, larre eta besteetan. Hauxe da hurrengo taulak erakusten diguna.

7. Baso-azalera hektareatan (1957)

<i>Azienda-motak</i>	<i>Gipuzkoa</i>		<i>Berastegi</i>	
	Kopurua absolutua	Ehunekotan	Kopuru absolutua	Ehunekotan
Mendi handiak eta zuhaiztiak	51.008	35,55	617	15,10
Mendi txikiak	27.427	19,11	694	16,98
Sastrakak, larreak eta beste	65.030	45,34	2.775	67,91
Guztira	143.465	100	4.086	100

Iturria: INE, *Reseña estadística de la Provincia de Guipúzcoa*, 1959, 206-207 orr. Norberak landua.

Gipuzkoaren batezbestekoarekin alderatuta, haren oso azpitik aurkitzen da Berastegi mendi handi eta zuhaiztietan –basoetan–, portzentajeetan 20,45 puntuko aldearekin; mendi txikietan, antzeko; sastraka eta larreetan, ordea, haren ondoan hedatsua da eta azalera-mota horretan 22,57 puntuko aldea ateratzen dio. Azken honetan larreak ere sartzen baitira, seguru asko, horrek baduke zerikusirik lehen aipatu dugun ardi-kopuru handiarekin.

Dena den, Gipuzkoan ez dira herri asko, baso-azalerari dagokionez, Berastegiren gainetik daudenak, 4.000 hektareatik gora dituztenak, alegia. Hauek baino ez: Oñati 8.955ekin, Bergara 5.541ekin, Azpeitia 4.770ekin, Donostia 4.324ekin, eta Oiartzun Berastegirekin parean, 4.041ekin. Herri hauetan ere, Donostia eta Oiartzunen salbu, Berastegiren antzera, larre eta sastrakek hartzen dute azalerarik gehien.

Basoak eta mendiak izan, ez dira labore-lurrak edo, bederen, ez dira halakotzat hartuak izan. Berrikitan, ordea, mendi garaietan ere, lehen garo-leku edo baso izandakoak labaki bikain bilakatu dira. Berastegin bertan, hektarea asko dira berrikitan belar-bazkarako irabaziak: Irumugarrietako kaskoan, Goiun, Ongañetan eta beste leku batzuetan.

4.3. Nolako lursailak izan, handiak ala txikiak, badu honek ere garrantzirik baserri baten errentagarritasunean eta, ondorioz, haren etorkizunean. Lurra lantzeko eskas dutenak izango dira industriak irensten lehenak.

Taula honek lursailen azalera zazpi sailetan zatitzen du, ustiategi-jabeen lursailak hektareatan sailkatuz. Ustiategien kopurua horrela sailkatzeko modu honek badu bere zailtasuna datuak interpretatzeko orduan, ez baitakigu ustiategi jakin bat zein neurritatik aurrera har daitekeen baserrizat. Bestalde, badira ustiategiak, hala nola, landare-berotegiak, artegiak, behitegiak, hegazti-granjak, baratzeak, lorategiak edo bestelakoak, ohiko baserri fisikoekin berdintzen ez direnak. Horregatik, taula honetako ustiategiak eta lehengo baserriak ezin dira besterik gabe berdindu. Egon litezke, ezinik ez da, lursail txikiko ustiategiak ekoizpen handiarekin edota, alderantziz, hektarea askoko ustiategiak

ekoizpen gutxirekin, azkenaldion baserri askotan gertatzen den bezala.

8. Nekazal ustiategiak beren lursailen azaleraren arabera (1962)

<i>Lursailen azalera hektareatan</i>	<i>Gipuzkoa</i>		<i>Berastegi</i>	
	Nekazal ustiategien kopurua	Ehunekotan	Nekazal ustiategien kopurua	Ehunekotan
Lursailik gabekoak	158	0,83	6	3,10
0,1 baino gutxiagoak	3.346	17,73	1	0,5
0, 1-1 bitartekoak	3.399	18,01	53	27,46
1-5 bitartekoak	3.632	19,24	21	10,88
5-20 bitartekoak	6.856	36,33	70	36,26
20-100 bitartekoak	1.400	7,41	39	20,20
100dik gorakoak	80	0,42	3	1,55
Guztira	18.871	100	193	100

Iturria: INE, “Primer censo agrario de España, 1962”, in *Reseña estadística provincial. Guipuzcoa*, 1973, 145-146 orr.

Kontua da inork ez dakiela Gipuzkoan zenbat baserri zeuden 1962an, ez zenbat hustu ziren, ez zenbatek jarraitzen zuen esplotazioan, zenbatek erdizka, zenbatek osorik. Bestalde, garai honetan, batetik, baserritik bakarrik bizi diren baserritarrak, hots, egun osoan lagun bat bederen

baserri-lanetan bakarrik enplegatzen dutenak aurkitzen dira eta, bestetik, lan-mota konbinatutik bizi direnak, hots, aldi berean fabrikatik eta baserritik, hura lantegi nagusitzat hartuta. Bi baserri-mota hauek izendatzeko, hurrenez hurren, baserri autonomoak eta laguntzaileak edo kale-baserriak deitu izan zaie (Lekuona, 1971, 11; Siadeco, 1974a, 44).

Nolanahi ere, ohiko baserriaren egitura ekonomikoa errotik aldatzen ari den aldi horretan, haren kontzeptua modu uniboko batez mugatzea eta, ondorioz, garai hartako baserrien kopurua zenbatzea benetan zail gertatzen da. Zabalegiko Nekazari Eskolak, Andoni Lekuonaren zuzendaritzapean, inkesta bat egin zuen 1971n galdeketak Gipuzkoako 800 baserritan eginez. Inkesta honetatik at geratu ziren, hain zuzen, zortzi Udal, horien artean Berastegikoa. Emaitzak 1973an argitaratu ziren multikopiatutako testu batean eta hor kalkulatzan zen, iturri desberdinetan emandako zifrak kontuan izanda, 1970ean ziurrenik 6.209 baserri autonomo inguru aurkitzen zirela (Lekuona, 1973, 21). Miren Etxezarretak (1977, 85), bere aldetik, ordura arteko iturri desberdinak kontuan izanda, kalkulatu zuen Gipuzkoan 1973an 8.000 inguru zeudela. Guk eskaintzen dugun INEren 1962ko goiko taula horretan, baserritzat 5 hektareatik gorakoak hartuta, 8.336ko kopurua ateratzen zaigu eta, lehen aurreratutako estimazioen arabera, hamar urteren buruan (1962-1971) Gipuzkoan 300 baserrik utziko zioten nekazal ustiapenari. Estimazio hauetan alde nabarmena dago ertz batetik bestera eta ezin da zehaztasunez esan zenbatekoa den 1970eko hamarkada-hasierako Gipuzkoako baserri autonomoen kopurua.

Berastegira etorrira, 1962an, baserritzat 5 hektareatik gorakoak hartuta, 112 zeuden, eta hortik beherakoak 60, lursailik gabekoak –plazagunean kokatutako kale gorrikoak–, barne hartuta.

Baserri-jabetzaren ondoan, Euskal Herriko baserri gehienen arazoa, hain zuzen, minifundioarena da. Izan ere, taulari erreparatu besterik ez dago, Gipuzkoan gehienak 5 hektareatik beherekoak direla ikusteko % 55,83ko portzentajearekin; Berastegin alderantziz gertatzen da, % 59,56 baitira hektarea-kopuru hori gainditzen dutenak.

Beren jabetzako lursailik ez dutenak 6 dira Berastegin, Gipuzkoako 158rekin alderatuta 2,27 puntu garaiagoa. Ez baita zehazten, ez dakigu sail horrek zein errealitate-mota adierazten duen. Pentsa zitekeen adieraz zezakeela errentarien multzoa, baina horiei buruzkoa beste taula berezi batean datorrenez, hobe bere horretan uztea. Antzeko zerbait gertatzen zaigu hektarea 1etik beherako kopurua duten sailekin, ez baitakigu zein izan daitezkeen horien jabeak. Handia da Gipuzkoan horien kopurua, % 35,74koa; txikiagoa Berastegin, % 27,96koa. Azienda-ustiategirik ez duten eta hirigunean edo, Berastegin bezala, plazagunean bizi direnen baratze-lurrak ote dira?

Besterik da, azkenik, lursail horietatik zenbat hektarea diren labore-lurretan sar daitezkeenak, taula horretan zehazten ez dena. Gipuzkoako batezbesteko azalera erabilgarria, Zabalegik egindako ikerketaren arabera, ustiategi bakoitzeko 8,17 eta 6,72 hektarea bitartekoa zen 1973an, hor basoak sartuz, baina ez larreak (Siadeco, 1974a, 74).

4.4. Ez bakarrik lursailen azalera-hedadura, lantzeko lursailak, berdin soroak eta belardiak, azalera txikitzen edo

handitan banatuta egoteak ere asko esan nahi du nekazal ustiapenerako. Makineria sartzen denean are garrantzi handiagoa hartuko du. Bistan da, edozein kasutan, lursail hedatsua –hobe ordeka bada–, izateak lana asko errazten duela.

9. Berastegiko lursailen banaketa (1962)

<i>Lursailen azalera</i>		
<i>Hektareak</i>	Lursailen kopuru absolutua	Ehunekotan
Hektarea 1 baino gutxiagokoak	1.557	81,17
Hektarea 1etik 5 bitartekoak	288	15,01
5 hektareatik goragokoak	73	3,80
Guztira	1.918	100

Iturria: INE, “Primer censo agrario de España”, 1962, in *Reseña Estadística Provincial. Guipúzcoa*, 1973, 146 or.

Taula horrek erakusten diguna da Berastegiko lursail gehienak, % 81,17, ez direla hektarea batera iristen. Horko datuak 1962koak dira, baina ez dugu uste ordutik hona egoera asko aldatu izango denik.

Berastegiko zelaia soro txikiz betea aurkitzen da, muino berdez zatitua. Orokorrean, horrelako edo antzeko banaketa-mota nagusitzen da nekazal herri gehienetan, nahiz eta herri batetik bestera diferentziak dauden proportzioetan. Ataunek, adibidez, % 76,34 baino ez ditu horrelako txikiak, Oiartzunek oraindik gutxiago, % 63,79.

Aian askoz ere handiagoak dira lursailen neurriak: % 44,65 baino ez hektarea 1 baino gutxiagokoak, 1-5 bitartekoak % 31,10 eta 5etik gorakoak %24,23.

Lursailak hain neurri txikitan banatuta egoteak lanerako zailtasuna areagotzen duen bezala, lursailak baserritik urrun kokatuta egoteak eta lur-eremu malkartsuetan jardun behar izateak, orobat, baserritarren nekea biderkatu baino ez du egiten. Zentzu honetan, Gipuzkoako orografia ez da Gaztelakoa edo Landetakoa bezalakoa, bista luze-zabalean ordekararen ertzean galtzen den horietakoa; alderantziz eta oroz gain, menditsua eta pendizez josia da. Laborantzako lursailek ordekatik adina dute malkarretik. Ez dira nekazal herri asko izango, Segura, Bidania edo Oiartzunen antzera, zelai oparo eta zabalak dauzkatenak. Bihurguneak gaindituz, errepidean gora egin eta Berastegi bistaratzean, hango zelaia da jendeak gehien miresten duena. Lur gizona. Erosoa lanerako.

5. Berastegi, industri eta zerbitzu-herri (1989)

Jadanik 1970eko hamarkadatik aurrera erritmo bizi eta etengabea zabalduz doan hiritartze-prozesua, posfrankismoan gertatzen diren aldaketa politiko eta sozioekonimokoekin batera, asko sendotu eta azkartzen da eta nekazal guneak gero eta gehiago beretzen joaten da. Errotiko eta era desberdinetako gizarte-aldaketa baten aurrean gaude.

Berastegi ez da jadanik gerrate aurrean eta ostean zen nekazal herri peto-peto hura, bere osotasunean lurretik bizi zen hura, urtaro bakoitzak ematen zuenari begira zegoen hura, nekazari saiatuek lurtxo baten azken muturra ere aprobeztatzen zuteneko garai hartakoa. Denbora gutxiren

buruan sinestezineko aldaketa gertatzen da, bertako landunak herritik kanpora joaten baitira. Horren lekuko garbiak dira garai bateko soroak belardi bilakatu izana.

5.1. Lurren edukitza-erregimena

Orografiak eskaini ditzakeen alderdi faboragarri horiek kontuan izanda, baina horien gainetik, galde dezagun baserritarrek zein baldintzatan lantzen duten lurra. Galdera horri erantzuteko jakin behar da, batetik, baserritarra jabea ala maizterra den eta, bestetik, zenbat hektarea lur dituen lantzeko. Hurrengo taulako datuek erakutsiko digute zein den Berastegiko baserritarren egoera soziala, beti ere Gipuzkoaren ispiluan begiratuta. Baserri-jabe izan ala maizter, horretan ere bada aldea.

Dena den, hemen ere, maizterraren kontzeptua bera nahasi samarra gertatzen da, baserriaren jabeari zegozkion lursail ez gain, bereak ere izan baitzitezkeen, berak erosiak, alegia.

Edukitza-erregimenaren izenburupean hiru baserritar-mota bereiz litezke: lehenik etxejabea daukagu, bere ustiategian erabiltzen dituen lursail guztiak jabetzan dauzkana; bigarrenik, maizterra, lursail guztiak errentan hartuta erabiltzen dituen; hirugarrenik, baserritar mistoa, lursail batzuk bereak eta beste batzuk errentan dituen. Edukitzaren faktore honek ere badu bere garrantzia baserriaren egoera ezagutzeko ustiapen-kudeaketaren zein etxebizitzaren aldetik begiratuta. Izan ere, baserri-jabe izateak bere abantailak ditu, beti ere epe luzera bertan hobekuntzak egin ahal izateko modua eskaintzen baitu. Errentariak ez bide du desabantaila handi-handirik, nola eta baserria ez dagoen

hiri-gunetik hurbil kokatua, bestelakoetan –isolatueta–, ez baita baserri-eskaerarik ematen, espekulaziorako biderik sortzen.

Gipuzkoa eta Berastegiko datuak batera emango ditugu ondoko taulan, nahiz data desberdinetakoak diren.

10. Azalera hektareatan, edukitza-erregimenaren arabera
(1989; 1962)

<i>Edukitza-erregimena</i>	<i>Gipuzkoan (1989)</i>	<i>Ehunekotan</i>	<i>Berastegi (1962)</i>	<i>Ehunekotan</i>
Jabetzan	148.681	92,4	3.917	93,3
Errentan	10.669	6,63	281	6,69
Partzuergoan	579	0,35	-	
Bestelako erregimenetan	968	0,6	-	-
Guztira	160.897	100	4.198	100

Iturriak: EUSTAT, Gipuzkoari buruzkoak: *Euskal Urtekari Estatistikoa*, 1997-1998, 1998, 321 or.; INE, Berastegiri buruzkoak: “Primer censo agrario de España”, 1962, in *Reseña Estadística Provincial. Guipúzcoa*, 1973, 146 or. Norberak landua.

Taula horretan ageri da, nola EAEn hala Berastegin, gehien-gehienak etxejabeak zirela data horietan, hurrenez hurren, ehuneko 92,40 eta 93,30eko portzentaje bertsuekin. Izugarritzko aldaketa gertatzen da Gipuzkoan 48 urteren buruan, 1941ean etxejabeak eta maizterrak pare-parean baitzeuden eta oraindik 1962an, Berastegiren azaleraren antzekoa zuten hainbat herri baitziren maizterren

kopuru garaia zutenak, hala nola Aia eta Oiartzun ehuneko 28,89 eta 13,20rekin, eta Azpeitia eta Bergara ehuneko 21,60 eta 11,74rekin. Berastegiren 6,69koaren azpitik zeuden, aldiz, Ataun ehuneko 4,66 eta Oñati 4,09rekin. Donostiaren kasuan oraindik handiagoa da errentan utzitako lursaila, % 25,54rekin. Zegama, aldiz, oso behetik zegoen % 1,96rekin.

Gipuzkoan orokorrean asko jaisten baita maizterren kopurua, honek esan nahi du maizterrak nagusien baserriak erosiz etorri zirela. Berastegin, Markesaneko hiru baserriak –zehazki, Tolaretxeko etxebizitza biak eta Amiri–, 1950eko hamarkadan jarri ziren salgai beren lursailekin. Geroztik ere egin ziren errentan zeuden baserrien salerosketa gehiago.

5.2. Nekazal ustiategien azalera

Badugu, halere, azientadunak eta gabeak oinarritzat hartuta, 1989an Berastegiko baserritarren egoera nolakoa zen jakiteko aukera, ondoko taulan eskaintzen duguna.

11. Ustiategiak eta azalera osoa hektareatan (1989)

	<i>Jabetza</i>	<i>Gipuzkoa</i>		<i>Berastegi</i>	
		<i>Kopuru absolutua</i>	<i>Azalera</i>	<i>Kopuru absolutua</i>	<i>Azalera</i>
Ustiategi landuak	Azienda dunak	7.961	90.965	101	1.261
	Azienda gabeak	4.195	69.932	20	3.301
	Guztira	12.156	160.897	121	4.562
Ustiategi lurgabeak		162		4	
		12.318	160.897	125	4.562

Iturria: EUSTAT, *Euskal Urtekari Estatistikoa*, 1997-1998, 1998, 326-330 orr. Norberak landua.

Berastegik 125 ustiategi zeuzkan data horretan eta Gipuzkoak, berriz, 12.318, hurrenez hurren, ehuneko 2,74 eta 7,65eko portzentajeekin. Honek esan nahi du, kopuruak batezbeste hartuta, Gipuzkoako lurak, orokorrean, gehiago ustiatuak zeudela 4,91 puntutako aldearekin. Zerk eragiten duen alde hori? Aziendadunen eta gabeen sailetan aurkitzen den proportzioan aurki liteke azalpenaren giltza, aziendadunen portzentajea Gipuzkoan eta Berastegin oso antzekoa den bitartean, hurrenez hurren, ehuneko 8,75 eta 8koa, aziendagabeena Berastegin Gipuzkoako ehuneko 5,99tik 0,60ra jaisten baita. Ustiategi lurjabeen azalera ere, Berastegikoa Gipuzkoakoa baino 1,89 puntu gorago dago. Beraz, harrigarria badirudi ere, ustiategi landuetan azienda

gabeak eta ustiategi lurgabeak gehiago dira Berastegin Gipuzkoan baino.

5.3. Biztanleriaren jarduera ekonomikoa

Berastegiko jendea zertan edo zein sektoretan enplegatzen den azaldu aurretik, ikus dezagun zein lan-egoeratan aurkitzen den bertako biztanleria.

12. Berastegiko biztanleria jarduera ekonomikoaren arabera (1991)

<i>Biztanleria aktiboa</i>	<i>Kopuru absolutua</i>	<i>Ehunekotan</i>
Landunak	370	38,18
Langabeak	28	1,85
Ez-aktiboak	564	58,20
Aparte kontatuak	7	0,72
Guztira	969	100

Iturria: EUSTAT, *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak, 1991. Biztanleria aktiboa*, 1993, 7 or. Norberak landua.

Lehen datu adierazgarria landunen eta ez-aktiboen artekoa da, hauek askoz gaintitzen baitute aktiboen kopurua, 20, 02 puntutako aldearekin. Bestalde, landunen eta langabeen sailean gehienak gizonezkoak dira, hurrenez hurren, ehuneko 80rekin eta 57,14rekin; ez horrela ez-aktiboen sailean, hemen gehienak emakumezkoak baitira ehuneko 60,10ekoarekin, sail honetan sartzen direlarik

beren sarrera propioak dituztenak, hala nola, errentariak eta jubilatuak, ez dituztenak, eta bestelakoak.

Azken hamarkadan zehar nabarmenki aldatzen den datua langabezi tasarena da, 1981ean % 5,30ekoa⁵⁶ eta 1986an % 9,18koa⁵⁷ izatetik 1991ean % 1,85ekoa izatera pasatzen baita. Berastegin, 1991n, 16 gizonezko eta 12 emakumezko ziren langabezi egoeran zeudenak.

5.4. Landunen sektore-jardunak

Lehen ikusi da 1940ko datuak aztertzean, industriaren sektorea zela indartsuena % 17,30rekin, nekazaritzako % 8,12ko portzentajearen oso gainetik. Langilerik gehien ere berak enplegatzen zituen. Ez baitator orduko INEn Gipuzkoako herrialdekako daturik, ezin da jakin orduko Berastegiko biztanleria aktiboa zein sektoretan enplegatzen zen, zenbat zebiltzan industrian, zenbat nekazaritzan. Orain, ordea, eskura dugu sektore desberdinen arabera egituraturako populazio aktiboaren sailkapena.

13. Berastegiko langileria landuna lan-jardueraren arabera (1991)

<i>Sektoreak</i>	<i>Azpi-sektoreak</i>	<i>Kopuru absolutua</i>		<i>Ehunekotan</i>
Nekazaritza		23		6,21
Industria	Energia	1	151	40,81
	Industria kimikoa	1		
	Doitasun mekanikoa	22		
	Beste manufaktura-industriak	127		
Eraikuntza		68		18,37
Zerbitzuak	Merkataritza	61	128	34,59
	Garraioa	13		
	Bankuak/Aseguruak	2		
	Beste zerbitzuak	52		
Guztira		370		100

Iturriak: EUSTAT, *Euskal Urtekari Estatistikoa* 1997/98, 1998, 98-103.; EUSTAT, *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak, 1991. Biztanleria aktiboa, 1993*, 117 or. Norberak landua.

Berastegiko nekazaritzaren osasuna, bere % 6,21eko portzentaje horrekin, nekazal izaerako beste zenbait herrirekin alderatuta, apala da: Elduainen, % 10,18koa da; Amezketan, % 10,04koa; Ataunen, % 10,05koa. Berro-

bikoa dago Berastegikoaren zertxobait azpitik, % 5,66rekin. Industriak eta zerbitzuek erabat hartu diote gain nekazaritza eta abelazkuntzari, baita eraikuntzak ere. Dena den, esan behar da, 1998an, Gipuzkoan eraikuntzan zebilen batezbestekoa % 27,22koa zela (*EUE*, 2000, 293), eta data horretan, Gipuzkoaren barruan, eraikuntzan dabiltzanen berastegiarren portzentajea % 0,43koa baino ez zela.

Nekazaritza eta abelazkuntzaren sektorera etorrira, ohartuko gara Berastegiko 1950eko nekazal ustiategiak eta oraingoak ez direla berdinak, ondoko taulek erakutsiko duten bezala.

14. Nekazal ustiategien jabeak (2009)⁵⁸

<i>Nekazal ustiategien kopurua</i>	<i>Erabateko arduraldiarekin</i>	<i>Zatiko arduraldiarekin</i>
172	27	98

Iturria: Nekazal Garapenerako Zerbitzuak emandako informazioa. Gipuzkoako Foru Aldundia (Jose Maria Losa)

Gerrate osteko lehen hamarkadetan erabat baserritik bizi zirenen kopurua egun ia laudenera jaitsi da, bertako biztanleria aktiboa industria, eraikuntza eta zerbitzuetara pasatu delako, hain zuzen. Aldaketarik nabarmena eman, esanez gatozenez, ekonomi jardueraren mailan ematen da

15. Laborantza hektareatan (2009)

<i>Sailak</i>	<i>Hektareak</i>
Zuhainak	450,01
Baratzeak	1,07
Lorategiak	0
Fruta-arbolak	10,41
Oihanak	1160,75
Sastrakak eta ez-produktiboak	302,5
Besterik	1,9

Iturria: Nekazal Garapenerako Zerbitzuak emandako informazioa. Gipuzkoako Foru Aldundia (Jose Maria Losa)

Taula honek oso argitan jartzen duena da Berastegiko lursailetan praktikan desagertu dela lurlantza, ez direla lehengo labore-motak egiten. Desagertu dira soroetatik garai bateko laboreak: garia, artoa, babarrunak, patatak, arbiak, erremolatxak, eta besterik. Lehengo lursail landuak bazka-leku bihurtuta daude. Berastegiko zelai berdean artaldeak eta behiak bazkatzen dira uda eta negu. Baratzeek, gutxi-asko, lehengoari eusten diote etxerako egiten.

16. Azienda-buruak (2009)

<i>Aziendak</i>	<i>Kopuru absolutua</i>	<i>Ehunekotan</i>
Behiak	332	5,99
Ardiak	5.122	92,45
Ahuntzak	10	0
Zaldiak	76	1,37
	5.540	100

Iturria: Nekazal Garapenerako Zerbitzuak emandako informazioa. Gipuzkoako Foru Aldundia (Jose Maria Losa)

Taula honetako datuak 1955ekoarekin alderatzen baditugu, ardien eta behien sailean ematen da alderik handiena, portzentajeetan, hurrenez hurren, 56,26 eta 4,19 puntuko aldea baitago. Proporzioan, bada, behien kopurua erdira jaisten da eta ardiarena, aldiz, biderkatu eta gehiago egiten da. Eta behietan, berriz, haragitakoak bakarrik hazten dira. Azken bilakaera hau lehengo soroak belardi bihurtzearen ondorioa da. Bestalde, zerri, hegazti eta untxien sailak ez dira agertzen hor, agian, ustiategi bezala erregistratuta ez daudelako. Nolanahi ere, oilategiak hainbat lekutan ikus daitezke.

Egungo baserri-egoera orokorrean hartuta, esan dezakeguna da nola nekazaritzan hala abelazkuntzan ustiategiek garbiki behera egin dutela. Labore-mota eta azienda-mota batzuk ia erabat desagertu dira. Laborantzari uztean, zuhainak eta ardiak ugaritu dira. Eta eman den aldaketarik handiena da, seguru asko, Berastegiko biztanleria aktiboko

gehiengoak nekazari-herri izateari utzi diola. Oraingo baserriek ez dute lehengoekin antz handirik, ez ustiategiengandik, ikusi berri dugun bezala, ezta eraikinen barneantolaketa aldetik ere, ganbarek eta ukuiluek ez baitute lehengo funtzioa betetzen.

6. Etxebizitzak eta familiak

Lehen, hiri-morfologiaz jardutean, azkeneko mende bat eta erdian, 1856. urteaz gero, Berastegik egun orduan baino 83 etxe gehiago zituela esaten genuen, guztira 287 izaki, Euskal Jaurlaritzak argitaratutako *Berastegiko mapan* datorrenez⁵⁹. Iñaki Linazasorok (1978, 367) esatera, Berastegik ehun eta bost baserri eder zituen 1977an, eta beste hogeita hamarren bat hutsik aurkitzen ziren. Ez ditu kontuan hartzen, ordea, kaleko etxe gehienak. Hiru urte lehenago egile berak (1974, 122) egindako inbentarioan 110 baserri kontatu zituen Berastegin, horietatik familia bakarrekoak 105 eta bat baino gehiagokoak 3⁶⁰. Erdierorian edo hutsik zeudenak 29 ziren eta beste helburu batzuetarako eraldatuak, berriz, 8, taulan banan-banan izendatuta datozenak. Izotzalde auzoan geroztik berriztatutakoak izan diren Bordaberri eta Igeltsa ere sartu beharrekoak dira taula horretan.

**Berastegiko baserri hutsak, erdi-eroriak eta eraldatuak
(1974)**

<i>Erdi-eroriak eta hutsik zeudenak</i>	<i>Beste helburu batzuetarako eraldatuak</i>
Arrinea	Simonenea
Azpikoetxea	Arrueberria
Bazterretxea	Benuzeroneazarra
Simonenea	(Indianoenea)
Alkaniz	Joxedomingoenea
Arategia	Modestonea
Olloko	Ureta
Saustegiberria	Irazazabal
Saustegizarra	Elaundegaraikoa
Artolaborda	
Bordazarra	
Matxikuatzea	
Berrenetxea (Elduan)	
Etxenagusia (Elduan)	
Ikazkiñenea (Elduan)	
Domingozurinea	
Gorostizu	
Igeralde	
Juantso	
Kanpantxo	
Mariberrobinea	
Mañikonea	
Peduro	
Potelanea	
Zapateritegi	
Mustar (Plazaolan)	
Etsoinerdia	

Malkamino Meaka	
Guztira: 29	Guztira: 8

Iturria: Caseríos de Guipúzcoa, 1974, 122-125).

Auzoetako baserri horiez gain, plazagunean, 94 kale-etxe zeuden. Beraz, urte horretan kale-etxeetan zein baserrietan bizi ziren familiak kontatuta, 212ko kopurua ateratzen da.

Honek guztiak garbi erakusten du nekazaritzak Berasategin azken hamarkada horietan ezagutzen duen aldaketa egiazki sakona izan dela. Izotzalden, adibidez, Potelanea, Juantso, Igeralde, Bordaberri eta Igeltza eta beste bakarren bat salbu, beste baserri guztiak ustiapen betean ezagutu genituen gerrate osteko lehen hamarkadetan.

EUSTATEko 1996ko taula honetan, ordea, etxe okupatuak eta hutsak bateratuta, 426ko kopurua dator: 139 etxe gehiago. Zifra batetik bestera alde handiegia dago nonbait okerren bat badela ez ohartzeko. Fidagarriena, zalantzarik gabe, Euskal Jaurlaritzakoa da, Udalak bere egina.

17. Etxe-motak eta familiak (1996)

<i>Etxe-motak</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Berastegi</i>
Okupatuak	215.463	258
Hutsak	50.268	168
Establezimenduak	438	-
Etxeak guztira	26.5731	426
Familiak	22.1318	262

Iturria: EUSTAT, *Euskal Urtekari Estatistikoa*, 1997-98, 1998, 469-470 orr. Norberak landua.

Bestalde, hutsik dauden etxeak hainbeste izateak esan nahi du Berastegin bigarren etxe bezala funtzionatzen dutenak direla horiek, asteburuetan edo noizik behin bakarrik okupatuta daudenak. Horrelakoak ugari, batez ere, Aintzerga aldean. Establezimenduen lerroa hutsik aurkitzeak ere harritzen gaitu. Kontzeptu horrekin zer aditzera eman nahi den izango da kontua, zeren Berastegin, beste herrietan bezala, aurkitzen baitira establezimendu publikoak (farmazia, janari-dendak, harategiak, jatetxeak, ile-apaindegiak, etab.), enpresa industrialak, turismorako landa-etxeak, eta besterik.

Zaila egiten da taula horretatik ondorio erabatekoak ateratzea, etxe-kopuru orokorretik heren bat baino gehiago hutsik egoteak bere zalantzak sortzen baititu.

VIII

AUTONOMI AROKO UDAL-EKIMENAK HIRIGINTZAN (1979-2010)

Berastegi biztanlez hainbeste hazi ez bada ere, txalet-itxurako eta etxebizitza bakarreko eta biko eraikinak nonahi ikus daitezke, plazagunean bezala hortik kanpo ere, nekazal zonaldean, baserri-amen lurretan egindakoak. Lehen esan da handia dela okupatu gabeko etheen kopurua. Bego hori azterkizun.

Frankismo ondoko azken urteotan eraikuntzak ezagutzen duen gorakada orokortuaren harira, Foru-Diputazioak gidatuta, Udal gehienek beren herriko hirigintza-plangintza berritu eta bideratzeari ekin zioten. Herri txikienek ere, asko edo gutxi, aurpegi berria erakusten dute, bereziki, jenderik gehien biltzen den lekuan, plazagunean, alegia. Zementuak lehengo leku batzuk ez-ezagun bihurtu ditu. Berastegik ere, nahiz ez den bertan industrigunerik sortu, itxuraz dezente aldatu da, paisajearen aldetik baino gehiago, agian, hirigintzarenetik. Eraldakuntzarik nabarmenena plazagunean bertan eman da, zehazki ikastetxearen eta

frontoiaren eraikuntzarekin, tartean jolastokia duela. Maila batean, herri-bizitzaren bihotz bihurtua da eremu hori, plaza-bis antzeko zerbait. Noizbait bete zen aspalditik amesten zena, herriak behin baino gehiagotan eskatu izan zuena. Bi eraikuntza horien ondoan, bada beste hirugarren eraikin historiko bat ere, erabat berrituta, hainbat herritarri –bereziki, hirugarren adinekoei–, bizi-poza handia ekarri diena. Gaztañondo duzue hori, honek ere arreta berezia merezi duena.

Ikastetxearen zein frontoiaren eraikuntzak, bakoitzak bere ibilbide berezia izan baitu, bakoitzarena aparte emango dugu, gaurko errealitatea nola gauzatu den, azaletik bada ere, ikus dezagun. Gaztañondokoari ere trataera bera emango diogu. Badira, noski, aipatzekoak diren beste hainbat herri-lan ere, horien artean auzoetara errepideak egitea, herrian argiak jartzea, kanposantua luzatzea, eta besterik. Laburtu beharraren beharrez, herriaren aurpegi berria diseinatzen duten hiru herri-lan horietara bakarrik mugatuko gara.

1. Udalbatzaren osaketak

Lehenik, alabaina, azken hamarkada hauetan udal-politika gidatu duten batzarkideen taula eskainiko dugu, udal-hauteskundeetako emaitzetan oinarrituta.

**18. Batzar Nagusietarako hauteskundeak eta
udal-hautetsiak Berastegin
(1979-2007)**

	<i>Urteak</i>		<i>Urteak</i>		<i>Urteak</i>		<i>Urteak</i>	
	<i>03/04/79</i>		<i>08/05/83</i>		<i>27/05/91</i>		<i>28/05/07</i>	
<i>Alderdiak</i>	<i>Botoak</i>	<i>Zinego- tziak</i>	<i>Botoak</i>	<i>Zinego- tziak</i>	<i>Botoak</i>	<i>Zinego- tziak</i>	<i>Botoak</i>	<i>Zine- tziak</i>
EAJ	108	-	232	4	92	2		
HB	118	-	115	2	137	2		
PSOE	7	-	-		6			
EE	37	-			7			
UCD	31	-						
UP/ UCD								
PP					1		4	
EA					281	3	320	5
IU					2			
ANV							237	4
Bestela- koak	26		105	1				
Indepen- denteak		9						
Guztira	327	9	452	7	526	7	561	9

Iturriak: EUSTAT, *Euskal Urtekari Estatistika*, Gasteiz; *Egin*, 1983-05-8 eta 1991-05-27; *Diario Vasco*, 2007-05-28. Norberak landua.

Kopuru absolutuetan, lehen hauteskundeetan, HB izan zen lehen indarra. Gerozkoetan, 1983. urtetik hasita, EAJ eta EA nagusitu izan dira eta Udalaren kudeaketa haien esku izanez segitzen du, lehen indarrari gehien hurbiltzen zaiona HB edo ANV izaki. Europako Legebiltzarrerako 2009ko ekainaren 7an egindako hauteskundeetan bera izan zen, II-HE izenpean, boto gehien lortu zituena, EAJ eta EA/Aralar koalizioaren aurretik.

Zehatzago esanda, taula horretan ageri denez, Autonomi Aroaren joanaldian zehar hiru talde politiko eta hiru aldi bereiz daitezke udal-agintaritzan. Horietako bakoitzak ditu bere ezaugarriak.

Lehen epealdian (1979-1983), nahiz eta botorik gehien HB eta EAJk bildu, talde independente batek osatu zuen udalbatza, lehendakari Andres Etxeberria Iztueta zela, eta zinegotziak Jesus Maria Belauntzaran, Roberto Labaien, Antonio Gartziarena, Manuel Maria Jaka, Luis Beldarrain, Jose Luis Etxeberria Azkue, Fernando Salbarredi eta Juan Atxukarro, eta idazkari Juan Jose Agirre⁶¹. Trantsizioko lehen urteak izaki, lehen aldaketak hizkuntzan eman ziren, gazteleraz emanda zeuden toki-izenak euskaraz jarritz: Norte = Aitzun; Oriente = Eguzki-Alde; Mediodía = Izotzalde; Poniente = Urdiarain; Plaza Real = Herri Enparatza; Camino de la Iglesia = Elizbidea⁶². Estatuak Iparraldeko euskal erre-fuxiatuen aurka hartutako neurri zapaltzaileak salatzen dira⁶³. Herri-lanetan, lehentasuna auzoetara errepideak egiteari ematen zaio eta udal-aurrekontuak horretara zuzentzen dira⁶⁴. Plazagunean ez da berrikuntza berezirik egiten.

Bigarren epealdia 1983tik 1991ra luzatzen da eta EAJko Migel Larburu Galardi jaunaren alkatetza-aldiari dagokiona da. Taldea honela osatuta geratu zen 1983ko

maiatzaren 23an: alkate, Migel Larburu Galardi; zinegotziak, Jon Ezeiza, Julian Etxeberria Iztueta, Juan Kruz Mugertza, Maria Teresa Apezetxea, Pio Etxeberria eta Patxi Iriarte, eta idazkari Juan Antonio Bengoetxea. Hurrengo udalbatza ere alkate berak gidatuko du 1987ko ekainaren 30ean hasita, zinegotziak hauek izanik: Joan Ezeiza, Ramon Saizar, Bautista Sarasola, Julian Etxeberria Iztueta, Teresa Etxeberria Iztueta, Migel Etxeberria Bergaretxe; idazkari, Juan Antonio Bengoetxea⁶⁵. Alkatetza honekin hasiko dira plazaguneari jite berria emango dioten proiektuak –zehazki arestian aipatu ditugun hiru horiek–, batzuk bere agintaldian bukatuko direnak, beste batzuk geroago.

Hirugarren aroa EA alderdiko Migel Agirrezabalen alkatetza-aldiak osatzen du, eta bera da agintean denborarik gehien egingo duena, 1991n hasi eta 2007. urtera arte. Hamasei urte, agintaldia lau arotan banatuta.

EAREN AGINTALDIA (1991-2007)⁶⁶

15/06/91	30/06/95	14/06/03
Alkatea: Migel Agirrezabala	Alkatea: Migel Agirrezabala	Alkatea: Migel Agirrezabala
Zinegotziak: Migel Tolosa ⁶⁷ Migel Larburu Luis Benito Eraso Ramon Saizar Migel Etxeberria Migel Azurmendi	Zinegotziak: Jesus Mari Azpiroz Aitor Iriarte J. Jose Garaiburu F. Jabier Salbarredi M.M. Azurmendi Jon Ezeiza	Zinegotziak: Jesus Mari Azpiroz Markos Aranalde Aitor Lizarza Jose A. Garmendia Aitor Aizpuru Eugenio Apezetxea

Idazkaria: J. A. Bengoetxea	Idazkaria: Iñaki Sainz	(...) (...)
--------------------------------	---------------------------	----------------

Oro har, eta funtsean, aurreko alkatetza-aldian hasitako proiektu bukatu gabeak burutzen dira, “Muñagorri” herri-ikastetxearen eta Gaztañondoren kasuan bezala.

Azken bi denboraldi horietan Udaletik bideratu diren eta herriari aurpegi berria eman dioten plangintza nagusiak aipatuko ditugu, bereziki, hezkuntzari dagokiona, kirol-instalazio eta zerbitzu publikoen mailan.

2. Iraskaskuntza: Gaztañondoko eskolatik “Jose Antonio Muñagorri” herri-ikastetxera

Egungo “J.A. Muñagorri” herri-ikastetxe eder hau ez dela amen batean eraikia izan ikusteko, historian zehar txango txiki bat egin beharrea gaude. Eraikin horrek askorentzat ezezaguna den prozesu luze eta bihurri baten ametsak, nekeak, ezinak eta ekinak ezkutatzen ditu atzealdean, garaian garaikoak eta hala ulertu beharrekoak, testuinguru jakinen argitan.

2.1. Hau ez da lekua Berastegiko lehen mailako irakaskuntzaren historia egiteko. Honetaz baino gehiago, eskolak emateko lekuaz arituko gara, eskola-eraikinaz, alegia. Gauza jakina da Gipuzkoan lehengo garaietan eskolen antolaketa Udalen zeregina izaten zela. Bera arduratzen zen eskola-eraikinaz eta maisu-maiestren izendapenez. XIX.

mendearen hasieran baino ez da hasten Gipuzkoako Diputazio Nagusia eskolen martxa antolatu eta gidatzen, zirkular, galdeketa eta abarren bidez.

Udal-Ordenantzetan xehetasunez aipatzen dira maila ekonomiko, higieniko eta administratiboko arazoak, baina lehen mailako irakaskuntzari buruzkoaz apenas hitz bat ere. Gipuzkoako Legeetan, III. tituluko XX. atalean, esaten da herriko alkate izendatua izateko, beste baldintzen artean, irakurtzen eta idazten jakin behar duela, bost mila marabediko isunaren mehatxuarekin. Hala erabaki zen Hernaniko Batzar Nagusietan 1573ko urtarrilaren 29n. Dena den, mehatxuak mehatxu, ez bide zuten kasu handirik egin, baina bai protesta-oihuak altxatu Saiazko Udalerrietan 1697an (Aia, Errezil, Bidania, Beizama eta Goiatzen), hango alkateak, behin-behineko kargu bat gorabehera, sekula bukatzen ez ziren baserri-lanez kezkatuagoak baitzeuden arrotza zitzaien hizkuntza batean ikasteaz baino. Berrero Hernani berean egindako 1682ko Batzar Nagusietan, beste herri batzuek –horien artean Andoain, Ataun eta Urnietak–, aurreko mendean hartutako erabaki hura indarrean jartzeko epea atzeratzeko eskabidea egin zuten.

Lege horrek praktikan ezein garrantzirik izan ez bazuen ere, herriak, beren alkaterik gabe gera ez zitezen, zeharka eskolak jartzera behartzen zituen. Halere, legeak lege, alkate batzuk salatuak izan ziren analfabetoak zirelako, hala nola Abaltzisketako Martin Zubeldia 1690ean eta Zarautzko Joan Inazio Leunda eta Pedro Amilibia 1782an. Nolanahi ere, alkate analfabetoen zerrenda luza daitekeela pentsa genezakeen arren –batez ere, nekazal gizartean zehar–, XVIII. mende-bukaeran herri gehienetan zeuden maisu-maistrak. Udalari zegokion horien izendapena egitea eta,

haren eskuduntzakoa zenez, bertakoak izaten ziren (Lasa, 1968, 8-12; 31). Gipuzkoako herri guztietan maisuak izendatzeko akordioa, hain zuzen, 1721eko Batzar Nagusietan hartu zen. Honek esan nahi du herri txiki gehienetan artean eskolarik ez zela. Hurrengo mendean, 1847an zehazki, lehen irakaskuntza-mailako 118 eskola publiko eta 23 pribatu zeuden (Mugica, 1923, 375-376). Beraz, ordurako finkatuak zeuden eskolak herri guztietan, handietan bezala txikietan.

Eskolan zer irakasten zen? Oinarrizkoa: kaligrafia, aritmetika eta ortografia. Bestela esanda, irakurtzen, idazten eta kontatzen jakitera eta, horrekin batera, kristau dotrina ikastera mugatzen da (Lasa, 1968, 15). Ikasketa-eredu horri “trivium arrunta” deitzen zitzaion. Ez da pentsatu behar orduko maisu-maistrak herri txiki eta auzoetan goi-erakunde akademikoetan titulatuak zirenik. Bestalde, maisuen zuzkidakurarako ez zegoen Udaletan diru publikorik. Miseria bat ordainduz, aldi berean ofizio bat baino gehiago betetzen zituztenak izaten ziren horretan jarduten zutenak: sakrista-
taua, ardandegi-zaina, zerga-kobratzailea, tartean baserritarren bat ere bai. Bizitza aurrera ateratzeko, guztien beharra izaten zuena. Lehen alkateekin bezala, orain maisu-maistra batzuk ere gaztelera ez zekitelako salatuak izan ziren (Lasa, 1968, 17-21). Administrazioako hizkuntza ofiziala gaztelera izaki, eskolan, horretarako testu jakinik ez zegoen arren, hura erakusten zen eta eskola-umeak gaztelera egitera behartzen ziren. Ezaguna da eskola-eraztunaren zigorra. Geroago etorriko dira, XIX. mendearen erditik aurrera, gaztelera erakusteko Luis Astigarraga eta Juan Maria Egu-
ren inspektoreen metodo elebidunak, hiztegia eta gramatika tartekatuz emanak. Dotrina zen euskaraz irakasten zen bakarra. Beste ikasgaiak ez (Lasa, 1968, 27-31).

Eskola-eraikin espezifikorik ez zen garai haietan, eskolak ahal zen tokietan moldatzen ziren. Maisuek askotan beren etxeetan ematen zituzten eskolak; beste batzuetan, berriz, Udaletxean bertan antolatzen zen leku jakin bat horretarako. Baserri batzuk ere eskola bezala erabiliak izan ziren, adibidez, Azkoitiko bailaratan (Garmendia, 2006, 191-199). Labur esanda, herri bakoitzean, ahal zen bezala.

Aita Lasaren liburua lagun, gain-gainetik modu aski orokorrean azaldu dugu zein zen Gipuzkoako lehen mailako irakaskuntzaren egoera mende horietan zehar, oraindik egiteke baitaude herriz herriko lan monografikoak, aipatu berri dugun Joxe Garmendiak Azkoitiarekin egin duenaren antzekoak. Horregatik, beste herri gehienek antzera, Berastegiko eskolaren lehenaz ez dakigu asko, ez baita sistemaz aztertua izan, baina eskura izan ditugun datu-apur isolatu baina bere xumean estimagarri horiek ematea dagokigu.

2.2. Beste lekuren batean-edo, nonbait, seguru asko lehenago ere eskolak emango ziren. Baina noiz eta non? Dakiguna da, Berastegiko udal-artxibotik hartuta herriko *Aidanen* aldizkarian (2005, 18-19) jasotzen denez, herriak etxe bat eraikitzeke erabakia hartu zuen 1739an, erdia harategi eta hiltegi bezala eta beste erdia maisuen etxe eta umeen eskola bezala erabiltzeko izango zena. Gaztañondo izeneko eraikin dotorea da hori, “Aragia” deitua, berrikitan berriztatua izan dena. Eraikin hori altxatzeko agirian zehazten denez, obrak 1744an bukatu zirenean, prestatuta zegoen umeentzako ikasgela maisu-etxe berrian eta 1836ko etxe-zerrendan, artean ere, eskola bezala agertuko da. Esan liteke, beraz, herriko eskola bertan finkatuta zegoela, garai hartako maisua Tomas de Balcarlos izanik. Sarreran bi arku ditu eta barruan beste hirugarren bat zeharka. Baliteke bi

sarrera autonomo izatea, bata eskolarako eta bestea harategirako, bi zerbitzu publiko eskaintzeko espreski halaxe diseinatua.

Bi eginkizun horiek betetzen zituen udal-jabetzako eraikin hori eskuz aldatuko da ondoko urteetan, noiztik jakin gabe. Jabier Salbarredik (2005, 18-19) dakarren data zehatza da, 1894ko apirilaren 7an Juan Migel Gaztañondo



Udaletxeko hirugarren solairuko areto irekia, bere oholtza eta habeteriarekin. Ezkerretara mutilen eta eskuinetara nesken eskolak aurkitzen ziren; atzean, berriz, ume txikientzako ikasgela bat aparte, eskailertatik igo eta ezker. Orduko eskolatik pilatutako mahai eta eserleku zahar horiek baino ez dira geratzen
(Lobo Altuna, 2008)

Salbarredik eskola-eraikinaren zatia Tomas Landaburu jaunaren ondorengoei erosi ziela eta geroago, 1930. urte-inguruan, Gaztañondo indianoak maisu-etxea zena Udalari doan eman ziola. Harategia zen zatian, lehen solairuan, egun Jubilatuen Elkartea aurkitzen da eta maisu-etxea eta eskola zen tokian, berriz, Eguneko Zentroa, goiko solairuan.

Eskola-eraikina Gaztañondotik desagertzean, XIX. mendearen erdi-inguru horretan, seguru asko Udaletxera aldatu ziren, bigarren solairuan ezarriz maisu-maistren etxebizitzak eta hirugarrenean, berriz, alde bietan mutikoen eta nesken eskolak, bereiz orduan ohi zen bezala, haienak eliza aldera begira eta hauena plaza aldera. Gu eta gure aurrekoak Udaletxeko ikasgeletan eskolatuak izan gara.

2.3. Jadanik XIX. mendearen bigarren erditik hasita, Moyanoren Legea (1857) egon zen indarrean, oinarrizko aldetarrik gabe, Opus Dei-ko teknokratek 1970ean Hezkuntza Lege Orokorra aldarrikatuko duten arte, gazteleraz LEG laburdurarekin ezagutzen dena. Mende oso bat eta gehiago behar izan zituen estatu espainolak hezkuntza-sistema zentralizatzen, uniformatzen, bateratzen, gartzelantzen. Lehen mailako irakaskuntzan, obligaziozkoa zen 6tik 9 bederatzi urte bitarteko umeen eskolatzea, eta doakoa. Haurtzaindegiak 10.000 biztanletik gorako hirietan bakarrik aurreikusten ziren. Bigarren mailako irakaskuntzako ikasketa orokorrek 2 urte irauten zuten, 9 urterekin hasita, eta horiek burutzean batxiler titulua jasotzen zen. Irakasleen hobekuntza profesionalean aurrerapauso garrantzitsua suposatu zuen, halere, 1917an onartutako Irakasle-Eskolaren Estatutuak, hor arautu baitziren hainbat puntu: Irakasle-Eskolarako sarrera, oposizio-sistema, bitarteko ira-

kasleen lehiaketak, maila-igoerak, lizentziak, lan-utzialdiak, trukaketak, ordezkapenak eta jubilazioak. Baina honek baino garrantzi handiagoa izan zuen, zalantzarik gabe, 1923ko maiatzaren 18ko errege-dekretuak⁶⁸, lehen irakas-kuntzako Irakasle-Eskolako Estatutu orokorra arautzera zetorrena. Hemen, 525. artikuluan, umeen obligaziozko eskolatzea 14 urte arte luzatzea erabaki zen (Lorenzo Vicente, 2002, 132). II. Errepublikak aurreikusi zuen lehen mailako irakaskuntza bi arotan banatzea: lehenengoa, 4-6 urte-bitartekoa, borondatezkoa zen; bigarrena, 6-12 urte-bitartekoa, obligaziozkoa. Obligaziozko eskolatze-urte horiek egongo dira indarrean gerrate ostean ere.

Berastegiri dagokionez, XX. mendeko eskolaren historian, aurrekoen antzera, hutsune handiak daude betetzeko eta ezina zaigu bertatik pasatutako maisu-maistren izen-abizenez eta eskola-umeen kopuruaz daturik ematea. Udaleko aktez eta gerrate aurreko lekuko batzuen eskola-oroitzapenez baliatuko gara datuen iluntasuna edo eza zertxobait argitu edo bete ahal izateko. Jakina, herri txikia izanda, lehen mailako irakaskuntza hori aplikatu zen bertan, umeen eskola-urteak oinarrizko lau urte horietara mugatuta.

Goienetxeko Jose Azpiroz jaunak (1988-127-129) honela gogoratzen ditu Primo de Rivera-ren diktaduragaraiko bere eskola-urteak:

“Gure maisua gogorra zan. Maisu bezela, oso ona ta jatorra. Baiña bere eginkizunetan oso zorrotza. Erakusten oso ona.

Ba, aitak ainbat maite giñula uste det. Baiña eskolan etzan jolasik izaten. An errespeto latza izaten genduan.

Batzu-batzuri jipoi ederrak eman ere bai. Neri bein belarrondoko bat emana.

Gogoratzen naiz: ikasten aurren samar izaten nintzan; jolasean atzena. Oso maite izaten niñun maisuak. Ari, asarre-itxuran egonagatik atrebitzen bagiñan duda gendua zerbait galdetzera, etorri zeuden alkira ta goxogoxo argitaratuko zuan gure duda, ta galdera egin ea beste iñork dudik bazeukan. Ta baietz esaten bazion norbaitek, berriz pizarran jarriko zuan lezioa. Nik ere oso maite nuan. Il zan gixajoa, laurogei ta sei urterekin, Bilbo'n. Baiña gaur ere munduan ez det, nire aitaren ondoren, ura ainbeste istimatzen dedan gizonik. Goian bego Elias Azpiazu Gorosabel gure maisu!

Eskola aste guztian izaten genduan. Zortzi ta erdietan sartu ta hamaika ta erdiak arte, leenik. Gero, ia kozkortu giñanean, bederatziak sartzeko, amaika ta erdiak ateratzeko, ta komeria izaten zan.

Baiña errekreoa ere izaten zan, amarretatik amar ta erdietara. Ura zalaparta! Eskallera bera poleki samar jetxi bear izaten zan. Baiña bein kanpora erteten giñanean, giro izaten zan an!

Katetik askatu berri dan zakurra bezala ezin asez, batzuk pelota, besteak tornika edo bete jokoetara aunditxoentzat. Txikiak, berriz, arkumeak bezela, plazan zilipurdika.

Orain, maisuak kanpanilla jotzen zuanean –au plaza aldeko leioan burdin bati erantsita izaten zuan da berak barrutik jotzen zuan–, zegoana zegoan tokian utzi ta usu demontre gora!

Gero, ateratzen giñanean, komeria. Jostatu egin nai ta etxera ere joan bear, naiko lan. Geinean, apur bat jolas ten giñan. Gero, etxera bidean ere, nola kuadrilla izaten giñan, mantxo samar askotan; da berandutu, ta gero errita. Jipoa ez bazan, nonbait or.

Neri, behintzat, izeba zanak zapla-zapla bai usu. Miñik etzuan ematen, baina keiñua ugari bai.

Bazkaldu ta ostera berriz eskolara. Udara partean ordubi ta erdietarako, ta negu partean ordubietarako; ta atera, lauretan da lau ta erdietan.

Orduan ere jolastu nai, ta etxera joateko ordua bostak izaten ziran. Ordu laurden bat gora-bera ez bagiñan iristen, eguerdikoa: zapla-zapla! Edo komunera, katuak jostatzen ikustera.

Orrelaxe eguna joan da eguna etorri. Ostegun-arratsaldea bakazioa izaten genduan, da eguerdian errosarioa askotan errezatzen genduan. Umeetan larrientxoena errezatzen zuten. Hamaika bider errezatu nuan.

Larunbat-arratsaldean, igandeko ebanjelioa irakurri ta esplikatzten zigun. Orrelaxe gure eskola-garaia”.

Geroago egile berari *Aidanen*-en (2004, 8-9) egiten zaion elkarrizketan, antzeko gauzak errepikatzen ditu, beti ere biziki aupatuz Elias Azpiazu maisu jauna, haren pazientzia eta gozotasuna. Munduan halakorik ez. Euskalduna zen, ostatu Aizpilletan zuena. Baina, horretaz gain, beste xehetasun gehiago ere eskaintzen dira pasarte honetan:

“Zazpi bat urte zituela hasi zen eskolan. Garai hartan eskola Udaletxean zegoen eta neskak eta mutilak elkarrekin nahastu gabe ibiltzen ziren. Ezkerretara mutilen gelak zeuden eta eskuinetara neskenak. Jolas-orduetan Errekreo orduan ere ez ziren elkarrekin ateratzen, bestela auskalo zer gerta zitekeen!

12-13 urte arte ibili zen eskolan eta urte haietan guztietan D. Elias Azpiazu Gorosabel izan zuen irakasle. Munduan jaio den maisurik onena, bere ustez. Dakien guztia hark erakutsia omen du.

Etxeetan lan asko izaten zen eta adin horretan ia denek uzten zuten eskola. Hala ere, ikasten jarraitu nahi

zutenentzat Gau-eskolak izaten ziren eta Josek 15 bat urte arte Gau-eskolan ikasten jarraitu zuen. Adin horrekin utzi egin behar izan zuen, bere osaba bat hil egin baitzen”.

Lehen aipatu dugun 1923ko errege-dekretuaren ondorioz, hain zuzen, hamalau urte arte ikasten segitzeko aukera izan zuten. Eta eskola-sistemak berak jarraitu zuen gerrate ostean ere, nesken eta mutilen arteko banaketari eta Gau-Eskolen funtzionamenduari eutsiz. Aldaketa bakarra, eta hori txikia, eskolan hasteko adinean egon zitekeen, gerrate osteko hamarkadan sei urterekin hasten baitzen eskola, lehen jaunartzea egitearekin bateratsu, eta bakarren batzuk bost urterekin ere bai, txikien ikasgelan, Gregorio Yeregik berarekin 2008ko martxoaren 9an izandako elkarriketa batean gogorarazten zidanez. Bera bertan ibilitakoa da, maistra Jose Etxaberen iloba bat zela. Ikasgela hori eskolen solairuan bertan zegoen eta hemen neska-mutiko txikiak elkarrekin egoten ziren.

Parentesi hau eginda, gatozen berriro Jose Azpirozen garaietara, oraingoan Elberdingo Fermina Urkizu emaztekiaren bizipenak jasotzera:

“Zazpi urtekin hasi nintzen eskolan eta gela berdiñen eoten giñen zazpi urtetik hamalau arteko neska guzik. Guk ez genekin tutike erdez eta Manuela Blasco maistra asturiar harek etzekin tituke euskeaz, eztakit nola konpontzen izango giñen elkarri entenditzeko. Katonakin ikasi genun letzen eta pizkota kuentak eiten. Atsal-detan laborek eitten giñun. Nik hamaika urtekin bukatu non eskolako jun-etorrie. Geoz, ne seme-alabai laundu nahien ikasit zeozer geio” (Labaien, 2004, 16).

Lehen kaligrafiaz genioena berrestera dator honen lekukotasuna ere, garai hartan letra ona izatea asko baloratzen zela esaten baitu. Honek bere eskolaldia hamaika urterekin bukatu zuen. Hamalaugarren urtera arteko ziklo osoa betetzen zutenak gutxi izango ziren baserri-giro hartan. Geroago ere bai. Data zehatzik ez daraman baina 1920ko hamarkadako den aldizkari bereko argazkian, 53 neskatok datoz lau ilaran lerrokatuak, banan-banan identifikatuak, erdian Manuela Blasco maistra dutela, asturiarra. Mutikoak beste hainbeste izan zitezkeela kalkulatur, errakuntza handirik gabe, pentsa dezakegu ehunen inguruan ibiliko zela orduko eskola-umeen kopurua.



1920ko hamarkadako nesken eskolako argazkia, erdian Manuela Blasco maistra asturiarra dutela (*Aidanen*, 2004, 16)

2.4. Udaletxeko eskolaz gain, Urtoko mikelete-etxeko eskola ere indarrean egon zen 1924tik 1936. urte-bitartean Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapean. Nolatan, ordea, mikeleteak irakasle-lanetan?

Lehen begirada batean harrigarri gertatzen da hori, zeren mikeleteak, berez, liberalek karlistaden garaian Gipuzkoako foru-polizia armatu bezala sortuak izan baitziren 1872an. Eta beste leku batean esanda daukagun bezala, haien egiteko nagusia muga-herrietan Probintzia batetik bestera pasatzen ziren merkantzien gaineko zergak kobratu eta ordainsariak Udalean entregatzea izaten zen. Horregatik, zeuden tokian zeudela, hango buruzagia Udaleko kide bat gehiago zen. Berastegin bertan, orduko argazkietan, udal-arduradunekin batera agertzen da Urtoko mikelete-burua.

Gerrate zibila lehertu eta erreketek Nafarroatik sartu zirenean, mikelete batzuk hilak gertatu baziren ere, oraindik 1936ko abuztu-bukaeran mikeleteek muga-zaintza egiten jarraitzen zuten: “El Secretario Sr. Echave da cuenta de que por el Miquelete del puesto de Urto Don Juan Múgica, le ha sido entregada la cantidad de 1.004.77 pesetas en concepto de recaudación habida por derechos municipales sobre el vino, aguardiente y carnes”⁶⁹. Noiz arte, ez dakigu.

Historia hori da ezagunena. Behar bada, ez hainbeste gerra aurrean han eskola bat izan zela, beste hainbat herrietan bezala. Izan ere, Gipuzkoako esparruaren barruan, 1927an⁷⁰, mikeleteek zuzendutako bost landa-eskola zeuden martxan: Kanpazarrekoa 26 hurrekin, Urkarregikoa 26rekin, Irungo Enderlatzako 25ekin, Otzaurtekoa 32rekin, guztietan neska-mutilak nahaste. Guztira 145 ikasle joan ziren urte hartan eskola horietara. Hurrengo urtean, bost

eskola horiei Berastegiko Urtokoa gehitu zitzaien. Guztira, beraz, 6 landa-eskola bideratu ziren mikeleteen ardurapean.

Inguruko baserritarrek eskatuta sortu zen Urtoko mikelete-etxean kokatutako eskola hori, herrikoa handik aski urrun egiten baitzitzaien. Mikeleteak bertan bizi ziren beren familiekin. Eskolak ganbaran kokatuta aurkitzen ziren, ikasgela batean mutikoak eta bestean neskatokak. Guztira, 26 ikasle 1932an matrikulatuta. Komandantea arduratzen zen hango haurren eskolatzeaz, bere emaztearen laguntzarekin. Irakasle-lanetan hiru urte bazeramatzan ere, hango maisuak 1931n jaso zuen lehen aldiz Foru-Diputazioak luzatutako 500 pezetako ordaina.

Bertan, beste eskoletan bezala, oinarrizko heziketa ematen zen. Eskola-orduak goizean 9tatik 11tara eta arratscan 14tatik 16tara izaten ziren. Maisuak kabo-kargua zuen eta Lezon jaioa zen. Bere arduragatik ezin zuenean eskolarik eman, bere emaztea edo alaba izaten ziren maisulana betetzen zutenak. Hirurak eskola handikoak omen ziren. Egunero, eskolan sartu ondoren, maisuak adierazten omen zion bakoitzari zer ikasi behar zuen, eta esandakoa ikasten ez bazuten, etxerako orduan ikasten gelditu behar izaten zuten ikasi arte. Horiek dira, Tolosako komandan-teak adierazitakoa eta Berastegiko Joxe Antonio Aranburuk kontatutakoa jaso, Joxe Garmendia Larrañaga irakaslearen (2001, 40-42) “Historiako zertzeladak: Mikelete postuetako eskolak” izeneko lanetik hartu ditugun xehetasunak.

Gerrarekin desagertu zen eskola hori eta hurrengo urtean, 1937ko ekaineko Kontzertu Ekonomikoaren deuseztapenarekin batera, baita mikeleteen erakundea bera ere.

Gaurko berastegiari batentzat harrigarria gerta liteke Urtoko mikelete-etxean hainbeste neska-mutiko ibili izana

gerrate aurrean. Garai hartan Plazaola eta Urtoko inguru hori orain baino jendeztatuago zegoen eta auzo horretako eskolaumeak biltzen ziren hara, gehienbat Leitzako Udalerrikoak. Gero, mikeleteak handik desagertzean, Leitzan hiru auzo-eskola berri eraiki zituzten Erasote, Basakabi (Gorritzaran) eta Erreka auzoetan. Eta Urto inguruko eskolaumeak, hain zuzen, Erreka auzoko eskola horretan ibili ziren. Egun okindegi bihurtua den eraikin horixe zen orduko auzo-eskola, Areso eta Leitzako bide-gurutzean kokatuta dagoena, errepideari erantsita. Lehen solairuko leihoek erakusten dute eskola-eraikin bati dagokiona dela. Beraz, Urto inguruko auzoan bi leku desberdinetan eskolatu ziren hango umeak: gerrate aurrean Urtoko mikelete txean, Berastegiko partean, eta ondoren Erreka auzoan, Leitzako partean.

2.5. Gerratea sortu eta hurrengo urteko apirillean, maisurik ez dutelako mutikoek hiru hilabete zeramatzatela eskolarik gabe-eta, Udalak aldi baterako Obinetaberriko Biktor Labaien Armendariz apaizgaiari eman zion ardura hori:

“El sr. Alcalde hizo uso de la palabra para manifestar que como saben los señores reunidos, desde hace tres meses (18-01-37), se halla vacante la Escuela de niños de esta localidad, la que no se (ha) cubierto ya, porque, según referencias, no existen Maestros disponibles. Como en la Delegación Provincial de 1ª enseñanza no existe inconveniente alguno en que dicho nombramiento lo haga este Ayuntamiento con carácter provisional y reuniendo, a su juicio las condiciones necesarias para el desempeño de dicho cargo el seminarista D. Victor Labayen Armendáriz, propone sea nombrado Maestro

provisional de la Escuela de niños de esta villa, al referido D. Victor Labayen Armendáriz; y el Ayuntamiento acordó por unanimidad lo propuesto por el Sr. Alcalde-Presidente”⁷¹.

Domingo Labaien zinegotzi jaunak jakinarazi zuen udal-batzarrean irakasle izendatu berriak bere egitekoa ondo betetzeko ez zuela behar beste testuliburu eta, haren eskaerari erantzunez, ondoko aipuan zehazten diren liburu horiek eskuratzea erabaki zuen Udalak: “Añade que apenas existen en la escuela libros suficientes para desempeñar bien su cometido y propone que se adquieran los siguientes ejemplares: 6 Aritméticas; 18 Gramáticas; 12 Lecturas instructivas letra pequeña, para Adultos; 25 id. Para los más jóvenes; 6 Geometrías. Y el Ayuntamiento acordó por unanimidad, adquirir dichos libros”⁷². Baina mutikoen eskola-arazoak ez ziren hor bukatu. Izan ere, behin-behineko irakasle 1937ko apirilaren 18an izendatua izan zeneztik azarora arte soldata jaso gabe jarraitzen baitzuen, Udalak izendatuta, alkatea eta idazkaria Donostiara joan ziren, Josefina Oloriz inspektorearen aurrean beren kexa agertu eta ordezkioak egiten ari zenari ordain ziezaion eta maisu berria behingoz izenda zezaten eskatzera:

“El Sr. Presidente hizo uso de la palabra para manifestar que como recordarán los Señores Concejales va para diez meses que el Maestro de esta localidad D. Angel Lopez Corcuera fue suspendido de empleo y sueldo por la Superioridad. Como la Superioridad no nombrara titular que desempeñara el servicio, el Sr. Secretario, por encargo del que habla, se personó en la Delegación de Instrucción Pública de esta provincia para poner en su superior conocimiento el abandono en que

se encontraba el pueblo en lo referente a la Escuela de niños. La Delegación autorizó para que el Ayuntamiento nombrara una persona apta y de solvencia moral y patriótica que se encargara provisionalmente de la Escuela de niños. El Ayuntamiento entendió que reunía dichas circunstancias el Diácono D. Victor Lavayen, hijo del pueblo y a su favor extendió el nombramiento el 18 de abril del corriente (1937) año; remitiendo a dicha Delegación según lo ordenado (aunque verbalmente) copias del nombramiento y toma de posesión a los efectos de percepción de haberes por el interesado, documentos que se entregaron en mano al sr. Inspector D. Manuel Jiménez. Desde aquella fecha ha venido sirviendo dicho Sr. D. Victor Lavayen la Escuela, estando ésta atendida a satisfacción del pueblo y Autoridades. Pero como dicho señor no ha percibido por ello ningún emolumento, reclama sus haberes al Ayuntamiento que lo nombró y el Ayuntamiento no puede, velando por la recta administración de sus fondos, cargar con el abono directo de los correspondientes a dicho señor D. Victor Lavayen ya que tributa para ellos por otros conceptos. Por otra parte habiendo sido ya ordenado de Presbítero dichos señor quedará sujeto a la jurisdicción del Diocesano quien puede nombrarle para ejercer su sagrado ministerio en alguna otra parte y por lo tanto el pueblo quedará otra vez falto de persona que se encargue de la Escuela de niños. Y el Ayuntamiento oídas las manifestaciones de la Presidencia acordó se haga una nueva gestión cerca de la Inspectora Dña Josefina Olóriz para que designen titular que se haga cargo de la enseñanza y se le abone sus labores al interesado D. Victor Lavayen⁷³.

Aurreko aktetan ez bezala, honetan garbi azaltzen da zein izan zen maisuaren plaza hutsik geratzearen arrazoia:

Angel Lopez Corcuera maisu jaunaren arazketarena, 1937. urte-hasieran gertatua. Kontuan hartzen bada 1936-1945 epealdian 451 maisu-maistra izan zirela espedientatuak, horietatik 51 kargutik kenduak (Ostolaza, 1992), ez da harritzekoa Berastegiko maisua azken horien artean aurkitzea. Haren ordezeko zein izendatu zuten ez dator udalaktetan. Dena den, Udalak “el Generalísimo Franco”ren erretratua mutikoen eskolan jarria zeukan, 8,50 pezeta ordainduta⁷⁴ eta ez zuten bidaliko nornahi.

2.6. Frankismo-aroan sartuta, gerrate osteko testuingurua hurbilagoa egiten zaigu, 1940ko hamarkadan eskolara joatea tokatu baitzitzaigun-eta. Franskimoaren lehen aroko eskola totalitario eta autoritarioa hezur-haragitan ezagutu genuen, horretaz gehiegi jabetzen ez baginen ere. Hezkuntza konfesionala indartu zen garaian eskolatuak izan ginen.

José Calasanz jauna, Valladolid-eko seme erdalduna, eta Maria Etxabe ziren herriko maisu-maistrak. Honen ahizpa Pilar zen lehen aipatutako neska-mutiko txikien irakaslea. Etxaberen ilobak ziren, bertako alaba euskaldunak. Eskola-umeen kopuruaz datu ofizialik ez da, ezta hurbilketarako bide eman lezakeen argazkirik ere. Baina abiapuntuz hartzen bada, San Martin parrokiako Bataio-Liburuan datorrenez, 1941ean jaioak 18 izan zirela, hortik ondoriozta daiteke obligaziozko eskola-adinean zeudenak, 1947-1953 urte-bitartean, 108 neska-mutil inguru izan zitezkeela. Zeharkako hurbilketa honek ez dirudi hain desbideratua, ikusi baitugu 1920ko hamarkadako argazkian 53 neska aurkitzen zirela.

Beren lan pedagogikoan berritzen joateko, aurreko urtean ez, dirurik ez zegoelako, baina 1944an Udalak 50

pezetako beka bana luzatu zien maisu-maistrari Donostiako Peñafloidako Institutuan ekainaren 12tik 17ra ikastaro bat egin zezaten⁷⁵. Hurrengo hilean, eskola-umeak eskolan aurreratzen ari zirela-eta, Udalak haien irakasle-lanekin oso gustura zeudela eman zuen aditzera:

“El Sr. Presidente hizo uso de la palabra para manifestar que con motivo (irakurtezina) de los trabajos en la Escuela de niños, ha girado una visita a dicha Escuela, y ha podido apreciar, a pesar del escaso tiempo que el Sr. Maestro lleva desempeñando su cargo, el adelanto de los niños y el trabajo y celo de su Profesor, constándole también que la Sra Maestra lleva trazada la misma línea de conducta, pues es de notar el progreso de las niñas y el esmero que demuestra la Profesora. Por todo ello y siendo misión especial de toda Corporación el atender con el máximo esfuerzo toda labor en pro de la Instrucción primaria, propone el Ayuntamiento se les conceda a ambos Profesores una gratificación especial voluntaria de 200 pesetas a cada uno, por su laboriosidad y progresos obtenidos en la enseñanza y se repartan premios a los alumnos que más se han distinguido; y el Ayuntamiento acordó todo lo propuesto por la presidencia”⁷⁶.

Gurean denbora gutxiago egin zutelako, agian horregatik, ondoren etorri ziren irakasleen berri gutxi dugu. Apenas oroitzapenik ere. Tomás Benito maisuaren izena 1949ko azaroaren 11ko udal-aktan agertzen da lehen aldiz. Ordurako zenbat denbora zeraman ez dakigu. Handik bi urtera, 1951ko uztailaren 7ko udal-aktan, Erasmo San Martín maisuaren izena dator. Data berean Micaela Salvatierra maistrarena ere. Denbora gutxian aldaketa gehiegi

eskola-umeen irakaskuntzari segida emateko. Nire oroitza-penean bederen bi maisu horiek ez zuten arrastorik utzi.

Eskolako testuliburua, gai guztiak batera zetozen entziklopedia txiki baten antzekoa zen, gero Alvarez-ek (1999) 1964an argitaratu zuenaren antzekoa. Honen *Enciclopedia*, azalean izenburutzat letra txikiagoz idatzita *intuitiva, sintética y práctica* zeraman eta, eduki-sakontasunaren aletik, hiru mailatan sailkatua zegoen. Maisu-maistrek ere, era berean, zuzenketak egin zitzaizten, maila bakoitzari zegozkion testu-liburuak zeuzkaten, *Libros del maestro* izenekoak. Lehen mailakoa oinarrizko irakaskuntzako 1. eta 2. ikasturtekoari zegokion testuliburua zen eta honekin hasi ginen ematen lehen urratsak eskolan. Ez zait iruditzen lehen edo bigarren mailatik askoz harago pasatzen ginenik. Biderkatzeko taulak guztiok batera boza altxatuz ikasten genituen.

Ikasketen geroko errentagarritasunari baino gehiago egunean eguneko beharrari begiratzen zitzaion baserri-giro hartan, harritzekoa ere bada nolako arrangura erakutsi zuen guraso-talde batek haurrak adin txikian eskolatzeari buruz. Udalari eskari hau zuzendu zion 1946ko urriaren 27an, Haurren Eskola sortzea eskatuz. Ezezkoarekin erantzun zuen:

“Desestima del proyecto de creación de escuela para párvulos: Se dio lectura de un escrito que copiado a la letra dice: - En reunión celebrada en el día 27 de Octubre, los asistentes, que al pie del escrito firman, vieron con necesidad y agrado la creación de una Escuela de párvulos en esta localidad para en el bien que ha de reportar a la educación, cultura y cuidado de los niños de esta Villa, en especial y de la Patria en general... Berastegui, 28 de octubre de 1946”⁷⁷.

Ez gutxi, 20 herritar izan ziren idazkia izenpetu zutenak, horien artean Amiriko Zipriano Etxeberria. Proposamena ukatzearen arrazoien artean, bi aipatzen zituen Udalak, jatorrizko testuan datorrenez esateko,

“en primer lugar, por carencia de fondos, dada la situación agobiadora de su erario y teniendo en cuenta que tiene obligaciones perentorias que atender, no puede distraer sumas considerables en lo que de momento, la Corporación, no ve que sea de imprescindible necesidad la creación de una nueva escuela, y, en segundo lugar, porque algunos de los padres firmantes, en concreto don Florencio Goyenechea, don Miguel Goyenechea, don Gregorio Ibarbia y Sebastián Saizar, dejaron de enviar a sus hijos a la escuela y no se compagina la inquietud de estos señores por la educación y cultura de los parvulitos”⁷⁸.

Arrazoi horiek zein neurritan ziren baliagarriak eztabaida daiteke, baina ordukoak haiek izaki, hala pasatu dira historiara. Jakinda guraso-talde horren eskabidea 1946an egina izan zela eta ordurako lehen esandako mutiko eta neskato txikien ikasgela hori martxan zegoela, baliteke haien xedea esperientzia hori ofizialdu nahi izatea.

Eskolen mantentze-lanaz Udala arduratzen zen. Mutilen eskolako komun baxua, guk ezagutu genuena, Martin Aldunzin igeltseroak egin zuen 1939an⁷⁹. Eskolak garbitzeko ardura Eugenia Zabaleta andereari eman zitzaion 1944an⁸⁰. Urte berean, mutilen eskolako berogailua hondatu zela-eta, berria ekarri zen, eskolaren erdi-aldean egoten zena, ikasmahaien atzean. Berririo 1951n, berogailu berria ezartzen da, oraingoan ere mutilen eskolan, 441 pezeta

ordainduta⁸¹. Beharrezkoa ere bazen, neguan han egiten zuen hotzarekin.

Gaur bezalako eskolaz kanpoko jarduera-aukerarik ez zegoen, gutxiago nekazal herri txikietan, baina badirudi Berastegin bazegoela musikarako tradizio antzeko zerbait, gerra aurretik zetorrena. Izan ere, 1938ko abenduaren 8ko Udal-Aktan irakurtzen denez, Pedro Maria Etxeberria jaunari musika-irakaslearen kargua kentzen zaio, hurrengo urteko aurrekonturako 900 pezetaren esleipena desagerraraziz. Gerrate ostean, noiztik jakin gabe, Toribio Labaien apaiz jaunak, herriko semeak, solfoea ematen zuen Santu-neko etxabea, eguerdian eskolatik aterata. Iturri ondoko atean jarrita zain egoten zen, baina ez bide zuen ikasle askorik biltzen.

Euskal curriculumua. Kultur ibilbidea talde-lanean kon-tatzen dudanez (Iztueta, 1904, 402-403), eskola-umeon artean ahoz aho zebilen kontua zen Gau-Eskolako mutilek maisua buruz behera zintzilik jarri zutenekoa, bandera espainola igota egoten zen burdinazko euskarri batean hankak sokaz lotuta. Herriko lekuko batzuek ziurtatu zidaten gerrate oste hurbilean gertatu bide zela aziotxo hori; maisua herrena zela eta geroztik Aizarnazabalen edo Aian, or nonbait, ikusi izan zutela ere bai. Txomin Jakakortexanaren (1990, 43) pasarte hau irakurri eta gero, ordea, lehengo zalantzak ugaritu egin zaizkidala aitortu behar dut:

“Aitak aipatua zidan aren aur-garaian gaueko ikastolako mutil gazteak, irakasle gaizto bat, anka banatatik oratuta, ikastolako leiotik buruzbera beeko estartara iaurtiko zutela geiago iotzen ba'zitian, nola eduki zuten zemaka eta gure garaiko gaueko ikas-mutillak ere, gure irakasle ankerrari orlako zentzaldiren bat emango zioten

itxaropena beti izaten genduan eta esan ere zergatik ez zuten buruzbera ematen esan izango nion nire Ezpeleta'ko artzai lagun umantari”.

XIX. mendetik datorren kontakizuna da. Bestalde, sekula ez da jakin izan, gertatu bazen ez bazen, ez noizkorik ez egile-izenik. Nago ahoz aho iritsi zaigun pasadizo horrek gehiago duela ipuinetik egiazko gertakaritik baino, horrela azalduta bederen.

Liburu Zuriaren (1969) eta Hezkuntzako Lege Orokorren (LGE, 1970) aldarrikapenek errotiko aldaketa ekarriko dute Espainiako hezkuntza-sisteman. Industrializazio-prozesu azkarrak hezkuntza egoera berrira moldatu beharra ekarri zuen, Hezkuntzako ministro Villa Palasí jauna zela. Orain obligaziozko eskola-urteak, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrak, 8 urte hartzen ditu, 6tik 14 urte-bitartekoak, eta hiru ziklotan banatuta dator: Hasierakoa (6-8 urteak), Erdikoa (8-11 urteak) eta Goikoa (11-14 urteak). Eta Eskolaurreak bi maila hartzen ditu: Haur Lorategia (2-3 urteak) eta Haurtzaindegia (4-5 urteak).

Garai honetatik aurrera hasten da, ez lehenago, hezkuntza giza kapitala sortzeko inbertsio gisa ikusten. Absentismoak bere ukitu berezia zuen gizarte-sektoreetako –bereziki, langile-mundu eta baserrietako–, gurasoengan beren seme-alabak eskolatuak izateko kezka nagusitu zen eta hainbat izan ziren beren umeak herritik kanpora bidali zituztenak. Berastegin bertan dezente gazte izan ziren ikastera Arrasatera, edo Tolosara, edo Añorgako Zabalegira joandakoak. Baina herriko eskolak bere betiko lekuan jarraitzen zuen, Udaletxeko solairuan, bere betiko sistema unitarioan estekatuta.

2.7. Esan beharra dago, bestalde, “Mariaren Bihotzeko Alaba Misiolariak” kongregazioko mojek komentu bilakaturako Salbatore etxean ekarpen estimagarria egin zutela herriko ume eta gaztetxoek eskolatzean. Komunitatearen sorrerakoan lau lekaime egon ziren: M. Antonia Rosás, Izazkun Gantxegi, Ascensión Ugartemendia eta Madgalena Barrena. Gerora beste batzuk ere etorri ziren. Lehen ikas-turteari hasiera 1954ko urriaren 4an eman zitzaion, guztira 60 umerekin, horietatik 24 lehen eta bigarren mailakoak zirelarik. Ondoko urteetan gehituz joan zen lekaimeen irakaskuntza-lana. Honela, Lehen Mailako irakaskuntza emateaz gain, Oinarrizko Batxilergoa, Kontabilitatea, Merkatal Kalkulua eta Etxerako Prestakuntza-Ikastaroak ere ematen zituzten. Ikastetxearen onarpen ofiziala hurrengo urtean etorri zen, 1955ko apirilaren 6an, eta erabatekoa 1958ko urriaren 9an. Eta onarpena lortzearekin batera, diru-laguntza jaso zuten 1956ko urriaren 11n.

Eskolaz kanpoko beste hainbat lanetan ere murgilduak egon ziren: parrokiaren inguruan, katekesia emanez, umeekin jolas-emanaldiak prestatzen, euskal dantzak erakusten, kantari-taldeak osatzen, etab.

Lekaimeen Berastegiko komunitate hau 1971ko ekainaren 23an itxi zen, irakaskuntzan 17 urte egin ondoren⁸². Berastegin neska-mutil asko izan dira moja horien ikastetxean eskolatuak eta orduko oroitzapen ona gordetzen dutenak. Lekaime horien etorrerarekin, eskola-eraikinaz eta irakaslez aldatzean, zalantzarik ez da irakaskuntzak hobera egin zuela herritarren mesedetan.

2.8. Frankismo ondoko trantsizio-aldian irekitzen den Autonomi Estatutu Aroan, “Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarrizko Legearn” (1982) aldarrikapenarekin,

hezkuntza elebiduna ezarri zen. Euskal Herriko irakaskuntzan eta, honen ondotik, hezkuntza-sistema maila morfologikoan bezala pedagogikoan eraldatzeko saio berriak bideratu ziren (Iztueta, 2002). Orduan ekin zitzaion desegokiak ziren eskola-eraikinak berregin edo beste leku batean berriak egiteari, hainbat lekutan aurrera eraman zirenak. Testuinguru honen barruan kokatu behar da Berastegiko Udalak bere garaian egindako ahalegina, Migel Larbururen alkatetzaldian (1983-1991) gauzatu zena. Berarekin izandako solasaldian argitu dizkigu orduan zuzen-zuzenean bizi eta gidatu izan zituen hainbat udal-ekimen⁸³, zati hau osatzeko oinarritzko informazio-iturri izan zaiguna. Berak aitortua da, Elduako Jon Ezeiza jeltzalearen arrimura bildu zela zerrenda-buru izateko erabakia hartu zuenean.

Jadanik aski ezaguna zaigun Jose Antonio Muñagorri eskribauaren izena darama ikastetxe berriak. Eta honi buruz zerbait esan nahi nuke, niri dagokidan heinean bederen. Gogoan dut nola galdegin zidan Udaleko zinegotzi batek, ikastetxe berria inauguratzera zihoazela-eta, zalan-tzan zeudela edo ez zekitela zein izen jarri. Zer bururatzen zitzaidan galdegin zidan. Pentsatzen dut, niri bezala beste hainbati ere galdera bera edo antzekoa egingo zietela beste batzuek.

Bizidunen artean baziren, badira, inolako zalantzarik gabe, letrekin eta hezkuntza-munduarekin zerikusi zuzenagoa duten herritarrak; baina, bizidunen historia artean eginean zegoenez, eskribauaren izena ematea otu zitzaidan, nahiz ondo jakin haren interesak beste ezeri baino gehiago enpresa-munduari eta politikari lotuak egon zirela. Ez dakigu zergatik eta nola baina, kontua da azkenean izen horrekin geratu dela Berastegiko ikastetxe berria.

Garai hartan goi-erakundeetan, Eusko Jaurlaritzan bezala Gipuzkoako Diputazioan, Udalek aurkezten zituzten proiektuak sostengatzeko diru-laguntzak esleitzen ziren. Udal-mailako ekimenez garrantzi handia zuten, bide hori baitzen alde zuzenetik landutako asmoak gauzatzeko abiapuntua.

Udalan talde berria sartu zenean, Migel Larburu alkate ohiak aitortzen duenez, ezer gutxi zekiten, baina gauza bat zeukaten oso garbi: eskolarekin zerbait egin beharra zegoela, arazo larria zeukatela. Herri txikiak eskola-umeekin gertatzen zen, 1970eko hamarkada-bukaeratik hasita, 12 urterekin hiri handietako ikastetxera joan behar izaten zutela, ustez hirigune zabalagoan zentralizatzeko adin horretako ume-populazioaren aurrerapena ekarriko zuelakoan. Berastegikoak Tolosara jaisten ziren eta behera pasatze horretan urtebete galtzen zuten, beste herrietako antzera, ez omen zeudelako hiriko mailan, apalagoan baizik. Honela, obligaziozko azken bi urteak 14 urterekin bukatu beharrean, 15ekin bukatzen zituzten, lan-mundura begira urtebete galduta. Eta egoera hori Udaletik gaizki ikusten zuten. Herriko ikastetxea pairatzen zeterren egoera deitoragarriaren berri honela jasotzen da 1985eko apirilaren 20eko udal-aktan, Txomin Jakakortexarenaren itzulpenean emanda:

“Apezetxeatar Teresa Andreak, irakaskuntza eta iakin-tzako arazoei dagokien gaietaz, zifnegotzi txostenemaile eta orretzaz gainera udal ikastolako ikasleen gurasoen ordezkalari danez, itza artzen du eta ona zer dion:

Berastegi'ko ikastolan, ikaskizunak, ikas-aurre aldi-koak eta Oiñarrizko Orokor Irakaskinzako aurreko bost urtetakoak ematen dira, ondorengo bukatu artekoak egiteko, ingurualdeko ikasle guztientzat Tolosan dagoan

goi-ikastol batera ioateko. Bapateko aurraren, bizitzaldiko aldaketa onek -ikaskizunetako asmo berriak, ordu-arazoak, uribelbillak, etxetik landako otorduak, lagun berriak eta abar- aurraren adinik kezkarrienean eta goraberarik aundienekoan, izugarritzko bapateko ondorenak umeari sortzen dizkio: Azken batez, egoera ortan ezin oituzko zailtasunak, amets guztien lur iotzea eta etsipena iñolaz ere azken urte oek ongitxo erakutsi digutenez, Oiñarrizko Orokor Irakaskizunak bukatzeko ainbat aurrak bai dauzkate zailtasunik latzenak.

Egoera larrieneko ontan, naita-naiez eskabide bat egin bearra daukagu Eusko Jaurlaritzako Eziketako Altseingoari, errian bertan, ikaskizunak egiteko, pixkanaka luza ditzala ikastaldiak, Oiñarrizko Orokor Irakaskizunak bertan bukatzeko.

Alkarrizketari bide emanik eta elkarrerizkizun ugarien ondoren, indardun legetzak erabakita daukan erabateko geiengoa egiten duten batzarkide guztien eritzira, auxe erabakitzen da:

Lenengo: Azaldutako arazoa, iakintzat eman, Batzarraren laguntzarik aundiena eskeiñi eta dagokion iaurgiko zuzendaritzaraiño, egoera onen berri, eraman.

Bigarren: Eskubide au lortzeko, Batzarraren Laguntza osoa duala azaldu eta Eziketako Altseingoko Lurralde-tako Barzordearekin, bearrezko litezken lorlan guztiak egiteko, azaroaren ziñegotzi aurkezlariari eskubide guztiak eman⁸⁴.

Helburu bezala erabaki zuten umeak 14 urte arte –obligaziozko eskola bukatu arte, alegia, LOGSEk 16ra luzatuko baitu 1990ean–, herrian bertan eskolatzea. Aurrena hori lortzea zen helburu, obligaziozko ziklo osoa, alegia, OHOkoko hiru zikloak bukatu arte. Ez zuten onartzen, ordea, herrian

geratzea OHOa bukatu arte. Administrazioak beti jartzen zuen aitzakia edo oztoporen bat edo beste, eta horietako bat zen gutxieneko ikasle-kopurua behar zela irakasleak ekarri eta horiei ordaintzeko. Baina, oztopoak oztopo, beste herri txikietako batzuk urrats hori ematen ari zirela ikusita, Udalekoek aurrera segitu zuten. Nola? Inori ezer esan gabe, frontoi eta ikastetxe berrirako proiektu bateratu bat eginez. Izan ere, oso ondo zekiten, EAJ alderdikoek esanda, inora zerbaitekin azaltzeko orduan, proiektu zehatz batekin azaldu behar zela. Beraz, aurreko alkateak hasitako argiztatze-lanak bukatu bezain agudo, ikastetxe berri baten proiektua lantzeari ekin zioten. Hori burutu ahal izateko, ordea, lehen baldintza zen, ezinbestekoa, tokia finkatzea eta hautatutako toki horretako lursailak eskuratzea. Esan bezala, frontoia eta ikastetxea egitearena, proiektu bateratuan zetozenez, bientzat lursaila behar zen, eta toki berean, gainera. Honela, 1980ko apirilaren 3an egindako udal-batzarrean, frontoi estalia eta kirol-instalazioak egiteko asmoa azaldu zenean, orduan begiz jotako lursaila, Erretore-etxeko baratzea izan zen, esparru zabala eta Kale Nagusian kokatua zegoena. Hantxe bertan egitea pentsatu zen urbanizazio-multzo osoa, hala nola estalitako frontoia, aire zabalean egindako atari balio anitzekoa, haurrentzako jolastokia, eta ikastetxea, hori guztia proiektu oso eta bateratu batean aurreikusita. Honela, plazagunean zerbitzu publikoen esparru berri bat sortuko da.

Oinarrizko proiektua Jabier Yeregi arkitektoak egin zuen eta aurreikusitako aurrekontua 36.920.537 pezetakoa izan zen, gehi erosi behar ziren lursailen kopurua. Erretore-etxeari zegozkion lursailez gain, baziren alboetan beste batzuk ere, zehazki Labaien Maiz anaien eta Sorkunde Altuna Loidi emaztearen jabetzakoak zirenak, eta horiek

ere erosi beharrekoak ziren, behar zen azalera lortu ahal izateko. Udalbatzak aho batez onartu zuen tokiari zegokiona eta proiektua aurrera eramateko erabaki zehatzak hartu ziren, alkatearen ardurapean geratuz lursailak erostea, finantzabideak lortzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailarekin eta Udalbatzarekin harremanetan jartzea, kostuak osatzeko banku-kredituak kudeatzea⁸⁵.

Hartutako erabakien harira, berehala heldu zitzaion lursailak erosteari. Hasteko, herriko on Tomas Otaegi erre-tore jaunarekin eta Gotzaindegiko ordezkariekin hitz egin eta adostasunera iritsi ondoren, Jabier Yeregi jaunak egin-dako txosten teknikoa aurkeztu zen urte bereko maiatzaren 27ko udal-batzarrean. Metro karratuko 1.317 pezeta zen adostutako prezioa. Beste jabeei ere eskaintza bera egin zitzaien⁸⁶. Esan behar da frontoia eta ataria egiteko asmoa zegoela bideratua hasieran.

Ikastetxe berriaren proiektua Gasteizko Hezkuntza Sailari zegokiona baitzen, Fernando Buesa sailburuarekin egon ziren, bertara joanda. Horretarako proiektua prepa-ratu zuten, zehazki azalduz dena: ikastetxea egiteko lekua, jolastokia, aterpea, eta abar.

Proiektu hori egiten Jabier Yeregi hasi zen, Udaleko arkitektoa, baina honek gero, lan asko zuelako, beste bati eman zion. Hura zuten beti gidari eta laguntzaile erakun-deko arduradunekin hitz egitera joaten zirenean, bai Gotzaindegian, bai Diputazioan, bai Eusko Jaurlaritzan. Berarekin egin zituzten bi edo hiru bidaia Gasteizko Hezkuntza Sailera. Herriko semea zelako, debalde egiten zizkien lanak. Ez zuen kobratu nahi izaten.

Gasteizen onartu zuten proiektua, baina ez zekiten noiz gauzatuko zen. Hango arduradunek esaten zieten beste

herri batzuk zeudela eskarrietan beren aurretik eta txanda iritsi arte itxaron egin beharko zutela. Noizkorik gabe ezin jarraitu-eta, halako batean lortu zuten Fernando Buesa kontseilariarekin egotea, ordura arte haren azpisaileko arduradunekin egoten baitziren. Hiru lagun ziren bertara joandakoak: Migel Larburu alkatea, Juan Antonio Bengoetxea idazkaria eta Jabier Yeregi arkitektoa. Jarri ziren haren aldamenean, deitu zion arazoa zeraman arduradunari, honek atera zuen programa, eta horrela orriak pasatzen ari zela, herri desberdinetatik egindako eskarrietako batek gurutze bat zeukala ikusi zuen Buesa jaunak. Handik hurrengo urtera edo bira, ikusirik herri hartako ikasle-kopurua gutxi-gorabehera Berastegikoaren antzekoa zela –120 ikasle ingurukoa, alegia–, eta eraikina egiteko ez zutela lursailik –horregatik zegoen gurutze batez markatua–, orduan Kontseilariari eskari-zerrendan lehenago zihoan haren lekuan Berastegiko ikastetxearen proiektua sartzea otu zitzaion. Zorionez, aurrera egiteko bidea ireki zitzaien.

Obra biak –frontoiarena eta ikastetxearena, alegia–, proiektu berean bazihoazen ere, ez ziren data berean ez hasi eta ez bukatu, diru-emaileak ez baitziren berberak. Frontoiarena Gipuzkoako Foru Diputazioari zegokion, ikastetxearena Gasteizko Hezkuntza Sailari. Aurrena bukatzen frontoia izan zen, geroago zehaztuko dugun bezala. Denbora gehixeago pasatu zuen ikastetxeak, baimena lortu arte, dirua bazegoela esan zuten arte. Hutsik zegoen partida hartatik hasi ziren egiten.

Berastegiko ikastetxe berria 1992. urte-bukaerako bukatu zen, Migel Agirrezabala alkate berria izendatu eta hurrengo urtean. Noizbait bete zen aspaldiko ametsa, lehen emandako arrazoi pedagogikoez gain, instalazio gisa ere

Udaletxean kokatutako ikasgelak ez baitziren irakaskuntzarako egokiak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 147 milioi pezetako inbertsioa egin zuen eraikuntza berrian. Eraikinak 1.500 metro karratuko azalera du, bi solairu nagusitan banatuta daudenak; beheko solairu bat ere badu, % 50ean erabilgarria dena. Bigarren solairuan kokatzen dira zerbitzu orokorretarako gelak, hala nola biblioteca, irakasle-gela, aldagela, lehen zikloko bi gela, gela informatikoa, eta besterik. Bigarrenean sei ikasgela aurkitzen dira, erdiko eta goiko ziklokoak.

Fernando Buesa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako kontseilari eta lehendakariordea etorri zen Berastegiko “Muñagorri” herri-ikastetxe berria inauguratzera 1992ko azaroaren 12an, ostegunez, eta aldamenean izan zituen herriko Migel Agirrezabala eta Tolosako Jose Gurrutxaga alkateak, Guraso-Elkartekoak eta Irakasle-Elkartekoak. Herriko dantzariak aureskua eskaini zieten arduradunei ikastetxe-atarian. Euri-eguna izan zen hura, baina ateri zegoen ikastetxeko atari zabalean. Buesa jaunak hezkuntza-sistema ez-unibertsitarioan egin asmotan zebilen berrikuntzaz hitz egin zuen, xedetzat hezkuntza bere osotasunean kalitatearen zein kantitatearen aldetik hobetzea ezarriz. Irakasle-taldearen eskuetan uzten zuen haurrak hezteko ardua, haien gaitasunak, nortasunak eta ikasketa-erritmoak kontuan izanda. Zuzendariari protagonismo berezia aitortzen zion.

Hori zen kontseilariaren apustua eta egiazki sustatzen zituen herri txikietako ikastetxe berrien proiektuak. Berastegin bezala beste herrietan ere. Dezente dira garai horretan eraikitako ikastetxe berriak. Kontseilariaren asmoak hurrengo urtean beteko ziren, Euskal Eskola Publikoaren legearekin (1993), hain zuzen, Ikastolen mundua bitan zatituta

geratu zelarik, batean publikatuak eta bestean sare pribatuko ikastola-izaerakoak (Iztueta, 2000, 26-32).

Zalantzarik ez da ikastetxe berriarekin Berastegiko hezkuntza-komunitate osoa atera zela irabazten eta aldaketa horrek jauzi kualitatiboa suposatu zuela. Irakaskuntzaren hobekuntzan parte hartu duten faktoreen artean, besteak beste, teknologia berrien ezarpena aipatu beharrezkoa da, bera izan baita irakasgaien azalpenean eta euskarri informatikoen erabileran gehien eragin duena. Laguntza ikastetxeari herriko Udaletik eta Gasteizko Hezkuntza Saitetik etorri zitzaion, horiek hornitu baitzuten ongixko haren azpiegitura materiala, ikastetxe berriko zuzendaritzari proiektu integral batean pentsatzen hasteko bidea ireki ziona, xehetasunak adeitasun handiz eman zizkidan Ane Garate zuzendariak adierazi bezala.



“J. A. Muñagorri” herri-ikastetxe berria (Lobo Altuna, 2010)

Berastegiko Udala Europar Batasunak 2002ko ekainean sortu eta finantzatzen duen “Leader Plus Programe” delakoan sartu zen eta, haren xedea nekazal gizarteko esparru desberdinak garatzen laguntzea denez, erakunde horretatik jasotako dirutza herrian teknologia berriak ezartzeko erabili zen. Internet-en bezala telebista digitalean ere. EAEko Udal gehienetan WiMax sareak daude ezarrita, Wi-fi uhina baita, mendiek suposatzen duten oztopoen gainetik, lekurik ezkutueta-raino iristen dena. Sare hori Muñagorri ikastetxean aplikatu ahal izateko, Udalak MAC ordenadoreak jarri zituen bertan, jasotako partida orokorretik hamar milioi inguruko inbertsioa eginda, 2004. urte-inguruan; Gasteizko Hezkuntza Sailak, berriz, PC ordenadoreak. Harrezkero, bada, Muñagorri ikastetxeak bi sistema operatibo dauzka eskura: MAC eta PC. Lortzen duten informazioa sistema batetik bestera pasatzen dute ekoizten dituzten produktuak prestatzerakoan eta, horrela, sistema digitalaren hizkuntza bereganatzera iristen dira. Azken mailako ikasleak trebatuak daude muntaketa guztia beren kontura egiteko MACeko programa batean; beheragoko beste mailetako ikasleek kasuan, irakasleak dira lan hori egiten dutenak. Irratsaioak nahiz bideoak Udaletxeko eta Ikastetxeko Web orrian zintzilikatzen dira eta Internet-etik edozein herritarrek jaso dezake horien edukia. Arbel digital bat ere badute, erakusteko erabiltzen dutena.

Teknologia horien erabiltzaile trebatuak dira irakasleak zein ikasleak eta, azpiegitura informatiko horretan oinarrituta, Ikastetxeko zuzendaritza Gasteizko Hezkuntzak zuzendutako Berriztatze Proiektu Globalean parte hartzera animatu zen. Hiru urteko plangintzari hasiera 2005-2006 ikasturtean eman zitzaion. Aurreko ikasturtean bukatu


zuten eta orain orduan gauzatutako egitarau bera garatuz datoz. Teknologia (IKT), Hizkuntzen Trataera Berezia (HTB), Komunitatea, eta Ingurunea dira berori osatzen duten lau zutabeak. Hezkuntza-komunitateari dagokionez, helburua herritar guztiek proiektu globalean parte hartzea da bertan finkatuak dauden elkarte eta erakundeen bidez eta, era berean, Ikastetxeko ekoizpenak herri osoan zehar zabaltzea, hala nola aldizkaria, irratsaioak, eta abar. Inguru-nearen atalean, energiaren ezagutza eta erabileraren azter-tzea hartzen da kontuan. Zutabe bakoitzak du bere egiteko pedagogikoa. HTBen ezagutzen ikasten da, Komunitatean elkarrekin bizitzen, Ingurunean izaten, bizitzen, eta IKTn gauzak egiten. Teknologiaz baliatzen dira, hain zuzen, *Xagu Xar* irratsaioa, *Errota Beltza* aldizkaria eta bideoak egiteko, arbel digitalaz baliatzeko. Aldizkaria, ikasleek maketatua izateko, egiazki txukun argitaratua da. Jadanik. 30. zenbakian doa, 1986an hasita. Ingeleseztan eta gaztelerez ere lan-txoak tartekatzen ditu, inon bada, Berastegi bezalako herri euskaldun batean egoki datorrena. Irratsaioa asteartetan ematen da, 2,30etatik 3,30etara.

Ikasle guztiek parte hartzen dute ekintza honetan. Azken batean, herri osoa inplikatu nahi da proiektu bate-rakor horretan, haurren bidez gurasoengana iritsiz. Ekintza berezien artean dago gurasoek kontulari-lanetan jartzea, haurrengan irakurtzeko zaletasuna pizteko helburuarekin.

Ehun ikaslerekin hasi zen Ikastetxe berria 1992an, duela 17 urte. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zikloak ematen dira bertan, 2 urtetik 12 urte bitartekoak. Hirugarren zikloa bukatzean, hango ikasleak Tolosako "Orixe" ikastetxera joaten dira, oraindik Obligaziozko Bigarren Hezkuntza egiteke, baina lehen ez bezala, plus

batekin, halere, PC eta Macintosh sistema biak maneiatzen ikasita eta urterik galdu gabe baitoaz. Urrats nabarmena da hori, nahiz oraindik ere, inguruko herrietatik datozen neska-mutilen eskola-porrota handia den. Badirudi mutilek joera gehiago dutela beren ikasketak lanbide-eskolatik zuzentzeko; neskek, aldiz, nahiago dute unibertsitaterako jauzia egin.

Haur-Hezkuntzako ikasleen lehen matrikulazioa



Berastegiko “J.A. Muñagorri” herri ikastetxeko datuak (Ane Garate)

Taulan ageri da ikasturtez ikasturte, azken bi hamar-kadetetan, haur berrien lehen matrikulazioak gorantz egin duela. Azken ikasturtean, hain zuzen, 2 urteko 20 haurrekin 2 ikasgela osatu dira lehen aldiz. Haur-kopuru bera eman zen 1986-87 eta 1993-94 ikasturteetan, baina orduan haur matrikulatuak adin desberdinetakoak ziren. Ikasleak orotara hartuta, 2009-2010 ikasturtean, Ikastetxean zebiltzanak 123 ikasle ziren: Haur Hezkuntzan 58, lau ikasgeletan banatuta, eta Lehen Hezkuntzan 65, hemen bost ikasgeletan. Aurreko ikasturtean baino 9 gehiago. Hauek dira irakasle-taldea osatzen dutenak: Aloña Izagirre, Maite Amundarain, Maider Mujika, Mamen Eraso, Martina Karrera, Izazkun Ezeiza, Blanca Aizcorbe, Ana Martin, Olatz Lasa (Estibalitz Lizaso), Sonia Sanz-Idoia Uralde, Arantxa Lasa, Tere Malkorra (Enara Ortiz), Euri Albizu, Lierni Agirretxe eta Maite Essery, Ane Garateren zuzendaritzapean. Guztira, 16.

Guraso-taldea 14 lagunek osatzen dute. Elkarte honek eskolaz kanpoko hainbat jarduera antolatzen ditu, ikasturte batetik bestera aldatzen joan daitezkeenak. Azken ikasturteko zerrendan (2009-2010) datozenak, hauek dira: euskal dantzak, judoa, ingelesa, eskulanak, pilota, eskolakirola, txistua, solfeoa, trikitixa eta pianoa. Herri txiki baterako aukera-sorta ederra. Udalak ere bere partaidetza badu Ikastetxearen kudeaketan, bereziki instalazioaren mantentze-lanetan, eta haren ordezkari-lanak Maixabel Arrietak egiten ditu. Ikastetxeak, bestalde, bi zerbitzu eskaintzen ditu: jangela eta haur txokoa.

3. Aisia: Larteko pilotalekuitk “Ipuliño” frontoira

Herri gehienetan, eliza edo plazaren ondoan, harrizko frontoia izaten da. Berastegin, errebotea eta arkupea bai,

baina frontoirik ez. Urrutikoak ez genituen ezagutzen, herrietik ateratzen ez ginelako, baina bai hurbilen zitzaizkigun Elduingoa, Aresokoa eta Leitzakoa. Elduain pilotari-herria zen. Txapeldun izatera iritsi zen Soroa ere ezaguna zitzaigun. Eta gu, auzoko herrietan frontoi ederrak ikusita, beti inbidiatan izaten ginen, gurean arkupearekin konformatu behar izaten genuelako. Gure aurrekoek ere, geroago ikasiz etorri garenez, irrika bera zuten, baina asetzerik ez zuten izan.

3.1. “Ipuliño–1987”. Horrela dator idatzia frontis gainean. Gezurra badirudi ere, ez da azkeneko ametsean egindakoa. Migel Larbururen alkatetza-aldian burutua izan bazen ere, ikastetxearekin batera, proiektu bateratu baten barruan eta lursail berean, herritarrek aspalditik egina zuten haren eskaria.

Izan ere, pilotak Berastegin aspaldiko historia du. Artzainek mendi-larretan pilotan egiten zuteneko aztarna toponimiko garbia, dokumentatua, Larten aurkitzen da, oraindik ere “Pelotaleku” deitzen zaion zabaldian, Goienezko borda inguruan. Bidegurutze batera iristean bistaritzen da, aurrean pinudi bat duela. Pilotaleku hauen luzerazabalerak, antza, aitzurrez artoski markatuak izaten ziren, neurri desberdinetakoak izan zitezkeenak, jokalarien nahitara. Arroilazko marra batek zeharkatzen zuen joko-eremua bi alde berdinetan zatituz (Casaubon; Sabaco, 2002, 32). Ez dakigu zuzen zein motatako pilota-jokoa izan zen hura –agian, tenislariak jokatzen dutenaren antzekoa, edo horrelako zerbait?–, baina ezin da zalantzan jarri pilotan egiten zutela, leku-izenak salatzen duen bezala. Eta hau da guri hemen axola zaiguna.



Larteko pilotalekuaren ingurua (Iztueta, 2010)

3.2. Bestalde, gauza jakina da (Salbarredi, 2005, 26), Juan Benito Gaztañondo alkateak hartu zuela plazan pilotan jokatzeko erreboteko horma egiteko erabakia 1849ko ekainaren 24an eta hura egiteko aldamenean zegoen Txiki-tonea (Gorronzena) etxea bota egin zutela. Lurra, berriz, hurrengo hilaren 16an erosi zuten. Simon Olano jaunak aurkeztutako proiektua onartu zuen Udalak. Aurreikusten zen kopurua, hau zen: 5563 erreal eta 11 marabedi. Horma honek gaineko luzera guztian hegatzat-itxurako koska bat darama, urek beren isuria atzealdera izan dezaten eta

frontisa lehor manten dadin. Antzematen da Martiñenea etxeak pusketa bat kenduta eta erreboteko hormaren gainean solairu bat altxatuta daukala. Noiz arte eta zein motatan ez dakigun arren⁸⁷, gauza segurua da garai hartan errebotean jokatzeko zela herrian, plazaren erdian ezagutu baikenuen lauza karratu bat, “bota” deitzen zaiona. Nahiz egun asfaltoak ezkutatuta daukan, argazki zaharretan garbiki agertzen da.

3.3. Alabaina, herritar gazteen pilotarako zaletasuna biziki handia izaki, Udalari behin baino gehiagotan egin zitzaion frontoi baten eskea, baina hark ekonomi baliabiderik ezarekin erantzuten zuen. Udaleko aktetan arrazoi hori errepikatzen da aldioro. Azkenean, 1934an, proiektua egiteko erabakia hartu zuen eta hori egiteko enkargua Tolosako Joakin Labaien arkitektoari eman zion. Honek 1934ko ekainaren 9ko datarekin entregatu zuen, baina berriro, dirurik ez zegoela-eta, bertan behera geratu zen dena⁸⁸. Gerra aurre hurbilean, 1936ko apirilean, asmo bera berriro zen mahai-gainean, baina orain ere betiko leloarekin erantzun zuen⁸⁹. Horretarako aurre-konturik ez nonbait. Gerra ostean, 1942an, Udalak Labaien arkitektoak egingako proiektu hura aurrera eramatea erabaki zuen aho batez. Aurrekontua 56.894 pezetakoa zen eta diru-laguntza Diputazioari eskatu zion⁹⁰.

Gipuzkoako Diputazioak, 1946ko otsailaren 16an hartutako erabakiaren arabera, 5.000 pezetako diru-laguntza esleitu zion Berastegiko Udalari, kopuru hori frontoiaren eraikuntzan erabiltzeko baldintzarekin⁹¹. Handik bi urtera, 1948an, ezohiko aurrekontu bat egitea erabaki zuen Udalak, berri bat, oraingoan 120.833,20 pezetakoa⁹², hau ere Haziendako Ordezkarri jaunak onartu bide zuena⁹³.

Zer gertatzen da, ordea, Joakin Labaien jaunaren 1934ko proiektu hura utzi eta beste hau hobesteko, aurrekontuan 14 urteren buruan 64.000 pezetako alde egonda? Zer aurreikusten da bitarte horretan?

Kontua da Tolosako Lehen Instantziako Epaitegian, 1948ko martxoaren 22ko datarekin, iragarki bat agertu zela, zioena Berastegiko “Gorrineaundia” salgai zegoela, bere baratzearekin, eta enkantean apirilaren 10ean jarriko zela, eguerdiko hamabitan⁹⁴. Prezioa: 48.800 pezeta. Alkateak jauregi hori erosteko komenentzia aipatu zuen, plazan frontoia egiteko leku aproposik ez zegoela-eta, bertan egitearen alde. Izan ere, erabakita zegoen frontoia egitea, baina zehazki non ez. Leku horri egokia iritzirik eta jakinda, gainera, erorita zegoen alboko etxea –Atanasioarena–, Luzio Etxeberria jaunarena zela eta honen ondoko baratzea Valentina Arreguirena, frontoia esparru horretan eraikitzea aurreikusten zen. Alkateak gogora ekarri zuen, bide batez, onartua zegoela azkeneko aurrekontua. Zinegotzi batzuek, bestalde, aurrerago joan ziren asmoetan eta adierazi zuten, frontoia hor egiteaz gain, errepidetik plazara datorren Goiko kalea behar beste zabaltzeko modua ere izango zela. Alde horretatik begiratuta, ibilgailuen zirkulaziorako kalea estu eta irregularra zelako, hain zuzen, interesgarria ez ezik, beharrezkoa ikusten zuten aukera horri eustea:

“Los señores Concejales (Luis Garciarena, Jose Placido Dominchin, Nicolas Lasarte y Candelario Machinea) estimaron que era en efecto digna de tomarse en consideración la idea propuesta por el sr Alcalde sobre todo cuando éste hizo ver además que si se realizase dicha obra en el lugar en que hoy se halla emplazada la citada casa ‘Gorrinea-mayor’, se podría ensanchar suficiente-

mente la Calle de Arriba, que es la entrada a este pueblo desde la carretera, cuyo ensanchamiento podría hacerse por ambos lados por hallarse la huerta separada por dicha calle de la casa, obra que sería de gran interés y es necesaria por ser dicha calle muy estrecha y además de trazado irregular, impropio actualmente para la circulación que por la misma se practica. Hicieron uso de la palabra varios señores concejales coincidiendo todos en las apreciaciones hechas por el sr Alcalde y estimando que era en efecto de notorio interés para el Municipio adquirir la finca cuya subasta se anuncia. En su virtud el Ayuntamiento acordó por unanimidad intervenir en la subasta de la Casa Gorrinea-mayor y su huerta anunciada para el día diez de este mes (abril de 1948) en el Juzgado de Primera Instancia de Tolosa, facultando a los señores Alcalde y Secretario don Jose Maria Saizar Olachea y don Jose Maria Echave Yaben respectivamente, según ellos crean conveniente, intervengan en la referida subasta, haciendo los depósitos que sean necesarios y las ofertas procedentes para la adquisición de dicha finca, siempre que el precio de adquisición de dicha finca no sea superior al de tasación de 48.800 pesetas”⁹⁵.

Esan bezala joan ziren alkatea eta idazkari jaunak enkantera, baina ez zen erosterik izan, eskatzaileek lehengo prezioa altxatu zutelako. Halere, frontoia egin eta kalea zabaltzeko proiektu bikoitz horrekin, irmo jarraitzeko asmoa berretsi zuen alkateak. Lehenengo proiektu hartan, frontoia, ez plazan bertan, baizik Udaletxearen atzealdeko lursailetan eraikitzea aurreikusita zegoen, zehazten ez den leku batean, egun “Etxe-Alai” aurkitzen den lekuan edo inguru horretan, nonbait⁹⁶. Leku hura baino egokiagoa iruditzen zitzaien beste hori. Joakin Labaien arkitektoaren

proiektua bertan behera utzi zen, egindako gastuengatik 3.250 pezeta ordainduz⁹⁷. Proiektu berriari ekiteko, ordea, lehenik behar ziren etxe eta lursailak beretu behar zituen Udalak. Xede horren harira, erabaki bikoitza hartuko du Udalak aho batez: bat, konfiantzako arkitekto bati proiektua enkargatzea, eta bi, jabeekin hitz egiten hastea⁹⁸.

Konfiantzako arkitekto hori Antonio Agirre Gaztañaga jauna zen eta honek egin zuen Goiko kalea zabaltzeko eta plazan frontoia egiteko proiektu berria 1948ko maiatzaren 31n. Udalak bere onarpena eman zion⁹⁹. Aldi berean, Gipuzkoako Osasun-Kontseiluak bere onarpena luzatu zuen, idatzita ezarriz etxe eta lursail horiek erabilgarritasun publikoari zegozkionak zirela eta, behar izanez gero, horien desjabetzea 1924ko legerian aurreikusita zetorrela¹⁰⁰.

Noizbait behar eta, halako batean Udalekoen asmoek eta eginek bat egin zuten. Azkenean, 1948ko azaroaren 6an erosi zen Gorrineaundia, bere baratzearekin, 72.000 pezetan, eskriturak Tolosako Juan Maria Araluze notarioarekin eginda¹⁰¹.

Etxe hori erostearekin batera, Udalak gutun bat bidali zion Juan Garmendia Martinkorena jaunari, zortzi egunen barruan bertan zeuzkan gauzak, zerrak eta altzairuak, handik kentzeko eta giltza entregatzeko esanez¹⁰².

Gorrineaundia erosi eta gero, hustu eta bota aurretik, hango hainbat gauza tasatu ziren, Udalaren eskabidez, Demetrio Etxeberria jaunak egiaztatu zituenak. Honela, Juliana Olaetxea andereak 7 ate, 5 beirate eta 3 marko erosi zituen 790 pezetatan¹⁰³. Segidan zutabeartekoak eta aurrealdekoak, gapirioak-eta, atera ziren enkantean, 1949ko martxoaren 10ean, prezioa 21.632 pezetatan jarriz¹⁰⁴. Enkantera ez baitzen inor agertu, berriro maiatzaren 8an

egitea pentsatu zen, baina prezioa 19.468,80 pezetara jaitsiz, ehuneko hamarreko deskontuarekin¹⁰⁵. Braulio Lezea Garziarena jaunari, “Mugica” zentralaren transformadorea handik kentzearen truke, beste nonbait lursail bat eman zitzaion¹⁰⁶; berdin Gorrineaundia etxeko baratzearen eta Errementeria etxe eta honen alboko lursailen truke ere¹⁰⁷. Neurketak egiten Jose Laskibar peritua ibili zen eta bere lanagatik 675 pezeta kobratu zituen¹⁰⁸.

Dena bideratua zegoela uste zenean, Gorrineaundia ez botatzeko debekua iritsi zitzaion Udalari Gipuzkoako Antolaketa-Planeko Kontseilutik, 1950eko martxoaren 3ko datarekin, aditzera emanaz eraikin hori Gipuzkoako Monumentu Historiko eta Artistiko bezala gorde beharrekoa zela eta, gainera, trafikorako ez zegoela hura derrigorrez bota beharrik:

“Se dió cuenta de un oficio del Consejo del Plan de Ordenación de Guipúzcoa, nº 1.926, de fecha 3 de marzo pasado, diciendo que el edificio Gorrinea-mayor que se pretendía derribar, debe mantenerse y conservarse en toda su integridad porque la Comisión Provincial de Monumentos Históricos y Artísticos de Guipúzcoa ha manifestado que merece ser declarado Monumento Arquitectónico Provincial, añadiéndose que ello no es fundamental para establecer enlace para el tráfico de camiones entre la carretera y la Plaza Mayor y apuntándose la conveniencia de que repetido edificio sea destinado a construcción de viviendas u otro fin que tienda a su conservación y mejora¹⁰⁹.

Proposamena, beraz, eraikina eraberritu eta bertan etxebizitzak egitearena zen. Udalak, ordea, erabaki horri beraren eta herriaren interesen kontra zihola iritzi zion eta,

ondorioz, Gobernazioko Ministro jaunaren aurrean helegitea ezarri zuen¹¹⁰. Udalak helegitea onartua izan zela jakinarazten zion agiri hau jaso zuen Gipuzkoako Gobernu Zibiletik 1951eko urtarrilaren 1ean:

“Visto el recurso de alzada interpuesto por el Alcalde del Ayuntamiento de Berastegui, cumplimentando acuerdo del mismo contra el de la Comisión provincial del Plan de Ordenación de Guipúzcoa, referente al derribo del edificio denominado Gorrinea mayor y otros extremos con él relacionados (...), este Ministerio ha acordado estimar el recurso de alzada interpuesto por el Ayuntamiento de Berastegui contra el acuerdo de la Comisión de Ordenación provincial de Guipúzcoa denegando o prohibiendo el derribo de la casa llamada Gorrinea Mayor. San Sebastián, 4 diciembre de 1950. El Gobernador Civil”¹¹¹.

Eskuak aske zeuzkan, bada, bere proiektuak gauzatzen hasteko. Artean erosteke zeukan Luzio Etxeberria Garzarena jaunaren jabetzakoa zen “Errebotea” etxea, bere atari eta baratzearekin¹¹². Salerosketako eskritura 1951ko azaroaren 27an izenpetu zen, Araluze notarioaren aurrean¹¹³. Lehen 1949. urtean baloratu zen prezio berean erosi zuen Udalak: 9.515 pezetatan¹¹⁴.



Gorrienaundia, Muñagorri apezpikuaren eta Txomin Jakakortexarena idazlearen sortetxea (Fototeka Kutxa)

Berastegik zuen jauregirik ederren eta sinbolikoenetako bat bota zuten, plazarako sarbidea zabaldu zuten, baina hango lursailetan egitekoa zen frontoia egin gabe geratu zen ezagutzera eman ez ziren arrazoiengatik. Oso berandu eta beste testuinguru batean etorriko da frontoi berria. Eta ez plazan, Erretore-etxearen alboan baizik, ikastetxe berriarekin batera, multzo arkitektoniko bateratua osatuz, plazagunearen esparrua zabalduz eta, oro har, herriari fisionomia

modernoago bat emanaz. Nolanahi ere, berrikuntzak eginda ere, Gorrineaundia gabe, oraingo herriko plaza ez da lehengoa izango. Hura izan, egiazki monumentu historikoa zen. Txomin Jakakortexarena (1990, 11-12), erbes-
tetik etxeratu eta gero, garrazki mintzatuko da hura bota zutenen kontra, ez bakarrik bere sortetxea zelako bakarrik, nagusiki eraikin galanta zelako baizik:

“Iakasene’ko ene aitonen alaba batekin ezkonduz geroz, enparantzako etxe eder batean bizitzen iarri ziran eta gu, iru anai ere, bizitzara etxe artantxe etorri giñan. Guda ondorengo urtetan, iru bizitzak alako etxe ederra, bere etxapeko salareto eta ormako eguzki ordulari bitxia eta guzti, gure abertzale kutsu txarrak oro garbitzeko nunbait, eraikitzeko ezerezak, baiño errausteko berebikoak izaten diran oietakoak bera bota zuten”.

3.4. Arestian esan bezala, Migel Arburu Galardi jaunaren alkatetza-aldian, 1980ko apirilaren 3ko udalbatzarrean, azaldu zen berriro frontoi estalia eta kirol-instalazioak egiteko asmoa, aurreko hamarkadetan lehen esandako arrazoiengatik egiterik izan ez zena.

Lursailen erosketa burutu eta gero, abuztuan bertan, frontoi estalia, balio anitzeko ataria eta inguruaren urbanizazioa bideratzeko, Udalak bere adostasun-agiria igorri zuen Gipuzkoako Foru Diputaziora, hango subentzio-egitarauen barruan sartzeko eskabidearekin. Hemengo Arkitektura Zerbitzuak frontoiaren norabidean aldaketa txiki bat egitea iradoki zuen, ontzat eman zena, eta proiektuaren ale bana Foru Diputazioko Kultura eta Udal Harremanetarako Sailerara igorri zen¹¹⁵.

Obrak egiteko aurrekontua 47.000.601 pezetakoa zen, partidak honela banatuta: frontoi estalia 39.871.166; balio anitzeko ataria 3.083.176; inguruaren urbanizazioa 4.126.259.



Berastegiko frontoi berria Ikastetxearen aurrez aurre
(Lobo Altuna, 2010)

Obrak enkantean hartzeko epea irailean bukatu zen eta hiru kontratista aurkeztu ziren, F. Ayerbe, Obrero S.A. eta Azpiroz eta Saralegi. Patxi Ayerbe Galarza jaunak aurkeztutako eskaintza onartu zen, 47.921.775 pezetakoa, aurrekontuko kopuruarekin parean zetorrena¹¹⁶.

Obrak hasi eta urtebete barru, frontoia eta ataria eginda zeuden. Lanean 1986ko apirilean hasi ziren eta 1987an dena bukatuta zegoen. Agudoago ezin. Kudeaketa bizkorra udalbatzaren aldetik.

Frontoia egin geroztik Berastegin indarrean datoz pilotari gazteak, afizionatu-mailan oso aurrera dabiltzanak.



Pilota-partidu bat herriko festatan (Lobo Altuna)

4. Gizarte-zerbitzuak: Gaztañondoko Jubilatuen Elkarte eta Eguneko Zentroa

Egun eraikin berean Udalaren bi gizarte-zerbitzu publiko bateratzen dira, bakoitza bere arautegi eta dinamikarekin. Bere bizitza laburrean elkargune garrantzitsua izatera iritsi da, hain auzo barreiatuak dituen herri batean zerbait berria.

Gaur eman zaion erabilera bikoitz horren aurretik, ordea, lehendik ere izan zuen Udalak hutsik eta erdi-utzita zegoen eraikin bikain horretan zerbait antolatzeko asmoa. Lehen harategi izandako eraikin hura kultur eginkizunetarako prestatu nahi izan zen, hasieran bete izan zuen eskolazereginari jarraipena eman ez-edo. Honela, Udalaren eska-bidez, Jabier Yeregi arkitektoak egin zuen Gaztañondon Kultur Etxea egiteko proiektua, denboraldi batez udal-iragarkien taulan ikusgai jarri eta gero, 1986ko abuztuaren 7an egindako udalbatzan onartu zena¹¹⁷. Proiektua Gipuzkoako Foru Diputaziora bidaltzea erabaki zen, handik dirulaguntzak jasotzeko asmoarekin. Proiektu honetan aurreikusita zegoen, hain zuzen, aski hondatua zegoen eraikina berritu eta bertan kultur ekintza desberdinetarako aretoak egitea, horien artean, bereziki, bibliotekarena. Aurrekontu orokorra 25.438.876 pezetakoa zen, horren barruan sartuta lanen arduradunaren gastuak.

4.1. Jubilatuen Elkarte

Asmo hori, ordea, ez zen orduan aurrera eraman ahal izan. Hurrengo alkatetza-aldian, Migel Agirrezabalaren lehendakaritzapean (1991-2007), hain zuzen, berrituko da Gaztañondo eraikinaren proiektua, baina oraingoan beste

asmo batzuekin. Ordurako jadanik Foru Diputazioak bideratua zeukan Zahar Etxeen plangintza zabal bat, hirugarren adinekoei zuzendua, hauek non bildua edo egona izan zezaten. Foru Diputazioak horretarako laguntza ematen zuen, baina Udalari uzten zion zerbitzu horien kudeaketa. Jubilatuentzako diru-laguntzak, bada, Udalera joaten zirenez, berari zegokion zerbitzu horiek zuzenean kudeatzeko ardura. Foru Diputazioak ikusi zuen Berastegin bazela horretarako eraikin bat egokia eta, diru bat emateko modua bazuenez gero, elkarrekin harremanetan jarri ziren erakunde biak. Orduan sortu zen proiektuaren asmo berritua, Gaztañondo erakina, lehen Kultur Etxe bezala planteatu zena, orain Hirugarren Adinekoentzako zerbitzu-etxe bihurtzearena, alegia.

Xede espezifiko horrekin egin zen proiektua. Diputazioak Jubilatuen Elkarte, Eguneko Zentroa eta Etxebizitza Babestuak egiteko eman zuen dirua, baina beheko solairua bakarrik geratu zen bukatuta. Bestalde, kanpotik egindako zarpeoa kenarazi egin zuten Diputazioko arduradunek, hura zen harrizko etxe hark kanpo aldetik horrelako berriztatzea eskatzen ez zuelako. Diru bat, antza, alferrik xehatu zen. Eraikinak bere hartan jarraitzen zuen, zati bat eginda, baina lehen bezain hutsik, erabilerarik eman gabe.

Gero, San Isidro egunean bazkaria egiteko deia etorri zen batean, Basurde elkartean ez baizik Gaztañondon egitea erabaki zuen Udalak, pentsatuz jendea hara bilduz gero, hura martxan jarriko zutela. Bazkal ondoren, Udalekoek jadanik alkatetzan esperientzia zuen Mikel Larburu jaunari hura martxan jartzeko proposamena egin zioten. Baietz, zerbait egiten saiatuko zela, baldin eta horretarako borondatezko lan-talde bat osatzen bazen. Elkartu ziren zortzi

edo bederatzi lagun eta arduradunen zerrenda osatu zen, lehendakaria, ordezkoa eta diruzaina izendatu ziren eta, Elkartea sortzeko lege-izapideak bete, eskaera-inprimakia Diputaziora bidali eta handik onarpena jaso ondoren, abian jarri zuten Jubilatuen Elkartea. Beheko solairua egina baitzegoen, han kokatu zen Elkartea, ate batez bitan banatua: batean solasaldi eta aisiarako txokoa, eta bestean hainbat ekintza egiteko areto zabala: yoga, tailer-lanak, hitzaldiak, eta abar.

Elkarteko Batzordeak ematen ditu zuzenean urteko kontuak Diputazioari zein Udalari. Lehendakaria ardurazten da eginkizun horretaz, agentzia baten laguntzarekin kontatuz. Baina, berez, Udaleko Gizarte-Laguntzari dago-kio lan hori egitea eta une honetan horretan dabilta. Jubilatuen Elkarreak akordio bat dauka egina Udalarekin eta, horren arabera, lokal bat utzi eta diru-laguntza batzuk ematearen truke, gainerakoa Elkarreak berak bideratu behar baitu. Batzordekoak autonomoak dira beren kudeaketan. Diputazioari eman beharreko kontuak Norbanakoen Urteko Irabaziekiko Aitorpena eginez betetzen ditu.

Azken urteotan 100 bazkideren inguruan dabil elkartea eta hainbat ekintza antolatzen dira bertan: hitzaldiak, txangoak, ikastaroak, tailerrak, eta abar¹¹⁸. Arian-arian Hirugarren Adinekoen topagune garrantzitsua izatera iritsi da, batere erraza ez dena herriko etxaldeak auzotan zeinen barreatuta aurkitzen diren kontuan izanda.



Gaztañondo etxea, berriztatuta. Jubilatuen Elkarte eta Egunekeo Zentroaren egoitza (Lobo Altuna, 2010)

4.2. Egunekeo Zentroa

Bigarren solairua egiteke geratu baitzen, Diputazioko arduradunek obrak erabat bukatzeko zenbat diru beharko zen kalkulua egin zuten. Arkitektoak proiektu berria egin zuen eta bigarren ekinaldian burutu zen Egunekeo Zentroa kokaturik aurkitzen deneko goiko solairua. Obra honek ere oinarrizko oker bat zuen eta zen bertan ezarritako igogailua txikiegia zela gaixo eta ezinduen ohe txiki eta gurditxoak sartzeko eta beste nonbaitetik egin behar zitzaiola sarrera Egunekeo Zentroari. Lehendakariaren proposamenari jarraiki,

goiko aldetik egin zitzaion, automobilak kanpotik bertaraino joateko moduan. Gaztañondo eraikinak, bada, bi sarrera autonomo dauzka: bata Jubilatuen Elkartekoa, bestea Eguneko Zentrokoa. Barrutik biak eskailera batez elkartuta daude. Elkarte bakoitzak funtzionamendu autonomia eramaten du.

Eguneko Zentroak beste modu batera funtzionatzen du. Orain azpikontrata bezala Udalarentzat lan egiten duen enpresa pribatu batek kudeatzen du. Hori, berez, Udalak eraman beharko luke, baina eginkizun espezifikoko horretarako ez baitu azpiegitura egokirik, horrelako lanetan espezializatua dagoen “Eulen” etxearekin dauka kontratua egin. Enpresa honek Donostian du bere egoitza eta zerbitzu-mota desberdinak eskaintzen ditu: zaintzakoak, garraioak, medikuak, eta besterik. Gaztañondoko Zentro honen helburuak honela zehazten ditu Paki Masak (2007, 44):

“Helburu nagusienetako bat, beraien etxeetan bizi eta arreta pertsonala zein psikologikoa edo emozionala behar dutenei laguntza osoa eskaintzea. Beste helburu bat, edadeko pertsonaren autonomia mailari eustea, erreabilitazioa eta bere adimen eta mugikortasun ahalmenak landuz. Eta azken helburua, edadedo pertsonarekin bizi diren sendikoei laguntza profesionala eskaintzea, zaintzaile gisa ari direnek atsedena hartu ahal dezaten eta familiei, edadetuaren ahalmenak zaintzeko, behar dituzten ezagupenak eta aholkularitza emanez”.

Gaztañondoko Zentro hori 20 lagunentzat dago prestatua eta 2007ko maiatzaren lehenean jarri zen martxan, herrikoentzat bezala Ibarratik gorako herrientzat

ere. Egunez bakarrik dago irekia, goizeko bederatzietatik arratsalderako bostak eta erdiak arte. Egun etxebizitza edo gela autonomo babestuetan lagun bat aurkitzen da, bertan bizi dena; Eguneko Zentrora, berriz, hiru lagun etortzen dira.

5. Asmo berriak: Udaletxea eta plazagunea berritzeko proiektua bidean

Laugarren aroa Udalean Aitor Lizarza Armendariz alkaterekin hasten da 2007ko maiatzaren 27ko hauteskundeen ondotik. EAK 320 boto lortu zituen; EAEk, 237. Udalbatza honela osatua geratu zen (Azpiroz, E., 2007, 43): EA-Independenteak taldetik bost lagun (Aitor Lizarza, Sebas Garziarena, M^a Isabel Arrieta, Mateo Esnaola eta Jose Antonio Garmendia) eta EAetik lau (Joxe Garaiburu, Olatz Etxeberria, Maite Amundarain eta Jabier Mujika). Udalbatza honen proiektu nagusia, *Aidanen* aldizkarian (2009, 19-21) iragarria eta grafikoen bidez azalduta datorrenez, Udaletxea eta plazagunea osoki eraberritzea izango da. Ahal den guztia salbatuko da lehengo zaharretik: Batzar-Aretoko oholtza, fatxada nagusiko harlanduzko hormak eta burdinazko balkoi jarraitua eta, ahal den neurrian, baita aski hondatua dagoen eta solairu guztiak lotzen dituen eskailera nagusia ere. Solairu bakoitzak izango ditu bere zerbitzu bereziak.

Egia esan, lehendik ere egin zen Udaletxea barrutik bere osoan berritzeko proiektua Migel Larbururen alkatetzaldian. Bera lanpetua zebilelako, proiektu hori Jabier Yeregik beste bati eman zion, Donostiako Victoria Eugenia, Príncipe antzokia-eta, berritu zituen Zubiria arkitektoari,

hain zuzen. Honek, Udaletxearen berriztatzea Udalekoek aurkeztu zituzten asmoen arabera diseinatu zuen, eskailerak, ez jatorrizko egituraren bezala bazterretik, baizik erditik jarrita, eta horrela. Arkitektoak egindako proiektua ez bide zen, antza, Udaletxeari zegokion horietakoa, eskaileretan marmolak eta guzti zituela, eta Foru Diputazioko Arkitektura Sailari ez zitzaion egokia iruditu. Proiektua bueltan etorri zitzaion, esanez oso diru gutxi zela, Udaletxe horrek gehiago merezi zuela, eta proiektua handitu eta berritzeko. Oraingoan Udaletxea barrutik dena, behetik goraino, berritzeko proiektua egin zuten, baina, alkatetzako azken urteak zirenez eta diruz osatzen ez, atzera egin zuten beren ondorengoak zorretan uzteko beldurrez. Eta bere hartan geratu zen.

Hori aurrera eramango duena, hain zuzen, oraingo udal-taldea izango da, lehengoa baino harago doan beste proiektu zabalago eta aurrekontu ausartago batekin. Jadanik Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan daude, Markel Olano diputatu nagusia bertan izana da eta, azken berrien arabera, Berastegiko Udaletxea Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrean monumentu historiko bezala inskribatua izan da eta honek, noski, asko erraztuko du aurreikusitako dauden berriztatze-lanak egitea. Ezinbestekoa da barrutik erabat berritzea, zati asko aurkitzen baitira erabilera jakinik gabe guztiz alferrik galduak. Udalerbitzuak oro bertan kokatu eta eskaintzea da orain proiektu honen asmoa. Hor sartuko dira administrazio-bulegoak, udal-biblioteka, medikuaren kontsultategia, KZgunea; halaber, hitzaldiak emateko, bilkurak, tailerrak, ikastaroak eta beste hainbat gauza egiteko gelak.

Obra hori egiteko aurrekontua 3.000.000 eurotakoa da, Berastegi bezalako herri txiki batentzat biziki handia.

Udalak diru-laguntza Gipuzkoako Foru Diputaziotik, Eusko Jaurlaritzatik eta Espainiako Gobernutik jasotzea espero du. Udalak, bere aldetik, milioi bateko mailegua atera beharko du, gastuak osatzeko. Jadanik eskuratuak ditu 800.000 euro eta obraren lehen aldiari ekitekotan dira 2010eko udazkenean-edo, ondoko 4 edo 5 urtetan bukatzekotan (Belaunzaran, 2009, 25).

Aitor Lizarza alkatea itxaropentsu zuzentzen zaie herritarrei bere 2010eko Urte Berri eguneko agurrean:

“Udaletxeko eraberritzeari dagokionez, Etorlur-ek, Foru Aldundiko Elkarteak, hartuko du lanen ardurua Landagipuzkoa 32 programaren bitartez; exekuzio proiektua idazteari ekingo diogu; bertako kontzejuko maiezterrekin ere adostasun batera iritsi gara; diru laguntzak lortzeko atak jotzen hasi gara; mailegu bat eskatzeko aurrekontuak eta diru kontuak prestatzen ari gara... krisi garai honetan, finantziarioa lortzea zaila bada ere, helburua 2010ean Udaletxea beste eraikin batera moldatu eta Udaletxeko eraberritze lanak hastea izan behar du” (Lizarza, 2010).

Bestalde, Udalak, 2010eko martxoaren 31n egindako batzarrean, “Herria antolatzeako plan orokorra” aurkeztu zuen, datozen 8-10 urte hauetan Berastegik izan dezakeen hiri-garapena gidatuko duena. Proposamenen artean, herri barruan ibilgailuen trafikoa hobetzeko asmoz, herrigunean Eguzkialde osoa zeharkatuko duen errepide berri bat egitea aurreikusten da eta, ekipamenduen sailean, berriz, lur urbanizagarrian polikiroldegi berri bat egitea, frontoia, futbol eta saskibaloizelaiak, aldagelak eta gimnasi gelak barne izango dituen. Orain frontoia dagoen lekuan etxebizitzak egingo lirarteke. Industrigunetzat Artaleku kalifikatzea

proposatzen da herriaren landa-egitura bere osotasunean babestuz.

Aurreikusita dauden obra horiek bukatuko direnean, beste urrats garrantzitsu bat emango da plazaguneko urbanizazioaren sailean. Bego ikuskizun.

IX

ETORKIZUNARI BEGIRA

Ikusiz etorri garenez, industriak eta zerbitzuek Berastegiko populazio aktiboan egin duen erasanak asko aldatu du oraindik ere nekazal itxura bere osotasunean gordetzen duen herritarren bizimodua, nekazaritza eta abelazkuntza hutsetik bizitzeari utzi baitio. Berastegiko landuna, egun, lanera kanpora joan eta etxera erretiratzen dena da. Baserrikoa bere lursailez okupatzen da, baina ordu libreetan eta bigarren mailako lan osagarri bezala bakarrik. Baserri-inguruan dauden baratzeak eta soro-mutur batzuk salbu, lehen laborez jantzia zen Berastegiko zelaia egun belardi huts bihurtuta dago.

Gaurko mandiotik etorkizunera begira jarrita, zer? Azken hamarkada hauetan, industriaren garapena gehienbat Tolosako iparraldean kokatuak dauden herrietan –Aduna, Zizurkil, Asteasu, Billabona, Iruran-eta–, eman da, neurri batean, Donostialdeatik hurbil egoteak eraginda; Tolosa eta Ibarra, aldiz, alderantzizko panorama antzeman daiteke, industriaren gainbeherarena, alegia, papergintzaren sektorea

